

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



1990, 1
35. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Elkano, 5 - 1. - 48011 Bilbo

Argitarapenen Batzordea / Comisión de Publicaciones

Burua: Jean Haritschelhar

Kideak: Juan Mari Lekuona

J. M. Satrustegi

J. A. Arana Martija

Pello Salaburu

F. Luis Villasante

Endrike Knörr

Patxi Altuna

Pierre Charriton

Eragile eta Idazkaria: Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua: BI-1409-90

Fotokonposaketa: Rali. Particular de Costa, 12-14 - 48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza. Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

Maketazioa eta orrazketak: R. B. U.

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Juan Luis Zuzaeta, <i>Jose Antonio Arana Martija Euskaltzaindian sartzea</i>	11
Jean Haritschelhar Euskaltzainburua, <i>J. A. Arana Martija Euskaltzaindian sartzea</i>	13
Jose Antonio Arana Martija, <i>Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat</i>	15
Fr. Luis Villasante, <i>J. A. Arana Martijaren sarrera-hitzaldiari erantzuna</i>	35
Tomas Uribeetxebarria, <i>J. A. Arana Martija Euskaltzaindian sartzea</i>	41

EUSKALTZAINDIAK HERRI AGINTEEKIN EGINDAKO HITZARMENA

Eli Galdos, <i>Euskaltzaindiak Herri Aginteeekin egindako Hitzarmena</i>	45
Jean Haristchelhar Euskaltzainburua, <i>Euskaltzaindiak Herri Aginteeekin egindako Hitzarmena</i>	47
Imanol Murua, <i>Euskaltzaindiak Herri Aginteeekin egindako Hitzarmena</i>	51
Aladino Colin, <i>Euskaltzaindiak Herri Aginteeekin egindako Hitzarmena</i>	55
Jose Antonio Ardantza Lehendakaria, <i>Euskaltzaindiak Herri Aginteeekin egindako Hitzarmena</i>	59

ANTONIO DE TRUEBA ETA AITA JOSE MARIA ESTEFANIARI OMENALDIA

Jean Haritschelhar Euskaltzainburua, <i>A. de Trueba eta J. M. Estefaniaren omenez</i>	67
Jose Antonio Arana Martija, <i>Truebaren mendeurrena</i>	69
Patxi Altuna, <i>Jose Maria Estefania Zabala (1889-1942)</i>	75

JOSE AGERRE ETA MIGEL JABIER URMENETARI OMENALDIA

Aladino Colin, <i>Jose Agerre eta Migel Jabier Urmenetaren omenez</i>	101
Jean Haritschelhar Euskaltzainburua, <i>J. Agerre eta M. J. Urmenetaren omenez</i>	103
Patxi Zabaleta, <i>Jose Agerreren omenez</i>	105
Conchita Ochoa, <i>Aguerre y el Vascuence</i>	115
J. M. Satrustegi, <i>Migel Jabier Urmenetaren omenez</i>	119

BATZAR TXOSTENAK

Piarres Charritton, <i>ohar bat edo beste euskal literaturaren inguruan</i>	127
Jean Louis Davant, <i>sonetoaz bi argibide</i>	137

BESTELAKO TXOSTENAK

Eusebio Osa, <i>tonu-multzoak gramatikan</i>	151
José Antonio González, <i>Sierra Cantabria-Sierra Toloño</i>	163
Michel Morvan, <i>la question du préfixe nomino-participial m- en kartvele et en Basque</i>	167
Julio Garcia Garcia de los Salmones, <i>euskaraz potentzialitatea adierazteko bi bideen arteko erabilerari buruzko azterketa konparatiboa</i>	171

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

<i>Euskaltzaindiaren Batzar-Agiriak, 1989-VII, IX, X, XI, XII.</i>	203
--	-----

BERRIAK

Patxi Oroz Arizkuren, <i>temas prerromanos en la Península Ibérica.</i>	227
Txomin Peillen, <i>Aita Junes Casenave Harigileren hiztegia.</i>	231

Euskalerriaren Jakintza lan liburukien berrargitarapenaren aurkezpena

Jean Haritschelhar Euskaltzainburua, <i>“Euskaleñiaren Yakintza” 3. argitarapenaren aurkezpena.</i>	237
J. M. Satrustegi, <i>“Euskaleñiaren Yakintza” berrargitaratuaren aurkezpena</i>	239
Juan San Martin, <i>Platon euskaratua, Zaitegiren eskutik</i>	245
Jose Luis Lizundia, <i>1990.urterako Euskaltzaindiaren egutegia . . .</i>	249
Alfonso Irigoien, <i>Federiko Krutwig “Homero 1989” sariaren irabazle Grezian.</i>	251
Alfonso Irigoien, <i>Bilbao toponymoaz eritzi emaita.</i>	253

HILBERRIAK

Juan San Martin, <i>Juan Garmendia Kortadi (1898-1989)</i>	257
--	-----

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Gernika-Lumo, 1989-VII-28

**JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Gernika-Lumo, 1989-VII-28

Juan Luis Zuzaeta, herriko Alkatea

Jaun andere guztioi agur:

Gaur hemen biltzen gara gure hizkuntza dogula atxaki, gure euske-
rea, eta atxaki ederra bada, baita ederra biltokitzat hartu dogun jauregi
eraberritu hau.

Euskaltzain izateak konpromezu bat markatu egiten dauala esan
daiegu. Baina azken baten euskararen aldeko bizitza baten konpromে-
zuari zor jakon ziurtapena egitea da.

Gernika-Lumotik badira hainbat euskaltzaindiari eta euskarari bizitza
eskaini deutoenak: Seber Altube, Karmelo Etxegarai, Aita Villasante
(Errenteriko Txautxi etxeko semea), eta oraingoan Gernika-Lumoko bes-
te seme bat dogu euskaltzain egiterakoan sarrera hitzaldia bere herrian
egiteko bildu gaituena: Arana Martija'tar Jose Antonio. Gaur egiten
jatzun ziurtapen honegatik zorionak bihotzez gernikarren izenean eta
aurrerantzean ere izan daigula aukerarik gernikar beste seme batzu ere
honelakoetan ikusteko, gure hizkuntza bizirik diraua azalduko jakulako.

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Gernika-Lumo, 1989-VII-28

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburuaren sarrera hitzak

- Tomas Uribeetxebarria jauna, Bizkaiko Kulturako Foru Diputatua.
- M.^a Karmen Garmendia anderea, Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia.
- Juan Luis Zuzaeta, Gernika-Lumoko Alkate jauna.

Hirugarren aldikotz biltzen gara aurten euskaltzain berri baten gutaratzeko. Joan den Urtarrilean Donostiako udaletxean Ibon Sarasolak egiten zuen sarrera mintzaldia. Apirilaren lehenean Baionako udaletxean Txomin Peilleni egiten ginion ongi etorria. Donostia eta Baiona, bat Gipuzkoako hiriburua, bertzea Iparraldekoa. Eta gaur Gernikan, euskaldun guztien hiri sainduan, Bizkaiko Foru Aldundiak utzi digun jauregi eder honetan elgarretaratuak gara bizkaitar bat, hobeki erran, gernikar bat ofizialki sartzen baita Euskaltzaindian.

Agurtu nahi ditut Euskaltzaindiaren izenean gurekin dauden agintariak. Zu lehenik Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Kultur Diputatua eta parada honetaz baliatzen naiz eskerren bihurtzeko jauregi hau estreinatzeko aukera ospakizunarentzat eman diguzulakotz. Zu ere M.^a Karmen Garmendia anderea ez diozulakotz sekulan laguntza ukatu Euskaltzaindiari. Agurtu nahi zaitut zu ere Juan Luis Zuzaeta Gernikako Alkate jauna; eskerrak bihurtzen dizkitzut udaletxea gurea egin duzulakotz goiz honetan gure hilabeteroko bilerarentzat eta diotsut pozik entzun ditugula zure ongi etorritzko hitz sarkorrak.

Ez da lehen aldiz biltzen dela Euskaltzaindia Gernikan. Igaz hemen egin ziren estilistikazko jardunaldiak. Hemendik ez hain urrun Foruan lehen biziko barne jardunaldietan aita Villasante orduko Euskaltzainburuaren inguruan ikusi ginuen zer izan zitezkeen, etorkizunari begira, Euskaltzaindiaren xedeak eta ikerketak.

Duela orain bederatzi urte Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak Juntetxean hasi ziren eta hain zuzen ere han mintzatu nintzen “Euskara-

ri buruzko ikerketak gaur egun” zela aztertu nuen gaia. Jardunaldi horietarik sortu zen liburu mardul bat *Iker 1* deitua. Geroztik bertze lau agertu dira eta bide nabar aipa nitzazke *Orotariko Euskal Hiztegiaren* bi liburukiak, Euskal gramatikaren bi liburukiak, Onomastikako lau liburak, ahortzi gabe *Euskera*, Euskaltzaindiaren agerkaria. Horiek guztiak Euskaltzaindiak egiten dituen lanen lekuko dira.

Barkatuko didazue aipatzen baldin badut orain Gernikaz daukadan oroitzapen pertsonal bat. Frankismo garaia zen. Bilbon mintzatu ginen gau batez Mitxelena eta ni Julio de Urkijori eginikako omenaldi batean. Biharamunean etxerako bidea hartu genuelarik elgarrekin Koldo hasi zen kondatzen gerla zibilean bizi izan zituen gertakariak. Ez genuen bide zuzena hartu Gernikatik pasatu bai-ginen. Utzi genuen beribila plaza nagusia eta oinez igan ginen juntetxeraino, Zuhaitzaren aintzinean zutik egon ixiltasun haundienean. Lehen aldia zen Gernikara etortzen nintzela. Ez ditzazket ahortz ez lehen aldi hori ez eta orain zendua den orduko lagun adiskidea.

Aipatu nahi nituzke ere Gernikan sortu edo bizi izan diren euskaltzainak, Karmelo Etxegarai, Bonifazio Etxegarai eta euskarak ukan duen gramatikalar haundietarik bat, Seber Altube Gernikako alkate izana. Orain gutartean dugu aspaldi honetan euskaltzain izendatua, 1951.an hain zuzen, duela beraz 38 urte, Aita Luis Villasante, hemezortzi urtez Euskaltzainburu izana eta orain Euskaltzaindiaren Iker Sailburua. Jose Antonio Arana Martija, euskaltzain berriari erantzunen dio eta beraz gaurok bilkura honetan bi gernikar mintzatuko dira.

Igaz, urriaren 28an, Euskaltzaindiak hautatu zuen Jose Antonio Arana Martija Gorostiagak hutsik utzi zuen alkiaren betetzeko. Bi hilabetearen buruan Euskaltzaindiko Zuzendaritzaren hauteskundeetan Diruzain izendatua izan zen. Egia erran eta hemen nago lekuko izendapen ona izan da. Lanari lotu zaio kar haundirekin. Bagenekien langile porrokatua zela bibliotekan erakutsirik bere ahal ederrak, nahiz liburugintzan, nahiz erakusketa mailan; badakigu orain diruzaintzan erakusten duela behar den kementa eta jakituria, legegizon gisa menderatzen dituela, gu bezalako batzuri arrotz agertzen zizkigunak. Lankide ona Zuzendaritzan, lankide ona ere ikerketetan dakienarengatik, bai euskararen aldetik, bai musikarari gisa. Ohartu gara honetaz Herri Literaturari buruz Billabonan egin diren azken jardunaldietan.

Hona zer pentsatzen dudan orain mintzatuko zaigun euskaltzain berriaz. Azkenik sartua, hautatu du erantzunaren emaiteko gutartean dagoen zaharrenetarik bat, Aita Villasante. Gernikan beraz Gernikarren arteko elkarrizketa entzun dugu.

Ongi etorri Jose Antonio Arana Martija Gernikako euskaltzain berriari.

EUSKALTZAINDIKO AULKIEN HISTORIAZ HURBILTZE BAT

EUSKALTZAIN SARRERA HITZALDIA

Gernika-Lumo, 1989-VII-28

Jose Antonio Arana Martija

“Eskerrak, lagun maiteak, aulki honetan eserazi nauzutelako. *Ziri* eta *sari* dudala uste dut zuen hautatze hau: *ziri*, aurrerantzean orainarte baino ere gogorrago lan egin dezadan; *sari*, lan egin ditudanen ezaugarritzat”. Berba hauek duela hirurogeitamar urte esan zituen Azkue jaunak, Euskaltzaindiak bere lehen bileran, 1919.eko Urriaren 7an, lehen Euskaltzainburu izendatu zuenean. Egia esan, nik egin ditudan lanak ez dira Azkuek egindako hainakoak, eta beldur naiz merezi ote izan dudan saria. Baina sartu didazuten *ziria* bai dela tamainakoa! Lehengo eskasia gainditzeko egin beharko ditudan neurria nik neuk ere ez dut oraingo honetan susmatzen, euskarari buruzko ikerketa eta zaingoetan hainbat egiteko bai dut eta bai dugu, euskaltzainkideok.

Baina geroakoak gero, luzamendutan ibili gabe, jakina, beti gerokotz uzteak zenbat kalte egiten duen Axularren jakinerazpenetik dakigu eta. Egunetako egun honetan atsedean bat egiteko baimena eskatzen dizuet, eskerrak emateko baizik ez bada ere. Euskaltzaindiari zor diodan eskerra, ezin bestean, gogo beroz eta ekinalean erakutsi beharko diot, berba hutsetan geratu barik. Baina badut une honetan beste batzuei ere nere eskerrona adierazteko beta eta beharra. Lehendabizi Bizkaiko Diputazioari, ospakizun hau eratzeko aukera aukeran eta betaz Jauregi eder hau utzi digulako. Ez dugu zikirri-makarra eta itoka toki hau gaurkorako aukeratu. Lumotarra naiz eta Lumon nahi nuen hitzaldi hau irakurri, elizate hau bait da euskaraz uria inguratzen duena. Bestalde hemendik berrehun metrotara jaio nintzen, nere aitita Meliton Martijak 1916an eraiki zuen etxean. Eta etxe horrek bazeukan Jauregi honekin zerikusirik: hemen bizi zen Maria Azpiroz andereari, Montefuerteko Kontesari hain zuzen, erosi zizkion aitatik 1915ean Saraspeondo eta Zazpizgon izeneko soroak, ni geroago jaio nintzen etxea eraikitzeko. Beraz, jauregi honen ondarea izandako lurralde gainean etorri nintzen mundura. Allendesalazar jaunaren alarguna zen aipatu Maria Azpiroz anderea, Angel Allende-

salazar bibliografoaren familiakoa. Ohorezkoa dut, beraz, gizon ospetsu horren etxean hitzaldi hau irakurtzea.

Eskerrak baita ere Gernika-Lumo uri-eleizateko agintariei, ekintza hau antolatzeko eta burutzeko eman didaten harrera onagatik. Harro egon gaitzke lumotar eta gernikarrok azkenengo 25 urteotan Euskaltzaindian sartzen den bizkaitar bakarra neu naizelako. Baina badugu harroago izateko zioa ere, bi bait gara euskaltzain gernikarrak, bestea erantzuna emango didan Luis Villasante Kortabitarte delarik. Euskal Herri osoan bi euskaltzain dituzten herri bakarrak Gernika-Lumo, Tolosa, Hazparne eta Baiogorri dira, baina damu gaitzez, ez genuke harrotasun larregirik agertu behar Gernika ez baita Euskal Herrian herririk euskaldunena. Garau batek ez du garautegia osotzen eta gure garautegia gainezka ikusi nahiko genuke. Dena den, erostaka ibiliaz ez dugu ezer egiten eta itsumustuka barik geldi geldika lortu behar duguna da Euskal Herriaren bihotza den Gernika euskaldunen eredua ere izatera iristea.

Ez nituzke ahaztu nahi une honetan gernikarrak jaiotzez izan ez arren, Gernikan bizi izan ziren eta gure kanposantuan lurperaturik dauden euskaltzainak: Sebero Altube Lertxundi, arrasetaarra, Gernikako Alkatea izan zena, eta neretzat une honetan aipagarri eta maitagarriena, bere aulkia, Juan Gorostiagak bete ondoren, neri gaur hartzea dagokit eta. Besteak, Karmelo Etxegarai Korta, azpeitiarra, eta bere anaia Bonifazio, zumaiarra, izan ziren. Ez naiz orain hauen aipamenekin luzatuko, hauek idatzia bai dut lehendik zerbait. Gogora ditzagun baita ere, epe laburrez baino ez bada ere, Gernikan bizi izan ziren Erraimun Olabide eta Endrike Knörr. Lehenaren aholkuari zor dio nere emazteak Maiteder izena izatea, alaba nagusiak ere hartu duena, eta bigarrena "Seber Altube" ikastola sortu berrian maisu izan genuen gure ohoretan.

Izan ditu Gerniak beste euskalzale eta euskal idazle batzu ere. Gaur egun zazpi euskaltzain urgazle ditugu Gernika ingurukoak edo hemen bizi direnak: Jose Basterretxea "Oskillaso", Julene Berrojalbiz, Kepa Enbeita, Juan Angel Etxebarria, Bitoriano Gandiaga, Ignazio Omaetxebarria eta Joan Mari Torrealдай. Gernika eta inguru hurbila hartzen dut, jakina, izen hauek aipatzeko. Eta euskaltzainak izan ez arren, hemen izan eta ditugun idazleak ere aipatu beharko ditudalakoa nago: XVIII. mendean, Sebastian de la Gandara; XIX. mendean, Domingo Kanalaetxebarria, Angel Allendesalazar, Pedro Antonio Hormaetxe, Jose Antonio Ozollo. Ezagunak ditugu gure mendeko hauek: John Aldekozea, Balentin Aurre, Julio Bareño, Luis Basabe, Sabino Berasaluze, Angel Bidaguren, Bitor Egurrola, Jon Enbeita, Jose Ramon Etxebarria, Jose Antonio Gandarias, Jabier Gorostiza, Estanislao Guarrotxena, Mikel Hernandez Abaitua, Jaime Kortabarria, Zesareo Miangolarra, Jose Antonio Oar-Arteta, Juan Martin Pertika, Juan Ruiz de Larrinaga, Deunoro Sardui, Gabino Seijo, Laura Uruburu, Gotzon Urrutia eta Jose Maria Zabala-

Arana. Ahaztu ezinezkoa da, baita ere, espetxean dagoen Karlos Gorri-
do itzultzailea. Ez dira asko, benetan, baina euskara ernaminean jartzeko
beste bai. Guzti hauei eskerrak eman behar dizkiet eta eman behar
dizkiegu, zinez.

II

Euskaltzaindiak 1981.eko Urtarrilaren 24an onartutako Barne Errege-
len 44. artikulua dioenez, euskaltzain berriak zaharraren (zeinen ondoko
bezala sartzen den) aipu edo oroitzapena egin beharko du. Begi hutsez,
Juan Gorostiaga Bilbao jaunaren aipamena egin beharrean naukazue,
entzuleok. Baina araudia beteaz batera, gogo beroz beteko dudala eginki-
zun hau zin egiten dizuet. Gorostiaga euskaltzain jauna Bilbon hil zitzaiz-
gun 1988.eko Ekainaren 7an eta haren hutsunea betetzeko euskaltzain
hautatua izan nintzen Donostian urte bereko Urriaren 28an. Orduan
leporatu nuen lehen aipatu ziri eta saria, hots, karga eta kargua.

Aspalditik ezagutzen nuen Juan Gorostiaga apaiza. Arkeologiaz ardu-
ratzen nintzen garaian zen. Joxe Migel Barandiaran-ekin Atxetako haitzu-
loan hondalanetan nenbilerarik, Juan Bautista Merino Urrutiarekin ere
haizerrotak zirela eta ikerketa batzu burutu nituen. Geroxeago, 1966an,
Gorostiagaren *Flaviobriga, hoy Forua-Gernika* lana irakurri nuen eta gaia,
nola ez, neretzat interesgarria zenez, gutunetan hasi ginen biok. Beragaz
Getxon egoteko parada izan nuen, ez nahi nuen besteko astitsua, baina
bai gizon jakintsua eta kezkatua zela ikusteko askia. Ezebilen ezeginean
gizona, paper artean su ta gar baizik.

Deustun jaioa zen 1905.eko Martxoaren 5ean. Durangoko Jesulagu-
nen ikastetxean egin zituen lehen ikasketak eta Comillas-en burutu,
Teologiazko Lizenziatura bertan amaituz. Apaiztu ondoren Erromara
joan zen Idazki Santuak eta Asiriologia ikasketa bereziak ikertu eta
meneratuz. Handik hona itzuli berria zelarik, euskaltzain urgazle izenda-
tu zuten orduko euskaltzainek 1932.eko Urtarrilaren 29an. Izendapena
eta lankidetzat bateratsu etorri ziren, 1933.eko **Euskera** agerkarian bere
lehen lan bat ikusten bait dugu, landu berria zuen arloa eta euskara
bateratuz: *El euskera y el sumero*. Hurrengo urtean, agerkari berean eman
zigan hizkuntzaren arkeologiaz zerikusirik daukan lan bat, hots, *El testi-
monio de la lengua en la prehistoria*. RIEV eta beste aldizkari batzuetan
ere parte hartzen hasi zen gerra aurrean.

Baina hodei mordo beltzak astrapalaka heldu zirenean erbestera joan
beharrean aurkitu zen 1937.eko Ekainean Santanderetik Bordelera eta
hemendik Donibane Garazira ihes eginik. Hemen, Iñaki Azpiazu eta
Alberto Onaindia apaizekin talde bat osotuz, desterruan zeuden apaizen-
tzat *Anaiak* aldizkaria sortu zuen, hizkuntza ikerlanetan ere jarraituz.
“Euzko Enda” aldizkarian honako hauek eman zizkigun 1939an: *Intérès*

histórico de la lengua vasca, Literatura primitiva vasca, El nombre de la Patria, Los nombres vascos y el concepto de la Divinidad, La semana vasca y la medición del tiempo. Baina lanaro hau ere amaitu zitzaion 1940.eko Maiatzaren 20an, Munduko Lehen Gerraren eraginez Cubara jo behar izan zuenean. Ameriketara 10 urtez bizi izan zen, gehienak, 1943an hasita, Mexikon eman zituelarik, Tekiskiapan parrokian indioekin apapuan bizirik.

Herriratu zenean, Altuberren ordezkari izendaturiko Pablo Zamarripa euskaltzaina 1950.eko Abuztuan hil zen, eta hutsune hau betetzeko, Azkue, Krutwig, Seminario de Rojas eta Lekuona euskaltzainek Juan Gorostiaga izendatzea proposatu zuten. Urte bereko Abenduaren 29an egin zen bileran onartua izan zen proposamena eta Gorostiaga euskaltzain oso izendatua, Zamarripa bezala Altuberren ordezkaria zelarik. Handik lau hilebetera, 1951.eko Apirilaren 28an irakurri zuen Bilbon sarrera hitzaldia, udaletxeko batzar-gela nagusian, gai hau erabili zuelarik: *Bizkaiko edestia toki izenen bidez*. Nazario Oleagak eman zion erantzuna, bertan bilduta zeudelarik Azkue, Bonifazio Etxegarai, Etxaide, Irigarai, Krutwig eta Oleaga, euskaltzainak, eta Manterola, Arrutza, Garro eta Villasante urgazleak. Euskaltzain izendatuaz batera, Liburuzain ere hautatua izan zen, honetan ere haren tokia betetzen dudalarik.

Liburugintzan eman zituen hurrengo urteak: *Epica y lírica vizcaina antigua* (1952), *Vocabulario del refranero vizcaino de 1596* (1953), *Historia de la Anteiglesia de Guecho* (1953), *Antología de poesía popular vasca* (1955). Azken hau kaleratu orduko, Ameriketako Estatu Batuetara ikerbidaia bat egin zuen, 1954.eko Irailaren 25ean abiatuz. Handik itzulita, berriz murgildu zen euskararen ikerketetako uretan. *Juan Antonio Mogel eta historia aurreko Espainia* (1960) izan zen **Euskera** agerkarian eman zigun hurrengo lana. Baina 1963an, Bizkaiko euskaltzainen izendapenak zirelata sortu ziren tirabirengandik, Azaroan egin zen bileran, euskaltzain izateari uko egin zion. Arazoak konpondu omen ziren, eta 1966an berriz bileretara etortzen hasi zen, eskuartearen *Diccionario etimológico vasco* zeramalarik.

Eusebio Erkiaga lagunminak Lekeition, 1973.eko Azaroaren 11an, bere sarrera hitzaldia egin zuenean, Juan Gorostiagak eman zion erantzuna. Eta arrezkero ez zen bileretan azaltzen. Baina Euskaltzaindiak Plaza Barriko egoitza Diputaziotik eskuratu zuenean, Nazario Oleagaren jaiotzaren mendeurrena bertan ospatuz, han agertu zitzaigun Gorostiaga jauna 1984.eko Uztailaren 24an. Mahaikide izan ginen une hartan, ni Sebastian de la Gandara euskal idazle gernikarraren berri ematen eta bera *Nazario Oleaga euskaltzain zenaren oroimenez* txostena irakurtzen. **Euskera** agerkarian agertu zen lantxo hau (1984-2) eta baliteke Gorostiagak argitara emandako azken lana izatea. Orduan agurtu nuen azkenengoz ia hogeitaz urte lehenagotik ezagutzen nuen euskaltzaina.

Nonbait irakurri dut Azkueren liburutegiaren zati bat Parisen zeukala Gorostiagak. Berak elkarritzeta batetan emandako albistea dugu hau. Eta Azkue Bibliotekaren ardura, oraingoz behintzat, leporatuta daukate-nez, zertan den arazo hau jakin nahiko nuke. Baliteke Enrike Gorostiaga bere anaiak honetaz zeozter jakitea eta argibide bat emango baligu eskertuko genioke.

Bilbon hil zen Juan Gorostiaga Bilbao euskaltzaina lehen esandako datan. Hurrengo egunean eratu ziren hiletak Getxoko San Nikolas Parro-kian, 25 apaizen artean Karmelo Etxenagusia, Elizbarrutiko Bikarioa eta euskaltzain urgazlea meza emaille zelarik. Han ginen Villasante, Euskaltzainburua, Irigoien eta San Martin, euskaltzainak, Jon Bilbao ohorezkoa eta Akesolo, Kintana, Oleaga eta Zearreta urgazleak. “Biotz Alai” koralar-en kantu ederrekin eman genion azken agurra. Gerokoa badakizue: aurrerantzean neuk bete beharko dut Gorostiagaren hutsunea.



Ezkerretatik eskumatara: Juan Luis Zuzaeta Gernika-Lumoko Alkatea, Jean Haritsche-lhar Euskaltzainburua, Jose Antonio Arana Martija euskaltzain berria eta Jose Mari Satrustegi Idazkaria.

III

Parka egidazue orainarte hain luze ihardutea. Baina eskerronekoa nahi izateaz gain, Araudiak agintzen didana ere bete behar nuen eta hamar lerrotan esan nezakeena, begirunez edo onginahiaren eraginez, luze joan zait. Orain natorkizue nere gaiaren muina azaltzera, eta aspergarri samarra iruditzen bazaizue ere —arazo akademikoak sarri askotan halakoak bait dira— nere ikerketen ondorioa azaldu behar dizuet Euskaltzaindiaren historia osotzen joateko beharrezkoa da eta.

Umeak Parisetik datozela esaten da. Eta nere ume edo emaitza hau duela bost urte han ernaldua da. “Expolangues” deritzon mundu zabaleko hizkuntzen erakusketa bat antolatzen da urtero Parisen eta euskarari dagokionetik lehen erakusketa Euskaltzaindiak antolatu zuen bertan 1984an. Eguneko lan aspergaitza bukatu ondoren, Urtarrilaren 27an, gauerdian, Champs Elisées-etako L'Etoile kafetegian bildu ginen kafetxo bat hartuz solasaldian Jean Haritschelhar, Jose Luis Lizundia, Juan Jose Zearreta eta lauok. “Ville lumière” delakoak biztu zigun hala nolako argitxo bat eta euskaltzainen historia egitea bururatu zitzaigun. Lotsagarria izan arren, ez genekizkien euskaltzain izan diren guztien izenak eta are gutxiago nor noren ondoko izan zitekeen historian zehar. Euskaltzaindiaren agiri ofizialean hainbat hutsune eta errakuntza agertzen dira eta berehala ikusi genuen, zaila izan arren, beharrezkoa zela lan hori burutzea.

Maiz gertatzen denez, halako asmoak gogo hutsetan geratzen dira, ofizialtasunik ez zaiolako ikerketari ematen eta hainbat eginkizun izaten ditugulako eskuartean. Gerra ondoko agiriak birargitaratuak ziren ordurako eta bazegoen argibiderik idazkaritzan, artxiboetara zuzenean jo gabe, lana burutzen hasteko. Baina erabaki ofizialik ez zegoenez, tarteka-marteka hasi nintzen, zaletasunez, Nerea Altuna sekretariaren laguntzaz, datuak biltzen. Zailtasunez beteko ikerlana iruditu bazitzaigun ere, gaitzagoa gertatu zen lanean hasi ondoren. Eragozpen, oztopo, zalantza, erantzun gabeko galderak, hutsune eta errakuntzak aurkitzen nituen ikerketaren hariari eusten nionean. Hara hemen horietako batzuren batzu:

1. Noiz behinean **Euskeran** azaltzen diren euskaltzainen zerrendetan, ez dira euskaltzain gisa agertzen izan ziren batzu, edo izendapenaren datak gaizki agertzen dira.
2. Bai artxihoan, baita ere argitaratutakoen artean, agiri batzu falta dira, maiz datak gaizki jarriak dira, deiturak ere txarto idatzita daudenez, euskaltzainak nahastuta agertzen dira.
3. Gerra ostean, gehien bat, izendapenak egiten direnean, ez da nor noren ondokoa den argitzen. Xehetasun ezaren problema hau handitzen da bizpauru batera izendatzen direnean, euskaltzien arazoa ez bait da sarritan errespetatzen.

4. Lau, hamabi, hamazortzi eta hogeitalau izan dira historian zehar izan diren aulkiak. Baina gerra ostetik hasita, gehienetan, hamabi edo hamazortzi aulki betetzeko euskaltzain gehiago izan dira.
5. Izendapenetan ez da terminologia zehatz bat erabiltzen. Azkuek 1941an erdaraz ondo bereiztu bazituen ere *sucesor* eta *sustituto*, gero euskaraz *ondoko* edo *ordezko* ez dira erabili edo gaizki erabiliak izan dira hitzak. Ez ditut nik hitz hauek asmatu eta ez hitz-jokorik egin gutunetan eta agirietan agertzen baitira.
6. Euskaltzainen *hilezkortasuna* ez da beti errespetatua izan eta uko egin ondoren ez dakigu ondoko edo ordezko izan diren hurrengo izendatuak.
7. Barne Erregelak zatika edo oso-osoan aldatzen direnean, aldaketak onartuak izan direla agirietatik dakigu, baina sarritan ez dira aldaketen xehetasunak ematen ez eta artxiboan agertzen.
8. Sarrera hitzaldietatik jakin dezakegu nor noren ondokoa den, baina euskaltzain askok ez zuten sarrera hitzaldirik egin, edo ez zuten aurrekoaren aipamenik agertu.

Buruhauste hau nola konpondu ez nekien, benetan, eta zer egin ezean, geldi geldika irtenbideak aurkituko nituelakoan nengoen. Baina euskaltzaina izendatua izan ondoren eta gai hau sarrera hitzaldian aztertzea bururatu zitzaidanean, hariak lotzen berehala hasi behar nintzala ikusi nuen. Aita Villasantek sarrera hitzaldiari erantzuna ematea nahi nuenez, berari azaldu nion gogoetan nerabilen asmoa, oraindik Euskaltzainburua zelarik. Gero, Abenduaren 30ean Jean Haritschelharek kargu hau hartu zuenean, honi ere aurkeztu nion nere asmoa, biek onartu zutelarik gaia eta azken honek pozik gainera, berau ere haziaren ereile izan bait zen Parisen.

Nere ikerketen ondorioak adierazteko, aulkien historia egitea egokia goa zela euskaltzainena baino pentsatu nuen. Gainera, Plaza Barriko Egoitza berrian 24 aulkidun mahai bat izango dugunez, zenbakika zein nori dagokion erabakitzea interesgarria izango litzatekela uste izan nuen. Eta hala eskema bat burutu nuen, non aulki bakoitzean nor eseri den, nere eritzi argalean, adierazten nuen. Billabonan Maiatzaren 25ean egin genuen bileran euskaltzainen artean banatu nuen nere eskema hori, idatziz oharrak diezazkidaten eskatuz. Egia esan, idazki bakar bat eskuratu dut, Juan San Martin euskaltzainarena. Hitzez ere ohar batzu egin zizkidan Euskaltzainburuak, eta berak eskatutakoaren arauera, *Hurbiltze bat* gehitu diot hitzaldiaren izenburuari, zalantza argitu gabeak eta argitu ezinak behar bada diralakoan ados nator eta. Behin behinekoa da, beraz, nere ikerketaren ondorioa, baina abiapuntu bat dela ez du inork ukatuko, orain arte gai honetaz egiten den lehen lana baita.

IV

Eusko Ikaskuntzak Oñatin 1918an antolatu zuen I. Biltzarrean —III.a Gernikan eratu zen 1922an— sortu zen Euskaltzaindia eta Irailaren 5ean izan ziren izendatuak bertan lehen lau euskaltzainak: Resurrección María de Azkue, Luis Eleizalde, Julio de Urquijo eta Arturo Campion. Hamabi euskaltzainen kopurua finkatzen zuen Araudia onartu ondoren, hurrengo urtean, hots, 1919.eko Irailaren 21ean, beste zortziak izendatuak izan ziren: Txomin Agirre, Pierre Broussain, J. Blaise Adema, Ramon Intzagarai, Jose Agerre, Juan Bautista Eguzkitza, Erraimun Olabide eta Pierre Lhande. Beraz, Bizkaitik lau, Gipuzkoa, Nafarroa eta Laburditik bina, eta Araba eta Zuberotik bana.

Urte berean sortu zen lehen arazoa: Ademak uko egin zion izendapenari eta erabaki hau errespetatuz ondorengo bat izendatu zuten 1919.eko Urriaren 5ean: Martin Landerretxe. Hurrengo urtean, 1920an, beste hiru ondorengo aukeratu beharrean aurkitu ziren euskaltzainek. Txomin Agirre, ondarrutarra, Urtarrilaren 20an hil zenez, Gernikan bizi zen Seber Altube izendatu zuten Ekainaren 22an; Broussain ere Apirilaren 20an hil zenez, Georges Lacombe izan zen izendatua Uztailaren 23an; egun berean Intzako Damaso izendatua izan zen Agerreren ondorengo, azken hau Sevillara joan zenez, bileretan agertzen ez zelako. Hemen bai aukera aukeran datorkigula erdarazko atsotitza: “El que fue a Sevilla perdió su silla”. Hilezkortasunaren aurkako bi adibide ditugu hasiera hasieran: uko egiteko eskubidea onartu zioten Ademari, eta bileretan ez agertzeagatik Agerreren izendapena ezeztua geratu zen.

Luis Eleizalde 1923an hil zenean, Gernikan bizi zen Karmelo Etxegarai izan zen ondorengotzat izendatua; baina denbora gitxirako, 1925ean hil bait zen. Bonifazio Etxegarai anaiak bete zuen hutsunea. Martin Landerretxe ere 1930ean hil zen eta Jean Elissalde “Zerbitzari” izan zen ondorengo izendatua. Beste berririk gabe, 1936.eko gerrara iristean hala zeuden banatuak Euskaltzaindiaren aulkiak:

1. Resurreccion Maria de Azkue
2. Bonifazio Etxegarai
3. Julio de Urquijo
4. Arturo Campion
5. Seber Altube
6. Georges Lacombe
7. Jean Elissalde
8. Ramon Intzagarai
9. Intzako Damaso
10. Juan Bautista Eguzkitza
11. Erraimun Olabide
12. Pierre Lhande

Gerrak gelarazi zituen Euskaltzaindiaren lanak eta bilerak. Arturo Campion 1937an hil zen eta Juan Bautista Eguzkitza 1939an. Beste hiru euskaltzain atzerrira joan beharrean aurkitu ziren: Seber Altube Pabera, Intzako Damaso Chilera eta Erraimun Olabide Toulouserak. Bestalde, Espainiako gerra amaitu ondoren, I. Munduko Gerra hasi zen eta Iparraldeko euskaltzainek ezin ziren Hegoaldekoekin bildu. Egoera benetan larria zen Euskaltzaindiaren iraupenerako. Baina Azkuek, burua urratuz, ekinalean jarraitzen zuen bere Akademia zuzpertz nahian eta Bizkaiko Diputaziotik lortu zuen dirulaguntza bat berriz lanean hasteko. Hara zer diotson Urquijori 1941.eko Otsailaren 6an:

Carísimo amigo: Tengo el placer de darte una noticia que sin duda es muy de tu agrado. Dos veces han estado en esta oficina tres miembros de la Junta de Cultura de esta Diputación: los señores Areilza, Merino Urrutia e Igartua.

Me expusieron su proyecto de dar nueva vida a esta Academia. Y últimamente me visitó el segundo para decirme que ponían a nuestra disposición cinco mil pesetas anuales. ¿No podrías tú conseguir que tome igual acuerdo la Junta de Cultura de esa Diputación?

Ahora voy a exponerte (a Intzagarai podrías darle cuenta de esto por teléfono) el plan que se me ocurre.

1.º Reunirnos cada dos meses, un mes aquí y otro ahí, exceptuando los de verano.

2.º Elegir como sucesor de Campion al P. Iraizoz, residente en Lecároz; y a Nazario Oleaga, residente en Bilbao, como sucesor de Eguzkiza.

3.º Elegir como sustituto de Altube a Zamarripa de Bermeo.

4.º ¿Quiénes podrían ser nombrados como sustitutos de Olabide, Intza y Echeagaray?

5.º Dedicarnos a terminar el Diccionario en preparación y a publicar nuestra Revista.

A los señores de que antes hablo les pregunté si podrían como antes tomar parte en nuestras reuniones los tres académicos vasco-franceses. Y me dijeron que por lo menos por ahora no.

Gauza bitxi asko erakusten dizkigu Euskaltzaindiaren historiarako gutun honek; bat azpimarratuko nuke. Lehen esan dudak bezala, Azkue oso ondo bereizten ditu hildakoen ondokoak (sucesores) eta atzerriratuak ordezkoak (sustitutos). Iraizozek ez zuen Campionen ondorengoa izatea onartu, Kaputxinoen Ordenak ez bait zion uzten "euskararen arazoetan sartzen". Oleagak bai onartu zuen proposamena, eta Eguzkitzaren ondoko izan zen izendatua Apirilaren 28an. Egun berean, Iraizozen

ezezkoa ikusi zutelarik, Juan Carlos Guerrak onartu zuen Campionen hutsunea betetzea. Atzerriratuen kasuetan, Bonifazio Etxegaraien ordezkorik ez zuten izendatu, nohiz behinean bileretara Madridetik zetorrelako. Zamarripak onartu zuen Altuberen ordezkio izatea eta Intzaren ordezkio Eladio Esparza izendatu zuten Oleaga eta Guerrarekin batera. Hurrengo hilean Aingeru Irigarai izan zen izendatua; Azkuek proposamena egiten zion gutunean ez da noren ordezkio zen esaten, baina argi daukagu Olabideren hutsune bakarra zegoela bete gabe eta haren ordezkio aulkia hartu zuen Irigarai.

Egoera politikoari atxeki behar zaion gauza bitxi bat gertatu zen sasoi hartan. Euskaltzaindiak iraun zezan ematen zitzaion baimena eta dirulaguntzaren trukez, Bizkaiko Kultur Batzordearen idazkaria zen Francisco de Igartuak, 1941.eko Otsailaren 21eko gutun batetan, zera inposatzen zion Azkueri: "...se han tomado varios acuerdos: 1.º Designar para formar parte de esa Academia al miembro de esta Junta Dn. Juan de Irigoyen". Hamabi aulkiak beterik zeudenez, hiru gainera ordezkoe kin gehituak, Diputazioak inposatutako Juan de Irigoyen euskaltzainak ez zuen ez ondorengo ez ordezkio izaterik. Beraz, araudiz kanpo edo aurka-ko 13. aulki bat, aulki politiko bat, jakina, sortu zen. Beraz, hau dugu 1941.eko egoera:

<u>Aulkia</u>	<u>Euskaltzaina</u>	<u>Zenbatekoa</u>
1	Resurrección M. Azkue	1
2	Bonifazio Etxegarai	2
3	Julio de Urquijo	3
4	Juan Carlos Guerra	4
5	Seber Altube (atzerrian)	5
	Pablo Zamarripa (ordezko)	6
6	Georges Lacombe	7
7	Jean Elissalde	8
8	Ramon Intzagarai	9
9	Intzako Damaso (atzerrian)	10
	Eladio Esparza (ordezko)	11
10	Nazario Oleaga	12
11	Erraimun Olabide (atzerrian)	13
	Aingeru Irigarai (ordezko)	14
12	Pierre Lhande	15
13	Juan de Irigoyen	16

Araudiaren arauera 12 aulki ofizialak betetzeko 15 euskaltzain zeuden, hiru ordezkio zirelarik (Zamarripa, Esparza, Irigarai). Gerorako ahaztu behar ez den zehaztasuna da hau, eta ez nik asmatua, Azkueren proposamenetan argi eta garbi agertzen baita "sustitutos" edo ordezkoak

zirela, hilezkortasunaren oinarria delarik gainera. Eta 13. aulki “politikoa” bete zuen Juan de Irigoyen kontutan hartuz, 16 euskaltzain ziren orduan. Olabideren ordezkatzek laster izan zuen bukaera, hurrengo urtean, 1942an, hil bait zen eta Irigarai “suplente”, “sustituto” edo ordezeko izatetik titularra izatera iritsi zen 11. aulkia beteaz. Juan Carlos Guerra ere 1941.eko Urriaren 2an hil zen eta Ignacio Maria Etxaide izan zen ondorengo izendatua 1942.eko Martxoaren 26an. Juan de Irigoyenek ere aspaldian ez zuen parterik hartzen eta 1947.eko Azaroaren 29an Federiko Krutwig euskaltzain izendatua izan zenez, haren ondorengo gisa etorri zitzaigula onartu behar. Urte berean hil ziren Lacombe eta Intzagarai.

Azkue oraindik bizirik zegoelarik eta Euskaltzainburua zelarik, Krutwigi agindu zioten Euskaltzaindia eraberritzeko proiektu bat presta zeza. Ordurako Esparzak bileretara etortzeaz uko egina zeukan eta honi ere, Juan de Irigoyeni bezala, euskaltzaingoari ezetza emateko zeukan eskubidea onartu zioten, baina kasu honetan ondorengoa izendatukeran beste “politiko” bat, nafarra hau ere, onartu zuten: Juan Migel Seminario de Rojas, Intzako Damaso bizirik zegoelarik, honen ordezeko. Beraz, eraberritzeko proiektua Krutwigek 1949.eko Irailaren leian aurkeztu zuenean, hau zen egoera:

<u>Aulkia</u>	<u>Euskaltzaina</u>	<u>Zenbatekoa</u>
1	Resurreccion M. Azkue	1
2	Bonifazio Etxegarai	2
3	Julio de Urquijo	3
4	Ignacio M. ^a Etxaide	4
5	Seber Altube (atzerrian)	5
	Pablo Zamarripa (ordezko)	6
6	Hutsik	—
7	Jean Elissalde	7
8	Hutsik	—
9	Intzako Damaso (atzerrian)	8
	J. M. Seminario (ordezko)	9
10	Nazario Oleaga	10
11	Aingeru Irigarai	11
12	Pierre Lhande	12
13	Federiko Krutwig	13

Iparraldekoak bi bakarrik zeuden 13 aulkietan (Elissalde, lapurtarra eta Lhande, zuberotarra) eta euskara literarioaren batasunerako lapurtera proposatzen zuenez Krutwigek, eta ez *Gipuzkera osotua* Azkuek bezala, hamazortzira euskaltzainen kopurua —eta aulkiak, jakina— gehitzea proposatu zuen. Lacomberen hutsunea, hau da 6. aulkia, Pierre Lafittek betetzea eskatzen zuen, eta 18ra iristeko izen hauek proposatu zituen:

14. Henri Gavel
15. Rene Lafon
16. Jean Saint-Pierre
17. Louis Dassance
18. Hauetariko bat: Dufau, Moulier, Arotzarena edo Eppherre.

Proposamenaren gehiengoa onartua izan zen 1949.eko Irailaren 30ean. Lafitte onartua izan zen Lacomberen ondoko, eta Intzagaraik hutsik utzi zuen 8. aulkia betetzeko Manuel Lekuona izan zen izendatua. Zamarripa eta Seminario, ordezeko izan arren, euskaltzainak zirenez, beste hiru izendatu behar ziren eta azkenean Lafon, Saint-Pierre eta Dassance izan ziren hautatuak. Beraz, Krutwigek proposatutakoa onartu ondoren, hala geratu zen hamazortzi euskaltzainen zerrenda:

<u>Aulkia</u>	<u>Euskaltzaina</u>	<u>Zenbatekoa</u>
1	Resurreccion M. Azkue	1
2	Bonifazio Etxegarai	2
3	Julio de Urquijo	3
4	Ignacio M. ^a Etxaide	4
5	Seber Altube (atzerrian)	5
	Pablo Zamarripa (ordezko)	6
6	Pierre Lafitte	7
7	Jean Elissalde	8
8	Manuel Lekuona	9
9	Intzako Damaso (atzerrian)	10
	J. M. Seminario (ordezko)	11
10	Nazario Oleaga	12
11	Aingeru Irigarai	13
12	Pierre Lhande	14
13	Federiko Krutwig	15
14	Rene Lafon	16
15	Jean Saint-Pierre	17
16	Louis Dassance	18

Bizkaikoak 6 ziren, Lapurdikoak 5, Gipuzkoakoak 3, Nafarroakoak 3 eta Zuberokoa 1. Izendapenaren, eta ondorengo sailkapenaren aurka laster sortu ziren kritika zorrotzak, esate baterako, Nikolas Ormaetxea "Orixe"k *Gernika* aldizkarian (1949, Abendua) idatzi zuena, gipuzkera-ko kopurua gehitzearen alde. *Euzko Gogoak* ere bere eritzia eman zuen (1951, Ilbelta-Otsaila) Isaka Lopez Mendizabal falta zela salatuz, eta Lafon atzerritarraren ordezkari Moulier izendatu behar zale gomendatuz. Azken honen kasua laster konpondu zen, Saint-Pierrek 1951an hil zenean utzi bait zion aulkia. Bestalde, Zamarripa 1950ean hil zen eta urte bereko Abenduaren 29an honen ondorengo, eta Altuberen ordezkari, Juan Goros-

tiaga izan zen izendatua. Urquijo ere 1950ean hil zen eta bere hutsunea betetzeko 1951.eko Irailaren 28an Luis Villasante izan zen hautatua. Azkenik, Azkue handia 1951.eko Azaroan hil zen eta 1952.eko Ekainaren 27an Luis Mitxelenak bete zuen hutsunea eta lehen aulkia. Bizkaiari kendu zitzaiola aulki bat salatu beharko dugu bizkaitarrok Gipuzkoaren alde.

Ignacio Maria Etxaide Euskaltzainburu zelarik, 1954.eko Abuztuaren 27an onartua izan zen Euskaltzaindia eraberritzen zuen Araudia. Honen arauera 24an finkatzen zen euskaltzainen kopurua, baina gehitzen ziren 6ak ordeko zirelarik. Hurrengo bileran, Irailaren 24an, zera esaten zuen erdaraz idatzita dagoen agiri batetan Euskaltzainburuak: “Con motivo de haber sido aprobados en la reunión anterior los nuevos estatutos y reglamento interior, se podrían cubrir hasta seis plazas de académicos numerarios suplentes”. Egun berean, hiru hautagai izan ziren proposatuak: Jose Maria Lojendio, Antonio Arrue eta Gregorio Maidagan. Baina azken honek ez zuen izendapena onartu eta Urriko bileran Lojendio eta Arrue izan ziren izendatuak “euskaltzain-orde” gisa.

Bonifazio Etxegarai 1956ko Gabon egunez hil zen eta haren ondorengo, 1957.eko Ekainaren 20an, Nikolas Ormaetxea “Orixé” izan zen izendatua. Pierre Lhande ere 1957an hil zen eta zuberotar bakar honen aulkia Guillaume Eppherre zuberotarrak bete zuen 1958an. Jules Moulier “Oxobi” ere 1958an hil zenez, Pierre Narbaitz kalonjea izan zen ondoko hautatua 1960.eko Urtarrilaren 29an. Baina izendapena onartu arren, ez zen bileretara etortzen eta azkenean euskaltzaingoari uko egin zion Narbaitzek eta 1962.eko Uztailaren 27an —atzo bete ziren 27 urte— Jean Haritschelhar izan zen ondoko izendatua. Egun berean, Elissalderen heriotzaz 1961ean hutsik geratu zen aulkia Jean Diharce “Iratzeder”ek bete zuen.

Baina hirurogeiko hamarraldi honetan gauza zalantzarriak gertatu zirenez, komeni zaigu aurreragotik haria hartzea. 1961.eko Urriaren 27ko bileran Hegoaldeko euskaltzain hauek, hots, Krutwig, Mitxelena, Arrue, Irigarai eta Villasantek zeuden hutsuneak betetzeko (“Orixé”, Elissalde eta Narbaitz) bi izen proposatu zituzten: Jon Mirande, espresuki Elissalderen ondoko gisa, eta Diharce, noren ondoko aipatu gabe. Ez zetozen ados Iparraldekoak eta urte bereko Abenduaren 21ean Lafitte, Eppherre eta Dassancek Haritschelhar proposatu zuten Oxobi/Narbaitz-en ondoko eta Lartzabal Elissalderen hutsunea betetzeko. Hurrengo bileretan ez zen ezer erabaki; baina 1962.eko Apirilaren 27an Mirandek uko egin zion bere alde egindako proposamenari eta hutsik zeuden bi aulkiak betetzeko hiru hautagai geratzen ziren: Diharce, Haritschelhar eta Lartzabal. Azkenean, esan dugunez, Diharce eta Haritschelhar izendatu ziren Elissalde

eta Oxobi/Narbaitz-en aulkiak hartzeko. Azaroko bileran, kargu berriak hautatu behar zirenez, hutsuneak (“Orixe”, Etxaide, Oleaga) bete behar zirela lehenago gaztigatu zuen Mitxelena. Hau zen orduan euskaltzainen egoera:

<u>Aulkia</u>	<u>Euskaltzaina</u>	<u>Zenbatekoa</u>
1	Luis Mitxelena	1
2	<i>Hutsik</i> (“Orixe”)	—
3	Luis Villasante	2
4	<i>Hutsik</i> (Etxaide)	—
5	Seber Altube (jadanik Gernikan)	3
	Juán Gorostiaga (ordezko)	4
6	Pierre Lafitte	5
7	Jean Diharce “Iratzeder”	6
8	Manuel Lekuona	7
9	Intzako Damaso	8
	J. M. Seminario (ordezko)	9
10	<i>Hutsik</i> (Oleaga)	—
11	Aingeru Irigarai	10
12	Guillaume Eppherre	11
13	Federiko Krutwig	12
14	Rene Lafon	13
15	Jean Haritschelhar	14
16	Louis Dassance	15
17	Jose Maria Lojendio	16
18	Antonio Arrue	17

Hiru ziren hutsik zeuden aulkiak: “Orixe”rena (nafarra), Etxaiderena (giputza) eta Oleagarena (bizkaitarra). Baina beste lau euskaltzain izendatzeko aukera ere bazegoen 24 kopurura heldu arte. 1963.eko Urtarrilaren 25ean egin ziren proposamenak. Iparraldeko Eppherre, Dassance eta Lafittek lehengoan aulki gabe geratu zen Lartzabal proposatu zuten, Etxaide gipuzkoarraren tokia hartzeko, dirudienez. Oleaga bizkaitarraren aulkia betetzeko Eusebio Erkiaga proposatu zuten Krutwig, Gorostiaga eta Altubek, eta aulki bera hartzeko Alfontso Irigoien proposatu zuen Villasantek. Botuetara jota, hirurak (Lartzabal, Erkiaga eta Irigoien) izan ziren hautatuak eta “Orixe”rena betetzeko Jose Maria Satrustegi izan zen izendatua.

Hurrengo Otsailaren 22ko bileran ez zen aurreko agiria onartu eta ezezean geratu ziren izendapenak. Baina Oleagaren aulkia betetzeko, Erkiagaz gain, Lino Akesolo ere proposatu zuten Gorostiaga, Krutwig, Altube, Lafitte eta Eppherrek, hurrengorako utziz erabakia. 1963.eko Apirilaren 5ean, Erkiaga eta Akesoloz gain, berriz agertu zen Irigoien

izena, baina botuetara jo eta Eusebio Erkiaga eta Lino Akesolo, biak, izan ziren izendatuak. Apirilaren 26an egin zen beste bilera batetan Erkiaga eta Akesolo euskaltzain oso gisa agertu ziren eta Satrustegi, Irigoien eta Lartzabal urgazle gisa, Maiatzeko Sean Beloken egin zen bileran agertu ziren bezala. Hemen, Beloken, "Iratzeder"en sarrera hitzaldia egin zen egunean, Alfontso Irigoien, Jose Maria Satrustegi eta Piarres Lartzabal izan ziren euskaltzain oso izendatuak. Satrustegik "Orixe"ren aulkia hartuko zuen, Lartzabalek, nahiz eta euskalkien arazoa bete ez, Etxaiderena, eta Irigoienek 20. aulki berria estreinatuko zuen. 19. aulkia Akesolori zegokion, Erkiagak Oleagaren 10.a bete bait zuen. Nere hipotesi batetan sartzen da ondorengotze guzti hau, agirietan ez baita esaten nor noren ondoko izendatua izan zen.

Seber Altube Gernikan hil zen 1963.eko Abuztuaren 27an eta aspal-didanik ordezeko zen Juan Gorostiagak titulartzat hartu zuen 5.aulkia. Baina Azaroaren 7ko gutun batetan Akesolo, Erkiaga eta Gorostiagak uko egitzen zioten euskaltzaingoari. Azken biak berriz bileretara etortzen hasi ziren, baina Akesolo urgazle gisa geratu zen. Beraz, 1963 urteko azken egunetan hau dugu Euskaltzainen egoera:

<u>Aulkia</u>	<u>Euskaltzaina</u>	<u>Zenbatekoa</u>
1	Luis Mitxelena	1
2	Jose Maria Satrustegi	2
3	Luis Villasante	3
4	Piarres Lartzabal	4
5	Juan Gorostiaga	5
6	Pierre Lafitte	6
7	Jean Diharce "Iratzeder"	7
8	Manuel Lekuona	8
9	Intzako Damaso	9
	J. M. Seminario (ordezko)	10
10	Eusebio Erkiaga	11
11	Aingeru Irigarai	12
12	Guillaume Eppherre	13
13	Federiko Krutwig	14
14	Rene Lafon	15
15	Jean Haritschelhar	16
16	Louis Dassance	17
17	Jose Maria Lojendio	18
18	Antonio Arrue	19
19	Lino Akesolo (uko eginda)	20
20	Alfontso Irigoien	21

Lapurtarren alde desorekatu zenez euskaltzainen kopurua 1949an, bizkaitarrek izan zuten lehentasuna 1963ko izendapenetan. Beraz, urte

honen bukaeran sei ziren lapurtarrak eta sei bizkaitarrak (Akesolo kontutan hartuz). Gipuzkoarrak, ostera, lau ziren, baita ere nafarrak eta betikoari jarraituz bat bakarra zuberotarra. Hogeitalauko kopurua betetzeko hiru falta ziren, 21, 22 eta 23. aulkiak beteko zituztenek, kontutan izanik Seminario de Rojas Intzaren ordezeko zela 9. aulkian. Urteak joan urteak etorri, ahaztuta zegoen euskaltzainen artean ordezkatzeko arazoa, bai gerra ostean atzerriratuen ordezkoea, baita ere 1954an, 18tik 24ra kopurua gehitzean, gainezko sei horiek Euskaltzain-orde gisa hautatuak zirela. Ez dut arrezkero agiririk ikusi non “status” hori ezeztatzen denik, nahiz eta tradizioz orain onartu behar usadioak legea egin duela eta gaurko denek euskaltzain osoak garala.

Baina ez tradizioz bakarrik zeren eta 1963.eko Abenduaren 27an egindako bileran zera onartzen da: “Araudiaren eraberritzea ontzat hartzen da, aurrerantzeko izendapenen berriei dagokionez, batez ere”. 1964.eko Ekainaren 26an egindako bileran zerbait argitzen zen honi buruz: “Euskaltzain behin izendatu danak, euskaltzain behar du iraun bizi daino, gerta ala gerta”. Bilera berean argitzen zuen Lojendiok “ez zeritzala ongi agertzen eztenari ordezkoa hautatzeari, ordezeko hori euskaltzain osoa bezainbatekoa bailitzake”.

Duela hogeitabost urte hartutako erabaki honek zera adierazten digu:

1. Ordurarte izandako ordezkapenak baliodunak izan zirela eta aulki batetan titularra eta ordezkoa egotea onartzen zela.
2. Aurrerantzeko izendapenetan, beraz, 1964tik aurrera, euskaltzain izendatua bizi gutzirako izendatua dela.
3. Bileretara agertzen ez denari ez zaiola ordezkorik izendatu behar.

Baldintza hauekin egin ziren hurrengo izendapenak. Eta Gipuzkoako kopurua zen orain orekatu behar zena. Horregatik, 1964.eko Urriaren 30ean, Arrue, Lojendio, Mitxelena, Irigoien eta Villasantek hiru euskaltzain urgazle proposatu zituzten euskaltzain izendatzeko: Antonio Maria Labaien, Juan San Martin eta Antonio Zabala. Hirurak izan ziren izendatuak Abenduaren 18ko bileran. Baina, nola kokatu euskaltzain berri hauek aulkietan? Lino Akesolok hutsik utzi zuen 19. aulkia hauetarikoa batek bete behar zuen. Ene ustez, San Martin jaunak, Debarrukoa zenez, bete behar zuen bizkaierari zegokion hutsunea, 19. aulkia hartuz. Eta Labaien eta Zabalak estreinatu zituzten 21 eta 22. aulkiak. Hurrengo urtean, 1965.eko Abuztuaren 27an, 23. aulkia estreinatzeke izan zen izendatua Jose Migel Barandiaran.

Seminario de Rojas, Intzaren ordezeko zena, 1968an hil zen. Honen ondorengo beste nafar bat izan zen hautatua urte bereko Abenduaren 4an, Polikarpo Iraizoz. Baina lehen esandako baldintzen arauera, ez zen

oraingoan Intzaren ordezkotik izendatu, euskaltzain oso baizik, 24. aulkia bete zuelarik. Ordutik honako izendapenek ez dute batere arazorik sortzen 1968 urteko azken egunetan normalizaturik geratu ziren Euskaltzaindikotik aulkia eta. Ikus dezagun bada ordutik egoera:

<u>Aulkia</u>	<u>Euskaltzainak</u>	<u>Zenbatekoa</u>
1	Luis Mitxelena	1
2	Jose Maria Satrustegi	2
3	Luis Villasante	3
4	Piarres Lartzabal	4
5	Juan Gorostiaga	5
6	Pierre Lafitte	6
7	Jean Diharce "Iratzeder"	7
8	Manuel Lekuona	8
9	Intzako Damaso	9
10	Eusebio Erkiaga	10
11	Aingeru Irigarai	11
12	Guillaume Eppherre	12
13	Federiko Krutwig	13
14	Rene Lafon	14
15	Jean Haritschelhar	15
16	Louis Dassance	16
17	Jose Maria Lojendio	17
18	Antonio Arrue	18
19	Juan San Martin	19
20	Alfontso Irigoien	20
21	Antonio M. ^a Labaien	21
22	Antonio Zabala	22
23	Jose Migel Barandiaran	23
24	Polikarpo Iraizoz	24

Ordutik honako historiak ez du batere problemarik, banan banan, zenaren ondoren izendatua izan bait da hurrengoa:

Mitxelena	1988	Sarasola
Lartzabal	1987	Peillen
Gorostiaga	1988	Arana
Lafitte	1985	Charritton
Lekuona, M.	1987	Lekuona, J. M.
Intza	1987	Zabaleta
Irigarai	1984	Salaburu
Eppherre	1975	Davant
Lafon	1975	Larre

Dassance	1976	Hiriart-Urruti
Lojendio	1980	Altuna
Arrue	1977	Knörr
Iraizoz	1980	Ondarra

Beraz, une honetan Euskaltzaindia osotzen dugun euskaltzainok, aulkika eta izendapenaren data emanez hauok gara:

<u>Aulkia</u>	<u>Euskaltzaina</u>	<u>Data</u>
1	Ibon Sarasola	1988.1.29
2	Jose Maria Satrustegi	1963.5.18
3	Luis Villasante	1951.9.28
4	Txomin Peillen	1988.3.27
5	Jose Antonio Arana	1988.10.28
6	Piarres Charritton	1985.7.19
7	Jean Diharce "Iratzeder"	1962.7.27
8	Juan Mari Lekuona	1987.12.18
9	Patxi Zabaleta	1987.3.28
10	Eusebio Erkiaga	1963.4.5
11	Pello Salaburu	1984.3.30
12	Jean Louis Davant	1975.2.28
13	Federiko Krutwig	1947.11.29
14	Emile Larre	1974.5.24
15	Jean Haristchelhar	1962.7.27
16	Jean Hiriart-Urruti	1976.7.30
17	Patxi Altuna	1980.7.31
18	Endrike Knörr	1977.2.26
19	Juan San Martin	1964.12.18
20	Alfontso Irigoien	1963.5.18
21	Antonio M. ^a Labaien	1964.12.18
22	Antonio Zabala	1964.12.18
23	Jose Migel Barandiaran	1965.8.27
24	Franzisko Ondarra	1980.7.31

Hamairugarren aulkia betetzen duen Federiko Krutwig dugu euskaltzainen Dekanoa, 42 urtetan bait da euskaltzain, eta ikusi dugunez, eragin handikoa Erakunde hau eraberritzeko arazoetan. Azken ordukoa neu naiz eta luzaro titulu hau eramatea nahi nuke gauden guztiok taldean euskararen alde lan egin dezagun. Ez nuke hitzaldi hau amaitu nahi nere poz handi bat agertu gabe: datuak biltzen nenbilela eta aulkien historia burutu ondoren Altubek izan zuen aulkia zegokidala ikusi nuen "opari" gisa hartu nuen albiste. Altuberekin hainbat harreman izan nituen atzeritik itzuli zenean, musikaz eta euskaraz, jakina. Haren eskuetatik jasotako hainbat liburu eta aldizkari ditut nere liburutegian.

Hemen ikusten ditudan batzuekin batera “Seber Altube Ikastola” sortu genuen 1966an eta hor alboan dagoen Auditorium-ari Altuberen izena jartzea lortu nuen geroxeago. Haren aulkian egotea, beraz, beste ziri bat da neretzat lanean etengabe jarraitzeko.


Urteka egindako historia honek ematen digu aulkien historia. Nik egindako hurbiltzeak, inoren aurkako argudiorik ez dagoen artean, zerrenda hau ematen dit:

1. Azkue, Mitxelena, Sarasola
2. Eleizalde, K. Etxegarai, B. Etxegarai, Nikolas Ormaetxea “Orixe”, Satrustegi.
3. Urquijo, Villasante.
4. Campion, Guerra, Etxaide, Lartzabal, Peillen.
5. Agirre, Altube, Zamarripa (ordezko), Gorostiaga (ordezko), Gorostiaga (oso), Arana.
6. Broussain, Lacombe, Lafitte, Charritton.
7. Adema, Landerretxe, Elissalde, Diharce.
8. Intzagarai, Lekuona, M., Lekuona, J. M.^a.
9. Agerre, Intza, Esparza (ordezko), Seminario de Rojas (ordezko) Zabaleta.
10. Eguzkitza, Oleaga, Erkiaga.
11. Olabide, Irigarai, Salaburu.
12. Lhande, Eppherre, Davant.
13. Irigoyen (Juan), Krutwig.
14. Lafon, Larre.
15. Saint-Pierre, Moulier “Oxobi”, Narbaitz, Haritschelhar.
16. Dassance, Hiriart-Urruti.
17. Lojendio, Altuna.
18. Arrue, Knörr.
19. Akesolo, San Martin.
20. Irigoyen (Alfontso).
21. Labaien.
22. Zavala.
23. Barandiaran.
24. Iraizoz, Ondarra.

Honekin amaitzen dut. Entzun dezagun orain Aita Villasanteren erantzuna, nere hitzaldia baino askoz eroso, galant eta entzungarriagoa. Eta mila esker zuen eroapenagatik. Esan dut.

Jose Antonio A


EUSKALTZAINDIKO AULKI
KRON



Arana Martija

EN HISTORIAZ HURBILTZE BAT

OGRAMA



José Antonio Arana Martija

EUSKALTZAINDIKO
AULKIEN HISTORIAZ
HURBILTZE BAT

KRONOGRAMA

GERNIKA-LUMO
1989-7-28

J. A. ARANA MARTIJAREN SARRERA-HITZALDIARI ERANTZUNA

Gernika-Lumo, 1989-VII-28

Fr. Luis Villasante

Adiskide maitea:

Herri batekoak garelako aukeratu nauzu, zalantza gabe, gaur zure aitabitxi izan nadin. Eskerrik asko. Baina, ikusi dudanez, zu jaio zinen urte berean joan nintzen ni Arantzazura. Ezin, bada, alkar ezagutu. Egia da gero, gerra lehertu zenean, ia urtebete egin nuela hemen, eta Gernikako egun zorigaiztoko hartan ere hemen nintzela. Zuk, berriz, zeure haurtzaroan erbestea ezagutu duzu. Dena den, zure aitita Melitón Martijaren denda famatuaren entzutea, bai, badut neure ume-denboratik.

Erbestea ezagutu eta, bederatzi urterekin itzultzen zara berriro Gernikara. Gero Seminarioan egon zinen, ondoren Deustuko Unibertsitatean zientzia ekonomikoak egiten, legegizon-karrera ere egina duzu, eta Euskaltzaindian aspalditxotik zara gutunzain-orde, eta orain diruzain ere bai. Egoera ezin hobean zaude Euskaltzaindiaren artxibo eta biblioteca, Azkue zenaren altxorra, Bonaparte, Juan Karlos Guerra, Seber Altuberen altxorrak etab. hurbildik ezagutzeko.

Zure emazteak abizen oso gernikarrak eta enetzat txikitatik arronter direnak ditu. Ezagutu nuen Julio Bareño, han D. Tello kalean akademia bat, kontabilitatea irakasteko, zeukana. Eta nola ez, kale berean, Omaetxebarriaren Ultramarinos —hala esaten genuen— edo janari-denda. Bertako semea dugu Aita Inazio Omaetxebarria, gure Euskaltzaindiko urgazlea.

Jatorriz Lumokoa zarenez, Lumo elizateko lurretan egiten duzu gaur zeure sarrera-hitzaldia, Angel Allende Salazar euskal bibliografoa bizi izandako jauregian, gainera.

Euskaltzaindian urgazle zara 1979. urtetik. Horrez gain, hainbeste euskal elkarteetako kide ere bazara: Herri-Adiskide, Eusko Ikaskuntza, Euskal Idazleen Elkarte, UZEI, Ameriketako euskal estudioen elkartekoa, etab.

* * *

Idazle bezala nekaezina azaldu zara, hainbeste aldizkari eta orritxoetan zeure garauna eskainiz: *Brisas Gerniquesas*, **Euskera**, *Egan*, *Boletín de la R. S. de Amigos del País*, *Anaitasuna*, *Argia*, *Aránzazu*, etab. Liburuak ere argitara dituzu, bai euskaraz eta bai erdaraz, histori edo musika-gaiak erabiliz, gehienbat.

Zuk idatzitako artikulua —batzuk luzeak, beste batzuk laburrak—, 300era hurbiltzen dira. Beroietan xehetasun zehatz asko ematen dituzu gure literatur historiako hainbat puntu ilun argituz.

Idatzi izan duzu, esate baterako, Gernikako Marijesei buruz. Ondo gogoan dut, ume nintzela, Gabon aurreko gauetan nola entzuten nituen ohetik, mutil gazteek kalerik-kale kantatzen zituzten kanta horiek. Sebastián Antonio de la Gandara —ikus E 1984, 499— eta Domingo Kanalaetxebarria —ikus E 1979, 593— idazleei buruz argitzapen baliotsuak ekarri dizkiguzu. Betolazaren kristau dotrina agertu duzu —ikus E 1986, 505—. Bonaparte Printzearen altxorreko katalogoa, Carlos González Etxegarairekin batean, burutua duzu; Juan Carlos Guerrarena ere bai. Bilbon orain dela ehun urte jarritako euskal katedrari buruz ere hainbat xehetasun jakingarri agertu izan duzu, azkeneko **Euskera**-n ikus daitekeenez —ikus EUSKERA 1988, 361—.

A!, eta Azkue lehen euskaltzainburuaren bizitza bat ere eman zenigun, laburra, baina mamitsua eta zehatza. Ene ustez, Euskaltzaindiak ez dio oraindik zor zaion bezalako monografia bat eskaini beraren bizitza eta lanak sakonki ikertuz, eta agian zeu izango zara horretarako proposena, Euskaltzaindiaren artxibategiko paperak eskumenean dituzunez gero. Euskaltzaindiaren historia laburra ere egina duzu, eta hori ere agian egunen batean luzeagoa eta osatuagoa egiteko lehen urrats bat bezala har dezakezu. Zure sarrera-hitzaldirako aukeratu duzun gaia horretarako orpo edo oinarri izan dezakezula esango nuke.

Agertu izan duzu, baita ere, euskarazko Kristau Dotrinen katalogo osoa burutzeko asmoa. Horra beste lan bat oraindik egiteko dagoena eta euskararen historiarako, dudarik gabe, garrantzizkoa dena. Iparragirreri buruzko omenaldiko liburuan ekarpen baliotsuak eman dizkiguzu. Etab.

Eta ez noa bestelako lanez deus esatera: kartografi eta bibliografi erakusketak, eta holako. Bi euskaltzain, gernikar ez zirenak, baina gernikar bilakatuak —S. Altube eta K. Etxegarai—, zure ikerketetarako pizgarri izan dituzu.

Zeure bilakuntzen ondorioz jakin duzu Euskaltzaindiko aulkian Txomin Agirre eta batez ere Sebero Altuberen ondorengoa zarena (J. Gorostia-garen bitartez). Ez da txikia izan aurkiketa honek eman dizun poza. Izan ere, paretsuak zarete Altube eta zu bi amodiotan: euskara eta

musikarenean, alegia. Sebero Altube izan zen Gernikako musika-bandaren sortzailea eta zu izan zara, oker ez banago, hemengo Andra Maria Koralaren sortzaile eta Zuzendaria.

* * *

Eta ur handitan sartzeko bat ere asmorik gabe, baina esan dezadan zertxobait sarrera-hitzaldirako hartu duzun gaiari buruz. Orain arte inork ukitu ez duen gaia, argitzen gaitza edo ezinezkoa zirudiena, eta, beste aldetik, gure Erakundearen historiarako oinarri-oinarrizkoa dena. Horrelakoa zen, eta da, zuk hartu duzun gaia. Zuk hortzak sartu dizkiozu, eta orain, zuri esker, badakite euskaltzainek zein den beren aulkiaren zenbakia eta nortzuk izan diren aulki horren jabeak orain arte. Ez da makala izan lan honekin Euskaltzaindiari egin diozun mesedea. Zorionak eta eskerrak eman nahi dizkitzut beronengatik. Benetan baliotsua eta argitsua da guretzat. Ilungune batzuk gora-behera —gerraondoko ordezkioak direla eta, izendapen politiko batzuk direla eta—, parterik gehienez lehen uher eta nahasi ziren gauzak, zuk zeharo argitu dituzulakoan nago.

Aitortu behar dut ni Euskaltzaindian sartu nintzenean inork ere ez zidala esan noren ondorengoa nintzen Akademian eta ez dudala hori sekulan jakin gaur arte. Gaur, zuri eskerrak, jakin dut Julio Urkijoren ondorengoa naizela, eta, ziurki, horrek biziki poztu nau. Beste euskaltzain askori ere antzera gertatuko zitzailela uste dut.

Gaur Euskaltzaindian sartzen direnek badakite, noski, nor izan zen beren aulkiaren azken jabea, baina gorago igo nahi bazuten, gauzak ez zeuden bat ere argi. Gaurtik aurrera, berriz, zuk lan hau egin duzun geroztik, bai. Bilakuntza luze eta aspergarriak egin behar izan dituzu argitzapen hauek egin ahal izateko. Euskaltzain bakoitzaren genealogia eman diguzu. Zorionak berriz ere eta eskerrak.

Gezurra dela esan lei: 70 urte doi-doi ditu gure Euskaltzaindiak, eta lan hau egiten horren zaila izatea esan nahi dut. Baina kontutan eduki behar da gerra bat izan zela eta gerraondo luze bat, zeinetan Euskaltzaindiaren bizitza ez baitzen normala. Hasieran euskaltzainak 12 ziren. Gerra edo gerraondoa dela eta, euskaltzain batzuk exilioan zeuden eta ez zuten batzarrera etortzerik. Euskaltzaindiak horiei aulkia errespetatu zien, baina etortzerik ez zutenei ordezkioak izendatuz. Horrekin, jakina, “*numerus clausus*”en legea hausten zen, eta hori erremediatzeko, aldaketa bat egin zen Arautegian euskaltzainen kopurua 18ra gehituz. Aldaketa hori 1954ko Arautegian agertzen da, baina pratika lehenagotik zetorren eta Euskaltzaindiko batzarrean, Krutwigen eskariz, onartua zegoen (1).

(1) Ikus *Estatutos y Reglamento de la Academia de la Lengua Vasca*, 1954.

Zuk zeure lanean diozu 1954ko data horretan hartu zela euskaltzainen kopurua 24ra gehitzeko abelera edo burubidea. Nik dakidala, hori geroagoko beste aldaketa batean, hots, 1971-1972koan gertatu zen (2). Hemen ere, ordea, beharbada pratika lehenagotik zetorren. Esan nahi dut, gertatu ziren izendapenekin —titular, ordezeko etab.— ezarian bezala, horretaraino igo zen euskaltzainen kontua eta Arautegi berrian —1972ko Arautegian— 24ko “*numerus clausus*”a finkaturik gelditu zen.

Ene ustez, euskaltzainen izendegitik ezabatu behar dira bai Blaise Adema eta bai Lino Akesolo ere, eta biak arrazoi berberagatik, ez baitzuten izendapena onartu, eta orduan izendapen hori balio gabe gelditu zen. Ez zen, bada, horrekin hilezkortasunaren legerik hautsi. Izendapena errutsua edo baliodun izan dadin, noraezekoa da hautatua izan denak bere adetik baiezekoa eman dezan. Eta bi jaun horiek ez zuten eman.

Hemendik ikusten da, norbait euskaltzain izendatzen denean, halako hitzarmen edo akordio bezalako bat gertatzen dela. Alde batetik, Euskaltzaindiak euskaltzaina hautatzen du, baina, bestetik, hautatuari ere “bai” edo “ez” esateko eskubidea uzten zaio. “Ez” esaten badu —Ademak esan zuen bezala—, izendapena balio gabe gelditzen da, ezereztua, eta orduan ez dago hitzarmenik.

Gainera, esan behar da aurrenengo hautatze haiek ez zituela egin Euskaltzaindiak, eta hori arrazoi sinple bategatik: artean Euskaltzaindirik ez zelako. Hain zuzen, 1919ko izendapen horiekin hasi zen existitzen. Aurtengo Irailean beteko dira 70 urte.

Lehen euskaltzainen hautatze hura gogoangarria da. Zortzi euskaltzain hautatu behar ziren (lehenbiziko lauak aurreko urtean Oñatin, Eusko Ikaskuntzaren Batzarrean hautatu baitziren). Eta ohar honi, notatzekoa baita: “Compromisario” gisa botua emateko eskubidea izan zuten garai hartan Euskalerrian zeuden euskal aldizkari eta orrien Zuzendariek. Beraz, horiek eta Oñatin hautatutako lauek behar zuten gainerako zortzi euskaltzainak hautatu. Julian Elorza eta Angel Apraizek dei eginik, bildu ziren jaunok Gipuzkoako Diputazioaren jauregian 1919ko Irailaren 21ean eta hala egin zuten hautapen hura. Orduan hasten da abian Euskaltzaindia. Handik harat gertatzen diren hutsen horniketak euskaltzainek eginak izango dira, noski (3).

Zehazkiago hitzeginez, ordea, Euskaltzaindiaren lehen batzarrea hurrengokoa izan zen, Urriaren 7an Donostian egin zena, alegia. Han bildu zen lehen aldikotz Euskaltzaindi berria, salbu Adema. Baina honek eskutitz

(2) Ikus **Euskera** (1972), 193.

(3) Ikus **Euskera** (1972), 15.

bat bidali zuen bere ezezkoaren arrazoiak emanez. Zatitxo bat irakurriko dizuet:

“Eskerrik minenak daukitzuet zuek nitaz egin duzuen hautuaz; baina behar dautzuet berehala aitortu ez naizela gei hoinbertze goretsia izaiteko. Ezen, zuen lanetan deus onik egitekotz, lagun bakochak behar lituzke jakin gure Euskal-herriko mintzaira mota guziak. Eta nik erranen dautzuet lañoki ez dakizkitala ez Bizkaiakoa ez Gipuzkoako eskuara bereziak. Bertzalde, oraiko nere egitekoekin, ez nuke astirik aski zuen bilkuretan behar liteken bezen maiz aurkitzeko. Baditut bi astekari ene gain...” (4).

Euskaltzaina betiko edo hilezkor izatearen tradizioa gure Akademian garbi dago, ene ustez, Agerriren salbuespena salbu. Exilioan zeudenen ordezekoak izendatze horrek berorrek ez ote du hori adierazten? Haiek hil arte beren aulkietan mantenduak izan ziren, baina batzarrera etortzerik ez zutelako, ordezekoak izendatu ziren, titularrak beren aulkien jabe izanik. Hortik etorri zen gero aulkien kontua gehitu beharra eta bai beste zenbait katramila ere.

* * *

Zure lanetik ikusten dut Krutwigen ondoren ni naizela zaharrena Euskaltzaindian, ez adinez, baina bai Akademian daramatzadan urteengatik.

Berriz ere zorionak eta eskerrak eman hai dizkizut zure sarrera-hitzaldiagatik, Euskaltzaindiaren kondaira egiteko argi handia egozten baitu. Euskaltzaindiak asko espero du zuregandik, batez ere lehenbiziko euskaltzainburuaren eta Akademiaren beraren hastapen eta ondoko gora-beherak argitze kontuan.

Zorionak baita ere Gernika-Lumoko udalerriari, eta Lumo azpimarrazten dut zeren elizate horren barrutikoa baitzara.

Zorionak, azkenik, zeure emazte, seme-alaba eta abarri. Eta honekin amaitzen dut.

(4) Ikus *Euskera* I, 49-54.

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Gernika, 1989-VII-28

*Tomas Uribeetxebarria Maiztegi
Bizkaiko Kulturako Foru Diputatua*

Euskaltzainburu jaun agurgarria eta jaun eta andre agurgarriok. Ustekabea suertatu zait Bizkaiko Foru Aldundiaren agurra zuei zuzentzeko ohore haundi hau, Diputatu Nagusi Jaunak berak desiorik biziena bait zuen gaur hemen izateko, Bizkaikoa ezezik Gernikako semea egin dutelako Euskaltzain, eta Diputatu Nagusia bera ere gernikarra denez gero, harro agertzen zuen bere burua Jose Antonio Arana Martija Jauna ohore horretara jasoa izan delako.

Ohoretzat agertu dut Euskaltzain izendatzea eta, izan ere, ezin da bestela izan. Ez da gaur egun euskaldun jatorrik gure herriaren kezka, gure herriaren izatearen eta iraupenaren kezka, bizi ez duenik. Herriaren izatea ezinbestez hizkuntzarenarekin lotua dago: Euskal Herriak, euskal herri deino iraunen du. Horra zergatik den herri honetako edonorentzat ohorerik haundienetarikoa euskaltzain izendatua izatea.

Ohore hori ez da, hala ere, Euskaltzaindiari berez eta ezeren truke etorri zaion zerbait, baizik urteetan eta urteetan gizarteko gorabehera askoren eta, hainbat aldiz, bortitzen gainetik euskararen zuzia pizturik eukitzen saiatu eta jakin izan duelako bereganatu du ospe hori. Ez da hitz hutsalezko izena, baizik egunean-eguneango ekinez eta emaitzez landutako eta mamitutako ospea.

Hona, beraz, ohore horren beste alderdia: lana, ekinbeharra. Euskaltzaindia lan oparoa egiten ari da, eta Euskaltzain oso izendatua izateak lan horren eragile eta bultzatzaile nekagaitza izendatua izatea darama berarekin.

Jose Antonio Arana Martija Jaunak, ordea, ez du alderdi horretatik ezer frogatu beharrik. Beti euskal gaietan murgildurik ibili da, liburuak eta dokumentuak miatzen, lan ugari eman ditu argitara eta euskal gaietarako laguntzailerik onena bihurtu da edozein iturri edo liburu bilatzeko.

Jose Antonio Arana Martija Jaunak, bestalde, kultur ikuspuntua darama Euskaltzaindira. Lehen esan bezala, euskara da Euskaltzaindiaren ardatza, baina hizkuntzak kultur tresna direnez, Jose Antonio Arana Martijarekin ikuspegi kultural hori, musika mundukoa, ezaguna denez, sartzen da Euskaltzaindira. “Heuskara, ialgi adi plazara!” Ez da hainbeste mundura aterabeharra, baizik euskara bere baitarik kanporatzea, euskara zernahitarako gaitzea eta erabiltzea, behar orotarako tresna egoki eta zauli bihurtzea. Hau da gure azken urteotako lehia eta borroka latza, eta Jose Antonio Arana Martija Euskaltzain izendatzea izan daiteke nolabait horren adierazgarrietako bat.

Zoriontzen dut, beraz, Euskaltzaindia bera eta batez ere Jose Antonio Arana Martija Jauna, eta ez dago besterik esan beharrik, ez gizon saiatua dela ezaguna delako, baizik, Euskaltzaindiko bibliotekari denez, inork bezain ongi ezagutzen duelako Euskaltzaindiaren lema: “Ekin eta jarrai”.

**EUSKALTZAINDIAK HERRI AGINTEEKIN
EGINDAKO HITZARMENA**

Oñati, 1989-X-7

EUSKALTZAINDIAK HERRI AGINTEEKIN EGINDAKO HITZARMENA

Oñati, 1989-X-7

*Eli Galdos Zubia
herriko Alkatea*

Lehendakari jauna, Euskaltzainburu jauna, Agintari jaun-andreok eta hemen bildu zareten guztioi, agur t'erdi.

Oñati, Oñatiko Unibertsitate zahar hau berriro ere Euskal Herri osoaren erakar zentru bilakatu zaigu. Irekita iraun zuen lau mende ingurutan zehar bere merezimenduz izan zen; gero, gure Euskal Herria moral eta materialki txikituta utzi zuten gerrateen gau ilun eta latzaren ondoren, nostalgiaz beteriko oroitzapen iraunkor bilakatu zen une gogor haietan euskaldun askorentzat, eta batzuk, ezinezko zirudien arren, euren aberkideei, ondamena eta askatasunak galtzeagatiko zauriak sendatzen gorputz eta animar ekin zioten lanean.

Helburu honekin sortu zen batez ere mende honen hasieran, kultura, zientzia eta baita politika errenazimendua ere, ondorioz, oroimenez beteriko Unibertsitate honetan, 1918an Eusko Ikaskuntzaren lehenbiziko Biltzarra ospatu zelarik.

Biltzar garrantzitsu eta aberats honetatik jaio zen Euskaltzaindia, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Foru Aldundien babespean. Gaur, 70 urte igaro ondoren horma hauen artean “Euskara zaintzeko, gaurkotzeko eta batzeko” jaio zen Euskaltzaindiaren hura, beraren lehenbiziko abiapuntura itzultzen da, sendotua, antolatua eta itzal handiz, egindako lanarekiko balantze aberatsa eskainiz, gainera.

Zorionak!

Euskal Herriarentzat ilusioa eta bizinahia berreskuratze bidean, historian parekorik izan ez duen berpizkunde-mugimenduaren emaitzarik ederrenetarikoa izan zen Euskaltzaindia. Nire desioa, eta ziuraski guztio-na ere, hauxe da, gaurko birrelkartze hau, etorkizunaren agerle izan dadila. Bidasoaren alde honetako euskaldun guztiontzat oinarri sendo izateaz gain, lehen bait lehen instituzio bakar berberaren babesean bil

gaitzala, eta Bidasoaren bestekaldeko euskaldunekin hori bera lortu ahal izateko legamia izan dadila. Gure hizkuntza sakratuari esker erraztu dadila gure bat egite hau.

Benetan euskalduna den Euskal Unibertsitate batek asko lagunduko liguke guzti hori lortzeko.

Oñatiko Alkate naizen honetan, ohore handia da niretzat, oñatiar guztien izenean, ongi etorririk beroena zuei luzatzea.

EUSKALTZAINDIAK HERRI AGINTEEKIN EGINDAKO HITZARMENA

Oñati, 1989-X-7

*Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua*

Euskal Herriko agintari ohoragarriak,

Andereak, Jaunak,

Zer poza Euskaltzainburuarentzat eta Euskaltzaindiarentzat ikusiz hainbeste jaun andere ohoragarri bildurik gaur Oñatiko Unibertsitate zahar honetan.

Agurtzen ditut Euskaltzaindiaren izenean Euskal Herriko agintariak, Jose Antonio Ardantza, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria; Aladino Colin, Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria; Imanol Murua, Gipuzkoako Diputatu Nagusia; Rafael Iturriaga, Bizkaiko Diputatu Nagusi ordeak; Alberto Antsola, Arabako Diputatu Nagusi ordeak; Eli Galdos, Oñati Jaun Alkatea, azken honi eskertzen dizkiodala orain bertan erran dituen ongi etorrizko hitz sarkor eta amultsuak.

Bazena leku eta egun egokiagorik Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Diputazioekin ardietsi duen hitzarmenaren izenpetzeko? Ez dut uste. Baina zertako Oñati, zertarako ere Urriaren 7a?

Hain zuzen ere Euskaltzaindiak proposatu du Oñatiko Unibertsitate hau, badakielakotz 1918ko Irailaren 5ean bildu zelarik Eusko Ikaskuntzaren lehenbiziko kongresua, hemengo gela batean erabaki zela Euskaltzaindiaren sortzea eta izendatu zirela lehen lau euskaltzain osoak: Resurrección María de Azkue, Arturo Campión, Julio de Urkijo eta Luis Eleizalde. Oñati da beraz, Euskaltzaindiaren sort-herria eta Oñatiko Unibertsitatea Euskaltzaindiaren seaska.

Euskaltzaindiak proposatu du ere gaurko eguna, Urriaren 7a. Urte bat pasatu zen. Orduko Euskal Herriko lau Aldundiek beren babesa eman zioten Euskaltzaindiari. 1919ko Irailaren 21ean jadanik izendatuak

ziren lau euskaltzainak bildu ziren Donostiako Aldundi Jauregian *Jaun-goikozale*, *Euzko-Deia*, *Jesusen Biotzaren Deia*, *Irugarrengo Prantziskotarra*, *Euskal-Erria*, *Euskal-Erriaren alde*, *Euskal-Esnalea*, *Revista Internacional de Estudios Vascos* eta Baionako *Eskualduna* deritzen agerkarien hautesleekin. Jaun horiek hautatu zituzten beste zortzi euskaltzain oso: Domingo Agirre, Pierre Broussain, Adema apezka, Ramon Intzagaray, Jose Agerre, Juan Bautista Eguzkitza, Raimundo Olabide eta azkenik Ziberoko euskalkiarentzat Aita Pierre Lhande. Hamabi euskaltzain osoek egin zuten beren lehendabiziko bilkura Donostian Gipuzkoako Aldundiaren Jauregian Urriaren 7an, beraz duela 70 urte.

Orduko bilkuraren aktan irakur daiteke Adema apezak onartu ez zuelakotz izendapena Broussain eta Lhande-k aurkeztu zutela Landerretxe apezka, aho batez onartua izan zena. Egun hartan ere Azkue izendatu zuten Euskaltzainburu, Agerre Diruzain, Urkijo Liburuzain eta Eleizalde Zadorlari. Hau izan zen Euskaltzaindiaren lehendabiziko Zuzendaritza. Eta hitzez hitz dakart orain Euskaltzaindiak hartu zuen azken erabakia:

“Azkenik Euskaltzaindiak nondik bere bizipide bilduko ote zuan, kideen artean ikertu zen. Eusko Ikaskuntzak ematen diozkan elpidez ganera, Euskalerriko Aldundi eta beste Baltzu zinezkoeri laguntza eskatu bear zitzayela erabaki zan”. (**Euskera** 1919, 52 or.).

Hirurogoita hamar urte iragan eta orain izenpetuko den hitzarmenak erakustera emaiten du zenbat aldatu den giroa Euskal Herrian. Euskaltzaindia, 1979ko Otsailaren 26ko Erregeren Dekretuz Institutzio gisa onarturik, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak euskarari dagozkionetan erakunde aholku emaile ofizial harturik, Nafarroako Gobernuak hizkuntz alorrean halaber aitorturik, osoki ezagutua izana da. Orain artio Hegoaldeko Herri aginteez, bai Eusko Jaurlaritzak, bai Nafarroako Gobernuak, bai ere hiru Foru Aldundiek, banaka, eman diote Euskaltzaindiari diru laguntza ederra, baina hemendik goiti, hitzarmen honi esker aurrerantzeko jardunbidea sendo bermatu asmoz, denak elgarretaraturik —eta hori da gure pozik haundiena— Euskaltzaindiari laguntzeko diru izendapena dagokien aurrekontu lege eta aurrekontuetako foru arauetan agertzen dena, emaitera lotzen dira sei urterentzat.

Diru laguntza horretan sartzen dira langile plantillaren kostua, funtzionamendu eta inbertsio gastuak, bai eta ere Euskaltzaindiak asmatutako lan programak, hiztegigintzan, gramatikagintzan, euskalki azterketetan, onomastikan eta literaturgintzan. Badakizue, Herri agintari Jaun Andere ohoragarriak, lan eta ikerketa sakon eta luzeetan sartua dela Euskaltzaindia. Zuen diru laguntzari esker jadanik *Orotariko Euskal Hiztegiaren* bi liburuki agertu dira, Gramatikaren bi liburuki ere, Onomastikako lau liburuki, Hizkuntz Atlasaren inkesta bururatuko delarik datorren urtean eta literaturagintzan aurrera doatzilarik ikerketak. Mende honen azken

hamarkadan ikusiko da ixilean eta egunero egiten den lanaren emaitza nasaia.

Ez dut uste holakorik asmatuko zutela lehenbiziko hamabi euskaltzainek, duela hirurogoi eta hamar urte, egunez egun, lehenbiziko eskaria egiten zietelarik Hegoaldeko lau Aldundiei.

Atzoko ametsa gaur bertan gauzatzen da, zuei esker eta Euskaltzaindiaren izenean nahi dizkitzuet eskerrik beroenak eskaini.

A C U E R D O
ENTRE EL GOBIERNO VASCO
GOBIERNO DE NAVARRA
DIPUTACIONES FORALES
Y EUSKALTZAINDIA



EKIN ETA JARRAI



EUSKO JAURLARITZA
NAFARROAKO GOBERNUA
FORU ALDUNDIAK
ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO
HITZARMENA

Bai, bihotzetik eskermila diotsuet, mila esker horietan zenbait eskaintzen dizkiodala Mari Karmen Garmendia andereari gogo onez eta bere indar guziz bateratu dituelakotz akordio horren hari guztiak.

Ateak zabalik daude beste Herri Aginteentzat eta orain gogoan ditut Iparaldekoak. Nere ametsa, zoroa beharbada, da heiek ere kontutan har ditzaten Euskaltzaindia eta egiten dituen lanak.

Gaurko eguna historikoa da Euskaltzaindiarentzat. Euskararen one-rako jarraikiko da Euskaltzaindia, atzo bezala bihar ere, kar haundiagoa-rekin Herri aginteen laguntzari esker.

EUSKALTZAINDIAK HERRI AGINTEEKIN EGINDAKO HITZARMENA

Oñati, 1989-X-7

*Imanol Murua
Gipuzkoako Diputatu Nagusia*

EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA, FORU ALDUNDIAK ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO AKORDIOA

Jaun Andreok:

Bi hitz egiteko zoria eta ohorea dut, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien izenean, Oñatiko herri ederrean ospatzen ari garen ekitaldi honetan, lurralde honetako Diputatu Nagusi naizenez gero.

Hiru Foru Aldundiei dagokien aldetik, uste osoan gaude, akordio hau sinatzearekin hau baizik ez dugula egiten: Gure aurrekoek euskarari buruz edukitako filosofia jatorrenari eutsi, eta aldi berean, modurik egokienean filosofia horri erantzuna eman, gaurregungo herrigintzak gure esku uzten dizkigun ahalmen eta indarrak erabiliz.

Oñatiko kongresuak ongi azpimarraturik utzi zuen euskarari dagokion benetako ikusmoldea. Eta ordutik hona Euskaltzaindia eta Diputazioen arteko loturak aldakorrak izan badira ere, azpi-azpian beti pentsamolde ber-bera egon da, filosofia bera, hartu eman horietan.

Euskarari buruzko ikuspegi hau modu askotara ager badaiteke ere, gaur hemen, kongresuan aipatutako hitz batzurekin emango nuke aditzera. D. Julio de Urkijok orduan esandakoak dira, eta, gaurtik begiratuta, benetan entzungarriak:

“Me atrevo a afirmar, que si las Diputaciones Vascas... fomentaran el estudio de la lingüística en nuestro país, si crearan pensiones, si establecieran cátedras, si fundaran un laboratorio de fonética experimental, si ayudaran a la terminación del diccionario del atlas lingüístico... se harían dignas del aplauso y del reconocimiento de todos los vascos y de los hombres cultos en general” (Actas, 427 or.).

Orduan bezala gaur ere, aho batez eskatzen da, hizkuntzari buruzko ikaskuntzak sortu eta indartu beharra. Eta horretarako diru-laguntzak eta katedrak eskatzen dira. Eta gaurregun oraindik osabetetzen ari garen zenbait lan jakin ere aipatzen da: Azkueren hiztegia bukatzea, atlas linguistikoa burutzea, fonetika esperimental laborategi bat eraikitzea eta abar.

Orduko beharrak ditugu, orduko asmoak, orduko erantzunak euskararen inguruan. Eta filosofia hori bera dago gaur guk hemen sinatzen dugun akordio honen mami-mamian.

Gauzak horrela zeuden une hartan, Oñatiko Kongresuan, eta hizkuntza izeneko sailean, erakunde bat antolatzea eskatzen da, euskara ikertu eta zainduko duena.

Eusko Ikaskuntzak, herri honetan bertan, 1918an, egin zuen biltzarreran sortu zen Euskaltzaindia Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioen babesean.

Eta araudiak onartu eta euskaltzainak aukeratu ondoren Gipuzkoako Foru Aldundian egin zuen lehen bilera, gaur 70 urte.

Handik laster urte beltzak eta luzeak ezagutu ditu gure Herri honek, Herri honen Erakundeek, Diputazioek, Euskaltzaindiak eta euskarak, euskarak eta Euskaltzaindiak bizirik irauten izan zuten lanik asko erasoaldi gogor hartan.

Baina askatasun-bidetik abiatu bezain azkar euskararen eta Euskaltzaindiaren ardura beren gain hartu zuten Euskal Erakunde Demokrati-koek, ahal zuten neurrian. Egoitzak, bulegoak, baliabideak eta diru-laguntzak eskaini zizkieten lehenengo egunetik lau Diputazioek.

Ongi jabetzen gara, denbora berriagoei erantzun asmoz sinatzen dugula Oñatiko Akordio hau.

Gaurregun euskarak, sozio-kultur ikuspegitik begiratuta, leku zabala goa hartzen du herrigintzaren proiektuaren barruan. Bestalde, desapio berriak eta minberak ditu hizkuntzak gaurko egoera sozio-kulturalean, erantzun azkarra eta sakona eskatzen duen egoera berrian.

Bestalde, gaurregun hor dago Euskal Unibertsitatea, euskarari eta euskal literaturari buruz ikerkuntza eta zabalkuntza hasi dituen gure hizkuntzaren mesedetan. Eta hor dago hizkuntz politika gero eta egokia goa. Eta hor dago azpiegitura indarberritzen doana, Euskararen sustapenerako.

Egoera honetan guztian, badu zereginik Euskaltzaindiak. Aspaldi hasitako lanak aurrera eramateko, Unibertsitateen arteko ikerketak uztartzeko eta ikerketen emaitzak zabaltzeko beharrezko ikusten dugu Euskaltzaindia bezalako Erakunde baten indarra. Eta beharrezko ikusten dugun

arabera, erakundeari eustea, arnasa ematea, horrela lehenagoko asmo haiek gaurregun ere garatu eta bete ditzagun euskararen onerako.

Iritsi zaio euskarari laguntza oparoak eskuratzeko garaia. Eta guk Akordio hau sinatzen dugu, ustez aurrerapauso bat ematen dugula euskararen alde, aurrekoan haritik eta gerora begiratzuz. Eta hainbeste euskaldun eta euskaltzalek nahi dutenari atxekimentua edukiz. Geroak esan beza, zuzena eta bidezkoa ezizik, bete-betean asmaturikoa izan zela gaur Oñatin sinatzen dugun Akordioa. D. Juliok iragarri bezala, izan dezagula euskaldunen onarpena eta aitorpena, eta orohar gizon-emakume kulturadunena.

EUSKALTZAINDIAK HERRI AGINTEEKIN EGINDAKO HITZARMENA

Oñati, 1989-X-7

*Aladino Colín Rodríguez
Consejero de Presidencia e Interior
del Gobierno de Navarra*

Intervención del Consejero de Presidencia e Interior del Gobierno de Navarra, Don Aladino Colín Rodríguez, en el acto de firma del Acuerdo de Colaboración entre Euskaltzaindia y el Gobierno Vasco, el Gobierno de Navarra y las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Guipúzcoa.

Excmos. e Ilmos. Sres. Señoras y Señores.

Quisiera, en primer lugar, expresar mi profunda felicitación y mi reconocimiento a Euskaltzaindia porque ha sido, con su rigurosa labor científica e investigadora sobre el Euskera, con la que ha conseguido, a través del convenio que acabamos de suscribir, comprometer a los Gobiernos Vasco y de Navarra y a las Diputaciones de Alava, Vizcaya y Guipúzcoa en la financiación estable de sus actividades y proyectos.

Desde su creación, Euskaltzaindia ha contado con el apoyo de Navarra, que siempre la ha considerado como una institución fundamental para el desarrollo del euskera.

Sin duda por ello la Diputación Foral de Navarra adoptó el día 1 de Septiembre de 1919 el acuerdo de “Aprobar el proyecto de la futura entidad o Academia de la Lengua Vasca formulado por el Congreso de Oñate”. Fue el inicio de una serie de actuaciones que, en colaboración con la Academia, propiciaron la creación en 1925 de un fondo para premios y obras en euskera, el apoyo en 1955 a la “campana herriz-herri”, la aparición ese mismo año del suplemento en euskera de la revista *Príncipe de Viana*, y la creación en 1956 de la “Sección para el fomento del vascuence” dentro de la institución Príncipe de Viana.

Fue también en muchas ocasiones el ejemplo de la propia Academia y la defensa ante las instituciones navarras del euskera lo que provocó la actuación de éstas y, así en 1967 se decidió la impartición de clases

diarias de vascuence “en las zonas vascongadas o semivascongadas”, la concesión de subvenciones para escuelas de adultos, y el reconocimiento del euskera como mérito para los nombramientos de funcionarios forales en la zona vascófona. Se creó en 1969 la revista *Fontes Linguae Vasconum*. En 1970 se inicia la creación de centros educativos bilingües, y dos años después se aprueban las “Bases para la enseñanza y fomento del vascuence”. Finalmente, el 15 de Octubre de 1976 se crea la Cátedra de Euskera en la Escuela Universitaria del Profesorado de EGB.

La instauración de la democracia y la mera ordenación institucional que deriva de la Constitución de 1978 en Navarra, en relación con el euskera, ha sido fundamental la aprobación por el Parlamento de Navarra de la Ley Foral del Vascuence en desarrollo de la Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral. Esta Ley Foral establece que el castellano y el euskera son lenguas propias de Navarra, y reconoce a Euskaltzaindia la alta consideración de “institución consultora oficial” a los efectos de establecimiento de las normas lingüísticas. El desarrollo y aplicación de la mencionada Ley Foral está encomendado a la Dirección General de Política Lingüística creada el pasado año. Destacan entre las actuaciones seguidas “el incremento en los últimos años de líneas bilingües en la enseñanza”, “la creación de servicios municipales de euskera” y la “puesta en marcha de planes de euskaldunización de la Administración Foral y local”.

El Gobierno de Navarra es consciente de lo mucho que resta por hacer para la recuperación e impulso del euskera, y, al suscribir este convenio viene a contribuir, junto a las demás instituciones, a la labor acometida por la Real Academia de la Lengua Vasca para forjar “un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriéndose de la sabia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de la literatura común como medio de rescatar la lengua de su retraimiento secular, haciéndola vehículo normal de relación y transmisión cultural en el mundo de hoy”.

Este fin fundacional que se viene cumpliendo cada día sea también el que nos mueva a las distintas instituciones políticas, sociales y culturales aquí presentes: desde opciones distintas, desde marcos diferentes, desde realidades propias y particulares, seamos capaces de cooperar en la consecución del lema de Euskaltzaindia “Ekin eta jarrai”!

Eskerrik Asko.

* * *

Jaun txit argi eta garaioi. Jaun-andreok:

Aurrenik nere zorionik beroena eman nahi nioke Esukaltzaindiari, baita neure esker ona adierazi ere, zeren euskarari buruzko bere ikerketa

lan zientifiko serioari esker erdietsi baitu Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak beren burua behartzea izenpetu berria dugun Hitzarmenaren bidez Erakundearen ihardun eta langaien finantzabide finkoa segurtatzera.

Sortu zenetik bertatik Euskaltzaindiak ez du inoiz falta izan Nafarroaren laguntza, beti euskara sustatzeko behar-beharrezko erakundetzat jo izan baitu.

Horregatik hartu zuen noski Nafarroako Foru Diputazioak 1919ko Irailaren 1ean erabakia “Oinatik Batzarreak etorkizunean erakunde bat, Euskararen Akademia, sortzeko azaldu duen proiektua onesteko”. Harez geroztik ekintza sail luzea egin izan da Euskaltzaindiarekin elkar-lanean: 1925ean diru altxor bat eratu zen euskarazko lanak saritzeko, 1955ean “Herriz herri” kanpainari laguntza eman zitzaion, eta urte hartantxe *Bianako Printzea* kazetaren euskarazko gehigarria hasi argitaratzen, eta 1956an “Euskara sustatzeko Atala” sortu zen *Bianako Printzea* Erakundearen barrenean.

Maiz, Euskaltzaindiaren beraren exenpluak eta honek nafar erakundeen aurrean euskara defendatzeak ekarri zituzten erakunde hauek esku hartzea, eta hala, adibidez, 1967an erabaki zen egunero euskarazko eskolak eman zitezela “lurralde euskaldun nahiz erdi euskaldunetan”, eta euskara jakitea merezimendutzat aitortzea Foru Funtzionariak eskualde euskaldunetan izendatzeko. 1969an *Fontes Linguae Vasconum* kazeta sortu zen. 1970ean ikastetxe elebidunak sortzen hasi ziren, eta bi urte geroago “Euskara Irakatsi eta sustatzeko” oinarriak onetsi ziren. Azkenik, 1976ko Urriaren 15ean Euskara katedra bat sortu zen OHoko irakaslegoaren Unibertsitate-Eskolan.

Demokraziaren allegaera eta 1987ko Konstituziotik heldu den instituzioen ordenazio soilak, euskararekiko funtsezkoa izan da Nafarroako Parlamentak Euskararen Foru Legea onestea, Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoa garatzekoa. Foru Lege honek finkatzen duenez, bai euskara bai gaztelania, biak dira Nafarroako hizkuntza propioak, eta Euskaltzaindiari aitortzen zaio “erakunde aholku emaile ofizialaren” status txit gorena hizkuntz arauak finkatzerakoan. Aipatu Foru legea garatu eta ezartzea ihaz sortu zen Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren esku dago. Burutu diren ekintzetan, ezin aipatu gabe utzi dira “Irakaskuntzako lerro elebidunen gehikuntza”, “udaletako euskara zerbitzuak sortzea”, eta “Udal eta Foru administrazioak euskalduntzeko planak abiaraztea”.

Nafarroako Gobernuak oihartzen da oraindik lan handia dagoela eginkizun euskara berreskuratu eta indartzeko, eta hitzarmen hau izenpetzearekin, bultzada eman nahi dio, beste erakundeekin batera, Euskaltzaindiak bere gain hartu duen proiektu honi: “hiztegian, sintasian, eta

grafian batutako literatur hizkuntza bat moldatzea, euskalki guzien iturriez baliatuz, guzientzako literatura bat izateko bide izanen dena, hizkuntza bere mendetako bazterketatik atera eta gaurregungo munduko hartu-emanetarako eta kultura transmititzeko bide normala izan dadin”.

Egunero betetzen ari den sortzetiko xede hori bera dugu akuilu hemen gertatu diren instituzio politiko, sozial eta kultural guziok: hautaera diferenteetatik, ingurune diferenteetatik, nor bere errealitate propiotik, gauza izan gaitezen Euskaltzaindiaren ikur-hitza gauzatzen lan egiteko: “Ekin eta jarrai”!

Eskerrik Asko.

EUSKALTZAINDIAK HERRI AGINTEEKIN EGINDAKO HITZARMENA

Oñati, 1989-X-7

*Jose Antonio Ardantza
Lehendakaria*

Agintari, jaun-andreak, Euskal Herri luze zabaleko jendeak, agur!

Lehendakari legez benetan atsegin dut gaur hemen zuekin egotea. Atsegin Euskal Herri zabaleko, Euskal Herri osoko jendez inguraturik nagoelako; atsegin gaurko bilkuraren ardatza guztiok batzen gaituen euskara delako; atsegin Oñatik Euskaltzaindia sortzeko borondatearen eta ahalmenaren gomuta dakarkigulako eta atsegin Euskaltzaindiaren etorkizuna ziurtatzen duen Hitzarmena sinatu dugulako.

Euskaltzaindiaren etorkizuna ziurtatzen dugun honetan, ordea, guztiz komenigarri zaigu Euskaltzaindia sortu zeneko garaia gogora ekartzea. Era askotara baita garai hura gogoangarri, eta gure egunotarako eta etorkizun hurbilerako eredugarri.

Euskaltzaindiaren sorreran ez baita aurkitzen, beste zenbait hizkuntz akademien kasutan bezala, hizkuntzaren txukuntasunaren ardura hutsa. Garai hartan euskarak bizi zuen egoeratik atera nahirik, Euskaltzaindiaren sorreran aurkitzen ditugun kezkak eta ardurak bestelakoak dira: erabilera, bere gizarte mailako status-a, bere etorkizuna ziurtatzeko borondatea, bere gaitasuna eta indarra gizarte bat definitzerakoan, jakintzaren arlo zabal guztietarako gaitu beharra. Ez da kasualitate hutsa, alderantziz baizik, Eleizalde bere hitzaldia Oñatiko Biltzarrean bi zatitan aurkeztu izana: euskara gizartearen baitan berreraikitzea, batetik, eta euskara hizkuntzaren tajuketa, bateratze ortografikoa, fonetikoa eta gramatikazkoa bestetik.

Oñatiko Biltzarra aipatu dut, eta ez ustekabea. Euskaltzaindiaren sorrera ez baita gertakizun isolatua. Une gailena da, zalantzarik gabe, Euskal Herriarentzat eta bere kulturarentzat garrantzizkoa den katearen zati bat. 1918garren urteak mende honen hasieratik Euskal Herrian eta euskal kulturen suspertzen joan ziren ideia, asmo eta proiektuak burutzea dakar. Aurreko mendearen bukaeratik eta mende honen hasieratik

pizturik bait zegoen euskal gizartearen barruan eta beronen jakintsu taldeetan euskararekiko ardura eta kontzientzia, euskararen batasunaren kezka, eguneratu beharrarena eta gainera euskal kulturari zor zitzaion mailara igoteko ikerketa, irakaskuntza, ikaskuntza eta epe laburrean uni-bertsitatea eraiki eta eskuratu beharra.

Sortuak ziren iadanik giro honetan: RIEV (*Euskal Ikerketen Nazioarteko* Aldizkaria), euskara katedrak, eta Eusko Ikaskuntza. Plazaratuak euskararen batasun ortografikorako proposamenak. Euskaltzaindiaren sorrera ez da, beraz, gertakizun isolatu bat, mugimendu zabal baten garrantziko oihartzuna baizik.

Lehen esan dut garai hori gogoangarri eta eredugarri zaigula. Eta hori horrela zergatik den argitu gabe ez nuke geratu nahi. Lau arrazoi aipatuko ditut. Mugimendu honetan partaide eta aintzindari izan zirenen helburu nagusia Euskal Herriaren eta euskal gizartearen garapena eta aurrerakuntza ziren, bere buruaren jabe izateaz batera. Helburu hau lortzeko berriz, oinarria, kulturaren errota zuten: euskal kultura garatu eta garai berrietara egokitu. Eta horixe da, nire iritziz, garai eredugarri hartatik aurrea ikasi behar duguna. Ez dago Euskal Herriaren burujabetasunik euskal kulturaren eta bere garapenean oinarritzen ez bada.

Bigarrenez, beti gogoan edukitzekoa da garai hartako aintzindariak hain garbi ikusi zutena: ez dagoela euskal kulturaren garapenik eta aurrerakuntzarik euskararik gabe. Argi eta garbi adierazten du hori Eleizalde, bere Oñatiko mintzaldian.


Lehen bi irakatsi hauek ezinbestekoak zaizkigu gaurko egoeran. Are gehiago, nire ustetan, hirugarrenez aipatuko dudana: mugimenduaren partaidetza zabala. Garai hartan ez dugu inor bazterturik ikusiko, ez zaio inori txartel politiko jakinik eskatuko, abertzaleak, liberalak, monarkikoak, integristak, guztiak elkarturik ikusiko ditugu. Gizarte osoaren partaidetza nabaria da: jakitunak, arduratutako pertsonak eta erakundeak, guztiek ekingo diote herrigintzaren deialdi berriari.

Laugarrenez eta azkenik: Mugimendu honek Euskal Herria suspertzea helburu bazuen ere etzuen bere begirada Euskal Herrira mugatu. Alderantziz baizik. Ongi jabeturik zeuden ez zegoela euskal kultura suspertzerik eta garatzerik mundu zabaleko kulturara begiak ireki gabe. Horren lekuko da, adibidez, RIEV aldizkariaren hizkuntz aniztasuna. Badirudi, eta ez da itxura bakarrik, Azkoitiko zalduntxoaren tradizioaren aria aurkitzen dela berriro.

Mende honen hasiera euskal kulturaren benetako pizkundearen lekuko izan zen. Pizkunde honek eman zuen fruiturik, eta batzuk behintzat aipatu nahiko nituzke: *Euskal Ikerketen Nazioarteko* Aldizkaria, Euskaltzaleen Biltzarra, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia bera. Ezin ahaztu,

ordea, RIEV, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, eta Estatutua garai bereko kimu direla esatea, ez dela nahikoa. Gehiago esan behar da: guztiak enbor beretik jaioak dira, helburu bera dute, behar berberari erantzuten diote. Elkarrekiko batasunean osabetetzen dira.

Euskaltzaindiak eta Estatutuak iturburu bera dute. Estatutua bera inguru giro honetan kokatu behar da, eta ezin uler daiteke ingurugiro horretatik kanpo.



Ezkerretatik eskubitara: Eli Galdos Oñatiko Alkatea, Imanol Murua Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Aladino Colin Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza eta Barne Saileko Kontseilaria, Jose Antonio Ardantza Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, Jean Haritschelhar Euskaltzainburua, Rafael Iturriaga Bizkaiko Foru Diputazioko Diputatu Nagusi Ordea, Alberto Ansola Arabako Diputazioko Buru Ordea.

Bukatu aurretik, eta gaurko egunari berriro heldu baino lehen, esan behar da itxaropenez lortutako euskal kulturaren pizkundea etenda gelditu zela kanpoko erasoaz. Itxaropenari hegoak moztu zizkioten, etorkizun bizia ito egin nahi izan zuten, eta loratzen hasia zen pizkundea berriro lurperatua izan zen. Berriro urte luzetako atzerapena, ilunpea euskal kulturarentzat. Azken batez: euskal kulturaren garapenaren kaltetan gertatuko diren amorrua, haserre, maximalismo hutsalak, gorrotoa eta indarkeria.

Erasoak eraso, zapalketak irauten duen bitartean. Euskaltzaindiak mende hasierako ardura nagusienetakoa izan zenari lotu zion bere burua, eta 1968an jarri zituen euskara batuaren oinarriak. Honen inguruan arazo bat baino gehiago izan bada ere, hogeit hamar urte pasatxo bete diren honetan aitortu beharra dago euskararen eta euskal kulturaren onerako pausu garrantzitsua izan zela Euskaltzaindiak egindakoa. Guzti honetan ahaztu ezina da gure artean ez dugun Koldo Mitxelena jaunaren maisutza.

Goian aipatutako giroaren fruitua dugu 1918an sortu eta gaur hemen bildu gaituen Euskaltzaindia. Eta Euskaltzaindiaren sorrerak orduko giroa gogoratu eta egoera hartan guretzat eredu garriak diren irakatsiak azpimarratzera eraman gaitu. Azter dezagun guzti hori gaurko begiz eta etorkizunaren ikuspegiz.

Euskal gizarteak, Euskal Herriak gaur ere bere garapenerako eta aurrerapenerako kultura behar du oinarri: bere kultura izan baita beste edozein definizioaren gainetik Euskal Herria mugatu, eta izendatu duena. Kultura izan da Euskal Herriaren bereizgarri; ez da izan bere aberastasuna; ezta ere bere botere politikoa; ezta sekula lortu gabeko batasun politikoa. Historian zehar suertatu zaizkion zatiketa politiko guztien gainetik kulturak biltzen gaitu. Eta honi eutsi behar diogu beste edozein gainetik. Mende hasieran ere kultur batasunetik sortu zen asmo politikorik, eta baita jaio ere Estatutuaren asmoa. Baina asmo politiko honek ez du ez orduan eta ez gaur zentzurik kulturazko kokagunetik, euskal kulturaren iturburutik kanpo. Ez dezagun beraz sekula ahaztu zer den lehenengo eta zer bigarren, zer iturburu eta zer ondorio, zer helburu eta zer tresna eta bide.

Orduan bezalaxe, ordea, gaur ere euskal kulturak euskara du, izan behar du ardatz. Euskara hizkuntza; komunikabide, jakinbide, eta bizitzako edozein egoeratarako gaitutako euskara. Mundu zabalera eta edozein kulturatako emaitzetara zabalik dagoen euskara. Eta guzti horietan ikasi eta jasotako, bere galbahean pasatu eta bere errotan ehotuz, euskal gizartearentzat euskal mundu sinbolikoa gorde, jaso, berritu, eraberritu, landu eta birsortu behar du.

Euskaradun Euskal Herria izan behar du, besterik ezin den bezala, lotsarik gabea. Maximalismo eta marginalizazio guztitik aparte. Euskara ez baita sator-zulotan gordetzeko, ezta marginalizatutako sekta-hizkuntza bihurtzeko ere. Gizarte bizitzako normaltasuna da eta euskarak irabazi behar duen apustua, honetarako beharrezkoak diren pauso guztiak lotsarik gabe, konplexurik gabe emanez. Euskara ez baitugu ez bitxi zaharren kutxan gordetzeko, ezta batzuren usteen nolabaiteko iraultzaren ikur bezala erabiltzeko.

Euskara herriaren ondarea dugu. Euskara herriari aberastasun bezala eskaini behar diogu, etorkizuna moldatzeko beharrezko lagungarri gisa,

hemen bizi den edonorentzat bere buruaren ulermena moldatzeko beharrezko erreferentzia bezala. Eta guzti honetarako euskarak badu zer eskaini jakintzarako bere gaitasunaz beste, administrazioarako bere gaitasunaz beste, komunikabideetarako bere gaitasunaz beste, giza bizitzari zentzua emateko nahitaezkoa den mundu sinbolikoa.

Euskaltzaindia sortu zeneko garaiko giroak beste zerbait ere erakusten digu: euskal kulturak eta euskarak guztion partaidetza eskatzen duela. Euskararen eta euskal kulturaren bitartez beharrezkoa da herrigintzan denok parte hartzea. Euskara guztiona da, ez batzurena bakarrik. Agian haxe da irabazteko daukagun apusturik nagusia: Euskal Herriko talde guztiek, alderdi guztiek, edozein pentsamentutako andra-gizonek euskara beraiei arazo, ardura eta erantzukizuntzat hartzea. Euskarak ez baitu ezer kentzen, eransten baizik. Euskarak ez baitu inor txirotzen, aberasten baizik. Euskarak ez baitu inor txikiago egiten, handitzen baizik.

Euskaltzaindiaren etorkizuna ziurtatu nahi dugun honetan, bere sorre-ra garaia eta giroa gogoratuz lau haizetara dei egitea, dei ozena egitea beharrezko iruditzen zait: orain dela hirurogeitamar urte bezala guztiok elkar har dezagun, guztiok elkar gaitzezen euskal kulturaren etxea eraikitzeko, eusko pizkunde berriari hats emanez. Eusko pizkundera euskararentzat!!! Ez dago euskal kulturarik euskararik gabe!!! Ez eta euskararik euskal kulturarik landu gabe. Gure aurrekoak egiteko gai izan zirena har dezagun eredu, bezala horretarako inoiz baino baldintza hobeak baititugu. Gure belaunaldiak ez du barkamenik izango euskal kulturaren pizkundera elkar harturik lan egiteko bideak aurkitzen ez baditugu.

Gaurko ospakizun honetan Bidasoaz honuzko Euskal Herrietako Erakundeak orain 70 urte elkarri emandako hitza betez elkartu gara. Hurrengo ospakizunean euskarak senide egiten gaituen alde bietako euskaldunak bilduko garen itxaropenik ez dut galtzen.

Gaindi dezagun zoritxarrak historian zehar ekarritako etena. Bat egin dezagun orain hirurogeitamar urte egindakoarekin ordukoek aurreko etena gaindituz Azkoitiko zalduntxoekin lotura egin zuten bezala, honela Euskal Herriaren kondairazko bizitzari iraupen berritua emanez. Eta hori Eusko Ikaskuntzak berarentzat hartu zuen esanari jarraiki, eta ez beste ezeri:

“Bekoak goikoa
Eskondu leidi
Ta txikiak andia
Benzi leidi
Asmoz ta jakitez”.

Mila esker guztioi.

ANTONIO DE TRUEBA ETA AITA
JOSE MARIA ESTEFANIARI OMENALDIA

Bilbo, 1989-XI-24

**ANTONIO DE TRUEBA
ETA J.M. ESTEFANIAREN OMENEZ**

Bilbo, 1989-XI-24

Jean Haritschelhar

Euskaltzainburuaren sarrera hitzak

Bilbon gaudenez gero ohoratu nahi ditugu bi Bizkaitar bakoitza bere modura Euskal Herriaren eta euskal kulturaren maitasuna erakutsi dutelakotz.

Badu orai 100 urte zendu zela Antonio de Trueba bizkaitar idazle ezaguna. Bizkaiko kronista eta artxibaria izanez bere bizian ukan du bere sortherriaren ezagutzeko behar ziren ahaltasunak. Baina historialari baino ipuin idazle trebea izanen da. Alabaina erromantizismoari esker “couleur locale” edo tokiko itxurari kasu emanen zaio. “Costumbrismo” deitzen den literatura korrontean sartzen da Mesonero Romanos, Estebanez Calderón, Larra, Fernán Caballero eta Bécquer anaien (bat idazlea, bertzea margolaria) ondoan. Eman digu, erdaraz, joan den mendeko Bizkaiaren itxura ederra, kantatzen duelarik Bizkaia bere herri maitea elaberri, ipuin eta maitasunez beteak diren olerkietan.

Truebaz mintzatuko zaigu Jose Antonio Arana Martija erakutsiz zer izan den Antonio de Trueba-ren euskaltzaletasuna.

Antonio de Trueba zendu zen urte berean, beraz duela orain 100 urte sortu zen hemen Bilbon gutxi ezagutzen duten baina gerla aurreko euskal literaturan eragin haundia izan zuen Aita Estefania. Poeta izaitez gainera olerkari hezitzaile, gidari eta maisu izan zen: Orixeren, Zaitegiren, Ibiñagabeitiaren, Lauaxetaren eta bertze jesuita gazte askoren. Literatura irakasle trebea eta antzetsua izan zen Loiolako eta gero Belgikako (Tournai-ko) jesuita gazteen etxean.

Patxi Altunarenganik jakinen dugu egiazki zer izan den Aita Estefaniaren eguneroko lan izkutuaren eragina bereziki 20 eta 30 hamarkadetan, garai hartan, denok dakigun bezala, olerkaritzak aurreratze haundi bat egin duelakotz.

TRUEBAREN MENDEURRENA (*)

Bilbo, 1989-XI-24

Jose Antonio Arana Martija

Antonio de Trueba y de la Quintana hil zenetik Martxoaren 10ean bete ziren ehun urte, eta euskararekiko izan zuen maitetasunagatik merezi du bizkaitar idazle ospetsu honek Euskaltzaindiaren oroitzapen bat. *Trueba eta euskara* nire idazlan honen ardatza bada ere, lau lerrotan biografia labur bat ematea ez da gehiegikeria izango.

Bizkaiko Enkarterrian, Galdameseko Montellano auzoan jaio zen Trueba 1819.eko Abenduaren 24an. Lehen karlistada hasi zenean, Madridera bidali zuten gurasoek soldadutzarik egin ez zezan eta 1847an “Revista Vascongada” eta beste antzeko aldizkarietan idazten hasi zen gero hainbat ipuin eta olerki emango zizkigun idazlea. “Antón el de los cantares” deitzen zioten 1851an *El libro de los cantares* kaleratu zuenetik. Berrogeita hiru urte zituelarik, 1862an, Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Kronista eta Jaurerriaren Artxibari izendatu zuten eta Gortetik jaioterrira etorri zen 1870ean Gobernadore Zibilak artxibari titulua kendu arte Bilbon bizi izan zelarik. Karlista susmoa hartu omen zion eta bigarren karlistadan, lehenean gertatu zen bezala, Madridera atzerriratu beharrean aurkitu zen berriz Trueba guda amaitu arte. Bilbora berriz itzuli zen 1876an eta lehengo kargu eta arduretan jarraitu zuen 1889.eko Martxoaren 10ean hil arte.

Bizkaiko Kronista eta Artxibaria izan zela esan dugu. Eta esan bezala, 1862.eko Uztailaren 17ko Batzar Nagusiek, *Irurak bat* eta *El euskalduna* egunkariak sortutako giro batetan oinarrituz, burutu zuten izendapena. Batzar horietan euskarak izan zuen bere lekukotasuna: Balmasedako ahalduna zen Mendia jaunak egin zuen Truebaren laudorio hitzaldia eta Jose Migel Arrieta Maskaruaren eskariz euskarara itzuli zuen Antonio Arginzoniz durangarrak. Urte bereko Urriaren 10ean jabetu zen karguekin Trueba jauna eta hemen alboan, Euskaltzaindiak izan-

(*) Txosten hau Banco de Bilboak San Nikolasen daukan egoitzan irakurri zen.

go duen Egoitzan zegoenez orduko Diputazioarena, gure artxibategia egongo den toki berberean bete zuen Truebak bere eginkizuna.

Trueba hil ondoren artxibari eta kronista kargua bete behar zelata lehiaketa baterako deia egin zuen Bizkaiko Diputazioak. Baldintzen artean euskalduna izan behar zela irabazlea proposatu zuen Esteban Azillona diputatuak; baina gero abertzalea izango zen Ramon de la Sota y Llano diputatuak ez zela halakorik behar esan zuen, artxibari batek irakurri behar zituen izkribuak erdaraz zeudelako idatzita. Azkenean euskalduna izan behar zela erabaki zuen Diputazioak. Sei izan ziren hautagaiak 1889.eko Ekainaren 25ean horretarako izendatua zen batzordeak erabakia eman behar zuen egunean: Joakin Mazas Orbegozo, bilbotarra; Agustin Etxebarria Etxaniz, begoñatarra; Bonifacio Ponsol Zabala, donostiarra; Kasimiro Jausoro, gasteiztarra; Ismael Olea Larrio, abandotarra; eta Migel Unamuno Jugo, bilbotarra. Lehenak irabazi zuen lehiaketa, hots, Joakin Mazas Orbegozo jaunak eta hurrengo eguneko egunkari batetan Unamunok, “Manu ausari” izenordearekin, kritika zorrotza kaleratu zuen, urte-bete barruan ezin izan zuen bigarren hondamena jasan eta. Gogora dezagun 1888an Azkuek irabazi ziola euskal katedraren lehiaketa. Ez zuen luzaro erabili kargua Mazas Orbegozok, hurrengo urtean, 1890an, hil bait zen. Eta hemen datorkigu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Kronista izango zen Karmelo Etxegarai Korta, 1895. eko Azaroaren 28an Bizkaiko Diputazioak beste biei proposatu ondoren, 1896an hautatua. Hau bai benetan euskalduna eta gero euskaltzaina.

Baina goazen berriz Trueba euskaltzalearen haria hartzera. Madriden urte luzeak iragan arren, ez zuen herrimina galdu gure Enkarterriko idazleak eta erdal mundu batetan murgildurik bizi arren euskal herri baten semea zela ez zuen inoiz ahaztu Truebak. Eta euskal hitza aipatzen dugunean ez dugu hizkuntza, euskara, bakarrik gogoratzen, euskal arima ikuspegi guzietatik bait zen Truebaren herriminaren zioa. Inor baino gehiago saiatu zen XIX. mendean gure idazlea Euskal Herria ezagutu eta maiterazten, bere lan osoa —olerkia, ipuina, kondaira, ikerketak historikoa eta etimologikoa— helburu batera zuzendua baita, hots, jatorrizko herriaren aberastasun moral eta sozialak, naturaren handitasuna eta abar goratzera. Gaztelaniaz idatzi bazuen ere —zioskun Arzak-ek nekrologian— euskal izpirituz beteriko idazlea izan zen Trueba. Euskaltasunez kutsaturik zeuden Truebaren lanak —zior Karmelo Etxegarai— munduan zehar gure herriaren izaera eta nortasuna hedatzeko balio izan zuten. Gogora dezagun hainbat hizkuntzetara itzuliak izan zirela beronen lanak, frantsesera, italierara, ingelesera eta alemanierara, argitarapen piratak ere izan zirelarik bere garaian, esate baterako Leipzig-eko Brockhaus etxeak kaleratu zituenak. Eta ikusiko dugunez, batzuren batzu euskarara ere itzuliak izan ziren, euskal edukinagatik euskara bakarrik zekiten euskaldunak irakur eta ezagu zezaten bidezko zelako.

Jose Maria Iparragirre baino hil batzu zaharragoa zen Trueba eta ia sasoi berean joan ziren biak Madrideko desterrura, lehen karlistadako bezperetan. Behin baino gehiagotan topo egingo zuten Gorteko kale eta tabernetan eta gero bertsolariari lan bat baino gehiago zuzendu zion olerkari eta ipuinlariak *El Noticiero Bilbaino* zelakoan (1878-1881), non euskarari buruzko artikulua idatzi zituen Truebak Bilbora itzuli ondoren: Manterolaren *El Cancionero Basco*, *El vascofilismo de Cervantes*, *El florecimiento de la literatura euskara*, *El habla vulgar de Bizkaia*, eta abar. Baina Iparragirrerekin parekatze hori bien azken urteetararte heltzen da: bertsolaria Ameriketatik etorri zenean herri eta aginteen laguntza eskuratu bazuen, Ameriketatik etorritako diruarekin erosi nahi izan zioten etxe bat Enkarterriko semeari, amets hau hil zelako burutu ez zena; baina balio izan zuen 1895.eko Azaroaren 10ean inauguratu zen irudia Benlliureri agintzeko eta ordaintzeko. Parekatze honetan gogora dezagun baita ere Truebaren osaba bat, amaren neba, *el vasco* eta *el versolari coplero* izenekin ezagutua zela bat batean bertsoak jartzen bait zituen.

Esan dugunez Truebaren idazlan batzu euskarara itzuliak izan ziren eta esan dezagun orain berak ere itzuli zituela inorenak euskarara. ¿Noraino ezagutzen zuen Truebak euskara? Biziki maite zuela ezin dugu ukatu. Durangon 1867.eko uztaillean datatu zuen *El libro de las montañas* liburu ederrean “este antiquísimo, original, elocuente y dulce idioma” aipatzen du eta geroxeago “antiquísimo, original, filosófico y expresivo euskara” (sic), bere buruaz zera ere diolarik:

“A la lengua de Vasconia
tiene afición extremada,
porque suena a sus oídos
como maternal palabra
y a expresiva y enérgica
y filosófica y casta”.

Ikusiko dugunez, Poza eta Astarloaren lanak ezagutzen zituen eta atzerriko hizkuntzalariak ere, Wilhelm Humboldt, esate baterako. “La Ilustración Española y Americana” aldizkarian (1875.eko urriaren 20an eta Azaroaren 8an) honako lan hau argitaratuta zeukan: *Exposición al Señorío de Vizcaya solicitando la erección de un monumento a Humboldt y sus antecesores y sucesores en la rehabilitación del vascuence*. Azken hauen artean Luis Luziano Bonaparte Printzea zeukan gogoan. Beste lan batean, *Nombres vulgares euskaros en Bizcaya* (EE, 1882, 19) zera diosku: “Hoy que tantos se ocupan en el estudio de la lengua euskara así en la tierra donde esta lengua es aún la vulgar como en todos los países cultos (menos en la España de allende el Ebro donde hasta aquí ha sido pecado académico tal ocupación) no son enteramente ociosas indicaciones como éstas”. Euskal idazleak ere ezagutzen zituen, hala nola Sebastian Menuiburu honetaz zera esaten digularik (EE, 1882, 42):

“Fue el oyarcense Mendiburu, en suma,
prodigio humano con palabra y pluma”

eta Arnault Oihenart, zeinen atsoitzak eta Esteban de Garibai-renak hartu zituen —Gregorio Muxikak dioskunez (RIEV, 1924, 498-501)— bere liburu hau osatzeko, hots, *Capítulos de un libro sentidos y pensados viajando por las Provincias Vascongadas* (1864). Halako esaera zahar batzu erabili zituen Truebak 1882ko *Calendario Vasco-Navarro* zelakoan, espresuki esanez Iparraldean bilduak zirela. Oihenarten aipamena argia da beste lan batetan ere, Barcelonako argitaldari batek 1882an agindua baina azkenen argitaratu gabe geratu zena: *Canciones y tradiciones de la Heptarquía euskara hispano-francesa*, zuberotarraren *Notitia Utriusque Vasconiae* gogoratzen duguna, eta aspaldiko *Zazpiak bat* onartzen zuena.

Euskaraz elkarrizketa bat jarraitzeko gai ez zela Trueba diosku Tomas Etxebarriak (Hermes, 1920) eta are gutxiago bere literatur lanak euskaraz emateko. Baina hau hala izanik ere, beste euskaldun askori gertatzen zaizen bezala, “hutsune hau betetzeko ahalegin guztiak egin zituen Truebak —Ricardo Becerro de Bengoak dioskunez (BBFH, I, 39-40)— ez bakarrik euskara ulertzeko eta itzultzeko, baizik eta gramatika estudiatuz, hiztegiak erabiliz eta hizkuntzaren estruktura aztertuz. Herrian zehar egin zituen bidaiei esker euskaldun jatorrekin harreman izateko aukera izan zuen eta bertsolarien saioak entzuteko ere, berak *Bosquejo de la Organización social de Vizcaya* liburuan dioskunez. Halako batetan irakurri zituen Balentin Barrio-Otxoak —zeini santu deitzen dion izan baino ehun urte lehenago— amari euskaraz idatzitako gutunak “salpicadas de tiernas frases peculiares sólo de su dulce lengua nativa”.

Euskararen azaleko baino ezagutze sakonagoa izan behar zuen Poza eta Astarloaren lanak jarraituz halako lanetan etimologista agertzen zaigunak: *El nombre de Portugal* (EE, 1882), *Portugalete* (El Averiguador Universal, Madrid, 1871 eta EE, 1882, 242-243), *Nombres vulgares euskaros en Bizkaia* (EE, 1882, 19), *Etimología del chacoli* (Los dos mundos eta EE, 1884, 249-251), *Etimología euskara de la ciudad de Ronda* (EE, 1900, 460), eta *Ensayo de una traducción castellana de todos los nombres vascongados de los pueblos de Vizcaya* (El Noticiario Bilbaino, 1888). Eta euskara ondo ulertu behar zuen gaztelaniara honako olerki hauek itzuli zituenak: Ramon Artolaren *Egun sentia* eta *Illunabarra* (Manterolaren “Cancionero Basco”n lehenabizi eta EE, 1881, gero) eta Felipe Arrese Beitiaren hauek: *Corona de mil siemprevivas al inmortal Calderón* (LIEA, Revista Euskara, EE, 1881), *Los antiguos vascos y los romanos* (Revista Euskara, EE, 1883) eta *Gorbeyako artzain baten kanta* (EE, 1881). Herri kanta batzu ere itzuli zituen, 1864an Madriden argitaratuak (Almanaque del Museo Universal) eta *Aita San Antonio* (EE, 188) eta *Eperrak kantatzen dau* kantuak, azken hau *Lo que canta la perdiz* izenburuarekin (LIEA, 1870, eta “Calendario Vasco-Navarro, 1882). Baina egin zituen itzulpenetatik ezagunena,

behar bada, Iparragirrereren *Gernikako Arbola*-rena izan daiteke. Egañak egindako itzulpen bat eman zigun lehendabizi *El libro de las montañas* liburuan. Baina gero berea eman zigun, zortzi bertsotan, 1879an “Revista Euskara” zelakoan eta 1882an “Euskal Errian”. Gogora dezagun, baita ere, *Canto de Lelo* (LIEA, 1870, Cancionero Basco, 1878, Revista Euskara, 1880), eta *Cantar de Altabiskar* (Cancionero Basco, 1878) apokrifoak itzuli zituela.

Euskal olerki eta bertso batzu itzuli zituen Truebak euskaratik gaztelaniara, ikusi dugunez. Alderantziz, Truebaren gaztelaniazko ipuinak euskarara itzuliak izan ziren, bata egilea bizirik zegoelarik. 1880an Klaudio Otaegik *Lamiaren kantua* euskaratua eman zigun “Revista Euskara”n. Trueba hil ondoren, 1890ean, Antero Apaolazak *El Judas de la casa* itzuli zuen *Pachico Cherren* izenburupean. Itzulpen hau aipatzen zuen Edward Spencer Dodgson-ek Pariseko “Revue des Bibliothèques”en, 1892an. Itzulpen hau berriz argitaratua izan zen 1915 eta 1917an.

Truebaren heriotzaren 25. urtemuga ospatu zenean, 1914.eko martxoaren 10ean, “Euskal Erriaren Alde” aldizkariak lehiaketa bat antolatu zuen Truebaren lanen itzulpenik hoberena saritzatzeko. Lehen saria Jose Manuel Etxeitak irabazi zuen *Creo en Dios* ipuina *Ziñiztuten dot Jaungoikoa’gan* izenburupean itzuliz. Etxeitak berak irabazi zuen bigarren saria *El Expósito* ipuina *Urikoa* izenarekin itzulita emanez. Eta hirugarren saria Nikasio Larreari eman zioten *Juan Palomo* ipuina *Joan Uso* izenpean itzultzeagatik. Saritutako hiru ipuinak Donostian argitaratu ziren 1915ean Karmelo Etxegarai-ren hitzaurre batekin. Aipatu Nikasio Larreak itzuli zuen 1917an *La madrastra* ipuina *Ugaz ama* tituluarekin. Gerra aurrean, 1934an, Mikel Arruzak *El Judas de la casa* berriz itzuli zuen *Etxe kalte* izenarekin.

Labur laburrean baino ez bada ere, merezi zuen Antonio de Truebak aipamen hau heriotzaren ehun urte betetzen direnean. Erdaldun jaio eta Euskal Herritik kanpo euskararekiko maitetasuna agertu zuen gizon honek eta bere kabuz euskalduntze ahaleginak agin zituen euskaldun berri ospetsu honek, merezi ditu gure gaurko txalo eta begirunea. Hala biz.

JOSE MARIA ESTEFANIA ZABALA (1889-1942)

(Lauaxetaren eta beste zenbait euskal poetaren gidaria)

Bilbo, 1989-XI-24

Patxi Altuna

Lehengo hilaren 28an, San Simon eta San Judaren festa egunean, beteko zituzkeen ehun urte, bizi izan balitz, Aita Jose Maria Estefania Zabalak; eta aurreko egunean, 27an, egin baitzuen Euskaltzaindiak Donostian bere hileroko bilera, ez zatekeen hura egun txarra hitzaldi hau han, eta ez hemen hilabete bat geroago, irakurtzeko. Bilbotarra zelarik, ordea, eta hil honetako bilkura Euskaltzaindiak hemen Bilbon eduki behar zuelarik, iruditu zitzaigun ez zegokeela batere gaizki hitzaldia gaurko eta honako uztea, eta Aita Estefaniak barkatuko zigula hilabeteko atzerapen hau.

Honenbestez esan dut non eta noiz etorri zen mundura Aita Estefania: Bilbon, 1889ko Urriaren 28an. Gutxi da hori, halere. Ez dut esan nahi noski Bilbon jaiotzea gauza gutxi denik, ezpada gizon gailen baten berri ikasi nahi dugunean, hori baino gehiago jakin nahi izaten dugula. Horretan saiatuko naiz hitzaldi honetan: nor zen eta nolakoa Aita Estefania, zer izan zen eta zer harreman izan zuen Euskal Literaturarekin. Ez dira asko, izan ere, hori dakitenak, eta neronek ere ez nekien gauza handirik garai batean; goiz hil baitzen, Espainiako gerraren txinpartak zeharo itzali baino lehen, eta Euskalerritik urrun hil, euskaltzale izateagatik ezarri zioten erbestaldian. Jesulagunetarik hirurogeitabost urtetik beharakook ez genuen ezagutu; hortik gorakoek bai, bada hamairu urtetan zehar “junior” zerizten Retorika ikasle izandakoek irakasle izan zuten, irakasle miretsia eta maitea gehienek, euskara zekitenek eta euskara maite zutenek. Lagunditik kanpoko batzuk badakite izan zela, batez ere zuetariko asko bezala duela 50 urte bukatu zen Espainiako gerrate aurreaurreko eta ondo-ondoko euskal literaturaz arduratu izan direnek. Badakite, esate baterako, Orixeren lagun min-mina izan zela, eta Ibinagabeitiaren eta Zaitegiren irakasle, eta Lauaxetak bere maisu handi eta nagusitzat zeukala. Baina batzu ez ziren aseak hori jakiteaz, eta gogoan dut nola behin Koldo Mitxelena zenak eta beste batean Joxe Azurmendik aipatu

zidaten Aita Estefania, eta nik hartaz ezer gutxi nekiela ohartzean, nola erregu ala mehatxu, ez dakit zer, eginez esan zidaten: “Ez duzu barkaziorik, baldin Aita Estefania nor izan zen argitzen ez baduzu”. Orduko entzunak nizkion nik Aita Estefaniaz zenbait kontu eta pasadizu duela urte batzu hil zen Aita Juan txu Goikoetxeari, bizpahiru urtez San Salvador hirian harekin batera, nahiz eta beste ikastetxe batean, bizi izanari. Igande eta jai egunetan bixita egitera joaten omen zitzaion maiz, lauzpabost urte lehenago Belgikako erbestaldian bere Literatura irakasle izan zenari, eta honek behin honela esan omen zion: “Anai Goikoetxea, nere gela honetako zenbait paper, gutun, lan eta agiri gabe ezin idatziko da XXgarren mendeko Euskal Literaturaren historia”.

Banekien haatik, Aita Estefaniaz zerbait ikertzen eta ikasten hasi nintzenez, ez nituela sekula paper haiek neure eskuratuko, irakurria bainuen Aita Goikoetxea beraren paper mutur batzutan, hura San Salvador-en 1942an ia batbatean hil eta egun gutxiren buruan, etxeko ganbarara eramane zituztela, kutxa handi batean sarturik, haren paper guziak eta handik bizpahiru urtetara ganbaratik betiko izkutatu zirela. Loiolako artxi-boan dauden hark gazterik ondutako latinezko olerki batzu nituen neureganatuak; halaber haren ikasle izandako zenbait lagunene uste eta iritziak bilduak, biziki laudoriozkoak eta guztiz haren aldekoak, egia esan. Askoz gehiago behar nukeen jakin, baldin nigan Aita Estefaniaganako jakin mina urte batzu lehenago ernaitu balitz. Urte mordoska bizitua bainaiz han Donostian gauza askoren berri eman ziezadakeen pertsona batekin, eta artean nik Aita Estefaniarik izan zela ere ia ez nekielako, ez nion hartaz inoiz ezertxo galdegin. Aita Errandoneaz ari naiz, Loiolan sei urtez harekin batean jesuita gazteen irakasle eta urte haietan haren lagun handia izanaz, gero ikasi dudanez. Eta hori ikasi dut, ezen urtez urte “junior” zirelakoen bedel izaten zenak idatzi ohi eta behar zuen Egunkarian honako hau irakurri dut: ostegunetan gazte haien opor egun zirenetan, *Zabale* izeneko baserrira egun pasa hirunaka ateratzen zirenean —eta irakasle batzu ere bai haraxe bere aldetik—, Aita Estefania eta Aita Errandonea elkarrekin joaten zirela behin eta birritan.

Are lekuko hoberik ere banukeen, baldin beste urte batzu lehenago haren berri ikasi nahi izan banu: neure osaba Aita Bengoetxea, Gijongo ikastetxean lehenik eta Erdi Amerikan gero harekin batera bizi izana, hau ere, Aita Estefania bezalaxe, 1937an Ameriketara jaurtiki baitzuten Ordenako agintariek eta han Nikaraguako hiri Granadako ikastetxean zenbait hilabete Aita Estefaniarekin batera eman. Damurik beranduxko ernatzen zaigu maiz barnean antzinakoen zenbait jakin min!

Bilbon sortu zela esan dut, baina Bilbo gaur hiri handia da, duela 100 urte baino askoz handiagoa. Orduko Bilbon sortu zen noski Aita Estefania, hots Bilbo zaharrean, gaur ere oraindik *Victor* deritzan kalean. Gillermo eta Ruperta zerizten aita-amei. Aita orain “El Sitio” dagoen

Bidebarrieta kaleko jauregiaren jabeen —Adan de Yarzatarren, alegia— administraria zen. Kale bereko 3garren zenbakian zegoen *El Angel de la Guarda* izeneko haur ikastetxe pribatua, non ikasi baitzuen umetan Aita Estefaniak, Máximo González jauna zuzendari zelarik, guganaino mirakuluz heldu diren eta gero aipatuko ditudan bere beste paper eta olerki sorta batean berak dioskunez: “Hice la mayor parte de mis estudios en el colegio de «El Angel de la Guarda»”. Eta gainerakoak non? Ezin asmatu izan dut, hau baizik ez baitigu esaten berak: “En los primeros años del bachiller, cuando aún no me educaba con jesuitas...”. Urduñan ote?

Aitak lehengusu bat apaiza zuen, Don Ramon, Gernikako parroikiko koadjutore, eta hau bere arreba Pilarrekin *Zearreta* zeritzan jauregian bizi zen. Biak karlistak omen ziren, zein baino zein porrokatuagoa. Horiekin eman zuen gero jauregi berean zenbait urte Aita Olabidek, han Errepublikara garaiari erdi izkutatua egon zenean. Jauregi hori ere María Adán de Yarza Mazarredorena zen eta horren administrari ere Aita Estefaniaren aita. Senideen arrasto garbirik ezin atera izan dut; berak paperotan arreba Maria aipatzen du; badakigu beste arreba bat, Karmen, monja izan zela Esclava deriztenetakoa; anaia batek, Enrikek, Deustun ikasi zuen Zuzenbidezkoa eta beste anaia bat mediku izan zela kontatu didate. Aita Estefaniak ere 1906an batxiler ikasketak burutzean, Deustun hasi zuen karrera bera.

Urte hartako pasadizua ikasi dut berriki Deustu bereko irakasle jesuita baten ahotik: duela urte batzu honen eskuetara heldu omen zen liburu zahar bat “José María Estefanía” idatzirik zeukana, eta azalaren barnekaldean ikurrina omen zeukan pintatua. Beste grina bat ere ernaitua zen orduko Jose Mari gazteagan: poesia grina. Berak kontatzen digu paperotan nola, Ramon de Bazterrarekin batera Francisco de Iturribarria apaiz idazle eta poeta ezagutuz gero, “volvimos a visitarle Ramón y yo juntos por lo menos una vez a la semana”. Sinesgarri da beraz beste batek kontatu didana ere: ikasturte horren azkenaldean, jesuita sartzea erabaki eta Ekainaren 14ean nobizio izatera Loiolara joan zenean, poeta zelako famaz ez ezik lepondoa estaltzen zion txima luzeaz apaindurik ere, orduko poeten gisara, aurkeztu zela Loiolako konbentu atartean. Bi egun geroago hartu zuten nobizio eta geroxeago kaskazuri utzi, orduan ohi zenez. Orixek bi hilabete zeraman han bertan nobizio.

Garai hartako Nobiziaduko giroa eta bizimodua xeheki hemen kontatzeak ez du agian pena merezi, nahiz orduko Egunkarietatik harturiko hamaika pasadizu aipa genezakeen; hala nola, hilabeteko gogojardunak amaitu egunean, Azaroaren 12an, anai Estefanía Nobiziaduko komun garbitzaile izendatu zutela; Maiatzaren 22an “en clase de catecismo la conferencia... la ha tenido el H. Estefanía”; hamar egun geroago beste hiru lagunekin Burgosa igorri zutela “al mes de Hospital”; beste batean, 1909ko Ekainaren 2an, “improvisó el H. Estefanía sobre las palabras de

Jesucristo (S. Juan): *Nemo potest venire ad me, nisi Pater, qui misit me, traxerit eum*". Baina zertako luza? Basilikako euskal sermoiek eta euskal errosarioak —Orixek izan zen urte hartan pulpitotik errezatzeako kargua zuena—, etxe barneko akademia eta literatur ospakizunetan egin eta irakurtzen zituzten euskal olerkiek —“*carmina hispana eta vasca sunt lecta*” irakurtzen dugu behin baino gehiagotan—, Loiola bertako eta inguruko herrixketako haurrei ematen zitzaizkien dotrina irakaspenek eta abarrek ongi agertzen digute, ene ustez, euskal giroa dastatzeko eta bizitzeko hamaika parada zutela eta xurruapatzen ere zutela hango nobizioek. Orduan ernatu al zitzaion Estefaniari euskara ikasteko irrika ala Bilbon hasia zen ikasten? Euskaldunberria baitzen eta paperotan tartekamarteka euskal poesiak ere, gutxi eta txipiak damurik, aurkitzen baititugu.

Nobiziaduko bi urteak burutu eta 1909ko Ekainaren 18an, Jesusen Bihotzaren festan, egin zituen lehen zinitzak, Orixek baino bi hilabete geroago. Hau ez bezala gutxi trebatua baitzen Estefania latinezko eta gerkerazko gramatikan, beste bi urte eman zituen Loiolan gramatika eta humanitate mailak gaintitzen, Orixek Retorika ikastera Burgosa zihoan bitartean. Bi urte horietako irakasleetakik bat Aita Romualdo Galdos eibartarra izan zuen. “*Auditor mediae grammaticae*” lehenbiziko urtean eta “*Auditor supremae grammaticae*” bigarrenean izan zela Estefania esaten digute Katalogoek.

Retorikako ikaskuntzei ekiteko gaitu da eta 1911ko udan Burgosa doa; Orixek aldiz uda hartantxe Oñara Filosofia ikastera. Burgosen onduak dira guk ezagutzen ditugun Estefaniaren olerkirik zaharrenak, latinezkoak. Ez ditut hemen irakurriko, ez eta zoratuta ere. Bai ordea garai berekoa den eta paperotan agertzen den gaztelerazko bat, Ramon de Basterrari eskainia. Hamalauduna da:

Madre, Madre, soy yo. Como soldado
vencido, sin laurel y sin espada,
la flor de la alegría deshojada
otra vez a buscar vengo a tu lado.

Madre, tanto he sufrido y he llorado,
que a lo largo de toda la jornada,
donde quiera que pongo la mirada
con las lágrimas doy que he derramado.

¿Lloras? No llores al besarme. Todo
allá en los campos de batalla dejo
por siempre hundido en el sangriento lodo.

Pero aún tengo tu Amor, tu Amor que augura
con la vuelta feliz del tiempo viejo,
nuevas horas de paz y de ventura.

“Burgos, Casa de campo, 8-V-1912” dio barrenean. Hogeitahiru urte ditu.

Baina orduak hala agintzen eta, mintzaldi honen gaia estu mugabeharra denez gero, ezin naiteke luzaz mintza Estefaniaren Lagundiko ikaskuntzen mugaldi bakoitzaz. Hona, bada, laburki ikaskuntza horietako datak eta lekuak.

1911-1913: Burgosen Retorika ikasten.

1913-1916: Oñan Filosofia ikasten.

1916-1918: Gijonen, “maestrillo” edo maisu txiki lanetan, non bi ikasturte horietan Estefaniaren eta gainerako maisu txikien buru nere osaba izan baitzen. Estefaniak “docet praeceptivam litterariam” bestek beste, diote Katalogoek, eta “historiam litterarum” ere bai bigarren ikasturtean.

1918-1919: Urduñan, maisu txikitako hirugarren ikasturtea, bada Kastilla izeneko probintzia sortu berria zen Lagundian eta txori euskaldun barreiatuak nor bere kabira biltzen hasiak; Urduñan ere “docet praeceptivam litterariam eta historiam litterarum”; ikasturte hartan Aita Olabide izan zuen gehiagoren artean bizilagun eta Jose Antonio Agirre, gero Euskadiko Lehen Lehendakari izango zena, ikasle.

1919-1921: Oñan Teologia ikasten. Orixe ez da oraindik hara heldu, sei urtez eduki baitute agintariek maisu txiki lanetan Comillasen, Carrión de los Condesen, Tuteran eta Xabierren.

1921-1923: Holandako Valkenburg-en, hara igorri baitute agintariak Teologiako bi azken urteak ikastera, orduko erabakia zutelako dudarik gabe zein izango zen Estefaniaren lanbidea apaiz egin eta irakaskuntza lanetan hasten zenean: Loiolan literatur irakasle, alegia. 1922ko udan haatik, Teologiako hirugarren ikasturtea amaitzean, Oñara bildu zen Holandatik apaiz egitera, gero berriz Valkenburg-era itzultzeko.

1923-1924: Holanda bereko Exaten by Baexen zeritzan herrixkan, Hirugarren Probantza delakoa egiten. Hiru uda horietako bat Ingalaterran eman zuela ere entzuna edo irakurria dut non edo non. Seguru dakidana beste bat da: Lagundian sartu baino lehen Deustun hasia zuen karrera Salamankan bururatu zuela eta lizentziatu zela, Oñan Filosofia ikasten aritu zen urteetako udaldietan.

Horrenbestez buru eman dio Estefaniak Lagundiko hazibide luzeari: hamazazpi urte, alajaina! Ia hogeitamasei urte ditu 1924eko udan Loiolara Santiyo egunez iristen denean hango erretorikoen literatur irakasle izatera. Duela urte batzu, izan ere, 1918an, Probintzi berria Kastilla izenekoa sortu zelarik, Retorikako ikaskuntzak ere Burgostik Loiolara aldatu ziren Probintzi berriko erretorikoentzat.

Hiru urte lehenago sartuak ziren nobizio Loiolan Andima Ibinagabeitia, Yokin Zaitegi, Lauaxeta eta abar, eta urtebetez Humanitate direlakoak ikasi zituzten ondoan, horiexek izan zituen Estefaniak bere irakastaldiko lehen urteko ikasle. Baina Loiolako kontuak jalkitzen hasi baino lehen, azken dezadan laburki Estefaniaren bizitzako mugaldien katea.

1924-1931: Loiolan, 1932ko Otsailean Errepublikako Gobernuak Espainia guziko jesulagunak erbestera iraitzi zituen arte. Ordukoxea da oraindik bizi den anai laguntzaile batek, Loiolan arropazain kargua zuenak kontatu ohi duen pasadizua. Etortzen da Azkoitiko jantzigile bat Aita Estefaniari Belgikarako jazki berria egitera eta, hizketan ari zirela, erdi lotsaz erdi beldurrez, esaten dio bera nazionalista zela. Aita Estefaniak orduan: “Ez lotsa, ni ere hala naiz”. Ordukoa da ere Txomin Epalza jaunaren emazte Nieves Solanok kontatu zidana: Aita Estefania Belgikara abiatu baino bizpahiru egun lehenago Loiolan izan zela bere aitarekin, Don Carlos Solanorekin, Aita Estefaniari agur egiten eta honek bere aitari euskaraz idatziriko paper mordoa eman ziola etxean izkutatzeke.

1932-1937: Belgikako Tournai-n nola edo hala kokatu, ikasturte hura amaitu eta beste bost urtez jarraitzen da han erretorikoen literatur irakastle lanetan.

1937-1938: Beste askok bezala, 1937ko udan hartzen du Erdi Amerikara joateko mezua (“1937, Aug. 11. Hodie profectus est in Hispaniam et postea in Americam P. Estefania. Heri noctu locutus est nobis in quiete”, dio Tournai-ko junioraduko bedelaren egunkariak) eta Nicaraguara iristean zenbait hilabete ematen du Granada hiriko “Centro América” izeneko ikastetxean norakoaren zain (“Exspectat destinationem”, dio Katalogoak). Hantxe daude zenbait hilabete lehenago hara igorritako beste euskaldun batzu ere: Aita Ponsol, Aita Acha, Aita Atucha eta nere osaba.

1938-1942: El Salvadorko ikastetxean emango ditu azken urte horiek, hango mutikoei literatura eta gaztelera irakasten. Zaitegi ikasturte berean hiri bereko apezgai nagusien ikastetxean ari da eskolak ematen eta Juan txu Goikoetxea han bertako apezgai txikienean. 1942ko Urtarrilaren 10ean hil zen, 52 urte zituela. “Se quedó en la mesa de operaciones, en una intervención sin importancia ni riesgos, por un descuido del anestesista”, idatzi zidan handik batek. Aita Juan txu Goikoetxeak bere aldetik honela kontatzen du pasadizu hori: “...handik berehala hil egin zen *tonto-tonto*, este-sobrearen osat-ebakuntzan”.

Hona hiru urte haietan Aita Estefaniarekin bizi izan zen beste batek nola ematen digun hitz gutxitan haren egiazko antz-irudia: “Pocos años más tarde tuve ocasión de convivir con él en El Salvador. Eran los años de la guerra civil (1938-1940). El P. Estefanía sufrió un verdadero destierro político, aunque no se llamara de esta manera. Se le alejó de España

y de su tierra, porque no podía disimular el cariño visceral que sentía por su pueblo y por el idioma de su tierra. Puedo asegurar después de convivir con él durante tres años en Centroamérica que nunca jamás se mezcló en problemas políticos. Y quiso Dios que no volviera a ver su tierra. Falleció el 10 de enero de 1942 en San Salvador. Guardo su imagen como la de un grande y excelente profesor de literatura, humanamente la de un gran caballero, siempre atento y servicial, y como jesuita un hombre de Dios. Y además un gran vasco y maestro de vascos”.

* * *

“Maestro de vascos” eta horien artean, lehen esan bezala, Ibinagabeitia, Zaitegi, Lauaxeta eta beste ehun edo berrehun gazte euskaldun hain ezagun ez direnen, baina euskal alorrean lan handia egin zutenen eta, gerrateak gauzak okertu ez balitu, askoz handiagoa egingo zuketenen maisu eta gidari. Areago, haien Loiolako eta Tournai-ko lanak, hain olerkiak zein predikuak, entzun zituztenen ustez eta iritziz Ibinagabeitia, Zaitegi eta Lauaxeta berak baino gaztetan poeta eta idazle trebeagoak zirenen. 1924eko udan heldu zela Loiolara esan dut junior zeriztenen literatur irakasle izatera. “Docet poesim, historiam litterarum... Praeses academiae linguae germanicae” izan zela dio Katalogoak lehenbiziko urte hartan. Alemana ikasten zutenen maisu ere bai, beraz. Ikasturte hartanxe hasten dira Ibinagabeitia, Zaitegi eta Lauaxeta Retorika ikasten eta Aita Estefaniak lehen ikasle ditu bere Eneidazko eskolan eta literaturazkoan. Arratsaldean izan ohi zen astean hiru egunetan lehena eta ilunabarrean lauetan bigarrena, hau hura baino orduerdi bat luzeagoa. Hona Zaitegiren hitzak: “Estefaniak (erakutsi zizkigun) Bergili-ren Eneida, Orati, Obidi, Tibul, Propertzi-ta. Orozbat erderazko elertia, inglesa, frantzesa, italiarra, alemana, portuguesa, katalanezkoa-ta. Olerkari bakoitzaren lanak irakurtzen zizkigun ugari”.

Zaitegik hor ez digu esaten nor ziren azken olerkari horiek, baina *Goldaketan* deritzan bere poesi bilduman aitortuko digu Loiolatik Oñara filosofia ikastera aldatu zen urte berean, 1926an, itzuli zituela han agertzen diren Longfellow, Musset, Sully-Prudhomme, Gautier eta Baudelaire-ren olerkiak. Yon Kortazar bere aldetik Lauaxetaz egin zuen tesian honela mintzo da: “...Lauaxeta «anduvo con los jesuitas», lo que al parecer le permitió una formación literaria bastante completa que no sólo (sic! se reducía al estudio de la literatura clásica, griega y latina, sino que, según testimonio del P. Colinas, por medio del P. Estefanía [...] le abrió los caminos hacia el conocimiento y la lectura de la literatura europea. Podemos inferir lo que puede significar el concepto «literatura europea» a través de las traducciones que Lauaxeta publica en *Euzkadi* en 1928-30. La cercanía de la fecha del principio de la publicación de sus

traducciones con su salida de Oña, permite concluir que los nombres de los poetas traducidos provienen de la formación literaria recibida en el noviciado”. (“Juniorado”, behar du izan). Eta bost izen hauek aipatzen ditu: Maragall, Tennyson, Carducci, Maeterlinck, Baudelaire.

Handik sei edo zazpi urtetara Aita Estefaniaren ikasle eta gero Loiolako Literatur kataderan haren ondorengo eta nere irakasle izan zen lekuko zintzoari eskerrak —bizi da oraindik— askotxo luza dezaket zerrenda hori. Hark esanda dakit 1932-1933ko ikasturtean bederen —eta lehena-gokoetan ere bai, segurki— honako autore hauek ere irakurri eta aztertu zituela Aita Estefaniak: “Leía pasajes de Goethe y poesías enteras; tradujo quince poesías suyas para ser declamadas en una Academia literaria; en ella otro y yo cantamos unas Baladas de Goethe con la música que les había puesto Schubert; leía la primera parte de *Fausto* y un resumen de la segunda; hacía un estudio comparativo entre «El idilio» de Núñez de Arce, «Hermann y Dorothea», el «Mireio» de Mistral y «La Evangelina» de Longfellow. También leía Schiller mucho. De Chenier leía «La cautiva» dedicándole una clase. Novalis poco, como una clase, poesías traducidas por él. Hölderling lo mismo. De Keats leía también algunas traducciones suyas, sin profundizar en juicios y opiniones, pues no dominaba el inglés como el alemán. Leopardi lo leía mucho, sobre todo sus poesías líricas, pese al pesimismo que destilan. Heine lo leía bastante y le profesaba gran afecto como lírico, no como prosista, por irreligioso. De Baudelaire, por poco casto y poco respetuoso con Dios, leía sólo algunas cosas comentándolas y analizándolas. De Verlaine leía más, por ser creyente, y le apreciaba mucho. Mallarmé también y le gustaba mucho, como todo lo parnasiano. A Rimbaud le profesaba poca devoción, por desordenado y no quería que nos aficionáramos a él y otros. De Sully-Prudhomme mucho; lo tradujo él, pero leía poesías traducidas por Llorente; nos hacía aprender de memoria «El búcaro roto». Carducci también mucho. Mistral era de sus autores preferidos. Machado, leía de los dos hermanos y le encantaban los sonetos de Manuel. Maeterlinck no le gustaba y no quería que leyéramos «Las abejas», aunque la comentaba y ponderaba su gran poder de descripción. Valery, bastante, pero su lirismo le parecía exagerado. De Maragall era muy devoto y me hizo traducir su «Nausica»; le gustaba su prosa y su lirismo. De García Lorca, poco por crudamente sensual. Alberti sólo el de los primeros años, pero con aborrecimiento; leía «Los ángeles» pero con chacota, por sensual. A la literatura alemana dedicaba mucho tiempo, dos meses o más, incluso a escritores y poetas recientes, como Von Le Fort. También a la francesa; algún que otro autor ruso, como Tchernenko; en general, autores de distintas épocas, escuelas y tendencias”. Hori da, berriro diot, haren ikasle eta gero Loiolan nere irakasle izanak kontatu didana. Jakin nahi nuke zenbat literatur irakaslek zuten garai hartan Espainako unibertsitateetan hain izpiritu irekia eta hain hazibide oparoa eta zabala.

Baina guri batez ere euskarari zion atxikimendua eta idazle euskaldunei, euskaraz nahiz gazteleraz idatzi zutenei, erakusten zien lotsa eta maitasuna eta bere ikasleengan txertatzen ahalegintzen zen haiekiko zaleatasuna eta miresmena axola zaigu hemen. Hona harekin gero El Salvador-en hiru urte bizi izanak zer dioen horretaz: “Una de las cosas que más me llamaban la atención era su universalidad en la elección de los autores y su predilección por las literaturas regionales. No era precisamente convencional en sus preferencias. Naturalmente los nombres cumbre de la literatura estaban bien representados en sus lecturas, desde los grandes trágicos y comediógrafos griegos hasta las figuras de la literatura inglesa, alemana, francesa, italiana y rusa. Pero junto a estas grandes figuras universales se complacía nuestro profesor en asomarnos a los autores de las literaturas «marginadas», como la catalana, valenciana, murciana y naturalmente la vascongada. De un modo especial la literatura vasca ocupaba bastantes horas de sus clases, sin duda más de las que objetivamente pudieran exigir en balanza de méritos literarios. Y es que el P. Estefanía llevaba la literatura vasca, en castellano o en euskera, en su corazón. Recuerdo el tiempo que dedicaba a la lectura de los cuentos de Antonio de Trueba (que a algunos parecía excesivo); a la declamación, más que lectura, de las poesías de Ramón Basterra o de Iturribarria. Y de otros poetas y escritores, como José María Salaverría. Y otros que no recuerdo. La imposibilidad de leer en clase literatura euskérica, porque la mayoría de los alumnos desconocían el euskera, no era obstáculo insalvable para su afán de dar a conocer los valores literarios del pueblo vasco. Alguna vez leyó en clase una poesía de Orixe, traducéndola seguidamente al castellano. Y tenía empeño en dejar los libros pertinentes a quienes eran capaces de leer estas obras en el original. El hecho es que entre los alumnos del P. Estefanía había un conocimiento general de los principales valores de la literatura vasca, conocimiento que llegaba a ser profundo en los vasco-parlantes, especialmente si estaban interesados por temperamento y afición en los problemas literarios”.

Luzea izan da aipamena; ez aski luzea, halere, erakusteko nola sortu zuen Aita Estefaniak bere ikasleengan euskararekiko jaidura eta zenbatarainokoa. Horretarako beste zenbait gauza jakin behar da. Esan dugu bera euskaldunberria zela, baita ere berak onduriko euskal olerki txiki batzu heldu zaizkigula. Ez dugu esan ordea 1920an Oñan, Orixe lehenbiziko buru zelarik Euskal Akademia sortu eta handik bi urtetara, Loiolako junioraduan gauza bera egin zela. Aita Apalategi izan zen zenbait urtez irakasle. Hangoak dira Ibinagabeitiaren eta beste ikaskideen lehen euskal olerkiak, literatur akademien (edo, nahiago baduzue, etxe barneko “Lore joko” apurren) berri ematen zaigunean esaten baitzaigu Andimak 1923ko Abenduaren 8an *Lore ederrenak* izeneko olerkia deklamatu zuela, Lauaxetak aldiz egun berean *Ave Maris Stella* zeritzana; eta 1924eko Maiatzaren 31an Miguel Zubiagak *Arantzazuko Amari* izenekoa, Zaitegik aldiz

egun berean *A la victoria de Loyola* zeritzana, eta urte bereko Abenduaren 8an Raimundo Argaratek *Iñaki Olatz-en* izenekoa eta Miguel Zubia-gak berriz ere *Lurdesko Amari* zeritzana. (Eta tituluek berek erakusten digute pixka bat nor zen garai hartan euskaltzale eta nor ez). Eta horiek bezala etengabeko olerki sorta, hamairu urte haien joan-etorrian, Aita Estefaniaren babesean eta gidaritzapean eginak.

Areago, orduantxe —1923ko Urriaren 30ean, S. Alonso Rodriguez-en jai egunean— entzun ere zuten Loiolako jantoki ederreko hormek lehen-biziko aldiz, guk dakigula, euskal predikua pulpitotik Patxi Korta azpeitiarrak egina. Areena, Aita Estefania bera izango da, 1933tik aurrera, Tournai-n Euskal Akademiaz gain sortu zen Euskal Oratoria-ren zuzendaria: “...con él teníamos los domingos homilía en euskera, ejercicio de redacción y lectura de los trabajos”, dio batek. Eta beste batek: “...me hizo una letra en euskera para el *Oñazez*, uno de los Preludios Vascos del P. Donosti. Solamente recuerdo que comenzaba: *Mendietan dabiltzanak*... Recuerdo muy bien que era precioso, poético, ya que la original «Nik baditut...» a él no le gustaba. Y casa preciosamente la letra con la música...”.

Ezagunak dira, eta hemen aipamen soila egitea aski da, Aita Estefaniak urte haietan egin eta argitaratu zituen lanak. “Canto de Aitor”, *Euskal Erria* aldizkarian; Escarzagaz, Lekuonaz, Orixek eta Lauaxetaz, *Razón y Fe*-n; Carmelo de Echegaray, Francisco de Iturribarria eta Gregorio de Mujica-z *Euskalerrriaren alde* aldizkarian argitaratuak. Eta guzien gainetik Orixeren *Barne muiñetan* olerki sortari ezarri zion hitzaurrea.

Ezagunak ere dira Orixe, Lizardi eta bere antzinako ikasleekin hil arte izan zituen harremanak. Honela kontatzen ditu horiek Juantxu Goikoetxeak beste paper mutur batean: “Gerora ere, jesuita izateari utzi zionean ere” —Orixez ari da— “lagunak lehengoak izan zituen, ta oien artean artuena Estefania gernikarra (sic!). Au klasikozale purrukatua izaki, zaletasun bere ortan Orixeri su eman ta aizatzen zuan. Orixe jaunak sarri idatzi oi zion ta barrengo asmo, kezka ta lagun arteko katramillen berri eman. Gogoan det oraindik, eskutitz oiek irakurria bainaiz, Estefaniari nola azaltzen zizkion Euskalerritik *Eskualerrirako* joan-etorri (Lizardik *Itz-lauz* bere liburuan eman digun) artakoxe araberek (sic!)... Lauaxeta ta Lizardi ere Esfefaniakin artu-emanetan zeuden, Lauaxeta lehendik, jesuita izan zane kotik alegia, ta Lizardi Orixeek erakarrita. Alaxe zion itzez-itz Lizardik Estefaniari bere lenengo eskutitzean. Orixeek Estefania kritiku edo iritzi-emalleagan zuen fede itsu-itsua karta ortan (edo beste batean, ori ez takit) ageri zan, eta fede ori Lizardiri Orixeek erantsi ziola ere bai...”.

Ez da haatik batere ezaguna gaur lehen aldiz jendaurrera dakardan Aita Estefaniaren izkribu sorta hau. Gezurra badirudi ere, aita Patxi Etxeberriarekin batean Txinako itzulua egin eta gerrate lazgarriaren lau-

rritik eta bonben eztanda zalapartatsuetatik osorik atera ondoren, heldu zaigu guri mirakuluz bezala. Hau ez da noski San Salvador-en betiko galdu zen Aita Estefaniaren artxiboko paper sorta, bere baitan Orixeren, Lizardiren eta beste Espainiako gerratearen aitzin-gibeletako gure idazle gorenen eskutitz, olerki eta agiriak zituena. Nahiago genituzke guk haiek, ez da dudarik, baina haiek betiko galduak dira. Beste hauek Aita Estefaniaren beraren lumatik urteetan zehar jalki ziren idazlanak dira. Ez horratik balio gutxikoak, hobeki ezaguterazten baitigute gure idazle goren haien maisu, gidari eta kontseilari izana.

Hiru zati ditu. Lehenak bere egunkari poetikoaren zenbait puska, hitz lauz eta bertsoz oretua, euskarazko olerki bat ere barnean duena eskaintzen digu, haren izpiritu goitiaren ispilu gardenak. Bigarrena da luzeena, urteetan zehar ondu zituen poesiez osatua; batzu bere sortze lanaren fruitu dira, beste batzu eskoletan ikertzen eta azaltzen zituen olerkien eta poematxoen itzulpenak, berak eginak. Sortaren lehen poesia eta azkena euskaraz onduak dira eta sortan zehar ere aurkitzen ditugu euskal ikurrak erdal olerkien titulu edo azpititulu gisa, hala nola *Biyotzez*, *Ene aberri laztana*, *Oñazez*. Azkenik “Bere eskolen oihartzuna” izendatu dudana; eta hor agertzen zaigu Zaitegiren “Euzko artzaiarena” delakoaz eman zuen iritzia.

Neure mintzaldi honi azkena emateko ez dut aurkitu Agustin Zubikarai behin idatzi zituen hitz hauek baino ezer hoberik. “Gogo jardunak egitera joan nitzan uda baten Loiolara, 1930 edo 1931 inguruan. Bera zan zuzendari”, dio Aita Estefaniaz. “Ez neban ezagutzen. Jakin be ez nekien olerkari zanik. Eta berak egin eustan barruko ikuspegi, azterketa eta, nai bada, “sondeo” dalakoaren ondorenez, esan eustan: Zuk euskeraz idazt-n asi bear zenduke”. Ez dakit euskaraz ala erdaraz eman zituen gogo-jardunak; ez dakit euskaraz ala erdaraz egin zion barneko zunda. Hori Agustinek berak argi diezaguke. Nik beregainki azpimarratu nahi nituzkeen Agustin Zubikaraiaren hitzak, orde, beste hauek dira: “Idazten asteko lenengo arnasea emon eustana Aita Estefania jesulaguna izan zan”. Lehenagoko eta geroagoko zenbat euskaldunek aitor ote lezakete gauza bera Aita Estefaniaz!

Eraskina

Hona osagarri gisa Aita Estefaniak, bai eta Ibinagabeitiak, Zaitegik eta Lauaxetak junior eta filosofo gazte zirelarik tolestatu zituzten olerki batzu, aurkitu ahal izan ditudan guziak. Latinezkoak urteoro bitan zinitzak berritzen zituzten garaian ondu behar izaten zituztenetakoak dira; esaterako, eskola ariketak, latinezko bertsoak txandaka eraman ohi dituen silaba luzeak eta laburrak modu egokian erabiltzen ikasteko eginak, beste

inongo xede literariorik gabe. Halere Zaitegi nabarmentzen da eta txapeldun agertzen.

Euskarazkoak eta gaztelerazkoak, aldiz, Abenduko Ama Birjinaren festa egunean izan ohi zen etxeko "Lore joko" izkutuan irakurri ohi zirenetakoak dira. Hauen artean ez dut batere aurkitu Andimarenik, ez eta Lauaxetarenik, gaztelerazko bat izan ezik. Hauetan ere dudarik gabe Zaitegi dugu txapeldun, bi baititugu bereak eta biak euskarazkoak. Ikaratuturik nauka, *Neure Amaren eresia* deritzanean *Euzkadi* hitza baitarabil, non eta Loiolan, noiz eta 1926an, han junior gisa eman zituen hiru urteetarik azkenean.

Epigramma

Ad. S. Virginem pectus Iesu monstrantem

Te quoties video monstrantem pectora Iesu
 Haec toties mecum voce precante loquor:
 "Cur tua non monstras?" Et murmur dicit ad aures:
 "Pectore sunt Christi tota reposta mea".

Josephus M. de Estefanía, s.j.
(Oña, enero 1914)

Conticuit Iesus...

Conticuit Iesus, sed iam plenissima verba
 Omnibus in summa condita mente manent.
 Scribarum hostilis pharisaeorumque caterva
 Et populi vulgus perstat. Uterque silet..
 Quis poterit durus verbis obsistere Christi?
 Non homo maximus: est maximus ipse Deus!
 Ecce tamen plebis varia et mutabilis illum
 Turba ingens sequitur, diligit atque favet.
 Multi scribarum pharisaeorumque furentes:
 "Ecce, fremunt ira, possumus ecce nihil!..
 Credidimus populum morti iam tradere Iesum...
 En, ut post illum iam modo totus abit!"

Josephus M. de Estefanía, s.j.
(Oña, junio 1914)

Ad Iesum puerum

En! tibi, mi Iesu, nostrum praebemus amorem!
En! praebe nobis, mi puer, ipse tuum!
Nostraque sit solum tibi semper in omnibus vita
Et pariter nobis sit tua, care puer!

Josephus M. de Estefania, s.j.
(Oña, enero 1915)

Et lux in tenebris lucet...

Coelica lux animis fulget iam. Sidus in imas
Delapsum terras, et lux oblata per umbram.
Est Deus his nostris qui venit sedibus hospes,
Aegrum qui reficit blande. Quam saepe videmus
Noctibus aestivis clarescere cuncta repente
Ignis coniectu fuis oculis! qua luce renident
Tecta atque arva procul, prius atra abscondita nocte!
Haud aliter Iesu pellit vox blanda tenebras
Et teneris animi curas dispergit ocellis.

Anthimus Ibinagabeitia, s.j.
(Loyola, enero 1925)

Pondus vitae

Nos agit et versat levitas: mutamur in horas;
Nunc spes, nunc agit at pectora nostra metus.
Cedimus impulsu minimo. Meliora perosos
Causa levis cogit deteriora sequi.
Sic volucres fumos vectamque per aera nubem
Arbitrio vertit quaelibet aura suo.
Cur virtus odio est? male sarcina magna putatur;
Ne tua te levitas auferat, illa facit
Ut sit onus, prodest: ventis obsistit et undis
Cur, quod te servet ferre gravaris onus?

Andima de Ibinagabeitia
(Onia, 2-I-27)

†

Reddidit impresos candenti sindone vultus
 Effigiem Iesu veram, squalentiaque ora
 Humana non picta manu, neque ficta colore.
 Miratur speciem mulier viventia telis
 Ora tuens tantumque decus; radiata refulget
 Maiestas et purpureis e sanguine gemmis
 Frons divina micat; radiant et lumine vepres,
 Qui cinxere caput; regnique insigne decorum
 Spinifero implexum nexu diadema coruscat.

Andima de Ibinagabeitia
(Oña, junio 1927)

Ad sanctum Petrum

Et verbo et numero iuvat
 Laudare atque animo volvere gloriam
 Ac pugnam, Petre maxime,
 Qua in coelum placide scandere gloria
 Permissum meritis tuis,
 Qui navem populi dirigis optimi.
 Pontum pallida nox tenet
 Ventique exagitant aequora fluctibus;
 Confuso mare murmure
 Horrescit; valide tu regis et ratem
 Et ventos maris impios
 Perque undas celer ad littora ducere
 Exerces. Homines, loca
 Alto a culmine iam cum sonitu ruunt.
 Rector, rumpe moras, Petre,
 Navem, macte, ad littora tempera.

F. Zaitegi, s.j.
(Enero 1925)

Ad reges magnos

Regia turba hominum venit atque Orientis ab oris.
Reges sunt qui illos montes camposque patentes
Currunt omnes et quaerunt cunabula Iesu.
At cum vidissent a longe limina lata
Venimus tandem, dicunt, datur ora tueri.
Obscuram Bethlem laeto clamore salutant.
Mirantur reges magnalia; Iesus amantis
Miratur donum, miraturque aurea vota.

F. Zaitegi, s.j.
(Loyola, enero 1926)

Ad Iesum im praesepe

Ros veluti liquidus nascentis lumine solis
Abditus in tenera pecori gratissimus herba est,
Perlucet, gemmam et simulat splendere nitentem.
Haud aliter, Iesu, splendes cum lumine puro
Fulgentis solis fueris circumdatus Auctor.
Iesu, mi parve, repleas me lumine claro,
Ante pedes supplex oro; istas percipe voces.

F. Zaitegi, s.j.
(Oña, enero 1927)

Ad Virginem Mariam

Quis fuit unquam qui vestras describere posset
Digne virtutes carmine nectareo?
Aut cui concessum modulari gutture dulci
Coelica vel cantu munera perpetuo?
Nam veluti vastam per vallem ex montibus altis
Amnes decurrunt in mare praecipites,
Non aliter, Mater, festinavit subito ad te
Donum virtutum suave potensque Dei.
Et tibi coelorum thesauros addidit omnes
Ipse Deus; teque ex omnibus ut faceret
Summam; Tu ipsa etenim sanctorum gloria coelis,
Tu stupor orbis, Tu totius ac hominum.
Quod si nescimus modulari, optamus amorem
Nostrum respicias attamen, Alma Parens.

F. Zaitegi, s.j.
(Oña, junio 1927)

Ad Iesum

Natus est nobis puer et venustus
parvulus, surgens teneris in annis
ex sinu aurorae, roseisque mannis
solis ab ortu.

Tu potes nubes oculis serenis
cernere et rivos vitreos morari
Rupe muscosa et tumido reponis
aequora motu.

Quin dolores tu lacrymasque risu
admoves, tanta est tibi grata virtus;
Dulce dum rides niveos dant flores
lumina pratis.

Non meae vero lacrymae cadentes
et dolores non animum lacescent?
Heu!, puer preces tibi rite dicam
vulnere laesus!

*Stephanus Urquiaga, s.j.
(Loyola, enero 1926)*

Totus desiderabilis

O rosei vultus ac oscula blanda, valete:
me Pueri rapiunt lumina orisve risus;
Me, Iesu, rerum suavissime, pignus amoris
dulce racemi ebrium nectare redde tui!

*F. Urquiaga, s.j.
(Oña, enero 1927)*

Ad Cor Iesu

Utque audax diro percussit latera telo
venator, rapidi cursant ac flumina quaerunt
Et vivos claris restinguere fontibus ignes,
Ipse gero afflictum cervus pectore vulnus
Et dulci cupio satiari Cordis amore,
Ut saliente animum restinguens flumine certa
Pace fruar mentis, quae sit nuntia coeli.

*Stephanus Urquiaga, s.j.
(Oña, junio 1927)*

Regina Societatis Iesu

Reina de la Compañía
de Jesús, Virgen María:
bendice el filosofado
a tus plantas congregado
en tu día (1).

Es el escuadrón guerrero
del hidalgo caballero,
que a tus pies sus armas vela
y que, por dártelo, anhela
conquistar el mundo entero.

El que su Reina y Señora
largos siglos te aclamó,
y del ocaso a la aurora,
del Norte al Sur vencedora
tu bandera tremoló.

Aquel que celada impía
quiso un tiempo dispersar,
porque a Jesús y María
nuevos reinos erigía,
nuevo templo y nuevo altar.

El que con sólo tu amor
venció su saña y furor,
y más que la muerte fuerte
aun sobre la misma muerte
levantóse triunfador.

Y triunfador aún avanza
contra el tenaz enemigo
y siempre victoria alcanza,
porque al combate se lanza
por ti, para ti, contigo...

Es el escuadrón guerrero
del hidalgo caballero
y a tus pies sus armas vela...
Bendícele; darte anhela
como reino el mundo entero.

*José M. de Estefanía, s.j.
(Oña, 8 Dic. 1913)*

(1) Bertso hori hankamotz da; "para ensalzarte" edo falta du aurrean.

Amor

Tu Corazón es el nido
suspendido
de la rama siempre en flor.
Tu Corazón es el nido
del amor.

Tu Corazón es la rosa
más hermosa
en frangancia y en olor.
Tu Corazón es la rosa
del amor.

Tu Corazón es la estrella
que destella
con más suave resplandor.
Tu Corazón es la estrella
del amor.

¡Oh Corazón, vida mía,
ser querría
en ti nido, estrella, flor...
Y fuera la vida mía
todo amor!

*José M. de Estefanía, s.j.
(Oña, 8 Dic. 1914)*

Neure amaren eresia

Neure ezpanetatik gaur jausten yatazan
 Itz-neurtu lefuok “Kresala” ta “Garó”
 Usain pozkafiyak dariyotsezala
 Geure Amaganuntz joan doiaz.

Geure Efi ondoko itxaso zabalian
 Afantzan diardun afantzaliaren
 Onduan egiñak-edo, “garo” biltzen
 Diardun onduan, dirudie.

Ala ta guztiz be, lilien usaya
 Baño goxuauak ixango yatzukez,
 Miren maite ori, oneitxeik dira-ta
 Zeure euzko aintzik bikañenak.

Zutzaz gomutau-ta gogoratzen yataz
 Neure jayotefiko mendi maitiak;
 Antxe Aloña’ko mendi gurgafiyan
 “Arantzatzu” mardul bat zutik dau.

Arantzatzu eder gelgafi onetxek
 Udabafiyari agur eta agur
 Eiten eutson eta iñontz deunaren bidez
 Bera bein batian lilitu zan.

Miren, zeñ edefa geure Arantzatzu
 Ganian agertu zintzazan, lilia
 Lez, bertan erne-ta. Ordutik auffera
 Arantzatzu beti lilitsu dau.

Txoritxua legez egazka zoyazen
 Neure gogo ori, Arantzatzu ortan
 Ezafi-ta, matxo bigun, ma kutun bat
 Emon-ta ofi bat beintzat, afen!

Zeure abotxuan ekafi eidazu
 Neure biotz au erestian bizkortu
 Eta argitzeko. Ointxe argi onek
 Beste argitxo bat gogora daust.

Ara zelan gogo au argitu dozun!
 Geure Efi-aldeko ozkarbi urdixkan
 Beste izar oro gaintitzen dauz batek;
 Geure Efiya mendi tartian dau.

Mendi txokuetan, itxaso ertzian
 Umia altzuan lez dau geure Efiya;
 Ortzi zabalian, ortzi ixilian
 Izar gentzatzu bat diz-diz eiten.

Goibel-ilunbetan be ikaraka, diz-diz
 Geure Efi ganian; beti bere argi
 Ixil gentzatzuaz izpi zilartsuak
 Magal-magalera ixuritzen.

Geure Efi ganian, izar edefena,
 Amesetan legez, begitxo kutunaz
 Berari begira! Goiko Jaun on-onak
 Bai, opatu euskun emaitza da.

Begoña'ko Ama, Zeuk ta beste inok ez
 Geure ortzi goyan argi eiten dozu;
 Zeu geure izañik edefena zara
 Ta zeure maitia geure Euzkadi.

Euzkotañentzako maitiena zaran
 Ama, oin lez, beti geure ozkarbian
 Argi diz-diz eizu, ta Aloña'ko mendiko
 Arantzatzu a be lilitu-zu.

Ala geure Efiyak, txikiña izan afen,
 Iñori be ez dautso bilduñik eukiko;
 Zeu, geure Ama, oi! bere galtzoriyan
 Zaintzalia ixango zaralako.

*Zaitegi'tar Jokin, s.j.
 (8-XII-1926)*

Noche de la pureza

¡Qué noche tan divina, qué noche tan hermosa!
Todo es fragancia mística de paraíso en el suelo.
Noche en la que un divino éxtasis sobre el alma se posa;
jardín azul, despliega sus rosas de oro en el cielo.

Dejando blanca estela de lirios y luz pura
baja la Virgen desde el reino del Señor;
a su paso la nieve riela de blancura
y las estrellas fulgen con más vivo esplendor.

Calla el mundo, tan sólo nuestras almas florecen
con anhelos eternos en la noche tranquila...
Con la luz de los astros brillando resplandecen
las gotas de cristal en la inmóvil pupila.

Noche de la Purísima, resplandor de belleza,
en que todo lo casto canta un himno inmortal
y es en carne de rosas transpirar de pureza
y es en almas de lirios claridad celestial...

Y es un vago fundirse del amor en las cosas
el abrazo celeste con un ser ideal;
...oh, el abrazo divino en que viven gozosas (2)
nuestras almas tan lejos de este mundo real.

Noche de la Purísima, toda estrellas, mensaje
a las vírgenes almas de su Reina del Cielo.
Noche en que nuestros cuerpos se visten del ropaje
de la hermana pureza de blanquísimo velo.

¡Oh, pureza, pureza! Página de oro y rosa
escrita con los rojos carmines de las venas,
donde el serafín lee la letra misteriosa
de nuestras ansias célicas y nostalgias serenas...

Tú eres fuego de amores que arde en el alma pura
y que torna en incienso celeste el corazón.
Eres casto perfume que en el alma perdura
más allá del sepulcro como perenne unción.

Eres blanca bandera que ondea en las almenas
de la eternidad como signo de paz sagrada
de las almas del cielo con las almas terrenas.
Eres prenda de triunfo de la carne endiosada.

(2) Ez ote da "o el abrazo..."?

Eres flor tan hermosa, que fue preciso, para
verte en la tierra, que una Virgen fuese tu Reina
y que el Rey del paraíso en tu seno tomara
su ropaje de carne y su sangre divina.

¡Oh Reina inmaculada, tu mirada serena
refleja en sí del cielo la azulada belleza!
En tu ser se termina la aspiración terrena
y comienza el angélico reino de la pureza.

Tu alma es bosque de lirios de celestial albura
y al olor de tan puros aromas nuestras almas
corren llevando oculta una azucena pura;
sus dueños van cual príncipes con inmortales palomas.

Sola tú ennobleciste nuestra naturaleza,
sola tú llevaste al seno una luz celestial;
y brotó a su destello la flor de la pureza
que embalsama los cielos de aroma virginal.

Virgen santa, a tu lado en mi corazón siento
aún más allá del cuerpo y sus bajos sentidos
un ansia de pureza, de amor, un sentimiento,
un perfume que llega de los cielos floridos.

Reina de la pureza, con un vuelo esplendente
abre el alma sus alas de alba rosa y de espuma
y en tu seno que ostenta las rosas del Oriente
y los astros del áureo Poniente se perfuma.

El cielo ha esmaltado de belleza tus ojos,
allí donde tu planta se posa brotan flores,
a tu mirada en rosas se tornan los abrojos;
todo es paz a tu paso, paz de eternos fulgores.

Mis ojos nunca vieron tu imagen en el suelo,
mas mi espíritu te ama con amor inmortal,
y aunque lejos del mundo te encubre sutil velo
brillas dentro de mi alma con un brillo ideal...

*Esteban de Urquiaga, s.j.
(8-XII-1926)*

Ufindik

Maite zaitudan ene Ama laztan ori!
Nere biotz-gogoa atsegin betean (3)
Zuganantza dijoaz ta zure oroia
Nigan erabiltzea maitegafi zakit.

Zugandik, ene Ama, ufin, atzefian
Bizi aŕen be, nere gogoa Zuregan
Oldozten arkitzen da. Zu-irudi maitea
Ludi zabal au zear biotzan daramat.

Txikia nintzanean ortz txuri-txikafak
Irten baŕio lenago, biotz ta gogoan
Zure edu antzekoak nitulako-edo
Zure eresi maiteak ots egin zidaten.

Ura eresi bigun, leun eta edefa!
Ta ia loak artzeko nengoanen, befiz,
Patxo gutun beroa luze ematekoan
“Enetxo, maite aut” esaten zenidan.

Aŕezkero amaika bidar be-orŕiak
Pago gefi-zabalak aldatu ditue!
Zugandik, ene Ama, ufin, atzefian,
Baŕia nere gogoa Zuregan oldozten...

Oingoan, Ama, arpegiz ikusi nai zaitut!
Eta goiko donoki abefi maite oi
Nere biotz erdian euki daukadala
Zureganantza joan eta joan noa...

Zure abots eztiŕen ots garbi-ozena
Befiz ere entzuten dedala batzutan
Biotzak esaten dit; baŕia oraingoan
Len baŕio motel eta ilunago dantzut.

Maite zaitudan ene Ama laztan ori!
Zure magal gozoan, goiz edo berandu,
Zure eresi maiteak befiz ere entzunaz
Eriotzaren loak, Ama!, artuko al nau!

*Zaitegi'tar Yokin, s.j.
(8-XII-28)*

(3) “Biotz-gogoak” behar du izan, agian.

JOSE AGERRE ETA
MIGEL JABIER URMENETARI
OMENALDIA

Iruñea, 1989-XII-29

JOSE AGERRE ETA MIGEL JABIER URMENETAREN OMENEZ

Iruñea, 1989-XII-29

*Aladino Colín Rodríguez
Consejero de Presidencia e Interior del Gobierno de Navarra*

Euskaltzainburu Jaun Txit Garaia, Euskaltzain Jaun Txit Gorenak, jaun-andreok, Nafarroako Gobernuaren Lehendakariaren izenean, agur beroa hartu eta ongi etorriak izan zaitezten Foru Komunitateko Jauregira. Egoitza honek, gaur, Euskaltzaindiaren bilkura honen ospakizuna bere baitan hartzeko ohorea du, gain gaineko gizonak izan diren Migel Javier Urmeneta eta Jose Agerreri omenaldia eginen zaien honetan.

Excmo. Sr. Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca, Ilustrísimos Señores Académicos, Señoras y Señores: permítanme unas palabras de saludo y bienvenida en nombre del Presidente del Gobierno de Navarra a esta sede representativa de la Comunidad Foral que hoy tiene el honor de acoger la celebración de la sesión de la Academia en la que se rendirá homenaje a dos ilustres personalidades navarras como D. José Aguerre Santesteban y D. Miguel Javier Urmeneta Ajarnaute, sobre cuya vida y méritos reconocidos hablarán a continuación los académicos navarros D. José María Satrustegui y D. Francisco Javier Zabaleta.

Al rendir homenaje a los señores Aguerre y Urmeneta por su apoyo y dedicación en favor de la utilización y del fomento de la Lengua Vasca en Navarra, la Real Academia contribuye a ensalzar y reconocer la contribución personal de quienes tienen el euskera como instrumento propio de expresión y comunicación.

Por nuestra parte, quienes estamos convencidos de la importancia y necesidad de actos como éste para alcanzar los objetivos que están diseñados en la Ley Foral del Vascuence aprobada por el Parlamento de Navarra celebramos toda manifestación tendente a la normalización y desarrollo del euskera.

Agrademos, pues, a la Real Academia su contribución al desarrollo de la Lengua Vasca en Navarra, y sin más preámbulos, cedo la palabra a su Presidente, reiterando nuestra satisfacción por tenerles entre nosotros con motivo de la celebración de esta sesión. Muchas gracias.

JOSE AGERRE ETA M. J. URMENETAREN OMENEZ

Iruñea, 1989-XII-29

*Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua*

Aladino Colin Lehendakaritza eta Barne Saileko Kontseilari jauna,
Estebe Petrizan, Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia, Andereak,
Jaunak.

Agur bero bat zueri agintari jaunak eta eskerrak ere denbora berean,
orai bertan entzun ditugun hitz sarkorren gatik eta utzi diguzuelakotz
jauregi eder honen areto nagusia gure bilkura idekiarentzat.

Gure arteko harremanak beti zintzoak izan dira eta badakizue behar
den orduan Euskaltzaindia prest dagoela behar diren aholkuen emaiteko
euskararen onerako, hala erabaki duzelakotz 1986-eko abenduaren 15eko
Foru legean bere 3. artikuluko 3. pasartean, pasarte honek diolarik:
“hizkuntz arauetako dagozkionetan erakunde aholku emaile ofiziala dela
Euskaltzaindia”.

Egun, ohoratu nahi ditugu bi euskaltzale suhar, biak Nafartarrak.

Lehen José Agerre Santesteban. Ehun urte ukanen zituen egun
abenduaren 29 an. Gizon ezaguna Nafarroa guzian, idazle bikaina, 30
urte eskas zituen izendatu zutelarik euskaltzain oso Gipuzkoako diputa-
zioan, 1919ko irailaren 21-eko bilkuran. Hamabi lehenetarik zen beraz.

Urriaren 7 an, beren lehenbiziko bilkura egin zutelarik euskaltzainek,
Azkue euskaltzainburu hautatu-eta José Agerre diruzain izendatua izan
zen, Julio de Urquijo liburuzain eta Eleizalde zadorlari.

Baina ez zen gehiago agertu Jose Agerre euskaltzainek egin zituz-
ten bileretara eta 1920-eko martxoaren 25-ean euskaltzainek erabaki hau
hartu zuten:

“4 - Euskaltzainburuak Agerre jaunari idatzi bezaio batzarretara eldu
al izango ote dan ala bere euskaltzain kisa utzi naiago ote duan jakiteko”.

1920-eko apirilaren 25 eta 26 eko aktetan irakus daiteke:

“Agerre euskaltzainaren idazki bat irakurri izan zan, euskaltzaingoari uko egiten, arazoz josia ta zeregiñez betea ei dagolata, ezin leukelako gura bezela euskaltzaingo ori jarraitu ta bete. Uko ori aintzat artzea erabagi zan”.

Berehala hartu zuten bertze erabaki bat: “Agerrek euskaltzaingoa ukatzeaz, utzi zuan Euskaltzaindiaren diruzaingoa, abots batez, Altube euskaltzain gaiaren lepora emana izan zan”.

1920-eko ekainaren 22an José Agerre jaunaren ordekotzat Aita Damaso Intza kaputxinoaren aurkeztea egin zuten Campi3n, Urkijo eta Azkue euskaltzainek eta Aita Intza izendatua izan zen 1920-eko uztailaren 23-ko batzarrean.

Denbora guti euskaltzain oso izan zen beraz José Agerre, baina ez dezakegu ahantz erakundearen lehen diruzaina izan zela.

Gizonaz eta idazleaz mintzatuko zaigu Patxi Zabaleta euskaltzaina eta Kontxita Otxoa, Migel Javier Urmenetaren alarguntsak irakurtuko digu bere senar zenak idatzi zuen txostena; José Agerre euskaltzale.

Ohoratzen dugun bigarren euskaltzalea Miguel Javier Urmeneta da hain zuzen, hau euskaltzain urgazle izana.

Anderea, ezagutu dut zure senarra 1962-an etorri nintzelarik Iruñara pilotaz egin behar zen erakusketaren apailatzeko. Orduan, Baionako erakustokiko zuzendari izanez, Iruñako udaletxeak nahi ukan zuen erakusketa bat egin Munduko Pilota xapelgoak jokatzen zirelakotz Iruñean.

Orduko alkateak, zure senarra hain zuzen, egin zidan ongi etorri bero bat Udaletxean. Geroztik elgar ikusi dugu noiztenka, bereziki Euskaltzaindiak bere biltzarrak egiten zituelarik Iruñan eta beti aipatzen ginituen gure lehenbiziko harremanak, ez baitzituen ahantziak eta ez nik ere.

Baina hartaz mintzatzeko nik baino hobeki eginen du Jose Mari Satrustegi euskaltzain jaunak.

Patxi Zabaletari hitza eman baino lehenago hemen bilduak diren agintari euskaltzain eta bertze jaun andereei nahi nizkieke nere zorionik amultsuenak eskaini urte berria hastera doalarik:

Bai, izan dadila datorren urtea, urte on eta zoriontsua euskararentzat eta euskal kulturarentzat, denek elgarrekin eta elgar sustatuz lan ederra egin dezagun euskararen onerako.

Eskerrik asko.

JOSE AGERREREN OMENEZ

Iruñea, 1989-XII-29

Patxi Zabaleta

Jaun-Andre Agurgarriok

Gaur bezelako egun batean, orain dela ehun urte, 1889.eko Abenduaren hogeitabederatzian jaio zen Iruñean Jose Agerre Santesteban Jauna, euskal idazle eta Euskaltzaindiko kidea izandakoa.

Horregatik gaur omenaldi hau haren eta Migel Javier Urmenetaren oroimenez egiterakoan, eta lehenik, haren nortasun eta izaera adierazi nahi nituzke, ondoren beraren idazlanak eta eritziak zer edo zer aipatzeko.

Jose Agerreren nortasun eta bizimodua

Jose Agerre sendi apal batekoa zen. Haren aita, Eulogio Agerre, Aezkoako Ariakoa zen jatorriz eta zurgintzara Iruñera ezkon aurretik etorria. Ama berriz, Benita Santesteban, berez Iruñekoa. Aitak bazekien euskaraz, Aezkoako euskalkiaz alegia. Baina amak ez zekienez gero, semeari ere ez zioten erakutsi. Jose Agerre horregatik, eta gaur erabiliko genukeen hizketa moduan, euskaldun berria zen; edo zehazkiago esateagatik, ez zuen euskara bere amarengandik eta bere haurtzaroan ikasi, baizik ondorean.

Halere ezin ukatu haren aita euskaraz egiten zuena izateak eta baita ere bere ia betiko bizileku izan zen Iruñeak kutsu bat ezarri ziola; haren hizkuntza ondorean aipatuko eta adierazirik geldituko den bezela gipuzkera oinarri duelarik osatutako hizkera garbizale eta berrizale bat da, baina beti Nafarroako euskalkien kutsuz eta esaerez horniturik.

Mutikotan apaizetarako ikasketak hasi zituen; seminariora joan zen alegia; eta bertan ihardun zuen apaiz egiteko gutxi falta zuen arte; urte bat inguru hain zuzen ere. Horiek izan ziren haren ikasketak; ez baitzuen inoiz beste unibertsitate mailako edo beste edozein mailatako titulurik atera.

Baina bere izaerak bultzatzen zizkion jokaeren arauera, asko zuen Jose Agerre jaunak autodidakta edo berez ikasitako kutsutik. Esate baterako bere azken bizibidea, ondorean aipatuko dugun bezela, hizkuntzak irakastea izan zen. Hizkuntza mordo bat irakasten zituen, grekoa, alemaniera, ingelesa, frantsesa eta euskara. Horietatik oinarriak seminarioko ikasketatan hartu bazituen ere, ondorean zuen gehiena hornitu.

Apaizgintzako ikasketak utzirik, eta behin bere betikoa izanen zen bizimodu sekularrera atxikirik, 1913.urtean Iruñeko batzokia tokiz aldatzea erabaki zutenean, jeltkideen buruzagi taldea osatuz, idazkaria bezela agertzen zaigu. Jesús Chueca historigileak dakarrenez, (1) urte horretan, Agerre jaunak hogeitalau zituelarik alegia, delako batzokia San Jose delako plazatik Zapateria karrikara eramán bait zuten. Buruzagitza horretan kideak beste batzuren artean Manuel Aranzadi, Santiago Kuntxillos eta Felix Garcia Larratxe zituen. Zapateria kaleko Egoitza horretan iraun zuen batzokiak 1936.eko gudua hasi zen arte eta bertan atxilotu zuten lehen aldiz Agerre jauna hogeita hiru urte beranduago.

Errepublika arte ordea Agerre ez da politika eta kazetaritzara soilik begira egonen den gizakia. Lehenik ezagutzen zaion lanbidea Iruñeko “Mugica, Arellano y Cia” entpresako langile bezela da.

Hain zuzen ere entpresara horrek bidalirik joan zen Sevilla-ra (Sibiliara) 1920.urtean, han ezarri behar zuten ordezkartaren buru bezela. Mugica, Arellano y Cia delakoa nekazalgoko tresneria egin eta batez ere saltzen ziharduen lantegia zen; garai hartan Iruñean zen garrantzitsuenetakoa. Erabakirik Sevillan ordezkartza ipintzea, hara joatea eskaini edo/eta hara bidali zuten Agerre jauna. Eta han, Sevillan (Sibilian) bizi izan zen 1931.urtea arte. Sevillan zegoelarik ordea, hemen Iruñeko beste lagun batekin elkaturik armak saltzeko denda bat erosi zuten eta orduan beste bizibide hori hartu zuen. Gainera han Sevillan, eta hain zuzen ere, bigarren bizibide hori zuelarik, armeria alegia, beraren anaia baten bitartez ezagutu zuen Agoizko Modesta Zelaia eta berarekin ezkondu eta bertan bizitzan jarri ziren. Bi seme alaba izan zuten, Sevillan bizi zirelarik biak, Jose Migel eta Mirentxu baina Agoitzen jaioak, “aitak hemen goak izatea nahi omen zuelako”, beraiek gogoratzen duten bezela (2).

Sevillan zegoela errepublika etortzen da eta hain zuzen ere 1931. urtean zeukaten arma denda asaldataua eta lapurtua izan zen. Orduan Jose Agerrek Zakarias Zulategi beraren kide ohiari saldu egin zion bere

(1) Geronimo de Ustariz Institutuko Boletina, 3. zenbk.

(2) Miren Agerrek aipatutakoa.

Luis Villasante: *Historia de la Literatura Vasca*, 435. atala.

Joan Maria Torrealdai: *Euskal Idazleak Gaur*, Jakin, Arantzazu, 1977.

zattia eta Iruñera itzuli zen bizitzera. Manuel Iruxo, hain berea zuen farre murriz eta ironiaz ordea ondorean ere urte hauek aipatzeagatik “pepe Sevilla” esaten omen zion laguntasunez.

Sevillara joan aurretik ordea gertatzen da Jose Agerrek Euskaltzaindiarekin izan zuen lehen harremanen gora-behera. Euskaltzaindia, jakina den bezela, Eusko Ikaskuntzak Oñatin 1918.urtean egindako biltzarre nagusian sortzen da. Bertan izendaturik gelditu ziren lehen lau euskaltzainak, hain zuzen ere Azkue, Eleizalde, Urkixo eta Kanpion jaunak. Baita ere ordea Oñatin eta aipatutako biltzarrean Euskaltzaindiaren Arautegiko egitasmo edo aurreproiektu bat onarturik gelditu zen eta honek zioenez hamabi euskaltzain oso behar ziren izendatu. 1919.urteko Irailaren hamabian, Eusko Ikaskuntzak deiturik, Gipuzkoako Aldundian bildu ziren lehen lau euskaltzainak eta baita ere euskal argitalpen edo agerkeria guztien ordezkariak eta hamabirainoko euskaltzain osoa izandatu zituzten. Hamabi horien artean hain zuzen ere, bat Jose Agerre Santesteban zen.

Baina laster hamabi hoiretatik lau desagertzen dira. Bi hil egin zirelako, Txomin Agirre eta Pierre Broussin hain zuzen ere. Eta beste bi berriz, Adima eta Agerre, kargua utzi egiten dutelako.

Guzti hau Luis Villasanteren Euskal Literaturaren historian azaltzen da eta aldaketa haundirik gabe ere Juan M. Torrealdairen “Euskal Idazleak Gaur” liburuan, nahiz eta gero liburu honetan bertan Jose Agerrere-na eta beste batena bezela —A. Gatehiteguy- bezela ematen den, beste Agerre batena den liburua, Laborantza, Laborantzatik hobeki bizitzeko. Bigarren Agerre hau Miarritzeko apaiz eta Baionako kalonjea da. Bada gainera ere beste hirugarren idazle Agerre bat, Bizkaikoa. Eta izenen berdintasunaz aritzean Axularren ere Agerre zela aipatu egin beharko genuke.

* * *

Zergatik utzi zuen Agerrek Euskaltzaindikiko kargua edo/eta zergatik utzierazi zioten?

Ikusirik bere bizimodua eta baita ere bere seme-alabei galdegin ondorean, zera aipatu behar, 1919.urteko erdialdean izan zen izendatze hori; garai horretan Agerre “Mugica, Arellano y Cia” zelakoarentzat ari zen lanean eta hurrengo urtean hain zuzen ere 1920. Sevillara joaten da bizitzera, eta orduan badirudi badagoela hor arrazoinik kargu hori ezin eramane zezakeela pentsatzeko.

Villasante jaunari ordea entzun izan diot badirela Azkue jaunak egindako gutunak adieraziz Agerreri ezin bazuen kargua bere bizkar

eraman utz zezala. Eta jarrera edo jokabide horrek, lehen aipatutako arrazoinekin kontraesanik izan gabe, badu gainera beste oinarri bat ere, ez zela alegia Agerre bakarrik izan kargu utzi zuena garai hartan, baizik eta baita ere Adima jauna.

Ondoren ordea ez da gehiago holakorik gertatu, eta horri buruz aipagarriena Agerre bera ordezkatu zuena Euskaltzaindian, Aita Damaso Intza jauna alegia, hogeitaz baina gehiago atzerriraturik izan baitzen.

Nire iduria da kargua uzteko arrazoina kanpora bizitzera joatekoarena izan zela da gehien batean. Berak joan zenean ez baitzekien noiz arte zijoan gainera. Baina iduri hori eusteko bada beste arrazoin bat ere. Jose Agerrek bere azken urteetan ere baditu idatziak izenpetzean “euskaltzaindiko” hitza, bere izenari erasten dizkionak.

Gainera haren seme alabek gordetzen dituzten paperetan hil aurretik, Euskaltzainditik hartzen zituen gutunak eta eskutitzak ongi baino hobeki gorderik daude. Eta azkenik ez zitzaion inoiz Euskaltzaindiarekiko uste txarrik ikusi; alderantziz bere azken ekintzak *Principe de Viana* aldizkaria eta erakundearen inguruan izan ziren Urmeneta, Diez de Ulzurrun, eta holako kideekin eta talde horrek harreman eta kideztza sendoa izan zuen beti Euskaltzaindiko egitura eta jokabideekin.

Errepublika etortzean eta aipatutako gora-behera guzti horen ondoren Jose Agerre bere familiarekin Sevillatik Iruñera etorri zen bizitzera, 1931.urtean zehazki.

Iruñean, hurrengo urtean, 1932.an izendatzen dute Eusko Ikaskuntzako Nafarroako Ordezkaritzako idazkaria. Egia esateko ordezkaritza horrek ez zuen Errepublika garai hartan lan gehiegirik azaldu, eta lanbide horretarako izendatzeko ere izan zuen Jose Agerrek aurkakorik, Ramón Goñi izenekoa hain zuzen ere.

Behin Iruñean eta errepublika garaian, berriro ere politikako munduan murgiltzen da, eta Napar Buru Batzarrea deitutako jeltxideen batzordean azaltzen da berriro eta hain zuzen ere 1935.urtean buru bezela delarik.

Urte horretan bertan kazetaritzan gero eta gehiago murgilduz doalarik *La Voz de Navarra* egunkariko zuzendaritzara iristen da. Eta lanbide horretan aritzekoa zen gerratea hasi egun ber-bererarte.

Gerratea hasitzat ematen den egunean bertan, 1936-ko Uztailaren 18an ere *La Voz de Navarra* egunkaria atera egin zen kalera. Eta hurrengo egunean, Zapateria kaleko batzokiaz gainera egunkariaren beraren egoitza zenean atxilotu zuten lehen aldiz Jose Agerre jauna.

Jakina den bezela gainera, egunkari horretan zeudenak atxilotu edo bidali eta bakarrik egun batzu beranduago atera zuten frankismoko lehen egunkari bezela ezaguna izan zen Iruñeko *Arriba España* periodikoa, Fermin Izurdiaga apaizaren zuzendaritzapean. Etxeak izenez aldatu ere egin gabe, gaur arte gertatu zen guzti hori.

La Voz de Navarra egunkariaren zazpi zuzendarietatik azkenekoa izan zen bada Jose Agerre. Jesús Chueca jaunak aipatzen du ere Manuel Iruixoren idazkietan azaltzen denez, Miguel Espartza *La Voz de Navarra*-ko azken aurreko zuzendari politikoki jaimista, nahiz eta euskaltzalea zenarekin eta zetorrela inolaz ere bat Agerre jauna eta adierazi zuela gainera Espartza egunkarian zegoen bitartean ez zuela bertan lanik eginen. Aipatutako Migel Espartza hau, egunkari bereko lehen zuzendaria izandako Eladio Espartzaren lehengusua bazen ere, ez ziren iduri berdinakoa gizariteari buruzko idurietan.

Jose Agerrek Errepublikako garai horretan eta batez ere egunkarian “Gurbindo” izengoitia erabiltzen du. Beraren politikako izengoitia zela dirudi izen horrek, baina bere azken urteetan egiten zuen olerkiren batean ere, berriro, izenorde hori bera ere erabiltzen du. Zergatik “Gurbindo”? Haren sendikoek dioetenez ez zuen ez abizenik, ezta jatorrizko edo gurasoen sorterriko topinimiarekin zerikusirik. Badirudi beraz, izengoiti hori, politika mailako borroketan erabiltzen hasi zela eta gero batez ere kazetaritzako lanetan erabiltzen jarraitu egin zuela. Gerrate ondorean izen hori baztertu egin zuen, baina berriro, esan bezela noiz behinka erabili zuen beraren azken urteetan.

Hogeitamaseiko gerratea hasi zen egunean bada egunkaria atera zen eta hurrengoan atxilotu zuten Agerre. Berriro ere beste bi aldiz atxilotu zuten, 41 eta 46 noski. Guztira ia bi urte egin zuen giltzapean eta epaiketa bat izan zuen. Bizia ez baldin bazioten kendu lehen egun haietan, txiripaz izan zela aitortu behar; batetik sendi harremanak zituen altxatu zirenen artean. Eta bestetik gizaseme errespetatua izan zen gehienetan pertsona bezela. Gerra ondoren betire Urbiola, Ariztia, Etxeberria, Ezkurdia eta beste hainbesterekin azaltzen da behin eta berriro presoan laguntzan, eta beste informazioko harremanetan.

Beste saiaera batzutan ere aritua zen Agerre Errepublika garaian. Lehenago, 1923.an izandako euskal eskolak tajutzen eta antolatzen saiatu ziren 1934.tik aurrera guraso talde bat. “Escuelas Vascas” deitutako elkar-atea sorturik bi tokitan jarri zituzten gelak, Karlos III. kalean zegoen txalet batean, orain Nafarroako Aurrezki Kutxa dagoenean hain zuzen ere, eta baita ere Eskolapioen orduan egin berria zen ikastetxean, haundiegia zutenez gero gela pare bat uzten baitzieten. Iruñean bigarren aldiz ipini zen euskal eskola hauetan ehun eta berrogeiren bat ikasle izateraino iritsi ziren, bi edo hiru irakasle zutelarik.

Gerrate ondoren, galdurik zuen lanbidea, baina ez zen erbesteratu, baizik eta Iruñean gelditu zen bizitzen. Ondasun edo patrimonio gutxiko gizasemea zenez gero eta seme-alabak ikasteko adinean zituenez gero, egin zezakeen lan bakarrari ekin zion, hizkuntzak erakusteari. Bere etxean bertan eta bera bakarrik irakasle zelarik lau edo bost hizkuntza ematen zuen, beti eskola partikularrak izenaz. Beraren lanbide horri izena ere jarri zion, “poliglos” hain zuzen ere.

Haren ikasleek diotenez euskara gramatikaren bitartez erakusten zuen, Umandiren *gramatika* erabiltzen zuen batipat. Eta gainera bere apunte batzu ere ematen zituen, liburuaren osagarri bezela. Ez zuen bada oraingo metodologiarik ezagutu.

Seme-alabek ikasketak bukatu zituzten neurrian ikastaldi edo klase gutxiago eman beharra etorri zitzaion, baina beti azkenearte klaseren bat ematen jarraitu zuen.

Jose Agerre bihotzekoak emanda 1962.ko Urriaren 19an hil zen, 72 urte zuelarik eta *Diario de Navarra* egunkariko hainbeste urtez zuzendaria izandako Garcilaso hil zen egun berberean. Errepublika garaiean gogorki polemizatutakoak ziren biak. Bi egunkaria horien artean, besterik beste, Nafarroaren konkistari buruzko eztabaida eta polemika bortitzat izan ziren ezagunenak, hain zuzen ere Fernando el Catolico ala el Falsario zelakoak, batzuek eta besteek deitzen zuten bezela, erabili zuen bula egiazkoa zen ala ez. Jarrera guzti hauetan Agerrerengan nabaria da Arturo Kanpionen eragina, nabaria den bezela ere bere jarrera eta pentsakera progresista ondasun komunalen defentsan eta nekazarien bizibideaz duen arduran.

Jakin grina izugarriko gizona, edozein gai ukitzeko eta aztertzeko premia sumatzen zuen. Horregatik ukitzen dituen gaiak era guztitakoak dira. Baina euskararen zaletasunak beti iraun zion eta azkeneko urteetan, esan bezela Diez de Ulzurrunekin, Irigaraytarrekin, Tirapu eta Urmene-tarekin herriz herri ibiltzeari ekin zion. Hori izan zen idatziez gain bere azken emaitza.

Jose Agerreraren idazkera eta idazlanak

Agerrek bazituen harremanak, baina idazle bezela bakartitzat jo behar dugu. Bere garaiean, Iruñean bizi zen esate baterako Blas Fagoaga eta hain zuzen ere bien eskuzko idazkerak badu antza, baina harreman horrek ez zituen eraman beren idazkerak elkarrenganatzera.

Agerrek berak aipatzen digu ere beste artikulua batean Iruñeko beste euskal idazle bat, Alejandro Tapia Perurena, baina horri buruzko azterke-

ta egiten duenean Onaindiaren *Milla Olerki Eder* delakoan dituenak aztertzen ditu.

Giro benetan ez zen nolanahikoa eta hori guztia ere kontutan hartu behar.

Bigarren berezitasuna zera da, Agerrek ehunka eta ehunka orrialde idatziak izanagatik, eta esan nezake gehiago, ehunka eta ehunka olerki izanagatik ere ez zuen liburu eta ezta liburuxka bat ere argitaratu. Argitaratzen zituen aldizkari eta egunkarietan. Kazetari anima zuen neurri haundi batean. Artikuluak eta olerkiak eta saiaera motzak dira bere emaitza batez ere. Eta ez bakarrik *La Voz de Navarra* delakoan aritu zenez geroztik, baizik eta lehenagotik ere. Gaiak ez ditu behin ukitzen, baizik gai berera behin eta berriro itzultzen da. Baditu hiru, lau eta bost edo gehiago aldiz moldatutako eta birmoldatutako olerkiak eta baita ere idazlanak. Baina behin gai bat erabiltzen duenean eta ikuspegi bat ematen dionean, artikulua edo olerkia dela eta argitaratzen baldin bada, ez du gehiago biltzeko grinarik izan. Beraren sendikoek ere galdera honi ezin diote erantzunik eman. Zergatik ez ote zituen bildu bere idazlan hain ugariak? Agian, esan bezela, bere kazetari izaerak egunerokotasunera bultzatzen zuelako, eta behin argia ikusiz gero berena egina zutela uste zuelako. Aipatu behar da ere ez zela batere erraza liburuak argitaratzea... baina iduritzen zait, Jose Agerrek, nahi izan balu eta saiatu izan balitz bilduma bihurtzen argitaratuak eta argitaratu gabeak dituenak lor zezakeela.

Eta non diren Agerreren lanak esan baino lehenago, beste bitxitasun bat ere esan egin behar; Agerreren poemagintza lana, olerkigintza, oso zabala eta haundia izanik gehien gehiena euskaraz dagoela. Prosa berri, artikuluak eta ereportaiak edo beste edozein motatako prosako idazlanak hamarretatik bederatzi espainolez daude. Baditu hitz lauz edo prosaz egindako artikuluak eta lanak ere euskaraz eta ez gutxi, egia da, baina esandako tajuari.

Argitaratuta dituen euskal idazlanak, batez ere, esan bezela olerkiak, hurrengo argitalpen hauetan agertzen dira gutxienez:

Zeruko Argia, Argia, Egan, Olerti, Amayur, Pregón, Principe de Viana, Euzkadi, Alderdi, Karmel, Euzko Gogoa, Euskal Herria, Euzkerea, Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipaleko *almanake* edo *urtekarietan, La Voz de Navarra* egunkarian eta *El Pensamiento Navarro* egunkarian.

Azkenik aipatutako egunkari horretan, *El Pensamiento Navarro*-n, alegia, urte askotan idatzi zuen. Bazituen bertan lan egiten zuten bi kazetari adiskide; bata Zelso Torrea, Iñarbe; eta bestea Xanti Andia, kiroletaz aritzen zena. Gainera agian bere euskalzaletasunetik hurbilago sumatzen zuen egunkari hau bestea baino. Eta gerra ondoretik hasi eta

hil zen arte hor idatzi zuen Agerrek. Gehienetan olerkiren bat euskaraz eta sarreran eta agian bukaeran hitz lauz edo prosaz argitasun piskaren bat zekarkiokeen komentarioa. Erabiltzen zituen gaiak, alegia, erlijioakoak, folklorekoak eta noizean behin ohiturei edo gertakizun arraroren bati zegokion zer edo zer. Politikako gaiak alegia ezta aipatu ere.

Argitara emandako idazlan horietaz gainera Agerrek baditu argitaratu gabeak beste olerki eta idazlan multzo haundi bat. Beraren alaba Mirentxuk zortzi edo hamar karpetatan bildurik dauzka. Gehienak zuzenduak daude, zirriborro mailan besteren batzu; gai berari buruz eta erabilpen berdintsuaz beste zenbait. Baina beren lekukotasuna dutenez gero, argitartzea merezi luke, behar bezela aztertu eta kokatu ondorean. Lan hori argitaratuak direnetatik hasi eta argitaratu gabeak direnetaraino prestatzen ari da, lehenik olerkiei buruz; gero euskal artikuluei buruz egin beharko litzateke eta azkenik agian beste lan guztiari buruz.

* * *

Agerrenen gaiak poemagintzan ez dira asko. Lehenik eta behin erlijio gaia aipatu behar. Erlijioko gaiei buruzko olerki asko du, garizuma dela, eguberriak direla, pentekoste dela eta abar. Olerki batzutan mistizismora era ia-ia helduan dela esan genezake eta agian honetan hainbeste mires-ten zuen Orixen eragina ere nabari zaio. Orixeri buruz idazten duenean izen lagun eta goraipamenezko adjektibo guztiak eskas zaizkio.

Hortaz gainera giza harreman eta maitasunari buruzko olerki mor-
doxa ere badu; askotan halako kutsu bihurri samar batez. Maitasuna da
—liriko mailan— alegia bere bigarren olerkigintzarako asmo eta gogo
iturria.

Epika mailan ditu beste zenbait lan. Xabierko San Frantziskori edo Aralarko Mikel Deunari, bere esateko moduan, olerki bat egiten dionean, nabari da gainera bere euskal sena eta gogoa ere adierazi nahi dituela gelditzen zaion bide bakarretik. Epika kutsua dute bada holako poema batzu.

Eta azkenik folklore eta ohituretako gorabeherak, bizimoduko ezinak eta pozak, baina jende xumearen ikuspegitik, herri euskaldun baten ikuspegitik.

Grafia alegia, nahiz eta bere zalantza eta ezberdintasunekin, batasunaren aurrekoa du. Joskeran nabari zaio noiz behinka euskara ez dela bere betiko hizkuntza, baina aberatsa eta mardula da bere hizkuntza.

Hizkuntzarekiko jarrera purista edo aranista batena du jeneralki, zenbait Nafarroako bereizitasun erantsiz. Baina hizkuntza berriki hartua dutenek bezela, eta batez ere hizkuntza klasikoetan jantzia bezela asko-

tan hitzaren etimologia bilatzen du, erabilpena baino gehiago; beste batzutan berriz gonparabidea jartzen du baita grekoko hitzekin ere. Beraz joera kulturalista dei genezakeen hori du.

Betire, euskaraz eta espainolez ez du ere estilo bera. Espainolez, nire ustetan, askotan burruka kutsua nabari zaio. Euskaraz herrikoia goa izaten saiatzen da.

Eta beti gizaseme orekatua dugu, ekilibratua, moderatua, aritzen dena teknikaren eta munduaren aurrerapenekin. Gizaldi gogor bat gertatu zitzaion Irunshemea zen Jose Agerre Santesteban, Don Jose.

AGUERRE Y EL VASCUENCE (*)

Pamplona, 29-XII-1989

Conchita Ochoa

Cuando José Mari Satrústegui me habló de este acto de Euskaltzaindia, recordé que entre los trabajos inéditos de mi marido había algo sobre Don José Aguerre. A José Mari le pareció muy oportuno que yo lo leyera en esta sesión de hoy.

En este momento, pues, no hago más que prestarle mi voz a Miguel Javier, a él que tanto dio a Navarra, al euskara, a nosotros y a mí.

¡¡José Aguerre!!

¡¡Miguel Javier Urmeneta!!

Hablando de vosotros no se puede decir Goian beude. ¡No! Porque estais vivos, estais entre nosotros con vuestra pluma, vuestro pensamiento, vuestra ejecutoria. Y no podéis, no queréis descansar, porque hay que ganar una serie de batallas que todavía tenemos pendientes.

* * *

Antes de leer el artículo de Miguel Javier, quiero aclarar que fue escrito en 1982 y que el periódico al que se refiere en uno de los párrafos es "Príncipe de Viana", como ha dicho antes Patxi Zabaleta. Y una gran decepción para mi marido fue, que después de haber conseguido que saliera a la luz y llevarlo adelante en pleno franquismo, con las dificultades que esto conllevaba, justamente en plena democracia lo dejaron morir con total indiferencia.

* * *

Silueta gruesa, pacífica con boina para atrás. Pensador y escritor como un clásico vasco. Todo lo menos parecido a un agente secreto de

(*) Palabras de presentación de Conchita Ochoa de Urmeneta al trabajo inédito de Miguel Javier Urmeneta "Aguerre y el vascuence", leído por ella misma en la sesión pública de Euskaltzaindia.

lo que creo fue acusado. Mirándolo con sentido común D. José es el mejor disfraz para un agente secreto.

Durante muchos años sólo hubo una ventanilla para que el vascuence de Navarra tomase un poco el aire y era el artículo de Aguerre en "El Pensamiento Navarro". Gracias a Miguel Angel Astiz.

Cuando vino Benjamín Palencia no vendió más que un cuadro en aquella ciudad musida. Pero yo le dije a Palencia: ¿A que no le han hecho nunca una crítica en vascuence? Tiene Vd. razón y la guardo como una reliquia aunque no la entienda. La hizo Aguerre.

Al vascuence en Navarra y en aquel tiempo no le tiraban a matar, le tiraban a morir que es mucho peor. En Roncal sólo quedaba la Simona, Ubaldo y María Ezker. En varios pueblos del Salazar era cuestión de meses. Y detrás de San Cristóbal la gripe normal de este invierno puede llevarse el vascuence de un Ayuntamiento entero después de 4.000 años. ¡Qué vergüenza!


Miguel Gortari, Presidente de la Diputación, revivió la Sección de vascuence en Príncipe de Viana enlazando con aquella laureable "Euskeraren Adiskideak" de antes de la guerra.

Pero yo estaba empeñado en algo más eficaz. Yo quería ver a la Diputación Foral dando la cara oficialmente y formé una conspiración con ocho o nueve curas para editar un periódico en vascuence, foral y oficial. El mejor momento era cuando la sesión del viernes se prolongaba al sábado y entonces venían las comisiones de los pueblos a ver a los Diputados y a veces sólo quedaba en la sesión el Presidente y algún otro. El Presidente sólo y dormido con las gafas en la punta de la nariz escuchó aquel sábado mi moción de urgencia y se aprobó. Miguel Javier; además siento no conocer esa lengua de los antepasados.

Pues mire, D. Félix, cuando tú naciste aún se hablaba en Puente La Reina, donde tienes la Finca. ¡Quíá! Pues en 1869 el Príncipe Bonaparte recoge "al oído" el cántico de los tres jóvenes en dialecto de Puente. "Iguzqui t'largua, ceruco izarrac, etc.". Marco apoyó sin reservas, como siempre, y ningún miembro de la Corporación puso trabas. Acabo de recibir el número 148 y año XVI. Aguerre se hubiera alegrado.

Hoy el vascuence es lengua oficial en algunos valles de Navarra, según el Amejoramiento. Pero el esfuerzo para su supervivencia está por hacer. En el fondo los estamentos de poder siguen tirándole a morir. No les importa.

Yo también defiendo que las soluciones han de ser de sentido común, realistas, inteligentes, liberales. Pero va quedando poco tiempo.



†

AGERRE ta SANTESTEBAN
tar' JOSEBA JAUNAK
JAUNGOKAGAN ATXEDEN
ARTU ZUEN IRUKAN 1962'ko
URRILAREN 19' GN

†

BERE EMATZE TA JEME-ATABAK
LAKATZEN DIZUTE OTITZ BAT
BERE ANIMAREN ALDE

†

IZAN ERE ZURETZAT EGIN NAUZU,
TA EZIN EGONEZ DAKAT BOLTZA
ZUREGAN ATXEDEN ARTZERANO

(AGUSTIN DEUNA)

En este conjunto de recuerdos está cuando en el mismo día enterraron a dos amigos respetados, "Garcilaso" y Aguerre. A lo de "Garcilaso" fui con el corazón, y el deber de Alcalde. De Aguerre poco recuerdo oficial. Estaba una tarde muy cruda de enero como las de aquí, pero fui con mi mujer al Cementerio de Aoiz. Solos. A dejarle cuatro florecicas de enero. A un lado la ermitica de San Miguel de Izaga, desamparada entonces, y muda, iclaro!, muda... No sé si estarían alrededor las "colostias" o gorostis que llevan allí los romeros, los de los pueblos, pero en verano. Los altos de Zarikiegi tenían color de plomo, era domingo y el campo estaba desolado y frío.

MIGEL JABIER URMENETAREN OMENEZ

Iruña, 1989-XII-29

J. M. Satrustegi

Urte amaierako batzarre honetan bi euskaltzale ospetsu omentzen ditu Euskaltzaindiak Nafarroan. Biak ezagutu nituen, nahiz ez hein berean, eta biekin parte hartu nuen gerra ostean euskararen alde Nafarroan egindako lanetan.

Jose Agerre jauna nahiko zokoraturik zegoen bere etxean nik ikusi orduko. Olite kaleko bere gela —lantoki eta atsedenleku— dut orain gogoan. Han entzun nizkion neu urgazle nintzelarik Euskaltzaindiarekin izandako gora-beherak. Oso aipatua zen bere izena eta ardura Iruñeko euskaltzaleen munduan. Berriki jakina dut, Azkueren istripuan uretik euskaltzainburua atera zuen gizasemearen alde lehenengo diru-eskea berak egin zuela, jakina denez, ibai-ertzean utzitako jantzien sakelak hustu baitzizkioten gizonari, Azkue zenari laguntzen zebilen bitartean.

M. J. Urmenetaren gomendioz agertu nintzaion etxean, bigarren omendua bera dugularik ospakizun honetan.

Bakoitzak bizi izan dugun egoeraren aipamena egiterakoan, bi bide jarrai ditzakegu: atzean gelditutako bidearen ertzean utzitako mugarriena; ala bidea egin genuenon giroa, eguneroko kezka, oztopo eta lorpenak azaltzen dituen.

Lehenengo ikuspegia da nabarmenena. Ekintza nagusien zerrenda egitea ez da hain zaila. Orduko egunkarietan agertzen dira eta edozein historigilek bil ditzake. Aitorpenen emaitza, alderantziz, norberak bere barruan daraman altxorra da eta ezin du berak baizik adierazi.

Aipa dezagun haur euskaldunen saristatze famatua. Hamar urtez egindako txangoen urratsak 1956tik 1966ra sakabanaturik daude eta egunkariak aipu dituzte herritako azterketak nahiz saritutako haurren kopurua. Lekuan-lekuko giroa, aurkako erasoak, guardia zibilen harrera eta bertako euskaldunen beldurra, beste zaku bateko irina dira.

Ezin naitekeenez gertakizunen ildotik gehiegi luzatu, ekintza haien asmo eta helburuez arituko naiz. Plangintzan baziren estrategia arloko

eragile burutsuak eta jende-aurreko langile eta bide urratzaileak. Multzoa ez zenez haundia, norbera bere eginkizunaz jabetu beharrean aurkitzen zen. Migel Jabier Urmeneta eraso orokorraren asmatzaile zen. Ez zuen bere burua gehiegi nabarmentzen, baina beti taldearen eragile. Herriaginteen aurrean berak zuen aurpegia agertzen, ekintza horien babesa, baimena eta diru laguntza lortzeko.

Nafarroako haur euskaldunen sariketa-plangintza mamiturik eta plazaratzen hasia zen 1956an nik jakin orduko. Luzaiden jakinerazi zidan Migel Jabier Urmenetak, eta irteerak igandetan izan ohi zirenez, nik ez nuen askotan joaterik izan.

Joan-etorri guzien helburua hitz gutxitan laburtzen da: Euskaldunari bere hizkuntzarengatik sortutako beldurra eta lotsa gainditzea, alegia. Haurren bidez gurasoak irabaztea. “Orain arte euskara gauza txarra bazen... orain saritzera zatozte?”, entzun nuen neure belarriz Basaburua aldean. Lehen urratsaren eginkizuna, beraz, psikologikoa izan zen; gaiztakeriaren atorra gorria euskarari kentzea.

Hamarkada horren ondotik bigarren urratsa bururatu zitzaion gidariari: Euskaldunak izan, baditugu, baina gero euskara irakurtzeko biderik ez badiegu ematen, nola landuko dute euskara? —itaundu zigan Aurrezki Kutxa Munizipaleko bulego dotore batean bildu ginen adiskideei. Sarasate pasealekuko zugar sendoek estaltzen zuten euren orri itxiekkin hiriko horma zimentazkoen gordintasuna. “Euskarazko aldizkari bat argitaratuko dugu, zioen berak, mendialdeko sukalde txoko guzietan euskarak sarrera ofiziala izan dezan”. Elkarri begira gelditu ginen zenbaitzu, ezinezko amets baten aurrean bezala. Euskaldunari euskaraz irakurtzeko bidea ematea zen bigarren ekintza honen helburua.

Mundura datorren haur bakoitza ogia besapean duela jaiotzen dela, esan ohi zuten gure aurrekoek, beharren neurrira sortu ohi direla laguntzak aditzera emateko, eta asmo berri honek Pedro Diez de Ulzurrun sendagilearengan izan zuen bere ugazaba eta arima. Ordurako nabarmena zen euskararen aldeko ekintzetan adiskide honen nortasuna, jarrera eta ordu askotako lana eta, inolako zalantzarik gabe, bere gain erori zen ekintza berriaren zama nagusia ere. Zuzendari, arduradun nagusi eta idazleen arteko lokarri zen eta esker txarrez ordaindu zitzaion politikak sortutako gizonaska zitalen aldetik bere lan jator eta ohoragarria.

Dozena bat idazle euskaldun elkartzen ginen, gezurra badirudi ere, Nafarroan euskarazko “Príncipe de Viana” aldizkariaren inguruan. Zenbaitzuk ez dute jakinen “Roncesvalles” izan zela jatorrizko lehen izenburua, eta horrela inprimatu genituen oso bitxiak diren zero zenbakiaren lehen probak, 1966ko urteberri aldera.

Zazpi mila ale banatzen ziren etxez-etxe doan harpidedun bakoitzaren izen abizenekin. Diru kopuru ederra suposatzen zuen urteko balan-

tzeak, eta nondin aterako zen horrenbeste txanpon galdetzen genuelarik, erantzun bakarra Urmenetaren ahoan hau izan ohi zen: “euskara errazean egin zuen lana, denek ulertzeko moduan...”.

Gaur Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak omentzen duten Urmeneta jauna ez zen euskal aldizkariaren eragile eta babesle hutsa. Bere atala bete ohi zuen hilabetero herrietako merkatu eta feriei buruz, abere eta nekazaritzako salmenten azken prezioen berri emanez. Erdaraz idazten zituen txostenak, noski, eta neuk itzultzen nizkion gehienetan euskarara.

Oroitzapen goxoa utzi zigun, ekaitzak jo zuen arte, urte haietako lan astingarriak. Erle xumeak bezala ginen taldeko lankideok erlauntzara hileroko bakoitza bere aldetik lanak ekartzen.

Bospasei urteren buruan ez zitzaion aski gidariari aldizkariaren argitarapena eta beste urrats garrantzitsuago baten helmuga zerabilkien Nafarroako euskararen laster-apustuan. Eskoletako ofizialtasunean ezarria zuen atalburua. Ordurako hasia zen, 1971. urteaz ari naiz, Nafarroako ikastolen mugimendua, baina ikastetxe guztian nahi zuen diputatu gaur omenduak euskara baliarazi. Bi ekintza nagusi burutu zituen, kargua uzteko erabakia hartua zuelarik: ordu erdiko ikastaroak nahi zuten guztientzat ofizialki eskoletan antolatzea, eta legezko ofizialtasuna egunoroko bizitzan euskararentzat lortzea. Zoritxarrez ez zuen laguntza haundirik lortu irakasle askoren aldetik ez Madrilgo ordezkarien zikoizkeriagandik, erakaskuntza hori ordaindua izan arren, eta lekukotasun edo testiguanza hutsean gelditu zen ordu erdiko ikastaroa. Hala ere, euskara ez zen, ordurarte bezala, mamutza nazkagarri bat agintarien babesa merezi zuelarik orain.

Eta Euskararen Zabalkunderako Oinarrizko Arauei dagokienez, kargua utzi aurreko azken Batzarrean onartzea lortu zuen Amadeo Marco zenaren laguntza baliotsuarekin, ondorengo sasi-jauntxoek arbuia, baztertu eta isildu bazuten ere.

Nafarroaren ondasun haunditzat zeukan Migel Jabier Urmenetak euskara eta biztanleen artean zabaltzen saiatu zen era berean ahalegindu zen azken urteetan astirik izan zuen neurrian, berak ere ikasten. Mintza praktikak egin zituen bizpahiru lagunekin azken gaitzak jo zuen arte.

Gehiago esango nuke; azken finean heriotzak berak borondate hori aintzat hartu nahi izan balu bezala, hain gauza politak gaztelaniaz idatzi zituen gizonaren azken idazlana euskarazkoa izan zen, non eta San Fermin festa aipatuetakoa egitarau ofizialen iragarki liburuan.

Emaitzetatik ezagutuko duzue...

Ohore haundia da Euskaltzaindiarentzat Nafarroak azken gizaldian ukan duen gizaseme ospetsuena euskaltzain urgazleen zerrendan sartu izana.

Zor haundia ordaintzen du maila goreneko ospearekin eskaintzen dion omenaldiaz.

* * *

Recuerdo con relativa precisión el primer encuentro personal con don Miguel Javier Urmeneta, en 1956, y el porte de su figura erguida con traje azul oscuro, como diseño concebido para lienzo inmortal de un artista plástico. Es la impronta que treinta y seis años de perspectiva en cargos públicos, y el propio trato amistoso que normalmente erosiona los perfiles, no han podido desdibujar. Puntualizaré que fue en Valcarlos y en la fiesta anual de los “Bolantes”, que todavía se celebraba por febrero, sin que el obligado rigor de la estación impidiera a este hombre el desplazamiento que le permitía revivir la experiencia del bello espectáculo de Carnaval.

Su aspecto aparentemente distante y serio con el cuño inconfundible de Academia Militar hasta en el esbozo de sonrisa que no acababa de relajar sus facciones, tenía el punto débil en el resquicio abierto de dos ojos inconfundiblemente humanos a la luz inquieta, soñadora, de su exquisita sensibilidad artística y espiritual.

No es habitual la faceta de una personalidad carismática que sabe compaginar con dignidad la aureola de la popularidad, y la cercanía de la calle con el ciudadano de a pie en cualquier angosta acera. Es como vuelo majestuoso de águila que no pierde de vista el surco insignificante del arroyo en la perspectiva privilegiada de las almas nobles. ¡Cómo lo iba a olvidar!

Y así lo supo entender con su instinto peculiar el pueblo que acudía a él sin preámbulos en el capítulo crediticio de la Dirección de la Caja Municipal, en el horario de atención al ciudadano que él mismo implantó en la Alcaldía de Pamplona, y en el sendero trillado de todas las reclamaciones provincianas que socializaron su despacho de diputado en este Palacio de Navarra.

Como dato anecdótico, la referencia personal incluía la filiación completa, don Miguel Javier Urmeneta, sin economía de términos; o simplemente, don Miguel Javier, sin otro bagaje genealógico ni institucional.

Impulsor del euskera en Navarra

Euskaltzaindia, Institución académica creada hace setenta años por iniciativa de las cuatro diputaciones vascas, tiene hoy el honor de dedicar esta sesión extraordinaria en la planta noble del Gobierno de Navarra, al

recuerdo y homenaje de dos personalidades que, en circunstancias difíciles de nuestra historia más reciente, asumieron el riesgo de velar por los derechos de la vieja lengua autóctona de este pueblo en calidad de tesoro asumible por cualquier ideología civilizada.

Me ha gustado la pincelada entrañable que la pluma galana de don Miguel Javier ha trasladado del archivo familiar a los labios de Conchita. Es mucho más que la nota simpática que anima el tono tradicionalmente plomizo de las sesiones académicas. Es un testimonio que nos honra con el elogio delicado y bello a la memoria del amigo. Significa grandeza de corazón el detalle entrañable de “las cuatro florecicas de enero”, como homenaje recoleto más allá del boato oficial, al personaje silenciado y al académico desposeído que reposa en la tumba solitaria de Aoiz.

¡Cómo le hubiera gustado al autor ir deshojando uno a uno los pétalos de cada flor significada en el ramillete, precisamente en el marco oficial que él soñaba para nuestro idioma en Navarra! Flor de sonrisas infantiles en cada diploma que llegaba a los pueblos por haber cultivado la lengua de nuestros mayores. El parto laborioso e ilusionado de la revista “Príncipe de Viana” íntegramente redactada en euskera por escritores navarros fue primavera esperanzada para muchas familias humilladas y proscritas por su cultura. Y hubo floración graciosa de rosas rozagantes en el huerto paterno con la proclamación de las “Bases para la Enseñanza y el Fomento del Vascuence”, en sesión del día 15 de diciembre de 1972, como culminación de una eficaz sementera propiciada por la Excma. Diputación Foral de Navarra.

Hay que decirlo bien claro: nunca se había producido una transformación tan espectacular en tan poco tiempo, a pesar del clima adverso que rodeaba al idioma autóctono en la postguerra. Fue el mejor servicio que se pudo prestar a la cultura y un paso fundamental para ir construyendo el camino de la comprensión y de la tolerancia.

El recuento deslabazado de proyectos y realizaciones, con ser significativo, no es más que el exponente material del espíritu que animaba al grupo de sus promotores. La distribución nominal de siete mil ejemplares mensuales que se comentaban junto a cada fogón en un lenguaje que la historia les había escamoteado, era un acto de justicia y reparación obligada de muchas carencias. Pero lo más significativo de aquella simpática aventura en la que nos vimos involucrados un reducido número de entusiastas soñadores, era la presencia de la Administración que avalaba, financiaba y suscribía esas actividades. La popular Sección para el Fomento del Vascuence constituía el estandarte y la retaguardia de la campaña propiciada por la Diputación a través de la prestigiosa Institución “Príncipe de Viana”.

Es cierto que, inmediatamente después, las suspicacias y las miras rastreras se cebaron en el proyecto demasiado noble para miras raquíti-

cas y se saldó la cuenta de tanto entusiasmo desinteresado con la moneda de la mediocridad y la indelicadeza, lo que no empaña el mérito de lo realizado.

Queda así esbozado a grandes rasgos el motivo del homenaje que hoy se rinde a dos personas que dignificaron con su esfuerzo altruista una etapa brillante de la primera Institución Navarra que hoy nos cobija sin reticencias, y yo diría que con complacencia, en su planta noble. Miguel Javier Urmeneta, la figura más destacada de la postguerra en la sociedad navarra, aportó su prestigio y su talento de estrategia a la causa del euskera. “Si el vascuence se muere en Navarra, escribió en el editorial del primer número de P. de V., será porque los navarros son indiferentes a la estimación de este misterioso legado de nuestra antigüedad. Pero si los navarros quieren el vascuence no morirá”.

Y más adelante matiza las consecuencias de la posible desaparición: “...el vascuence, una vez muerto, no se podrá restaurar como los Monasterios y los Castillos. Y si el vascuence muere habrá desaparecido un verdadero Monumento Nacional...”.

Amor desinteresado, sin trastienda ni complejos, que supo comunicar al equipo de colaboradores con admirable altura de miras Miguel Javier Urmeneta.

Euskaltzaindia supo captar el mensaje fecundo y el alcance de sus actuaciones y lo nombró académico correspondiente.

Hoy, al hilo de este homenaje, quiere dar un toque de atención a la conciencia de todos los navarros para denunciar la delicada situación que atraviesa la Lengua de los Navarros. A nadie beneficiaría su desaparición, y todos seríamos los perdedores.

Ojalá que la figura señera de Miguel Javier Urmeneta motive a nuestros gobernantes para que no se malogre la semilla de idealismo que él derrochó con magnanimidad y todos le agradecemos.

Navarra entera se honra con este homenaje a Urmeneta.

BATZAR TXOSTENAK

OHAR BAT EDO BESTE EUSKAL LITERATURAREN INGURUAN

Donostia, 1989-IX-29

Piarres Charritton

Gogoratzen zitzaidan berrikitan, Piarres Lafitte zena joan zitzaigula beste mundura, euskal literaturaren historiaz amesten zuen liburua idatzi gabe.

Nondik zetorkion gure irakasleari asmu hori, ala gaztetan, 30 urtetan, Baionan Lasserre-nean, 1931an, argitaratu zuen *Eskualdunen Loretegia*-ren I. zathia (1545-1800) nehondik nehora ezin salduz, II. zathia ez ziolakoan sekulan eratziki, ala hamar urte geroago, Baionako erakustokian, seminariotik ihesi, Iratzeder eta beste lagun euskaltzale gazte batzuk, kontrabandoan entzun genion “Le basque et la littérature d’expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule”, hitzaldi famatu hura, nahiz gero, Baionako Le Livre-n, 1942an argitaratu zuenean oraino arrakastatsuago gertatu zitzaion, autoreari berari arinsko eta eskasko iduritu zitzaiolakoan, ala orduz geroz, 60/70 hamarkadan, Koldo Michelenak lehenik, 1960ean, Madrilen, Minotauro-enean jalgi *Historia de la Literatura Vasca*, eta 1964ean etxe berean *Textos Arcaicos Vascos*, Aita Luis Villasantek 1961ean Sendo-rekin Bilbon atera *Historia de la Literatura Vasca* eta ondotik berdin, gaztelaniaz, Bernardo Estornes Lasak, 1968an, Donostian, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* delakoan agertu *Literatura* edo euskaraz, Ibon Sarasolak 1970an, Donostiako Lur argitaletxean eta Aita Santi Onaindiak 1972an, Bilbon, Etor argitaletxean, eman liburu nagusiei aurkiberri eta ohar zenbait eratzikitzeko ordua etorria zela uste zuelakoan?... nik ez nakike.

Dena dela, gure euskaltzainburuak adierazi ditalarik nere deitura legezkoa Charritton denaz geroz eta ez batzutan amesten dudan Xarritton edo Sarritton, alfabeto legez lan bat zor niola Euskaltzaindiari, gogoratu zait, Lafitten ildotik, 60-70eko Literaturaren Historia haiez geroz, eskuin-ekzer egin diren aurkikuntzak labur bilduz, katalogo itxurako saio zerbait antolatzea.

Nere uzta non bilatu?... Bila nezakeen azken urte hauetan Unibertsitatetan agertu diren tesi edo tesinetan, bainan iduritzen zait ez dela orainokoan gure unibertsitatetan tesi edo tesina hainitzik eskaini euskal literaturaren historiari. Hor daude bai J. Haritschelhar-ek, P. Topet-Etchahun-i buruz egin bi liburuak: *“Le poète souletin P. Topet-Etchahun (1786-1862)”*, Bayonne, S.A.M.B., 1969, poetaren bizia eta *“L’oeuvre poétique de P. Topet-Etchahun”*, Bilbo, **Euskera**, 1969-1970, haren obra dakarrena, bai ta ere geroztik, Patxi Altunak, Bernard Etxepare-ri buruz ontu hiru liburuak: *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación; Etxepareren Hiztegia; Linguae Vasconum Primitiae* (Edizio Kritikoa), hiruak Bilbo, Mensajero-n, 1979-1980, eta oraino Patri Urkizu-ren tesia: *Pierre D’Urte-ren Hiztegia*, Londres 1715, 2 T., Donostia, Mundaiz, 1989, Ana Toledo-ren tesia, *Txomin Agirre ta euskal elaberriari* buruz aurkeztua, 1989an edo Lupe Artola-ren tesina, *J. B. Camoussarry-ri* buruz aurkeztua 1972an hauek biak argitaragabeak. Bainan, horiek hola, ez zait iduri—iduripen hutsa ote?— ez zaiola linguistikari bezainbat garrantzia eman orain arte gure unibertsitatetan literaturaren historiari.

Egia da norbaitek galdatzen omen zuela, ez aspaldi, *euskal literatura-rik ba ote den*, edo zenbaiten “euskara batuan” erran behar omen den bezala, “esistitzen ote duen”. Galdera edo galdegile horri aski poliki ihardetsi berri dio, nere ustez, merezi zuen bezala, Patri Urkizu adiskideak (*Anuario del Seminario Julio de Urquijo*, XXI-2, 1987); baina ohar bat nahi nioke egin, nere aldetik, delako galdegileari: haren galdea —eta haren problematika guzia— ez dela menturaz berak uste duen bezain berria, ezen 1903an, Georges Lacombe gure kide jakitsuak idazten zion Frédéric de Saint-Jayme, bere osabari: “Il n’existe pas à proprement parler de littérature basque: mais enfin, il faut faire comme si l’on croyait qu’il y en a une, et il est défendu de ne pas espérer qu’il n’y en aura pas quelque jour; il suffit d’en fabriquer un projet, évidemment plus facile à concevoir qu’à exécuter...”, eta urrunago: “s’il n’y a pas de littérature, ce ne sont pas en revanche les bouquins qui manquent de 1545 à 1903 (P. Charritton, *“Les Lettres de G. Lacombe”*, Bulletin du Musée Basque, Bayonne, 1982, n.º 98, 163. orr.).

Baina eztabaida antzu hori bazter utzirik, ikus dezagun tesi eta tesi netaz bestalde ere, literatura edo ez literatura, hainitz liburu zahar euskara argitaratu edo berrargitaratu dela azken hogoi, hogoi-ta-hamar urte honetan.

Beude alde batera Euskaltzaindiak berak, Hordago argitaletxeak edo beste edozeinek eskaini dizkiguten berrargitalpenak; nahiz literaturzaleek ezpada hizkuntzalariek bederen, errazkiago landu dituzten horiei esker gure obra nagusi asko: hala nola, Patxi Altunak *Etxepare*, Gabriel Arestik *Leizarraga*, Aita Villasantek *Axular*, Aita Iraizozek *Jokin Lizarraga*, A. Zelaietak *J. A. Mogel*, ikertu dizkiguten beren hiztegi ta aditz formetan.

Aipamen berezia hartze dute ordea, nik uste, errauspean lo zauden esku-izkribuen argitalpenek: Euskaltzaindiaren “Euskararen Lekukoak” izeneko zerrendan hor ditugu: Juan Apezetxeak eta Aita Ondarrak prestatu dizkiguten *Joakin Lizarraga Elkanokoaren* hiru edo lau liburuak: *Katexima*, *Kopla*, *Itzgaiak* eta *Predikuak* (Lekukoak, 1., 9., 10. Aita Altunak prestatu *Sebastian Mendibururen idatzlan argitaragabeak* (ibid. 4., bi liburu), Txomin Peillenek prestatu *Jusef Egiategi-ren Lehen Liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia*, 1785 (ibid. 6.); Aita Villasantek prestatu *J. A. Mogel-en Cristaubaren Icasbidea edo Doctrina Cristiana* (ibid. 14.); Mirari Alberdik prestatu *R. M. Azkue-ren Latsibi* (ibid. 15) eta azkenik, Aita Altunak prestatu duen eta, agian laster, aterako den Haraneder-en *Testamen Berria*, Uztaritzeko Seminarioko liburutegian ezin argitaratuz zegoena.

Euskararen Lekukoak zerrendatik kanpo ere badugu lan ederrik: Gogora heldu zaizkit bederen: Fiarres Lafitte zenak berak, 1972an agertu zuen *Salvat Monho*-ren obra, haren biziko xehetasun hainitzekin: “*Poèmes Basques de Salvat Monho* (1749-1821), Bayonne, Ikas, 1972; Arabako Aldundiak, 1975an Julio de Urquijo Mintegiko gordagitik atera zuen *J. Paulo Ulibarri-ren Gutun Liburua*; Patri Urkizuk 1987an argitaratu duen Baionako Erakustokiko Bertso zahar ta berri zenbaiten bilduma, 1798; eta Jon Kortazar ta Miren Billelabeitiak prestatu *J. A. Uriarte-ren Poesia Bascongada*, *Dialecto Vizcaino* deitu loretegia, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1987.

Ez ditugu bada ahantzi behar ere Aita Zavalak, bere Auspoa-ko 200 liburuen artetik argitaratu dituen aintzineko bertsolari batzuen bertso bildumak hala nola —herri literaturako beste obra askoz bestalde; baina non da zuzen “herri literaturaren eta bestearen arteko muga?— *Bilintx-en bertso ta lan guziak*, 12. *Pello Errota-ren bizitza, ta bertsoak*, 32. & 33.; *Bordel Bertsolaria*, J. M. Satrustegik prestatua, 45-46.; Mañex Etxamendi bertsularia, P. Lafittek prestatua, 109-110.; eta A. Zavalak berak prestatu-rik, ja aipatuez bestalde, *Udarregi*, 56., *Lexo*, 79-80-81., *Xenpelar*, 88-89-90., *Txirrita*, 101-102-103-104., *Balendin Enbeita*, 117-118., *Zapirain anaiak*, 123-124-125., *Patxi Erauskin*, 130-131-132.

Ez genituzke gutietsi nahi bestalde apez-etxe edo komentu zokoetan aurkitu izan diren bertsu, gutun edo prediku oso ala puskatuak. Horien berri izaiteko kurritu behar dira azken 30 urte honetako euskal aldizkari ezagunenak, hots Euskaltzaindiaren *Euskera*, bai eta ere *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*, Iruñeako *Fontes Linguae Vasconum*, Donostia-ko Egan eta *Revista Internacional de Estudios Vascos*, eta *Boletín de la Real Sociedad de los Amigos del País*, Baionako *Gure Herria* zena eta *Bulletin du Musée Basque*, Bilboko Labayru Ikastegia-ren *Iker Atalak*. Horiek oro ikusi-ta iduritzen zait larrienak bildu ditugula.

Testu zaharrak

Testu zaharkituak edo arkaikoak gogoratzearekin, aitortu behar dugu behin XVI. mende aintzineko, hots Etxepare-ren “Primitiae...” haien mende aintzineko aroentzat ez dela, 1964eko Michelenaren “Textos Arcaicos Vascos” famatu hartaz gerozko deus berri handirik aurkitu. XIX. mendekotzat ezagunak ziren “Auskitania” aldean nolazpait erraiteko, eta bereziki gaurko Ipar Euskal Herritik aski urrun diren Luchon, Bagnères de Bigorre edo Saint-Bertrand de Comminges aldean idatzi ziren Erromatarren aroko “sembe”, “cison”, “anderexo”, “bihox”, “asto ilun”, “zahar”, “corri”, “aher belts” edo “harbelex”-ak. Bizkitartean, berrikitan, Oiarzun Andrearriagako zaldunaren oroitarriak agertu digu euskal kutsu ezin ukatua duen “Belteson” izen zaharra (I. Barandiaran: *“Tres estelas del territorio de los Vascones”*, Caesaraugusta, Zaragoza, 1968, 200-211. orr.).

Erdiaroko lekukotasunetan sartzen balin bagara ordea, 1969ko *Fon-tes Linguae Vasconum*, aldizkari berriaren I. zenbakian aurkitzen dugu F. Idoate-k argitaratzen duen 1415 eko *Martin de Zalba* delako nafartar raren gutun bat, Nafarroako erromantzez eta euskaraz idatzia eta Donibane Garaziko zerga batzuen berri emate duena (F.L.V. I., 1969, 285-290. orr.). R. Ciervidek eta A. Irigoyen-ek egin zuten gero textu zahar horren irazkina: “Estudio lingüístico de una carta del siglo XV en vascuence y romance navarro”, *Letras de Deusto*, 1971-I, n.º 14, 75-88. orr. Alfonso Irigoyen-ek ere, bere euskaltzain sarrerako hitzaldian, 1975 ean eskaini zizkigun irazkin berriak Done Miliaga Kukullako euskal perpaus zahar famatuez: **Euskera** XX., 1975, 162-193. orr.).

1981 ean bada, A.S.J.U.ren XV. zenbakian, 6. orrialdean, J. M. Satrustegi idatzi zuen “*Nueva contribución al fondo de textos antiguos vascos*” jakineraziz nola Iruñe-ko katedraleko liburutegian latinezko “breviarium” batean aurkitu zituen, 175. orrialdean eskuz idatzirik *hilabeteen izenak* euskarara itzuliak honelatsu: Yçozilla, Oçalla, Marchoa, Aprilla, Mayaça, Garaguarçilla... Urrilla, Laztalla, Açaroa, Avendua. Liburua 1501-ekoa zen. Baina horrela XVI. mendera heltzen gara.

XVI. mendea

Erran dezagun berehala, gure ustez, aski ongi aberastu zaigula mende honen literatura altxorra, iragan hogoi-ta-hamar urtetan.

Euskaraz inprimiturik izan diren lehen hitzen ondotik ibiliak ziren aspaldian euskalzale zenbait eta aita Anselmo de Legardak 1951ean aurkitu zituen. Bizkaitar baten hitz hauek: “*Bay fedea!*”, Torres Naharrok; “*Comedia Tinelaria*”, 1513an, Erroman argitaratu obran. Ikerle berak

geroxago hatzeman zuen, Santillana-ko markesak 1508an argitaratu *"Refra-nes que dizen las viejas tras el fuego"* liburuan, gaztelaniazko erran bat euskaraz osaturik, honelaxe zioena: *"Sardina que gato lleva galduda va"* (B.S.V.A.P., 1951, VII, 41-48 & ibid., 1959, XV, 237-248). Michelenak ere horiek oro aipatuak zituen 1964eko bere liburuan (T.A.V., 140 & 168), bainan 1981ean F. J. Oroz Arizcuren jaunak jakinerazi zuen Lyon-en 1510ean argitaratu zen Martin de Andosilla Azkoiendarraren *"De Superstitionibus"* liburuan bazegoela euskal esaldi zahar bat. *"Jondone Martie erroya!"*, bere latinezko itzulpenarekin: *"Sanctus Martinus corvus!"*. ("Primera glosa vasco-latina en un libro", **Euskera**, 1981, 1, 93-111). Aitor dezaket, artetik erraiteko, "erroi" zahar horrek gogoratu ditala, haurrean maiz entzuna dudana ahapaldi bat: "Debrien bizkarra!" bezala erraiten baitzen "Erroien —edo Berroien— bizkarra!".

Garrantzitsuago oraino: Ezagutzen genuen aspaldian J. Vinson-ek argitaratu zuen Bertrand d'Echoux (1556-1641) Tours-eko atxapezpiku Baigorriarrak bere gaztaroan, 1584ean, anaie bati euskaraz igorri zion gutuna (R.L.Ph. C. XVII, 1884, 418) baina badakigu orai lehenago ere beste artxapezpiku euskaldun batek, Juan de Zumarraga Durangoarrak (1468-1548) euskaraz idazten ziola Metsiko-tik bere arreba "deuntsuari": ikus haren gutun luzea **Euskera**, XXVI, 1981-1, 9-12. orr.

Aipagarri zaizkigu ere Iruñeako apezpikutegian, lehenago Blas Fagoagak egin zuen bezala, geroztik Jose Goñi Gaztanbidek egin duen mende honetako ezkont-agintzen ikerketa, adibidez, 1536 an ikus *Beorburu*-ko paperetan (A.S.J.U., XV, 1981, 7.; 1547an *Uterga* (F.L.V., XXV, 1977, 109-114.), hau, guhaurk haurrean, gure hitza finkatzko geneukan ahapaldi berarekin: "Ala fedee, ala feede, ala fedee!"; 1548an *Olazti* (A.S.J.U., XV, 1981, 14.); 1550 ean *Bakedano* (ibid., 18. orr.).

Interesgarrienak dira halere, gure ustez, Etxepare gure lehen idazlearen garaian eta 1545 irian sartzen diren lehen olerkarien eta olerkien berriak. Hain zuzen, Piarres Lafittek, 1967ko *Gure Herria*-ren 4. zenbakian (195-234.), A. Oyhenarten "Art poétique" delakoa argitaratu zuenetik ikasia dugu, bi olerkari gutienez, bazirela Baxenabarren, XVI. mendean, Etxepare-ren garaikideak: *Jean d'Etchegaray*, Donibane Garaziko apeza, 1565ean, "Artzain gorria" deitu pastoralara ontu eta aurkeztu zuena eta *Arnaud de Logras*, Utziateko priorea, 15 pikotako bertsuak egiten zituen.

Nafarroa garaian berriz, Amenduxe-ko Joanes famatuaren lagun (T.A.V., 10. orr.), ezagutzen dugu orai, Obanose Arnotegiko *Joanes de Undiano*, ermita olerkaria, euskal kantu liburu bat bere liburutegian bazeukana eta berak euskal bertsu asko ontzen zituen, "ha compuesto muchos versos en bascuenz": ikus B. Estornes Lasa: "Cancionero Vasco del siglo XVI en Obanos", *F.L.V.*, VI, 1970. Eta hamar urte geroago, aldizkari beraren XXXIX. zenbakian, Juan de Undiano beraren euskal idazki bat agertzen

zuen, “Miserere mei Deus” salmoaren, euskal itzulpena, A. Unzuetak, Madrileko Liburutegi Nazionalean, txiripaz, begiratua.

Zorte on berak lagundurik, J. Haritschelhar-ek eta E. Knör-ek bi aldetarik eskuratu zuten, garai bertsuan, olerkari ezezagun baten poesia izengabea, 1554ean Nafarroako Henrike III.aren jaiotzaren ohoretan idatzia eta beste mintzairerako olerki batzuen artean, Toulouse-n argitaratua, Bernard du Poey delako batek: ikus, J. Haritschelhar, “Une poésie basque du milieu du XVIe siècle, célébrant la naissance de Henri III de Navarre”, Euskaltzaindia, *Iker-2*, 1983, 259-267.

Azkenekotz Nafarroatik piska bat urrundurik ere ez ditugu zeren ahanzt 1489an, Britainia-ko Vannes hirialdera, Gipuzkoar itsasturiek egin zuten gerlaren karietara, Velez de Idiáquez jaunak Salinas-ko kondeari Zestoa-tik bidali zizkion bertsuak, A. Otazuk, 1975ean argitaratu zituenak (F.L.V., XIX.); gure euskal testu literarioak ere gerta daitezkeela gure Herriko historiaren lekuko hoberenak oroitarazteko, gure mintzaira jakin gabe gure historia egin nahi luketen historialari askori, ez dira gaizki heldu.

XVII.mendea

XVII.mendeko euskal literaturari buruzko aurkiberriak ez dira menturaz hain batekoak, nahiz hor dauden, jadanik aipatu dugun *A. Oihenart*-en “Art poétique” delako hura eta hor ere, Salamanka-ko artxibategian, L. Michelena-ren alaba Itziar-ek aurkitu dituen datu interesgarriak *Axular*-en ikasketei buruz, hala nola, 1592-93 & 1594-95.ikasturtetako haren matrikulak (F.L.V., XVI, 1974).

Bainan gai honi buruz, bere literaturaren historian, Michelenak idatzi zuen kapituluari, ez genioke ohar bat edo beste baizik eratzikiko: Adibidez 1972ko *Gure Herria*-ren 2.zenbakian, Martin Elso Ainhoarrak, zehaztasun zenbait eman zituen, *Santxo Elso*-koaren, euskarazko lehen Doktrinaren egileari zihoazkionak.

1981eko A.S.J.U.ren XV. zenbakian, J. Oroz Arizcuren-ek argitu zuen halaber 1577ko urriaren 20ean jaioa zela, Uterga-ko herrian, *Beriayn* bat, geroago, 1621ean Iruñean “Tratado de cómo se ha de oír misa” elebiduna agertu zuena eta 1626an berdin hiri berean “*Doctrina Christiana*”.

Eta Nafarroatik Bizkaiara iganez, Enrike Knör-ek A.S.J.U. XX-2ren 1986eko zenbakian eta J. A. Arana Martija-k urte bereko **Euskera** XXXI-2ren zenbakian *Betolaza*-ren eta haren 1596eko “*Doctrina Christiana*”-ren berri eman ziguten, zehaztuz bereziki, euskal idazle hori, S. Domingo de la Calzada-ko apez-nausi zelarik, hil zela 1599an.

Lapurdira heltzearekin jakiten dugu H. Dedieu-ren lan bati esker (*Bulletin du Musée Basque*, Bayonne, 1976), *Etienne Materre* euskaldun berria (?), *Doctrina Christiana* bat Bordelen 1617an argitaratu zuena, Axular-en baimenarekin, Baionako frantziskotarren komentuko buruzagi zela 1606an.

Lapurdin oraino Piarres Lafitte zenak Uztaritzeko bere liburutegiko "Exercicio" edo eliza liburu zahar batean aurkitu zuen, euskal idazlen artean nehorik ezagutzen ez zuen XVII. mendeko Joannes Haraneder, fraile ezezagun bat; "Philotea"ren eta "Testamen Berria" euskarara itzuli zituen geroagoko Joanes Haraneder hartaz besterik dena: *Gure Herria*, 1974, 257-260 & *Euskera*, 1975, 397-399. Eta urte berean gure Uztaritzeko irakasleak atera zigun, *Gure Herria*-n euskaraz, eta *F.L.V.*, n.º 17-en frantsesez, Gasteluçar (1619-1701) Lapurtar poeta handiaren azterketa sakona.

Mende honetako testu berri hainitzik ez zaigu bizkitartean agertu, Iparraldean bederen. Doi-doia aipa ditzakegu Donibaneko apez batek, 1689ko gerlaren kariatara, Luis XIV. ohoretan eta espainolen laidotan idatzi zituen 31 koplak: haietaz hitzegin zuen Agosti Chaho-k (*Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan*, Bayonne, 1857, 167.), baina Patri Urkizuk ditu argitaratu, Baionako Erakustokiko kantutegi zaharra aurkeztean (Bertso zahar eta berri..., Durango, 1987).

Hegoaldean aldiz ezagutu berri ditugu mende hartako zenbait bertso zahar *J.B. Alzola Muncharaz* Durangoar apezak, adibidez, goresmenak igorri zizkion bertsoan *Domingo Hegia*-koari, 1638an Hondarribia-ko herria zaindu zuelakotz Frantsesen eraso guzien aurka: ikus, A. Arejitaren artikuluak, "Euskeraren Iker Atalak" II & III, Labayru, Bilbo, 1983 & 1988.

Geroxago *Martin Yturbe*-koak beste bertso saio bat ontu eta argitaratu ere zuen, 1657an, Salamankan, *Felipe Prospero printzearen jaiotza ospatzeko*: ikus Lucien Clare-en artikulua, *F.L.V.*, XVIII, 1974, 397-449.

Geroztikago oraino, Bizkaitarren eta Gipuzkoarren artean eztabaida ekonomiko zerbait sortu zelarik, meategien gainetik, 1688 irian, "Bertso Bizkaitarrak" deitu zituzten batzu atera ziren Bizkai aldean, Donostiako udal atxibategitik argitaratu dituenak azkenean J. A. Lakarrak: ikus A.S.J.U., XVIII-2, 1984, 89-185.

Ez ditugu zeren ahanzt mende honen erditsutan —nahiz ez dakigun zuzen zein urtetan— kokatu ohi diren beste bertso xarmant hauek:

"Zure begi ederrok, ene laztana,
Katigaturik naue, librea nintzana,
....."

Euskaltzaindiko liburutegian, latinezko hiztegi zaharkitu baten azken orrialdean aurkitu omen zituen, eskuz idatzirik, gure idazkari nagusiaren begi zorrotzak: ikus J. M. Satrustegi-ren artikulua, F.L.V., 1978, 28-29-30.

Eta neurtitzak utzirik, itzultzen balin bagara hitz lañoetara, aipatu behar ditugu ere bere *Euskal Textu Zaharrak* (Iruñea, 1987) liburuan, José Mari Satrustegik berak bildu dituen lekukotasun interesgarri zenbait, hala nola, 1622an Azpeiti-ko serorategiko ama buruzagiak bere iloba bati egin hiru gutunak, edo 1626an Leitza-ko erretor izendatze baten ondotik auzitegiak hartu erabakiaren itzulpen euskara, edo 1664ean Oiartzun-en, Iparraldeko ihesliar gazte batzuen arteko ezkont-auzira ekarri amodiozko bizpalau gutunak, edo azkenik 1687an Urdanoz-eko elizan gertatu jarlekuaren auzia.

XVIII. ta XIX. mendeak

XVIII. mendetik hona hainbeste emendatzen dira paper zahar aurki-berriak non ez ditugun hemen denak aipatzen ahal. Ohartzten gara halere A.S.J.U. ri esker, ezagutu ditugula, Zegama-ko Dotrina (1741), Luzaidekoa (1833), Burgos-ekoa (1747), Oikia-koa (1759): ikus, A.S.J.U., XVIII-2, 1984; XIX-1, 1985; XX-3 & XXI-1, 1986 & 1987; XXI-2, 1987. Aldizkari berean argitaratu digute ere Aita Larramendik Azkoitian eman sermoi bat: A.S.J.U., XIX-1.

F.L.V.-i esker, aldiz, irakur dezakegu, Joakin Lizarragaren denboretan, Karlos Hondarribia-ko kaputxin famatuak, Oiartzunen gaindi, emaiten zituen predikuen berri, Aita Iraizoz zenaren eskutik “Contra la libertad cantada de los franceses por su asamblea...” (1793) eta “Sobre la guerra con Francia, animando a ella, a los cristianos”: ikus F.L.V., XXII & XXIII, 1976. Eta aldizkari berean, Aita Ondarrak bere aldetik argitaratu digu, Nafarroan aurkitu duen lehen predikua, 1729koa: F.L.V., XL, 1982.

Baina testu bilketaz besterik ere egin da, azken urte hauetan, Jainkoari esker, euskal literaturaren historia sailean eta bereziki ikuspegi asko aldatu da gure literaturzaleen artean.

Hala nola herri literaturari balin bagagozkio, Lafitte, Lekuona, Das-sance, Akesolo, Zabala, Haritschelhar, Peillen, Urkizu, Oiharzabal eta beste zenbaiten lanei esker, Etxahun eta Fernando Amezketa-aren haraindira igaiten gara gure bertsolari eta pastoral errejent zaharren pape-rekin. Honen lekuko dauzkate eskuratu berri dudan liburu batean aurkitu artikulua hauek: A. Zavala, “La guerra napoleónica de España y los bersolaris”; J. Haritschelhar, “En torno a la balada”; J. M. Lekuona, “La lírica popular vasca en el siglo XVIII”; A. Garamendi & I. Mozos, “El teatro folklórico vasco: perspectivas de investigación” & “El teatro antiguo de

Zuberoa en la historiografía de la literatura vasca”: ikus, *Congreso de Literatura (hacia la literatura vasca)*, edit. Castal a, 1989, 439, 461, 495, 527, 555. orr.

Literatura landuaz ari bagara, ez da dudarik, gaur lehen baino hobeki ezagutzen ditugula Nafarroa garaiko euskalki itzaliak, gaur ere aldatu dugula Arabako literatura euskaraz geneukan ikuspegia: XVIII, XIX. mendeetako idazle arabarren berri bildu dugu alabainan. Hauek dira: *Pedro Barrutia* (1682-1759) Aramaio-koa, Gabonetako Ikuskizuna-ren egilea, *Juan Bautista Gamiz* Ruiz de Oteo, Sabando-ko semea eta Jesusen Lagundiko anai bezala atzerriarua izanik Bolonia aldean, 1773 an hila, Jose Pablo Ulibarri (1775-1847) Okendo-ko semea eta “Gutun liburuaren idazlea eta Andres Baraciart (1749-1826), Lapurtar geneukan idazle ezaguna eta Enrike Knör-ek erakuts digun bezala Araba Durana-ko seme aitortu behar duguna; ikus gure **Euskeran**, 1971, Ulibarri-rentzat Aita L. Akesolo-ren artikulua; 1974, Gamiz-entzat Aita Goikoetxea Maizarena; eta 1986-1, Baraciart-entzat E. Knör-ena.

Beste ohar bat oraino egin genezake gure idazle batzuei buruz, hala nola, J. I. Tellechea Idigoras, Patxi Altuna eta J. A. Lakarra-ren lanei esker askoz hobeki ezagutzen dugu gaur, duela zenbait urte baino Aita Manuel Larramendiren nortasuna, haren obra eta haren eragina: ikus, “Larramendi Manuel (1690-1766)”, J.I.T.I. ren artikulua, bere erreferentzia guziekin, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Diccionario Enciclopédico Vasco*, delakoan. Eta ber gauza erran genezake beste ikerlari batzuek Iztueta, Iparragirre edo Bilintx bati buruz egin dituzten lanen ondotik. Gogoan dut adibidiez, Iparragirrerren ohoretan elkar-lanean egin den liburua (Euskaltzaindia, *Jagon 2.*, Bilbo, 1987), Aita Zavalak *Bilintx-en bizitzaz eta bertsoez* ontua (Donostia-ko Aurrezki Kutxa, Donostia, 1978) edo Jose Garmendiak Iztuetari eskaini artikulua ta liburuak.

Bada ordea oraino zer egin eta aipatzeko bakarrik nere solasa utzi aintzin, hurbilagozik ikusten ditudan zenbait puntu, bizpalau hauek ditut azpimarratuko:

Iparraldeko literaturaren sailean hitzegin da batzutan *Larresoroko eskolaz* eta Piarres Lafittek berak, *Gure Herria*-n bereziki argitaratu ditu artikulua zenbait, zehazteko adibidez, bi Duhalde, bi Duvoisin, bi Larreguy, bi Elissanburu, bi Adéma, bizpalau *Etchepare* bederen aurkitzen ditugula euskal literaturan, baina 1733an, Daguerre apezak, Larresoron, bere ikastetxe berria sortu zuen egunetik, mende honen hasiera arte, han ikasle edo/eta irakasle bezala iragan diren euskal idazle guzien azterketa zehatza egin gai dago oraino.

Egin gai daukagu ere, ene ustez Joanes Etxeberri Sarako mediku handiaren ildotik etorri diren gure eskualdeko medikuen zerrenda eta azterketa, hor baititugu gutienez, Ducos Donibandaretik hasi-ta, Larral-

de, David, Guilbeau, Goyenetché, Broussain, Constantin, Souberbielle, Minvielle eta Etchepare, eta —zergatik ez erran— Labéguerie gure lagun zena.

Hor ditugu bestalde, oraino errauspean lo dauden esku-izkribuak, gure pastoral gehienak, W. Webster-ek Saran bildu zituen ipuinak, Chahoren eta Duvoisin-en kantutegiak. Agian joanen zaie norbait, laster argitaratu daitezten, gure atseginerako. Badakigu, ehiztariak, lo dagon erbia altxatzean, sendi dukeen atsegin hura iduria dela, guhaur garen ehiztariak, artetan, hartzen dugun zoriona. Hala nola, berikitan, liburu saltegi batean, berrargitaratu den liburu arrotz zahar bat eskuztatzen nuelarik, “Les Pyrénées ou voyages pédestres dans toutes les régions de ces montagnes depuis l’Océan jusqu’à la Méditerranée”, par M. Chausenque, ancien capitaine du génie, reprints, Sirius, 1985, konturatu naiz, hor lau orrialde luzetan (94-97) aipu zen Ziberotar apezza, Harrichabalet, Santa-Garaziako erretoz famatu hura besterik ez zela, eta J. B. Constantin gure Ziberotar klasikoak hartaz idatzi kapituluak ederki baiesten eta osatzen zituela, ustegabeko lekukotasun horrek. Hau atsegina! agian beste hainitzen eza gutuko dutena! (J. B. Constantin: “Aipamen llabur bat Haritchabalet jaun apezaren gainean”, *Egan* 3-4, 1985, 13-44).

SONETOAZ BI ARGIBIDE

Donostia, 1989-X-27

J. L. Davant

“Euskal filologiazkoak, nahas-mahas” delako bere txostenean, beste gai batzuen ondotik, euskal sonettoa aipatzen zigun Patxi Altuna-k Donostian, 1988-ko Abenduaren 30: sei hamalauko aztertzen zizkigun, sei euskal idazlerenak, hauek zirela Oihenart, Larramendi, Egiategi, Lizardi, Mirande eta Irigoien.

Begien bistan utzi zigun egituraren aldetik euskal sonetoeak duten batasun eta eredurik eza. Bestalde sonetoaren historiaz hitz bat erran zigun. Bi pundu horiez zertxobait ekarri nahi dut ene aldetik. Bi zatitan banatuko da beraz ene lantxo hau:

— Lehen sonetoaren historiaz, bereziki Frantzian.

— Bigarrena inguruko literaturetan Euskaldunek aurki dezakegun ereduz.

I. Sonetoaren historiaz

Patxi Altuna-k diosku: “Hamalaukoak, jatorriz euskarazkoak ez direla esan beharrik ez dago; Italian sortu ziren dirudienez, Berpizkunde garaian. Haiek eta gaztelerazkoak ezagutzen zituen gutxienez Oihenartek, haien erara berea egin zuenean”.

Italian sortu zela sonettoa, ez dudarik. Baina noiz xuxen? Patxi Altuna-ren txostenak piztu zuen elkarrizketan, Petrarca aipatu zuen norbaitek hamalaukoaren asmatzaile bezala. Baina beste norbaitek ihardetsi zuen Dante-k aitzinetik erabilia zuela: uste dut nik nuela erran, baina ez du horrek muntarik. Egia da Dante-k erabilia zuela “Vita Nova” sortan. Baina ez zuen harek asmatua.

1) Palermako gortean asmatu omen zuten, Sizilian, XIII. mendeko lehen zatian. Italierazko lehen olerki eskola hor bildu zuen Frederik II. enperadoreak, bera ere poeta zela, eta ez nola nahikoa. Probenzako

trubadurren ildotik ari izan ziren horko poetak, bikaintasunik gabe dirudienez, beti ber emakume abstraktoa kantatzen zutelako (1). Ezagunenak izan ziren Enzo (Frederiken semea eta Sardiniako erregea), Manfred, Pier Delle Vigne, Jacopo Da Lentini, Giacomo Pugliese...

Dena dela, bi ekarpen egin zituzten gutienez italierazko literaturari: “canzone” delakoa eta sonetoa.

2) Gero maixuki erabili zuten beraz Dante-k eta Petrarca-k, XIV. mendeko lehen zatian. Funtsari dagokiola, Probentzako iturritik edan zuten biek. Lehenik Probentzalez idatzi zuen Dantek. Denbora batez Avignon-en biziko da Petrarca, Aita Sainduaren inguruan: han du Laura ikusiko eta kantatuko. Gero latinera lerratuko da gehien bat. Baina biek, Fiorenzakoak izanez, beren Toscanako hizkuntza hupatuko dute italiera klasiko mailera.

Beste bi mende beharko ditu sonetoak Espainan eta Frantzian sartzeko. Bi erresuma horietan dituzte gehienik erabiliko Italiatik ere. Portugalen gutiago: salbuespen handiena dugu naski Camoens. Ipar aldeko erresumetan ere gutixko, hala nola Holandan eta Alemanian: Goethe eta Schiller-ek, adibidez, balada dute gehienik erabiliko. Ingelesak aldiz beren hamalaukoa eratuko dute: Shakespeare handiak berak asmatu zuen eta gain-gainetik ohoratu sorta lodi batean. Baina Italianoek eruditik nahiko urrun dabil; lau neurtitzeko hiru bertset ditu, puntu eta errima libreekin (ABAB, CDCD, EFEF) eta bi neurtitzeko azken bertset bat (GG).

3) XVI. mendeko lehen zatian beraz, gaztelerazko letretan ezagutarazi zuen Juan Boscán katalanak, nahiz aitzinetik soneto zenbait idatzirik bazituen Santillana-k. Gero sonetoari ospea eman ziona, Garcilaso de La Vega izan zen. Hamaika silabako neurtitza Italianoeri hartu zuten hor Espainolek eta gero beti atxiki. Halaber Portugesek Camoensekin.

Italiako gerlek izan zuten behar bada eragin bat, bai Espainolentzat, bai Frantsesentzat, eskua sartu baitzuten han elkarren aurka. Gerla horietan ari izan zen Garcilaso de La Vega, eta handik zetorrela bizia galdu zuen Toulon-eko aldean, bidea hausten zion gotorleku baten erasotzean: 1536. urtea zen eta 33 urteak zituen!

4) Frantsesez idatzitako lehen sonetoa Clément Marot poetari zor diogu: 1529. idatzia, 1548. agertu zen Thomas Sebillet - en “L’art poétique” delakoan. Frantziako erregeren gorteko poeta bat zen Marot. Bes-

(1) “Albigois” direlako Kataroen aurka Kurutzadan sarturik, XIII. mendean Languedoc eskualdeaz jabetu zen Frantziako erregea. Ondorioz Espaina eta Italiako gortetara ihes egin zuten trubadurrek. Gainera Portugal, Englaterra, Alemainara hedatu zen haien eragina. Berantago, Bepizkunde Garaian, sonetoaz ederki baliatuko da Occitaniako literatura.

talde asko idatzi baldin bazuen ere olerki errexean, bi soneto ditu utzi nik dakidala.

Antologia gehienek beste olerkari bat dakarte lehenbiziko frantses sonetista bezala: hau da Mellin de Saint-Gelais, Henri II.aren poeta ofiziala. Apaiza zen, apezpiku titulua ere egari zuen, nehungo gotzain izan bagerik. Hots “un prélat de cour” zen, ipar erdaraz, erranik. Errege-gaiaren kapellau, erregeren bibliotekazain, Marot-en adiskide, koblakari errex eta goxoa zen Marot bezala, baina mail apalago batean. “Un poète de cour”, berriz ere ipar erdaran erranik. Soneto asko idatzirik, frantses sonetisten aitabitxitzat emaiten da beraz, nahiz kronologiaren aldetik ez duen hartze.

5) 1549. agertuko da Joachim du Bellay Pleiadakoaren “Défense et illustration de la langue française” delako manifestoa eta hor emaiten du aholku hau: “Sonne-moi ces beaux sonnets...” Entzuna da, bereziki Pleiadako bere sei lagunez, ospetsuena delarik Pierre de Ronsard, Frantziak ukan duen poeta handienetariko bat. Ezin sinetsia izan zen haren ospea Europa guzian, humanisten eta erregeen artean, hala nola Eskozian, Ingalaterran, Italian... Eta XVII. mendean oraino, haren olerkiak abesten zituzten Parisko neskameek. Ez da kantua bezalakorik poesiaren hedatzeko, Euskaldunek ongi badakigu.

Hain zuzen ere, kantatzeko eginak ziren Ronsard-en poemak, eta haietan sonetoak. Horretaz dudarik ez digute uzten “Classiques Larousse” direlakoek, “Ronsard, poésies choisies” izeneko bi liburuxketan, eta bereziki lehenean:

P. 11. “Ce qui se passait de 1545 à 1553 (...). En musique. Choeurs à quatre parties pour les vers de Ronsard (1552): de Pierre Certon, pour le sonnet 7; de Clément Jannequin, pour les sonnets 9 et 12, 14; de Claude Goudimel pour l’Ode à M. de l’Hôpital”.

P. 13. “... (Ronsard) fixe le genre: obéissant aux exigences de l’adaptation musicale, il ne garde, comme Marot, pour les rimes des tercets, que deux des combinaisons admises chez les Italiens, et, en outre, s’astreint à observer l’alternance des rimes masculines et féminines”.

P. 14. “Les lettrés étaient conquis, les commentateurs s’emparaient des Odes et des Sonnets, s’efforçant laborieusement d’en éclaircir les obscurités (...). *Rénovant l’alliance antique de la poésie et de la musique, les meilleurs compositeurs du temps* adoucissaient de leur somptueuse *polyphonie* les aspérités de ces hautains poèmes”.

Ronsard-en ordoan, frantses letretan norbait da naski Du Bellay: 115 soneto idatziko ditu, nahiz gazterik hilen den. Pleiedatik ate aipatu behar dut Jean de Sponde mauletar protestanta, Henri IV.aren laguna, gero katolizismora itzuliko dena: La Rochelletik ari izan zen hamalaurkūn tinko eta garratzen ontzen. Huna etsenplu bat.

Tout s'enfle contre moi, tout m'assaut, tout me tente,
 Et le Monde, et la Chair, et l'Ange révolté
 Dont l'onde, dont l'effort, dont le charme inventé
 Et m'abîme, Seigneur, et m'ébranle, et mençante.

Quelle nef, quel appui, quelle oreille dormante
 Sans péril, sans tomber, et sans être enchanté
 Mè'donras-tu? ton temple où vit ta Sainteté
 Ton invincible main et ta voix si constante.

Eh quoi! Mon Dieu, je sens combattre maintes fois
 Encore avec ton Temple, et ta main, et ta voix,
 Cet Ange révolté, cette Chair, et ce Monde.

Mais ton Temple pourtant, ta main, ta voix sera
 La nef, l'appui, l'oreille, où ce charme perdra,
 Où mourra cet effort, où se rompra cette onde.

(Douze sonnets de la mort - Sonnet XII)

Horretaz oroiturik idatzi nuen ene lehen sonettoa, Etxahun Iruri ehortzi zuten egunean, 1979-ko Urriaren 3-an. Berria jakin baiko, "Euskaldunak" hilabetekariko zuzendariak zuberotar olerkariak artikulu bat eskatu zidan, eta egunaren barnean idatzi behar nuen! Lan artetik nola egin? Pentsatu nuen sonettoa zitakela Etxahunen obraz nituen sendimenduak laburki biltzeko era egokiena. Eta huna zer egin nuen.

UMENALDI

Lehen ürzoekin, larrazken hegoan
 Aidatü zitzaikü, Herri hunen botza,
 Hil zeinükan ütüz hanitxen bihotza,
 Hütsik ürrüpera, goldeak ildoan.

Pastoral'emanik oraiko pikoan,
 Kantü xaharretik berriari hatsa,
 Aide asmatzeko ez baitzinen lotsa,
 Xiberoa hazi düz' eüskaldüngoan.

Bihotzez baitzinen janik abertzale,
 Zük entelegatü gaurko gazteria,
 Osoan maitatü zazpiko Herria.

Urrezko txürülaz batarzün egile,
 Haurzurtz egin düzü gaixo sor lekia
 Eta irabazi betirak' Orhia.

Aprendiz baten lana, duda gabe. Baina geroztik beti atxikia egon natzaio sonetoari eta leku zabala eman diot ene lau bertsu liburutan. Eskerrak Ezpondari!

Frantses sonetisten berriz aipatzeko, garrantzitsua izan zen Berpizkundean Lyon-eko eskola, bereziki Louis Labe poetisarekin. Gehiago ere: Pleiadari bidea ideki zion eskola horrek.

6) XVII. mende erdiraino iraun zuen sonetoaren oldeak, Saint-Amand bezalako poeta balios batzuekin, baina merezi zuten omenik ez zuten atxiki. Laster Klazisismoak hilen du poesia, eta bereziki sonettoa. Halere soneto zenbait idazten dituzte, fantesiaz bezala, orduko idazle handienek: Corneille, Boileau, La Fontaine, Moliere etabarrek... Gainera, bertsularien arteko lehiaketen antzekoak gertatzen ziren poeta preziosen artean. Behin gauzak mindu ziren eta huna zer atera zuen Corneille handiak:

Deux sonnets partagent la ville,
Deux sonnets partagent la cour,
Et semblent vouloir à leur tour
Rallumer la guerre civile.

Le plus sot et le plus habile
En mettent leur avis au jour,
Et ce qu'on a pour eux d'amour
A plus d'un échauffe la bile.

Chacun en parle hautement
Suivant son petit jugement,
Et, s'il y faut mêler le nôtre,

L'un est sans doute mieux rêvé,
Mieux conduit et mieux achevé;
Mais je voudrais avoir fait l'autre.

Corneillek berak, soneto baten inguruan zuen idatzi bere lehen antzerkia, "Mélite".

Baina Malherbe-k gaitzetsirik, ehortzirik daude Ronsard eta Du Bellay, lurra baino apalago emanak. Nahiz sonetista ona izan zen Malherbe bera, bi mendez abantxu ixilduko da sonettoa Frantzian. Uste dut beste literaturan ere berdintsu gertatu zela, bereziki XVIII. mendean: Italian gutiagoko halere. Englaterran erabiliko dute batzuek, baina bigarren mailako idazleak dira.

7) Hemeretzigarren mende hastean, poesia berpizten eta berritzen dute Erromantikoeak, Lamartine aitzindari (Les méditations poétiques, 1820). Gero sonettoa modan ezarriko du Sainte-Beuve delakoak, Ronsard eta Du Bellay goraiatuz ber denboran. Kritiko bezala da ezagutuenik Sainte-Beuve, baina poeta ere da. Segitzaileak ukanen ditu. Soneto batzu idazten dituzte erromantiko handiek: Hugo, Musset, Vigny, Nerval-k.

Baina, azken horrek ezik, olerki luzeak nahiago dituzte gehienetan, sendimenduen ixurtzeko burrustan. Italian halaber Leopardi batekin.

8) Sonettoa berriz goian emanen dutenak, beste eskola batekoak dira, Parnasianoa, gehien bat Heredia eta Leconte de Lisle. Formaren aldetik segitzaileak ukanen dituzte: Beaudelaire eta Sinbolistak: Verlaine, Rimbaud, Mallarme...

9) Hogeigarren mendean, gutiago erabiliko da frantses letretan. Baina poeta handienek, fantesiaz bezala berriz ere, noiztenka ohoratuko dute, kristau batzuek Pazkoak egiten dituzten bezalaxe. Aipa ditzadan bereziki Verhaeren, Apollinaire, Peguy, Claudel, Valery, Jammes, Aragon... Gutiz ezin utz halere!

Alderantziz ari izan zen, alemanieraz, Rainer Maria Rilke austriarra, Orfeori eskainiz soneto sorta mardula.

10) Euskal letretan, guti erabili da hamalaurkuna, ipar aldean are gutiago. Idazle bakar batzuek dute zenbait idatzi, eta gehienak gure denboran. Patxi Altunak aipatuez gain, aipa ditzadan Arrese-Beitia, Lauaxeta, Oxobi, Iraizoz, Krugbi, San Martin, Iratzeder, Itxaro Borda, Arrieta...ene burua ahortzi gabe...

Haboroenik erabili dutenak dira, ene ustez, Iraizoz, Iratzeder eta zuen zerbitzari hau, hiruak euskaltzain osoak. Gutartekoak dira halaber, naski, San Martin, Krugbi, Oxobi zena eta Iratzeder.

Beraz hamalaurkunaz erran dezaket Euskaltzaindikoek dugula gehienik baliatu. Ez gara beti azkenak, usu entzuten dugunarren. Berriz erranen da balinba: "Astoak bere burua lauda!" Baina egiari zor zaio bere bidea, zaldiz eta baldin bada, astoz bederen.

* * *

II. Hamalaurkunaren ereduaz

Euskal sonetoen batasunik eza begien bistan utzi zigun, ezpairik gabe, Patxi Altunak. Baina literaturetan eredu finkorik bai ote du hamalaukoak?

A. Frantsesezkoa dut ikertu gehienik

Hobekienik ezagutzen dudana delako? Naski! Baina ez horren gatik soilik: Oihenarte-k harturiko eredu gatik ere. Baina eta on delako, ene

ustez, frantses literaturaren berri jakin dezazuen hego aldekoek, guk ipar aldekoek gaztelerazkoaz ahal duguna oro jakin behar dugun bezala.

Gaitzeko desberdintasunak aurkitu ditut, ez bakarrik aro batetik bestera, ber aroko idazle batetik bestera, baina idazle beraren soneto batetik bestera ere bai.

1) *Metrikaren aldetik*

Hamar oin edo silabakoak ziren lehenbiziko neurtitzak, hori baitzen ohiko frantses neurtitz klasikoa (4/6). Hori bera zuten erabili adibidez Marot, Louise Labe, Mellin de Saint-Gelais, Du Bellay, Ronsard-ek.

Baina laster hamabi oineko neurtitzera pasa ziren Ronsard eta du Bellay, hau baita geroztiko frantses alexandrinoa, neurtitz “heroiko” eta klasikoa, zesura edo pikadura erdiz-erdi duela: eta hau da ene ustez Oihenart-ek bere “Hamalaurkun” ospetsuan eredutzat hartu zuena.

Zesura lekuz aldatuko dute batzuek, hala nola Verlaine-k: hunek hiru zatitan emanen du neurtitza, kantuaren antza emanaz.

Neurtitza bera era desberdinean onduko dute: hala nola 8 eta 12 silabatan Corneille, Moliere, Musset, Valery, Aragon-ek... Baina orokorki, nagusi aterako da 12 silabako alexandrinoa, 10-ekoa osoki baztertu gabe.

2) *Errima edo punduen aldetik*

Hor, are, arte handiak aurki ditiroagu. Azkenetarik has gaitezen:

a) Aragon:

— La naissance du printemps (12 oin): ABAB, CDCD, EFG, HIJ.

— Marguerite (12 oin): ABBA, ABBA, BAB, ABA (hiper klasikoa).

— Imité de Camoëns (12 oin): ABBA, ABBA, CDC, DCD.

— Petite suite sans fil (12 oi): ABBA, ABBA, CDD, CDC.

b) Valery:

— L'abeille (8 oin): ABBA, ABBA, CDC, DEE.

— Les grenades (8 oin): ABBA, CDDC, EED, FEF.

— Le vin perdu (8 oin): ABAB, CDCD, EEF, GEG.

— César (12 oin): ABBA, ABBA, CDD, EDE.

— Un feu distinct: ABAB, CDCD, EFE, FEE.

c) Mallarme:

— La vierge, le vivace et le bel aujourd’hui (12 oin): ABBA, ABBA, CCD, EDE.

— Le tombeau d’Edgar Poe (12 oin): ABBA, ABBA, CCD, EDE.

— Ses purs ongles: ABAB, ABAB, BBA, BAB.

— Placet futile (12 oin): ABAB, ABAB, CCD, EED.

d) Beaudelaire: 12 oin denek

— A une dame Créole: ABAB, ABAB, CCD, EED.

— Recueillement † La mort des amants: ABAB, ABAB, CCD EDE.

— Correspondances: ABBA, CDDC, EFE, FGG

e) Heredia:

— Oso klasikoa. Hiru poema desberdinetan (Les conquérants, Epiphanie, Maris Stella): ABBA, ABBA, CCD, EDE.

f) Erromantikoek: nahiko klasikoa dute sonettoa, nahiz ez Parnasianoen bezain finkoa.

g) Hamazazpigarrenean, denetarik.

— Malherbe: zintzoa, naski. Adibidez, ikus dezagun “Sonnet sur la mort de mon fils”: ABBA, ABBA, CCD, EDE.

— Maynard: haren dizipulua, bere gisa, “que penses-tu faire de moi” sonettoa (8 oin): ABAB, CDCD, EEF, GFG.

— Saint Gamand: heterodoxoa, klasiko, “En fumant la pipe” (12 oin): ABBA, ABBA, CCD, EED.

h) Bepizkundekoek beti errespetatzen dute lehen bi bertsetetako ordena klasikoa, hau da: ABBA, ABBA.

Baina hiru neurtitzeko bi azken bertsetetan ez da eredu segurik: batean CCD, EED, bestean CDC, CDD, hirugarrenean CCD, EDE... idazle beraren soneto batetik bestera, hala nola Ronsard-enetan.

Halere, Parnasianoenkin batera, zaharrenak ditugu klasikoenak, Patxi Altunak erran zigun bezala. Italiarazkoak eta gaztelarazkoak zizkigun aipatu, baina hala da frantsesezkoentzat ere. Har gatik problema bat badago denetan azken bi bertsetentzat.

B) Gaztelerazko zaharrengan

Klasikotasun fina nabari da lehen bi bertsetetan, baina batasunik ez dago azken bietan.

1) Gongora.—Luis de Góngoraren sonetoetan, lau puntu mota aurkitu ditut.

— CDE, CDE.

— CDE, CED.

— CDE, DCE.

— CDC, DCD.

2) Quevedo.—Batasun gehiago du Francisco Quevedok. Bi puntu eta errima mota dizkiot aurkitu azken bi bertset horietan:

— CDC, DCD

— CDE, CDE.

C) Italierazkoetan

1) Dante.—Huni ere, bi puntu mota ediren dizkiot azken bi bertsetetan:

— CDE, CDE.

— CDE, EDC.

Baina lehenbiziko bi bertset haietan, salbuespen bat da Dante Alighieri: batean ABBA, ABBA, bestean ABAB, ABAB... Egia da Berpizkun dekoa baino Erdi Arokoa dela, baina ber denboran modernoa zait. Interagarri litzateke siziliar eskolako poeta zaharren ikertzea, adinez haietarik hurbilena baita Dante.

2) Petrarca-ri, 7 sonetotan, hiru puntu mota ikusi dizkiot:

— CDC, CDC.

— CDC, DCD.

— CDE, DCE.

III. Zer pentsa, zer egin?**A) Punduari dagokiola:**

1) Lehen bi bertsetentzat, argi gelditzen da auzia: bai italieraz, gazteleraz eta portugesez, bai frantsesez, bai euskaraz, eredu klasiko

zaharra dugu: ABBA, ABBA. Salbuespen handi bat: Dante. Nagusi gelditu zen Petrarcaren eredua.

2) Hiru neurtitzeko azken bi bertsetentzat eredu tinkorik ez da. Baina hor ere, arte gutiena zaharrengan da. Batzutan bi puntu derabilz-kite (C eta D), bestetan hiru (C, D, E), baina era desberdinetan sailkatuak.

B) *Neurtitzaren luzegoaz:*

Zein erabil euskaraz?

1) Italiano eta Espainolen eta Portugesen 11 silabakoa?

2) Ala Frantsesen 12 oinekora, ez baldin bada 8, 10 edo 14-koa?

3) Ene ustez, gure neurtitz klasikoak badugu Euskaldunek: hau da zortziko ttipian erabiltzen duguna, 13 silabakoa (7/6). Hain zuzen, *OXO-BI* zenak erabili zuena, Kanbori ondu zizkion bi hamalaukoetan. Eta beste batzuek ere derabilagu. Euskal doinu askotan abesteko egokia da, azken bi bertsetetako hirugarren neurtitza errepikatzen den ber.

Baina bakoitza libre da, eta poesia oroz gainetik askatasuna da. Beraz bat bederak egin dezala gogoan duena.

Halere on da gure hitz jarioan muga batzu ezar ditzagun, eta indar hori badu hamalaurkunak: hamalau neurtiz eta hor geldi! Noiztenka bederen, on da hamalauko baten ontzea. Egiten eta, zer gatik ez ongi egin, puntu klasikoak errespetatuz, dantzakoak errespetatzen ditugun bezala? Hori bera egiten zuen Aragon batek, etika bat zitzaion lege batzuen betetzea.

Baina euskal sonetoak gehienik eskaz duena, irakurlea da. Hemen berean, zenbatek irakurri ditugu Euskaltzainen hamalaukoak? Badakit, olerkia ez da modan euskal letretan. Baina Frantzian eta Espainan, uste duguia modan dagoela poesia? Frantses poetak botzik omen daude bost ehun ale ateratzen dituztenean. Beraz ez beldur, ez izi. Ez gara horretan ere azkenak.

Har gatik aholku bat: irakur ditzagun elkarren lanak, bestenez nork ditu leituren?

Bukatzeko, zilegi bekit euskal olerkarien zerrenda baten agertzea hemen hamalaurkun batean. Ahazten ditudanek barka diezadatela eta gauden lasai: beren hautua eginen dute gure ondoko gizaldiek, baina gu mundu hobe batean izanen gara, Jainkoak nahi badu: Parnasoan ez bada, beste mendi batean, ezin hobeki. Halabiz.

Euskal olerkari zenbait

Etxepare hasi zen, bi Musen mutila.
Gazteluk, Etxeberrik profanoa hilik
Ezin zuen berpiztu Oihenartek soilik,
Bi gizaldiz bederen, ai haren ixila!

Abadiari esker jeiki ziren mila
Jan-Battitta, Felipe, sarikan azkarrik,
Iparragirre, Bilintx, Etxahun bakarrik,
Gaurko poesiaren aitatxi umilak.

Lauaxeta, Oxobi, Orixe, Lizardi,
Salbatore, Zaitegi, Mirande, Aresti,
Iraizoz, Iratzeder, Manex, Artze, Lasa,

Lecuona, Gandiaga, Lete, Izagirre,
Irigoien, Atxaga, Itxaro, Arantxa,
Jon, Arrieta, Ezkiaga, Patri, Sarri, Tere...

BIBLIOGRAFIA

1. Panorama des littératures étrangères, leur influence sur la littérature française —René Moulis et Louis Chaigne— Scodel, 9 bis rue de Mézières, Paris 6ème, 1969.
2. Les auteurs italiens, J. Bloncourt et R.H. Durand, Bordas, 1978.
3. *Teoría literaria e historia de los géneros literarios* —Editorial Teide, Barcelona, 1960— J. Garcia Lopez, Carmen Pleyan.
4. Luis de Gongora —*Sonetos completos*— Clásicos Castalia.
5. Francisco Quevedo —*Poemas escogidos*— Edición de José Manuel Blecua. Clásicos Castalia.
6. Dante: *Vita Nova*.
7. Ronsard, *Poésies choisies*, Classiques Larousse.
8. *Les cent plus beaux sonnets de la langue française*, France Loisirs, 123 bd de Grenelle, Paris, 1982 - Choix et préface de Marie Letourneur.
9. *Ekhaitza*, Federico Krutwig Sagredo - L. Haranburu, editor.
10. Patxi Altuna: Euskal filologiazkoak, nahas-mahas - **Euskera** XXXIV (2. aldia, 1989, 1), 165. orrialdean.
11. Anthologie de la poésie occitane, bilingue, André BERRY, éditions Stock, 1979.

Izen eta urte buru zenbait:

Frederik II. 1194-1250

Dante, 1265-1321

Petrarca, 1304-1374

Aita Sainduak Avignonen, 1309-1378

Mellin de Saint-Gelais, 1487-1558

Juan Boscán, 1490-1552

Clément Marot, 1497-1544

Garcilaso de La Vega, 1503-1536

Paviako guduka, 1525

Joachim du Bellay, 1525-1560

Pierre de Ronsard, 1524-1585.

BESTELAKO TXOSTENAK

TONU-MULTZOAK GRAMATIKAN

Gasteiz, 1989-VI-19

Eusebio Osa

- (1) Reagan/joan da
iraultzak dirau
- (2) Reagan / joan da
Iraultzak / * dirau
- (3) Reagan/joan da
Iraultzak / irauten du

Lan honetan, (1) esapidearen testu-egokitasunaren hausketa eta (2) esapidearen gramatikatasunaren hausketa aztertu nahi nituzke, ondorio honetara iristeko: komunikazioa oinarritzat duen gramatikak, a) testu(in-guru)a hartu beharko duela gutxienezko abiapuntutzat bere analisisetan; eta (b), tonumultzoen erizpidea funtsezkoa dela, bai komunikazioaren egokitasuna baloratzerakoan eta bai egitura sintaktiko zenbaiten zudentasuna neurtzerakoan.

Azterketa honetan, batipat bigarren ondorio hau azpimarratzea interesatuko zaigu. Izan ere, *Reagan joan da, iraultzak dirau* irakurtzeak sortu didan gogoeta nagusia, ondorengo hau izan da, alegia, hizkuntza bat erabiltzerakoan tonu-multzoak ongi mamitzeak oinarritzko garrantzia duela, eta tonu-multzo horiek ongi gauzatzeko gaitasunetik datorrela eman nahi den mezua egoki komunikatzeko gaitasuna.

Hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran trebe izateaz dihardut hemen, esaldi hau aztertzerakoan, eta aditzera eman nahi nuke, trebetasun horren oinarrian daudela intonazio, azentu eta etenaren bidez gauzatzen diren tonu-multzoak.

Jakinarazi beharra dago, aipaturiko esapidea Nikaraguako bazterretan hango erdaraz idatzirikoaren itzulpena dela¹. Ez dugu itzulpen hori onar-

(1) *Ik. Argia* astekaria, 1235 zb. 18 orria.

garritzat jotzen. Printzipioz, bi hipotesirekin lan egin genezakeen. Lehen hipotesian, itzultzaileak testu-egokitasunik ez luke lortuko, hots, erdarazko testuaren logika hautsiko luke. Hau da, **Reagan, joan da, iraultzak dirau** irakurketa izango genuke². Hau da, (1) esapidearen interpretazioz, non bigarren proposizioari egokitasun ezaren ikurra ezarri baitiogu³. Bigarren hipotesian, berriz, itzultzaileak ez du testu egokitasunik hausten, baina bai gramatikazko erregela, errema multzoaren buruan aditz jokatu soilak ez duela joaterik dioen hura, alegia⁴. **Reagan, joan da / * iraultzak, dirau**. Hau da, (2) esapidearen interpretazioz, bigarren proposizioari gramatikatasun ezaren ikurra ezarritz.

Uste dut lehen hipotesia baztertu beharra dagoela. Izan ere, kasu honetan testu koherentzia aski sinplea baita, hau da, mintzagaiaren eta galdegaiaren kontrajarrerazko simetria hain da garbia, non buru erabat nahasia behar baita simetria hori hausteko. Bigarren hipotesiarekin geldituko gara, beraz; hots, itzultzaileak ez du testu egokitasuna egitura sintaktiko zuzenez gauzatzen jakin.

Lan honetan azpimarratu nahi duguna da, zenbaitetan, onargarritasun ezaren jabe izateko, komunikazio estrategia kontutan izango duen gramatikara jo beharra dagoela, hots, komunikazio zereginean oinarritzen den gramatikara.

Eta horren barnean, hiru ikuspuntutik osatua legokeen gramatikaz baliatu nahi dut nere adibidearen nondik norakoa aditzera emateko⁵. Azken hamarkadako linguistikak hainbat maila hartu nahi du kontutan, esapidearen analisisa egiterakoan. Edo hobeto esan, hainbat **ipuspuntu**, mailak hierarkia adierazten baitu eta horixe da, hain zuzen, baztertu nahi

(2) Azpimarrak galdegaia adierazi nahi du, bai oraingoan eta bai ondorengoetan.

(3) Hizkuntzalari funtzionalen ohitura jarraituz, iadanik finkatua dagoen # ikurra horretarako darabilgu, hain zuzen, testu-egokitasun falta adierazteko.

(4) Ik. B. Oyharçabal (1985) *Les Relatives en Basque*, Département de Recherches Linguistiques (D.R.L.), Université de Paris, 59 orrian.

(5) Ik., honetaz, hots, "Théorie des trois points de vue" bezala ezagutzen den horretaz, Claude Hagegeren "Du thème en thème en passant par le sujet: pour une théorie cyclique", *La Linguistique*. 14/2, 1978, 3-38. Halaber, autore beraren *L'homme de paroles*, Fayard, 1985, Paris, batipat 9. kapitukua, non teoria hori garbi garatzen baitu eta mugatzen. Baita ere, Gilbert Lazard, "Les structures de la phrase; questions de terminologie" *Comprendre le langage. Actes du colloque de Créteil*, 1981, 43-45. Halaber, beronen "Actance variations and categories of the object", in F. Plank (ed.) *Ergativity: Towards a theory of grammatical relations*, London-New York, 1979, 269-292. Baita ere Simon Dik autorearen *Functional Grammar*, Amsterdam, North-Holland Publishing Company, 1978. Eta azkenik, J. Feuillet-en "L'organisation des trois points de vue" *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, 82, 1978, non aurrekoen eritziak laburbiltzen baititu eta bere bertsioa eskaintzen.

dena. Hiru ikuspuntuen teoriaz ari naiz, zeina hizkuntz gauzatze ezberdinen berri eman ahal izateko beharrezko ikusi baitu zenbait autorek ⁶.

Hagège-ren esanetan, beharrezkoa da hiru ikuspuntuak aldi berean erabiltzea hizkuntzaren analisian, horrela, hizkuntza, mundua sinbolizatzeko eta harremanak sortzeko gai den izaki baten tresna gisa ulertuz. Planteiamendu honen azpian, jakina, filosofia bat datza, alegia, gizakia *elkarrizketadun* balitz bezala ikusten duen linguistikaren filosofia.

Ikerketa linguistikoak ondorengo hiru ikuspuntuok erabili beharko ditu hizkuntzaren berri osoa eman ahal izateko:

a) Sistemaren ikuspuntua, esan nahi baita, morfosintaxiaren ikuspuntua, hots, formak eta hauen arteko erlazio posibleak.

b) Ikuspuntu semantiko-erreferentziala, esan nahi baita, hizkuntzaren eta munduaren arteko erlazioak ⁷.

c) Ikuspuntu enuntziazkoa, esan nahi baita, esapidea ialgitzen duenaren eta jasotzen duenaren arteko erlazioa kontutan hartzen duen hura. Bi norabide ditugu, beraz, hemen, segun eta abiapuntua esalearena den ala entzulearena: alde batetik, Hagège-k norabide semiologikoa deitu duena, hots, hiztunarengandik entzulearengana doana. Hiztunak zerbait adierazi nahi du eta, horretarako, forma bat aukeratzen du; esanahitik formara doake, beraz. Eta, bestetik, autore beraren terminologiaz baliatuz, norabide onomasiologikoa, entzulearengandik hiztunarengana doana, zeina formatik esanahira baitoa.

Azken hau litzateke pragmatikak berarentzat hartu duen ikuspuntua. Hirugarren ikuspuntu honek, informazioaren organizazioa adierazten digu. Eta organizazioa, batipat, *tema-errema* egitura binarioaren baitan gauzatu ohi da. Ikuskera honetaz kanpo geldituko litzateke, bai F. Saussure-en "langue" eta "parole" edo hizkuntza eta hizketaren arteko banaketa, eta baita Chomsky-ren "competence" eta "performance"aren artekoa ere, batean eta bestean, hizketa, enuntziatua, esapidea, solaskideen arteko erlazioa hizkuntzalarien azterketa gaiak kanpo geldituko bailitzateke ⁸ Luce Fontaine-De Visscher-en hitzetan esateko ⁹.

(6) Teoria honen formulazio explizitoa Pragako Eskolako Danes-engan ikusten ahal dugu, "A three level approach to syntax" lanean, *Travaux Linguistiques de Prague*, 1, 1964, 225-240.

(7) Jack Feuillet-ek hiru azpizati ematen ditu bigarren atal honen barruan, alegia, a) proposizio alderdia, b) modalitate alderdia eta, c) perpaus tarte alderdia ("zone de l'intradiscursion").

(8) Ik. honetaz Hagege-engan, aipatu *L'homme de paroles* liburuan, 9. kapitulua, non, alde batetik, ikuspuntu estrukturalistaren eta sortzailearen kritika egiten baitu, eta bestetik beste ertzean erori gabe, hiru ikuspuntuek duten elkarren beharra seinalatzen baitigu.

(9) Ik. autore hauen "La Linguistique et les sciences humaines. Comment redéfinir la linguistique, avec Claude Hagège", *Revue Philosophique de Louvain*. 86, 71, 11988, 378-391.

“Le langage n’est jamais pur système; mais il ne dit pas non plus le monde, c’est le système qui le signifie; de sorte que l’aspect morpho-syntaxique et l’aspect sémantique s’expliquent par l’éclairage de l’énonciatif hiérarchique. Une double linguistique ignore le rôle de l’activité du sujet parlant. L’opposition chomskyenne de la compétence et de la performance risque d’encourir le même reproche.”

Chomsky aipatu denez, Kuno-ren adierazpen eta adibide zenbaitez baliatuko naiz, komunikazioaren alderdia adierazterakoan teoria chomsk-yarrak erakusten digun ezinaren berri emateko. Egia da, *hiru ikuspuntuen teoria* eta antzeko planteiamendu funtzionalistek ez dutela oraindik hizkuntzalaritzaren munduan sintaxilari formalek lortu duten formulazio zehatzik lortu ahal izan, besteak beste askozaz ere konplexitate haundia-goko esparruan mugitu beharra dutelako, sintaxiaren, semantikaren eta pragmatikaren alorrak barne direlarik. Baina aipatu autoreak dioen bezala, hizkuntz emankizunak adierazteko baliagarri liratekeen jeneralizazioak egitea hobe da- agian momentuz guztizko zehaztasunaz formulatuak ez badira ere - oso formulazio zehatzez emanak izan arren baliorik ez duten jeneralizazioak baino. Eta Kuno-ren ondorioa, erabatekoa dugu:

“Since nothing can be gained in analyzing syntactic structures by ignoring, or being ignorant of, their communicative function, every good syntactician should also be a good functional syntactician” (1980:117).

Autore honek uste baitu sintaxilari hutsen alorra estuagotzen eta errealtatetik urrunagotzen doala azken urteotan. Bere hitzez:

“My own evaluation of what has happened in the past 10 years in syntax is that the focus of research interest of pure syntacticians has become narrower and narrower, that data that they deal with have become smaller and smaller, and the generalizations that they come up with, further and further removed from reality” (ibid. 133).

Perpausaren egokitasuna aztertzeke orduan, diskutso faktoreak beharrezko direnik ez du inortxok ere ukatzen edo dudatan jartzen. Baina ez da hori bakarrik kontu guztia. Egokitasunaz gain, onargarritasun gramatika bera baloratzeko ere, hainbat kasutan faktore ez sintaktikoak beharrezko ditugula esan beharra dago. Eman dezagun ondorengo galde-erantzun hau:

(4) A. Norena da kotxe hori?

B. Andonirena.

Erantzun hori, proposizio balioz, hots, erreferentzi eta predikazio balioz onargarria izateko, galdera esapidetako elementuak ezagutu beharra daukagu. Hori gabe ez litzateke onargarria izango *Andonirena* perpaus gisa harturik.

Ondorengo adibideok Kuno-rengandik jasoak eta euskarara itzuliak eta nolabait egokituak dira:

(5) A. Zer egiten dute zure arreba Sara eta Edurnek?

B. # Lan egiten du, eta estudiatu¹⁰.

Nahiz eta galderako erreferenteak ezagunak izan erantzuna eman behar duenarentzat, biko multzoa denez, agertu beharra dute erantzuan, ekintza bakoitzarekiko erlazio espezifikoa markatuz.

(6) Nik hiru seme-alaba ditut: Andoni, Kepa eta Edurne. Andoni ez da oso azkarra, baina hiruen artean bera da azkarrena.

(7) Nik hiru seme-alaba ditut: Andoni, Kepa eta Edurne. Andoni da azkarrena. # Kepa eta Edurneren artean, berriz, bera da azkarrena.

Badirudi (6) testuaren kasuan inolako arazorik ez dugula **bera** ize-nordainaren erreferentzikidea zein den jakiteko. Horrela (6) testuko esapide adbersatiboa onargarria da edonorentzat, jakin baitakigu izenordaina zeinen ordain den (7) testuan ez dugu hori jakiterik, informazioa blokeatua gelditzen delarik.

Baina zergatik ote (6) esapideko **bera**, *Andoniren* erreferentzikide? Eta zergatik ezin dugu jakin zein den (7) testuko **bera** anaforaren kidea testuan aurrerago? Erizpide bakarra dugula ematen du, eta hau, erizpide ez sintaktikoa izango litzateke. (6) testuko esapide adbersatiboan *Andoni* elementu tematikoa da, eta elementu tematiko bakarra gainera. Beraz, izenordaina elementu tematikoaren erreferentzikide dugu. (7) testuan, berriz, **Kepa** ez da elementu tematiko bakarra, *Edurnerekin* batera baizik.

(8) Ez ginen Donostian hotel batetan egon, Parisen baizik.

(9) * Donostian, ez ginen hotel batetan egon, Parisen baizik.

(8) esapide adbersatiboan, *Donostian* ez da elementu tematikoa, **hotel batetan** adizlagunarekin batera foku ukatua baizik: eta horrela, bigarren kontra-esapideko *Parisen* fokurekin, fokukide. (9) esapidean, tematikoa da *Donostian*. Topikoaren eta fokuen arteko ezinezko joku horrek izango luke (9) esapidearen onargarritasun ezaren errua. Faktore pragmatikoak, beraz.

(10) Keparen etxean bazkaldu du berak.

(11) Keparen etxean berak bazkaldu du.

(10) Kuno-k "exhaustive listing interpretation" dutenen saillean ematen ditu hau bezalako —eta ondorengoaren gisako— adibideak, horrelakoetan inglesak duen pronominalizazioa jo ezina adieraziz. Bere adibidea: "? Among Mary, John, Jane and Martha, he is the tallest" (11976:123).

(10) esapidean, **Keparen etxean** adverbio multzoa, informazio berriaren eta fokalizatuaren jabe da. Hori dela eta, **berak** izenordainak ez du Keparen erreferentzikide izaterik. (11) esapidean, aldiz, elementu tematikoa da —edo elementu tematikoaren azpialal—. Ondorioz, hor **berak** hori, **Keparen** erreferentzikide izan daiteke, besteren bat izaterik ere baden arren.

(12) A. Badator zure anaia? B. * Bai, nere anaia / dator

Nere anaia sintagma horrela topikalizatzen bada, onartezin bilakatzeko erantzun hori. Baina izen sintagma hori topikalizatu egin dugula eta, horren ondorioz, aditza onartezinezko egoeran gelditzen dela esaten digun faktorea, ez da sintaktikoa, testuala baizik. Eta honela amaitzen du Kuno-k.

“What is important to point out here is that pure syntacticians have nothing to gain by ignoring, or by being ignorant of these functional factors that are known to effect acceptability judgments of sentences. The unacceptability of a given sentence can be due in many cases to the interaction of multitudes of factors —some syntactics and others nonsyntactics— and the more those who work in syntax know about various functional factors than might be responsible for the unacceptability of the sentence, the less likely they are to make mistaken syntactic generalizations” (ibid. 134).

Gure esaldira itzuliz, ondorengo analisia egin daiteke: a) **Reagan joan da, iraultzak dirau** esapideak, Bühler-en aspalditxoko hiru funtzioetarik, alegia, funtzio expresiboa, deiegilea eta erreferentziala, hirugarren hau betetzen du, hots, mezu bat adierazten du, gertakari objektibo baten berri ematen du, proposizio balioa du. b) Bi proposizio ditugu, hau da, bi erreferente eta bi predikazio. c) Erreferenteak, bakoitza bere munduaren adierazgarri dira, noski, baina horretaz gain, batabestearen kontra aurkeztuak datoz, predikazio kontrajarria ezartzen zaien momentutik. d) Kontrajarrera horren ondorioz, bi proposizioetako eduki tematikoa ongi markatua dator, erreferente biak alde batetik, eta predikazio biak, bestetik. e) Hori dela eta funtzio semantikoez (erreferentzia-predikazioa) gain, funtzio pragmatikoak ongi markatuak agertzen zaizkigu: lehenik, mintzagaiak; ondoren, galdegaiak. f) Funtzio pragmatiko hauek aditzera emateko egitura morfosintaktiko batzuek baliatzen da esapidearen autoreak. Suposatzen dut, Nikaraguako ormetan agertu dena, **Reagan se fue, la revolución permanece** edo antzerako zerbaite izango dela. Itzultzaileak, gorago aipatua eman digu. g) Baina ez du aukeratu egitura morfosintaktiko egokia. Hortxe dago gakoa, hain zuzen, hots, **...iraultzak dirau** itzultzean, bi proposizioei dagozkien funtzio semantikoak adieraztea lortzen du, baina ez funtzio semantiko horiei testu (inguru) horretan dagozkien funtzio pragmatikoak egoki ematea. Ez du, beraz, komunikazio estrategia ongi gauzatzen. Euskarazko egitura hori ez da gauza aipatu funtzioak

adierazteko. ...*Iraultzak dirau* egituran, ez du *iraultzak* horrek erreferentearen topikalizazioa posibilitatzen. Edo eta alderantziz esanaz, erreferente hori topikalizatzen bada, *dirau* predikazioak euskal sintaxiaren erregela hausten du.

Hau berau prosodilariaren nahiz tonulariaren ikuspegitik adierazi nahi izango bagenu, honela esango genuke: *Iraultzak dirau* tonumultzoz bakarrez emanik onargarri den bitartean, *iraultzak /dirau* bi tonu-multzoz emanik, onartezina dugu. Euskal flexio soilek, ez bakarrik, ez perpaus buruan eta ez errema buruan joateko ahalbiderik ez dutenez gero. Bestetik litzateke itzultzaileak,

(13) Reagan joan da, iraultzak irauten du.

egitura eman izan baligu, non, itzultzaileak, *iraultzak/irauten du* tonu banaketa inolako arazo sintaktikorik gabe erabiliko bai bailuke, eta orduan, ez genuke inolako kontraesanik atzeman ahal izango testu egokitasunaren eta gramatikatasunaren artean.

Lehen aipatu ditugun hiru ikuspuntu haietarik, lehenera mugatuko litzatekeen azterketa ez litzateke gauza izango perpaus horien onartezinaz mintzatzeko, hitz segida horrek *berez* ez balitu erakusten euskal gramatikaren kontrako erasorik. Hirugarren ikuspuntuak egiten digu argi, hau da, *iraultzak* subjektua eta erreferentea mintzagai dela eta *Reagan* subjektu eta erreferentearekin mintzagaikide dela erabakitzeak damaigu ahalbidea *iraultzak* dirau egitura gramatikala txartzat jotzeko. Eta mintzagaitasun horri buruzko auzia, testu-esapidearen auzia dugu, eta ez gramatik-perpauasarena.

Baina nire asmoa ez da, zuzenki, esapidearen testu alderdi hori azpimarratzea, komunikazio funtzio horretan intonazio hegiak edo tonu multzoek duten partaidetza erabakiorra markatzea baizik ¹¹.

Hemen ongi berezi behar dira intonazioaren bi funtzio. Lehena, mintzairan ekintzak berezteko edozein hizkuntzak erabili ohi duena izango litzateke, hots, adierazpenezko, aginduzko, mehatxuzko, galderazko esapide ekintzek hartu ohi duten melodi-hegi ezberdina. Sarritan, egitura sintaktiko berberaren azpian gorde daitezkeen hizkuntz ekintza ezberdinak adierazteko erabili ohi dugu melodi-hegi ezberdin hori. Hala,

- (14) a. Hori duk gibel haundia (hori, eta ez beste hura)
b. Hori duk gibel haundia (hori!)

Hau da, (14 a), adierazpenezko balioz; (14 b), harridurazko balioz.

(11) C. Hagege-rentzat intonazio da "universellement la marque prioritaire du point de vue 3" (ibid.).

Baina intonazioak, funtzio horretaz gain beste bat ere badu, azentu gailurrarekin batera betetzen duena; hizkuntz ekintza baten baitan komunikazio eduki ezberdinak sortzeko balio diguna. Horrela,

(15) Kepa etorri da.

bezalako egitura sintaktiko batean, harridurazko balioa eta horri legokion intonazio hegia alde batera utzi eta, adierazpenezkora mugatuz, ekintza horren baitan bi mezu berezi ditzakegu:

- (16) a. KEPA etorri da (hots, Kepa da etorri dena)
b. Kepa / ETORRI DA (bai, etorri da)

Lan honetan intonazioaz mintzatzen naizenean, tonumultzoak sortzeko darabilgun horretaz mintzatzen naiz, noski.

Gure artean, azentuaz, etenaz eta intonazioaz edo melodi-hegiaz, eta horiek sintaxian duten zerikusiaz arduratu den linguistikarik izan da. Ez hainbeste prosodema horiek burutzen dituzten tonu-multzoez, eta oso gutxi tonu-multzo horiek komunikazio estrategian duketen eskuartze erabakiorraz¹². Halere, ez dira bazterrera uztekoak, ez P. Altunaren (1979:29) “Azken juizioa izango da” esapidea, non bi tonu molde hauta bait daitezke, alegia.

- a) “Azken juizioa / izango da (habrá (un) juicio final)”.
b) “Azken juizioa izango da (será el juicio final)”.

Lehen irakurketak, bistakoa denez, “Azken juiziorik izango (al) da?” galderari erantzungo lioke. Bigarrena, berriz, izugarizko ekaitz eraso baten aurrean egin daitekeena izango litzateke. Adibidez:

- (17) A. Zer da baina hau!
B. Azken juizioa izango da.

Ezin ahaztu, ezta ere, Mitxelenaren (1977:32) “Orduan etorri zen” haren bi irakurketak:

- a) “Orduán / etorri zén”.

(12) Ikus, besteak beste, Basterretxea, “Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica I”, *FLV*, VI, 1974, 353-93 eta “Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica II”, *FLV*, VII, 1975, 289-338. Halaber, Basterretxea, *Zutabe* 2, 123, P. Altuna (1979), *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*, Bilbo. K. Mitxelena (1981) “Galdegaia eta Mintzagaia euskaraz” *Euskal linguistika eta literatura*. Deustuko Unibertsitatea, 57-81. K. Rotaetxe (1988), “Azentua eta entonazioa: harremanak” *Euskera XXXIII*, 195-219. Autore honek ere kontutan hartzen ditu tonu-multzoak, berak “erritmo taldeak” deitzen dituenak (216). Uste dut, halere, K. Rotaetxek ez dituela berezten hizkuntz ekintza ezberdinak —adierazpen, agindu, harridura...— gauzatzeko darabilgun intonazioa eta adierazpenezko komunikazio ezberdinak sortzeko darabiltzagan tonumultzoak.

b) "Orduan etorri zèn".

Uste dudanez, gramatika gorabeherak komunikazio zereginaren ildo-tik eraman eta adierazi nahiz gabiltzanok, bide horretatik areagotu behar ditutu gauzak, prosodema horiek gehigarritzko ataletako ohar murrizetara eraman beharrean, hizkuntzaren (irakaskuntzaren) ardatzeraino jasoaz. Honek esan nahi du, berriz ere esango dut, testu(inguru)an oinarritzen den gramatikagintza eta hizkuntzalaritza proposatzen dugula, nolabaiteko testuan oinarritzen ez den perpausaren analisisa ez baita gauza tonu-multzoei aukeraren arauetako teoria garatzeko.

Gramatika erregelez jabetzea bezain funtsezkoa da mintzairaren erabileran gaitasuna lortzeko orduan belarria ongi hezitzea. Belarribidezko heziketa linguistikoa, beraz, eta ez soilik gehigarri artistiko gisan, mintzairak bere komunikazio zeregina zuzen eta egoki bete dezan baizik, hots hiztunak adierazi nahi duena adieraz dezan, hain zuzen ere. Hona, horretaz, S. Fernandez Ramírez hizkuntzalariaren pasarte didaktiko eder hau:

"...la pluma que emborriona va conducida por un pulso bien sincronizado con el oído; toda la magia del escribir está ahí, después de todo, el órgano por donde hemos recibido la enseñanza de nuestra propia lengua a viva voz. De algunos escritores podría decirse, como se dice de los místicos 'tiene simplemente buen oído'. El oído es el oído del habla... Hay que educar el oído. Hay que grabar en él fórmulas, secuencias, esquemas. Ya veremos cómo toda esa monserga de la puntuación, de los puntos y las comas, y toda esa otra monserga de las cláusulas subordinadas, etc., es todo, radicalmente, un problema de buen oído, de educación literaria por el oído ¹³".

Tonu gorabeherak kontutan hartu beharrez eta, horretarako, belarria hezi beharrez, honela dio beste pasarte batean:

"El hecho de que la lingüística moderna haya vivido a lo largo de muchos lustros ignorando completamente las realidades tonales del lenguaje, sin pararse un momento a pensar en los problemas intrínsecos a la lengua que esas realidades plantean debe tener, sin duda alguna, explicación, alguna razón de ser histórica" (ibid. 91-92). Eta arrazoi hori ondorengoa da: *"Los modernos estudios de lingüística se inauguran con la operación de interpretar y desentrañar una serie de lenguas de las que sólo*

(13) Ikus S. Fernández Ramírez, *La enseñanza de la gramática y de la Literatura*, 1985, Arco/Libros, Madrid, 113; José Polo-k prestatutako edizioan. Dena den, 1941ean Espasa-Calpe-k argitaraturiko materialeak ditugu berauek.

poseemos escritos. Ahora bien, todos los hechos de la entonación se sus-traen a la anotación de la escritura... (ibid. 92)¹⁴.

Euskararen kasuan, idatzizko iturriak eta esparruak baino ahozkoak askoz oparoagoak izan ditugu, Hala eta guztiz ere, idatzizkoetara lotu dugu gure hizkuntzalaritza. Horrela, aztergai izan den objektuaren erreali-tatetik asko aldendu gara, errealtate linguistikoa % 90etan ahozkoa —eta beraz, tonuzkoa, soinuuzkoa— baita, ez idatzizkoa.

Orainarte esanak bilduz, ondorio hauek ateratzeko gai garela uste dut. Euskara ongi bereganatua duen hiztunak, ondorengo gaitasun lin-guistikoak agertuko ditu:

a) *Iraultzak dirau* eta *Iraultzak / dirau* esapideek duten komunika-zio eduki edo mezu ezberdinen jabe izateko gaitasuna. Hots, tonu-multzoen arauarako gramatika atzemateko ahalmena. Prosodi-gaitasuna dei genezakeena.

b) Reagan-ek Nikaraguarekin izan duen portaera jakinik, *Reagan joan da, iraultzak dirau* segidako proposizioetan, *iraultzak* eta *dirau* bi tonu-multzotan eman beharrezkoa dela erabakitzeo gaitasuna, hots, *Rea-gan* eta *iraultza* erreferenteak mintzagai kontrajarri gisan nabarmentzekoa eta, bestaldean, *joan da* eta *dirau* galdegai kontrajarri gisan markatzeko gaitasuna. Testu-egokitasun gaitasuna dei dezakeguna.

c) Testu(inguru) horretan, *iraultzak / dirau* ebaki ondoren, *dirau* predikatuaren gramatikatasun ezaz jabetzeko gaitasuna. Gaitasun morfo-sintaktikoa dei dezakeguna.

Aipaturiko hiru ikuspuntuen teoria kontutan duen gramatikak bere barnean hartuko ditu, gaitasun morfosintaktikoaz gain, gaitasun (kon-) testuala eta prosodikoa ere.

Kantua, poesiari bere tonalitatea eta bere soinua ateratzeko medioa den bezala, irakurketa eta hizketa, testuari bere tonalitatea eta soinua ateratzeko moduan emanak izan behar lukete. Eskakizun hori aintzat hartuko duen gaitasun linguistikoaren bila joan behar dugula uste dut.

(14) Testu honen izenburua “Palabra y Música” da, seguru ez dakigularik izenburu hau S. Fernández Ramirezi zor diogun ala ez. Dena dela, hizketaren musikaz edo musikali-tateaz ari zaigu, musika hori batipat intonazioa edo tonalitatea delarik.

BIBLIOGRAFIA

- Altuna, P. (1979): *Versificación de Dechepare, Métrica y Pronunciación*, Bilbo.
- Basterretxea, J. (1974): "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica I", *FLV*, VI, 1974, 353-93.
- Basterretxea, J. (1975): "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica II", *FLV*, VII, 1975, 289-338.
- Danes (1964): "Three level approach to syntax", *Travaux Linguistiques de Prague*, 1, 225-40.
- Dik, S. (1978): *Functional Grammar*, Amsterdam: North-Holland.
- Feuillet, J. (1987): "L'organisation des trois points de vue" *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, 82, 1987, 1-41.
- Fernández Ramiez, S. (1941): *La enseñanza de la gramática y de la literatura*, Arco/Libros, 1985.
- Fontaine, L.-De Visscher (1988): "La Linguistique et les sciences humaines. Comment redéfinir la Linguistique, avec Claude Hagège", *Revue Philosophique de Louvain*, 86, 71, 1988, 378-91.
- Hagege, C. (1978): "Du thème en thème en passant par le sujet: pour une théorie cyclique", *La linguistique*, 14/2, 1978, 3-38.
- Hagege, C. (1985): *L'homme de paroles*, Paris, Fayard, 1985.
- Kuno, S. (1976): "Three perspectives in the functional approach to syntax", *Song, Sing and Mining*. Michigan, 119-90.
- Kuno, S. (1980): "Functional Syntax", *Discourse and Syntax*, (Syntax and Semantics), 13. N.Y. Academic Press, 117-35.
- Lazard, G. (1979): "Actance variations and categories of the object?", F. Plank (ed), *Ergativity: Towards a theory of grammatical relations*, London, New York, 269-92.
- Lazard, G. (1981): "Les structures de la phrase; questions de terminologie", *Comprendre le langage, Actes du Colloque de Créteil*, 43-45.
- Mitxelenak, K. (1977): "Euskal hizkera era euskal neurkera", *Euskera*, XXII, (2. aldia), 721-33.
- Mitxelena, K. (1981): "Galdegaia eta mintzagaia euskaraz", *Euskal Linguistika eta Literatura*. Deustuko Unibertsitatea, 57-81.
- Oyharçabal, B. (1985): *Les Relatives en Basque*, Département de Recherches Linguistiques (D.R.L.), Université de Paris.
- Rotaetxe, K. (1988): "Azentua eta entonazioa: harremanak", *Euskera XXXIII*, 195-219.

SIERRA CANTABRIA-SIERRA TOLOÑO

*José Antonio González
De la Comisión de Onomástica*

Al sur de Alava y de oriente a occidente se extiende una sierra que separe la Rioja Alavesa de la tierra de los valles del río Ega y del Inglares.

Hoy se la conoce oficialmente como sierra de Cantabria en su tramo oriental y central (en el mapa levantado por el Servicio Geográfico del Ejército en 1952, Escala 1/25.000 la denomina Sierra de Toloño. Cuadrícula I N.º 171-Aguilar de Codés).

En la exposición cartográfica, que se presentó en las jornadas de Toponimia de Vitoria-Gasteiz, pudimos ver en mapas antiguos cómo la titulaban Sierra de Cantabria.

Entre los pueblos próximos a la sierra he comprobado que predomina la denominación de Sierra de Toloño, sobre todo en la vertiente de la Rioja Alavesa. He de anotar que algunos la conocen como Cantabria, seguramente por la insistencia actual, sobre todo impresa, en nombrarla de esta forma.

En 1974, hice un sondeo de la toponimia de Cripán, pueblo sito al pie de la sierra en la parte oriental de la Rioja Alavesa. En el pueblo me aconsejaron como informador a un señor de 92 años que se apellidaba Marañón que comprabe se encontraba en pleno uso de sus facultades. Después de recoger la toponimia menor, le pregunté por el nombre general de la sierra. Sin ninguna duda me respondió Sierra de Toloño. Yo insistí si no había oído hablar de Cantabria y después de pensar un rato me dijo que en Cripán no, que en Logroño es donde estaba Cantabria.

En Bernedo no he encontrado tan clara la respuesta, pero Vitoriano Martínez de Bujo, natural de Bernedo y de 77 años en la actualidad, me dijo que se le ha llamado Sierra de Toloño.

En general no suele ser fácil encontrar topónimos de zonas tan extensas, debido a que la gente está acostumbrada a usar los topónimos

más localizados y a lo más utiliza el nombre de alguna parzoneria o comunería. Esto sucede en la sierra que forman los montes de Vitoria, Iturrieta y Entzia. Son tres instituciones distintas en la misma sierra pero nadie la conoce con un nombre propio al conjunto. Esta es una cuestión que surge y preocupa actualmente a geógrafos, maestros o montañeros.

En nuestro caso parece que hay una tradición popular de llamar a todas las partes de esta sierra, Toloño. Dejando las partes que corresponden a Labastida, Peñacerrada y Berganzo, que nadie lo pone en duda, voy a reducirme a los testimonios de esta tradición en Laguardia (sur de la sierra) y Bernedo (norte) su parte oriental:

— “El libro de Laguardia” obra escrita en 1874 por Miguel Martínez Ballesteros, hijo de dicha villa y reeditada en 1982 por el Servicio de Publicaciones de la Diputación Foral de Alava, en su

Pág. 45:

“El camino más practicable era el que, partiendo de Viana, pasaba por Assa y conducía a San Mederi, solar fundado por D. Fortun Garcés. Hacia este sitio se dirigía el Rey de Navarra D. Sancho Abarca; y como para llegar al término de su viaje tenía que faldear el monte en que se encontraban las citadas ruinas, tuvo curiosidad de examinarlas: trepando a la cima, contempló admirado aquella magnífica posición, desde la cual descubría su mirada cuantos valles y llanuras ocupan todo el espacio intermedio desde la Sonsierra o Sierra de Toloño hasta la cordillera del pico de San Lorenzo...”

Pág. 206:

“No deja de causar cierta extrañeza que la Sosierra, aquella fértil ribera oriental del Ebro, abrigada por la altísima cordillera de Tolonio que D. Iñigo Arista coronó e hizo casi inaccesible con los castillos de Población, Toro, Herrera, Tolonio y Buradón...”

Pág. 262:

“...al poniente y que muy de antiguo se llamó la Sierra de Tolonio, el corto espacio que media entre dicha Sierra y el río Ebro, que es lo que más tarde se dice la Sosierra y hoy rioja alavesa...”.

— “Novena a Ntra. Sra. de Ocón”, folleto editado en 1931 por la imprenta del Montepío Diocesano de Vitoria:

Pág. 3:

“A la falda que mira al Norte de la Sierra de Toloño y a un kilómetro próximamente de la villa de Bernedo, en esta provincia de Alava se alza una graciosa Ermita dedicada a la Madre de Dios, bajo la advocación de la Virgen de Ocón...”.

— Diccionario Geográfico-Histórico. Año 1802:

Pág. 15:

“...de esta gran mole y almacón nacen varias ramificaciones, montes y sierras subalternas con distintos nombres y direcciones: las más señaladas son las que prolongándose de e. á o. atraviesan la provincia: una por el centro y otra por su banda meridional, a la qua llamáron algunos Cantabria: este nombre no conviene propiamente sino a un cerro bastante extendido y mas largo que ancho, de superficie plana y faldas en parte sembradas y parte baldías de la otra banda de Ebro, enfrente y a muy corta distancia de Logroño.”

Documentación

— Ayuntamiento de Yécora

Signatura: Caja 161.N.II

“Documentación sobre el pleito de la Hermandad de Laguardia con esta villa de Yécora por el monte de Toloño.”

Fecha: 16 de febrero de 1899.

— Diputación

Archivo Provincial: Signatura D. 785-44.

“El alcalde del Ayuntamiento de Yécora solicita permiso para concertar con Francisco Arguijo, vecino del mismo, un empréstito de mil doscientas cincuenta pesetas, a fin de destinarlo a satisfacer a los abogados defensores y procuradores que intervinieron en el pleito, que dicha villa tuvo contra Laguardia, sobre derechos del monte común llamado Sierra de Toloño.”

Fecha: 20 de agosto de 1893.

Signatura D. 1884-4.

“El juez de primera instancia de Laguardia solicita, a la Diputación de Alava, información acerca de si el monte denominado «Sierra de Toloño» o «Antigua Hermandad» es propiedad de la Diputación o, por el contrario, pertenece en comunidad a las villas de la Rioja Alavesa.”

Fecha: 20 de octubre de 1929.

Signatura D. 3843-33

“Agustín Fernández y Cortés, vecino de Laguardia, solicita malezas de leñas del monte de la Antigua Hermandad de Laguardia, denominado Sierra de Toloño, para alimentar un horno de cal.”

Fecha: 18 de octubre de 1912.

Signatura D. 1917-5.

“El Ayuntamiento de Villabuena solicita que prohíban las cortas en el monte de Toloño, común a los pueblos de la Antigua Hermandad de Laguardia, y se proceda a la formación de unas ordenanzas que regulen los aprovechamientos.”

Fecha: 22 de noviembre de 1896.

— Ayuntamiento de Maestu:

Archivo: Caja 236 N.º 17.

“Documentación varia referente a la realización de obras en Apellániz: construcción de un trozo de carretera desde Maestu a la Sierra de Toloño, por Bernedo;...”

Fecha: 19 de enero de 1871.

Da la impresión que el nombre de Cantabria se le ha impuesto a esta sierra gente lejana y como consecuencia de la ignorancia de su nombre usual. De este modo le acomodaron el nombre propio de la ciudad cercana de Cantabria ya destruida porque sería más conocida y con más nombre. Algo parecido ha sucedido con los puertos de Herrera y Zaldiarán que eran los nombres de dos castillos famosos en otros tiempos y hoy nadie sabe de ellos.

Bernedo, 24 de julio de 1989

LA QUESTION DU PRÉFIXE NOMINO-PARTICIPIAL M- EN KARTVELE ET EN BASQUE

Michel Morvan

Lors de son intervention au II^e Congrès Mondial Basque de San Sebastián en septembre 1987, le chercheur polonais Jan Braun, partisan de la parenté euskaro-caucasique, a voulu argumenter à nouveau en faveur de l'existence parallèle d'un préfixe nomino-participial *m-* (ou *mV-*) en kartvèle et en basque¹, c'est-à-dire développer un point de comparaison que K. Bouda avait déjà soulevé dans: "les préfixes nasaux basques"².

Jan Braun s'appuie également sur les travaux de Luis Michelena, et notamment sur ce qu'il a écrit au sujet du préfixe naso-labial en question³. Jan Braun a été plus particulièrement frappé par cette phrase qu'il reproduit dans sa communication: "No se puede poner en duda... la realidad de un prefijo nominal *m/a/-...*"⁴.

Les exemples donnés par l'auteur polonais sont des substantifs et adjectifs dérivés de formes dites participiales. Le préfixe *ma-* pétrifié supposé par Bouda y figurerait:

a) bsq. *maze* (**ma-ze*) "cedazo" (littéralement "que cierge"). Compare el verbo *e-ra-zi* "tamizar".

b) *makar* (**ma-kar*) "delgaducho". Compare la raíz verbal del viejo georgiano *√kēl*, *kl* "faltar, carecer" y creadas de ella formas nominales *mo-kl-e* "corto" y *m-kel-ob-el-i* "cojo".

c) *makatz* (**ma-katz*) "árbol frutal bravío, piruétano, peral silvestre; dalle, guadaña; regoldo, castaño borde o silvestre; mella "y *lakatz* (< **la-*

1) Jan Braun, "Nomina verbalia en las lenguas kartvélicas y en el vasco", *Actes du Congrès*, Tome I, Vitoria / Gasteiz, 1988, pp. 229-232.

2) K. Bouda, "Les préfixes nasaux basques", *Eusko Jakintza*, III, 1949, pp. 133-136.

3) L. Michelena, *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián, 1961, pp. 271-273.

4) J. Braun, *op. cit.*, p. 232, note 7.

katz) “ramas de arbusto; erizo de castaña; nudo de rama”. Compare la palabra del viejo georgiano *m-kac-r-i* “severo” (* < *agudo*) y presentado arriba el empleo paralelo de los prefijos *ma-* y *la-* en el participio del svano.

d) *mardo* (< **ma-rdo*) “robusto”. Compare el viejo georgiano *ma-ržwe* “gallardo, bravo”.

e) *makur* (< **ma-kur*) “inclinado”. Compare el verbo *kur-tu* “agachar”.

f) *matxar* (< **ma-txar*) “hueco”. Compare la raíz verbal del viejo georgiano $\sqrt{c\bar{a}l}$ “no estar ocupado” y la forma nominal derivada de esta raíz *mo-cal-e* “hueco”.

Le préfixe nomino-participial kartvèle *m-* +*V*, qui soit dit en passant ressemble fort à celui du sémitique (cf. *ktb* “écrire”, *mektub* “c’est écrit”, *maktab* “bureau”, etc.), voire à celui que l’on peut trouver en albanais, existe-t-il ou a-t-il réellement son exact reflet en basque? L’hypothèse de Braun repose sur celle de Bouda, que l’on a pourtant pour habitude (excessive d’ailleurs) de critiquer lorsqu’il s’agit de comparatisme (!), et sur un passage important de l’ouvrage non moins important de Michelena sur la phonétique basque.

L. Michelena, en effet, y traite du préfixe *m-* en basque et démontre la réalité d’un tel préfixe. Mais J. Braun ne semble pas, en l’occurrence, avoir lu Michelena jusqu’au bout, ce qui est regrettable. Le grand bascologue, s’il posait effectivement l’existence d’un préfixe nasal basque *m-* ajoutait aussitôt que ce préfixe ne saurait posséder une valeur fonctionnelle et représentait très vraisemblablement un de ces phonèmes initiaux labiles de l’euskara, de nature probablement expressive.

Voici, en substance, ce qu’écrit Michelena:

“No se puede poner en duda, por el contrario, la realidad de un prefijo nominal *m(a)-* que parece haberse mantenido productivo hasta tiempos recientes lo que no deja de ser una particularidad extraña en una lengua sufijante. Véanse entre otros: *mak(h)ur* ‘inclinado, arqueado, torcido’, part. *mak(h)urtu* (‘declinare’ en Leiç.): Leiç. etc. *gur* ‘flectere’, part. *gurthu*, a. nav. *kurtu* ‘agachado’ (Araq. *burua kur* ‘cabizbajo’), cf. *uzkur* ‘agachado, agobiado, acurrucado’ (con *uzki* ‘trasero’ como primer elemento?); ronc. *magal* ‘ala’: com. (*h*)*egal* id.; guip. *makatz* ‘mella’, *makets* ‘cosa deforme, defectuosa’: guip., vizc. *akats* ‘tajo, mella, cacho’, b. nav. lab. *molk(h)o* (sul. *molkho*), *mulk(h)o* (ya Leiç.) ‘racimo’ (cf. b. nav. lab. *golkho* id., y acaso vasc.-esp. *malko* ‘lágrima’): ronc. *alko* (*adal-ko*), *anko* ‘racimo’, aezc. a. nav. sal. *oko* (guip. *luku*); a. nav. guip. *mospel* ‘umbria, sabañón’ de donde probablemente, por disimilación, a. nav. *nospel* id., a. nav. guip. vizc. *ospel* ‘umbria, sabañón’, b. nav. lab. *uspel*

'cardenal'; a. nav. guip. lab. *malkor* '(tierra) estéril': guip. lab. vizc. *elk(h)or* id.

Lo que en la formación de palabras confiere a este prefijo un carácter *sui generis* es que carece en apariencia de valor preciso: "derivado" y forma de base conviven en distintas zonas exactamente con el mismo valor o en la misma con sentidos muy próximos entre sí. También acentúa su carácter de pseudo-prefijo la frecuencia con que una sibilante infijada entra en voces que empiezan por *m-*: com. *mok(h)o* 'pico', b. nav. sul. *mosko* id., vizc. *mokor* 'tronco de árbol' (para otros valores vid. aquí mismo, más abajo), a. nav. guip. vizc. *moskor* id. (y 'borracho', ronc. *ordi mokor* 'totalmente borracho'); com. *mut(h)ur* 'morro, punta', vizc. *mustur* id. Cf. a. nav. *akal* '(castaña) huera', vizc. *mokol* 'cáscara, cosa floja, sin consistencia', vizc. *oskol* 'cáscara (castaña) huera', a. nav. *koskol* 'erizo de castaña'. Obsérvense también las variaciones en el timbre de las vocales (*alko*, *molko*, *mulko*, etc.), que se repiten muy poco fuera de esta clase de formaciones, la alternancia anteconsonántica *-l-* (*-n-*)/cero, y la misma falta de sonorización en grupos como *-lk-*.

Los prefijos nasales, como las sibilantes prefijadas, han sido estudiados por K. Bouda, pero su estudio ofrece mayor interés por los materiales reunidos que por la interpretación. Aunque ésta no va expresa, se diría que Bouda tiene estos prefijos (*m(a)-*, *n-*, (*t*)*x-*, etc.) por elementos formativos antiguos y normales, susceptibles de ser comparados por ejemplo con *m-* en las lenguas kartvélicas o, para el caso, semíticas. A nuestro entender, se trata por el contrario de procedimientos expresivos de fecha en conjunto bastante reciente que, a consecuencia de la inseguridad inherente a la posición inicial, han aprovechado la posibilidad de llenar el "vacío inicial" en palabras que empiezan por vocal o de modificar la consonante inicial de una palabra.

Vemos así a *m-* alternar con cero o con una sibilante: cf. con (*m*)*ospel*, *akal/mokol*, etc., arriba, a. nav. Lesaca *suspel* 'umbría', b. nav. *sokal* 'erizo de castaña', cf. también a. nav. guip. vizc. *soki(l)*, *sokor* 'terrón' con vizc. *mokil*, a. nav. b. nav. lab. sul. *mok(h)or* id. y acaso guip. *okor* 'rebanada'. Estas formaciones no dejan de tener semejanza con las reduplicadas, claramente expresivas, cuyo segundo miembro va precedido por *m* o ha cambiado en *m* su consonante inicial: lab. *ha(u)ndimandiak* 'señorones', cf. *ha(u)ndi* 'grande', Araq. *ezurmaxurrak* "pedacillos de carne y huesecillos para guisarlos y comer luego", cf. *ezur* 'hueso', a. nav., b. nav. guip. vizc. *itsumutsuka*, *itsumustuan* 'a tientas', 'de sopetón', cf. *itsu* 'ciego',...

L. Michelena discute ensuite le concept d'expressivité et son caractère difficilement définissable, introduit des références à A. Martinet, H. Vogt, etc. et signale la rareté de *m-* initial en basque dans les noms

de nombres, de parenté, de parties du corps. Au contraire on le rencontre souvent dans les noms de poissons, d'oiseaux marins, de plantes et animaux terrestres généralement de petite taille (*musker* "lézard", sul. *süsker*, etc.) et les adjectifs indiquant des défauts, vizc. ant. *maker* "contrefait", a. nav. 'desabrido, gruñón' (cf. a. nav. *moker* 'duro', a. nav. guip. vizc. *muker* 'terco, esquivo' Pouv. 'soberbio', vizc. *mekel* 'débile', cf. *makal* 'débile, enfermo', *memel* 'insignifiante'; guip. vizc. *mirrin* 'endeble, raquítico', com. *mot(h)el* 'apagado, flojo, poco vivo'... etc.⁵

Une lecture complète du passage de Michelena apporte donc, à l'inverse de ce qu'en a déduit trop hâtivement J. Braun me semble-t-il, un solide démenti quant à la valeur fonctionnelle et même grammaticale d'une prétendue préformante nomino-participiale *m(V)*- en basque, qui n'a sans doute jamais existé dans cette langue.

5) Michelena, *op. cit.*, pp. 275-276.

EUSKARAZ POTENTZIALITATEA ADIERAZTEKO BI BIDEEN ARTEKO ERABILERARI BURUZKO AZTERKETA KONPARATIBOA

Julio Garcia Garcia de los Salmenes

SARRERA

Lan honetaz saiatu dena ez da izan, ez eta gutxiago ere, euskaraz potentzialitatea adierazteko maizen erabiltzen diren bi bideen (*ahal/ezin+izan/ukan* aditz-perifrasia eta ahalezko konjugazioa) erabilera zuzenerako arauak aurkitzea, gaur egun berorien artean bereizketa semantikorik egiten ez delako erizpidetik abiatuta, euskara idatzian baiezkoko kasuak eta ezezkoak bereiztu eta bide bakoitzaren agerpen-maiztasunean oinarrituta ikerketa kuantitatiboa egitea baizik.

Ikerketa kuantitatibo honek, ahalezko bi bide horien erabilerari dagokionez daudekeen joerak ezaguteraziko dizkigu, baina ez berorien zioak.

Datuak jasotzean, ez da adizkiek elkarren artean aurkez dezaketen zenbait alde morfologiko hartu kontutan, hau da, ez dira bereiztu *egin ahal du / egiten ahal du* edo *egin ahal du / egin ahal izango du / egin ahal izanen du*, *joan ahal da / joan ahal du* alternantziak edo *egin dezake / egin ahal dezake*, *ikus dezake / ikusi dezake*, edo ez da (...) *ahal / ezin da (...) / ezin (...) da* edo *ezin dezake (...) / ezin (...) dezake / ez dezake (...)*, egin den bereizketa bakarra +*ahal* (*ahal izan/ukan*) / -*ahal* (*ahalezko konjugazioa*) izan delarik.

GINARRI BIBLIOGRAFIKOA ETA FROKAK

Sarreran adierazi denez, azterketa konparatibo hau gauzatzetakoan, ahalezko bi bide horien arteko alde semantikorik ez dago edo behintzat agian aintzinean egon arren gaur egun bi bide horiei dagozkien adizkiak baliokide modura erabiltzen direlakotik abiatu gara.

Berori egiaztatzeko, bi modutara ihardun dugu: alde batetik, gai honetazko bibliografiaren berrikustapena eaginez, eta beste aldetik, maila pragmatikoko azterketa gauzatzuz; kasu horretan, idazle batzuren esanetan egiten zen bereizketa semantikoan oinarrituz, bi froga-mota egin dugu: lehenik, hustutako testuetatik ateratako perpausak aztertuz, eta bigarrenik, bereizketa horren arauera bide bakoitzaren erabilerari legozkikeen esaldiez osoturiko enkesta eaginez.

1. BIBLIOGRAFI BERRIKUSTAPENA

Gai honi dagokiolarik erabili dugun euskal bibliografian, nolabait esatearren, bi talde bereiztu dugu: alde batetik, potentzialitatea adierazteko bi bide horien

arteko bereizketa semantikoa aipatu ez dutenak, eta beste aldetik, aipatu dutenak. Azken hauetaz hasiko gara.

1.1. Bereizketa aipatu duten autoreak

Euskal bibliografiaren barruan, bereizketa semantiko hori aipatu zuen lehenengo autorea, eskuhar ditugun lanen artean bederen, SEBERO ALTUBE (1929) izan zen, geroago berorrek esandakoan oinarrituta nonbait, beste autore batzuk aipatu dutelarik: *Algunos autores vascos (...) no distinguen la diferencia semántica que presentan las locuciones expuestas (ezin etorri **naiz/naiteke**), así como todas aquellas que pueden ser agrupadas en euskera bajo las denominaciones de:*

*Potencial presente.... Etorri al **naiz**...
Ezin etorri **naiz**...*

*Id. Futuro presente... Etorri **naiteke**...
Ezin etorri **naiteke**...*

Sin embargo, el pueblo no contaminado del habla cervantina, nunca llega a confundir ambas categorías de flexiones verbales; he aquí, expuesto brevemente, en qué consiste la diferencia.

Potencial presente. *Se usa cuando el acto **está en función**, es decir, cuando la potencialidad está ya puesta a prueba (...).*

Ezin ibili naiz (Cuando se está caminando y no se puede continuar.) (...).

Potencial. Futuro presente. *Se emplea cuando el acto a que se refiere el nombre verbal debe ser realizado **después del momento en que se habla**, aunque la potencialidad del sujeto sea considerada actual en dicho momento.*

Eraman daiket = Puedo llevar (Aunque no estoy llevando).

Autore beronek (1934), Azkuek *Morfología Vasca* delakoan gai honetaz idatzia zuenari zegokiolarik, ondoko hau gaineratu zuen: (...) *las locuciones euskéricas de “Futuro Presente” pueden revertirse a otras castellanas formadas por flexiones de “Subjuntivo”.*

En cambio las potenciales de “Presente” se expresan con más exactitud por fórmulas castellanas “Gerundiales”. Véanse:

Presente

Futuro Presente

= Ezin ibili naiz.	/ = Ezin ibili naiteke.
= Estoy no pudiendo andar.	/ = Es imposible que pueda yo andar.
= Ezin lorik egiten det	/ = Ezin lorik egin daiket (o dezaket).
= Estoy no pudiendo dormir	/ = Es imposible que pueda (yo) dormir.
= Al dedan guztia.	/ = Al daikedan (o dezakedan) guztia.
= Todo lo que puedo (todo lo que estoy pudiendo).	/ = Todo lo que pueda.

Pujanak (1979), seguraski Altubek gauzatutako bereizketa horretan, “*impossibilitas phisica*” eta “*possibilitas phisica*” kontzeptuak sartu zituen ahalezko bide bakoitzaren erabilera-esparrua finkatzekotan: *Ezin ikusi du esatea, ordea askoz ere gehiago da, ezin dezake ikusi baino. Ikusmenik eza edo “impossibilitas phisica” delakoa erakusten du eta. Baina, ikusmena edukiz gero, beste arrazoi batetatik zerbait ezin ikus badadi, ezin dezake ikusi edo ezin daiteke ikusi esan behar da (...). Hau dela eta, hemen ezin dugu hitzik egin, ezingo du gezurrik esan eta horrelako esakuntzek euskaldun-erdaldun baten “belarri” min eta min egiten dute. Hitz egiteko edo gezurra esateko ahalmena edo “possibilitas Phisica” delakoa badu izan, eta beste zerbaitetatik da hitzik ezin egite hori edo gezurrik ezin esate hori.*

Geroztik, Pujanak, artikulu honetan, etorkizunean jazotzeko gertaerarekiko potentzialitatea adierazten duten perpausen gauzapenari dagokiolarik, *Ezingo gara Bilbora joan edo Bihar ezingo dugu hitzik atera* gisako perpausen jatoriasuna zalantzan jarri du, beraren eritiz etorkizuneko potentzialitatea, hurbilaren eta urrunaren arteko bereizketarik gabe, ahalezko konjugazioaz adierazi behar delarik.

Villasantek (1980) ere, aipatu du bereizketa semantiko hori, baina aurreko bi autore horiek ez bezala, bereizketa horren erabileraren hedapen geografikoa murriztu du: *No en todas las zonas del país es uniforme la manera de construir y emplear estas oraciones formadas a base ahal y ezin+auxiliar, como tampoco parece ser el mismo su campo de empleo y el matiz de significación que se les atribuye.* Aurrerago, autore honek, ALTUBEk egindako bereizketari dagokiolarik, bi motatako ahalatasunak eta ezintasunak bereiztu ditu: *Absoluta eta Relativa, ...las flexiones de la conjugación potencial expresarían una posibilidad o imposibilidad más abstracta o intemporal¹. Dicho en otros términos, con ahal y ezin + auxiliar se expresaría una posibilidad e imposibilidad relativa: con la conjugación potencial una posibilidad e imposibilidad absoluta.*

Talde honen barruan, eta beti erabili dugun bibliografiari gagozkiorarik, ahalezko bi bide horietariko bakoitzari dagokion erabilera-esparrua finkatzeko arauen gainean Altubek esandakoarekiko zenbait alde adierazi duten bi idazle aipa daitezke: Omaechevarria (1959) eta Goikoetxea (1988).

Lehenengoaren ustez, Altubek egindako bereizketa semantiko hori benetakoa izanik ere, berorren oinarria, okerra da, ahalezko bi bideen arteko aldea ez baitatza denbora-bereizketan: *Por nuestra parte podemos decir en primer lugar que no se trata de una diferencia temporal (presente y futuro), puesto que contradicen esta suposición los ejemplos aducidos por el propio Altube. (...). Digase, pues, más bien que las flexiones de modo real significan una potencialidad o una condición de carácter categórico* (Goraxeago esan denez, Villasanteren esanetan potentzialitate-mota hau ahalezko konjugazioaz adierazi behar da); *mientras que las del potencial o volitivo añaden cierto matiz de eventualidad o contingencia, por lo cual son*

(1) Aurreko bi autoreek, potentzialitatea denbora-erreferentziaren gunean egiaztatu deneko kasuak eta potentzialitate hori gune horretaz geroztik jazotzeko den gertaerari dagokioneko kasuak aipatu dituzte soilik, eta ez dituzte kontutan hartu “orokor” deritzekegun ahaltasun eta ezintasunak, hau da, erreferentzia denboralaren gunetik at gertatzen direnak.

*también en general de carácter **perficiendo**, aunque no todas las perficiendo sean potenciales o volitivas.*

Goikoetxeak, funtsean, ez du orain arte adierazitakoez bestelako bereizketa-erizpiderik ekarri, ahalezko bide bakoitzaren esparru semantikoa finkatzeko erabili dituen “arauak” Altubek eta Omaechevarriak aipatu baitituzte, termino berriak asmatu baizik egin ez duelarik:

in actu- *Mendira joaten ahal naiz (joan ahal naiz):* objetivatzen ari den ekhinta da, hau da: *nik mendira joateko ahalmena dut eta joaiten ari naiz.*

in potentia- *Mendira joan naiteke, hau da: ni mendira joaitea (joan nadin) possiblea da.* Possibilitate bat da.

Soma daitekeenez, **in actu** deritzon “egoera”. Altubek *potencial presente* izena eman dionari legokioke; **in potentia** “egoera”, berriz, Omaechevarriaren eritziz nolabaiteko ebentualitate- edo kontingentzia-ñabardura dutenen artean legoke.

Autore horietaz gain, bereizketa semantiko hori aipatu duen idazle gehiago aurkitu dugu gure bibliografian, hala nola, Umandi (1955), Salaburu² (1981), Aranburu eta beste (1982), eta Txillardegi (1979); baina azken hauek, ez dute auzi honetazko ekarpenik eskaini, Altubek egindako bereizketa aipatu baizik ez baitute egin.

Orain arte potentzialitatea adierazteko bi modu horietaz esandakoa haintza-kotzat hartuko bagenu, autoreen arteko ez-adostasuna dela eta, ez genitzake ezar gaur egun bereizketa hori egiten denentz aztertzen lagunduko liguketen premisak, gorago ikusi denez bat onartzeak besteak baztertzea ekarriko bailuke. Beraz, eta norbaitek oso ortodoxoa ez dela eritzi arren, erkatze edota aztertze puntu modura aldeztaille-kopururik altuena duen bereizketa semantikoa oinarrituta dagoeneko ezaugarriak ipintzera jo dugu, kasu honetan ezaugarri horiek hain zuzen ere Altubek egindako bereizketari dagozkiolarik. Berorren arauera, bide bakoitzari esleia dakizkiokeen ezaugarriak, hauexek dira:

Ahal/ezin + aditz-laguntzailea

a) Denbora-erreferentziaren gunean kokatua

Mintzo deneko momentuan burutzen ari den ekintzarekiko potentzialitatea.

b) Fisikoa

Ekintza burutzeko gaitasun edo ez-gaitasun fisikoa.

Ahalezko konjugazioa

Potentzialitatea.

(2) Geroago ikusiko dugunez, Salaburuk, *Euskara hobean hobe* izeneko liburuan (1984), ahalezko bi bide horiei dagokiolarik, ez du bereizketa semantikorik aipatu.

a) **Orokorrak edo inteporalak**

Denbora-erreferentziaren gunea den mintzo-momentutik at gertatzen den potentzialitatea.

b) **Ez-fisikoa**

Ekintza fisikoa adieraz badaiteke ere, benetako potentzialitatea fisikoa ez deneko kasuan.

c) **Etorkizuneko potentzialitatea**

Mintzo-momentutik aurrera gertatzeko ekintzarekiko potentzialitatea.

Esan beharrekoa da aditz-perifrasiaren erabilera bi ezaugarri horiek halabarrez betetzea daramala eta ahalezko konjugazioak, aldiz, soilik bat betetzea behar duela.

1.2. **Bereizketarik aipatu ez duten autoreak**

Bereizketarik aipatu ez deneko bibliografian, bi talde beha daitezke: alde batetik, inolako xehetasunik egin gabe ahalezko bi bide horiek baliokidetzat jo duten autoreek osotua, eta beste aldetik, itxuraz arrazoi semantikorik gabe **ahal/ezin** + **izan/ukan** perifrasiaren erabilera murriztu egin dutenek osotua.

Lehenengo taldearen barruan, hurrengo autore hauek aipa daitezke: Urri-barrenek eta bestek (1986), *Euskararako hiztegia* delakoan, **ahal ukan** sarrera, honelaxe definitu dute: *Beste aditz baten ondoan joaten da, honek aipatzen dena gertatzeko nahiz egiteko eragozpenik ez dagoela adierazten du: Froga ahal daitekeen, ekartzen ahal du (= ekar (ahal) dezake)...* Beraz, jarritako adibidearen arauera, bata edo bestea erabiltzea, aukerakoa da.

Salaburuk eta Kintanak (1984), “joan ahal dut/joan ahal naiz” delako auziaz ari direlarik, ahalezko bi bide hauek elkarren baliokideak direla eman dute aditzera: *Ahal eta ezin aditzen erabilera klasikoa potentzialezko adizkieraz ere adierazten da: etorri ahal naiz = etorri naiteke, ezin naiz joan = ezin joan naiteke.*

Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordeak (1987), bereizketa semantikorik ez aipatzeaz gain, **ahal/ezin** + **izan/ukan** perifrasiak ahalezko konjugazioaren aldean duen emankortasunari buruz hitz egin du, lehenengoaz aditz-aldi eta aspektu-kasu guztiak adieraz baitaitezke (behintzat zenbait hizkeratan) eta bestiaz, berriz, soilik orain-aldia iraganaldia eta geroaldia: *Ahal adierazteko, besteak beste, bi baliabide nagusi ditugu euskaraz: bata, daiteke/dezake edo diro/da(g)ike eta abar bezalako ahalezko adizkiez osatutako baliabidea eta bestea, berriz, ahal izan/ukan, *edin/*ezan perifrasi formez osaturikoa. Lehenengoak, ahalezko adizkiez osaturikoak (...) modu bakarra —ahalezkoa— eta hiru denbora —orainaldia, iraganaldia, eta geroaldia— adieraz daiteke soilik, ekintza edo egoera aspekturik ez baitizake adieraz inoiz ere. Alde horretatik oso urria eta murrizta dugu, baliabide hori. Horren eskasia bigarren baliabide betetzen du. (...). Bigarren baliabidea, perifrasi multzoaren bidezkoa, askoz ere aberatsagoa eta zabalagoa da. Lehen baliabideaz ezin adieraz daitezkeen modu denboretarako ahal izatea eta horretarako ekintza egoeren*

aspektua ere —aspekturik dutenean, noski— bigarren baliabide honetaz eman daiteke aditzera.

Ithurryk (1920) ere, aipatu ditu bereizketarik egin gabe euskaraz potentzialitatea adierazteko bi bideok: *Pouvoir significant la possibilité et suivi d'un infinitif s'exprime en Basque.*

- 1.^o *Par le mot **Ahal** combine avec une verbe periphrastique (Ahal se place toujours après l'infinitif **ikusi ahal izan dut** = j'ai pu le voir, **ez dut ikusi ahal izan** = je n'ai pas pu le voir)³.*
- 2.^o *Par le Potentiel du verbe Ex: **ez dezakegu mintza**- vous ne pouvez pas le parler.*

Autore honek, geroago, bi bide hauek batera erabiltzeaz, hauxe esan du: *Souvent les auteurs placent le mot **ahal** devant le potentiel du verbe, ce qui est une pleonésie. Ex **Ikas ahal dezakegu** (...), nous pouvons l'apprendre, **sinhets ahal dezakezu** (...), vous (s) pouvez le coire; mieux voudrait dite simplement; **ikas dezakegu, sinhets dezakegu.***

Laffite (1979), aurreko autoreok bezala bereizketa semantikorik egin ez delarik (nota: *Au lieu de **ez daiteke ikus**, on dirait aussi **ez da ikusten ahal**, au lieu de **ez dezake adi, ez dute aditzen ahal...**) badator bat Ithurryrekin bi modu hauek adizki berean erabiltzeak pleonasmoa sortera dezakeelakoan: *Eviter les pléonèmes comme **egin ahal dezakegu**, nous pouvons le faire: **egin dezakegu.****

Aipatzekoa da Lafittek, gorago esana denez bereizketa semantikorik egin ez duen arren potentzialitatea adierazteko bi bideak elkarretik bereizten dituzten ezaugarietariko baten kontra doan xehetasuna eman duela: *Les auxiliaires **daiteke** eta **dezake** expriment le pouvoir physique:*

*Itsu denean, ez daiteke ikus.
Gorrek ez dezakete adi.*

Arotçarenak (1951), potentzialaz adieraz daitekeenaz ari delarik, antzeko xehetasun hori egin du: *Le potentiel exprime: dans la conjugaison périphrastique la possibilité physique (sux dadi eta deza).*

Gorago ikusia denez, Pujanaren eritziz, potentzialitate fisikoa (*possibilitas phisica* eta *impossibilitas phisica*), hain zuzen ere, beste bidez adierazi behar da: *Ahal/ezin+izan/ukan perifrasiaraz.*

Azkuek (1923), aurrekoek ez bezala, aipatu zuen bereizketa, baina, beste autore batzuk eginda bera ados ez zegoen baieztapen modura: *Hay dos maneras de indicar lo potencial: la una muy sencilla, en el verbo infinitivo, la otra un verdadero marmagnum, en la conjugación. Muchas veces se simultanean las dos potencialidades. Decimos, por ejemplo, **etorri al naiteke** “se puede venir”, bastando para ello con **etorri al naiz** —potencial de infinitivo— o con **etorri naiteke**, que lo es de conjugación. Tal vez con el tiempo esta suma de potencialidades haya dado más*

(3) Kointzidentzia hutsa da nonbait, baina *ahal izan* perifrasiar ageri deneko Ithurrik aipatutako bi adibide horietan, ekintza bukatua emana da aditzera.

vigor a la expresión; hoy no pasa de ser una redundancia. (...) la misma fuerza tienen **ezin etorri naiz** “no puedo venir” que **ezin etorri naiteke**, **ezin etorri al naiz** y **ezin etorri al naiteke**. Azken honi dagokiolarik, orrialdearen bukaeran, ondoko ohar hau ageri da: *Mis compañeros notan alguna diferencia que yo no percibo*.

Azkenik, Villasantek (1980) egindako Mitxelenaren aipu bat adieraziko digu, berorretan Mitxelenak Altuberen esanetan herriak egiten duen bereizketa semantiko horren aintzintasuna zalantzan jarri duelarik: *La distinción de Altube está lejos de ser general y en sus ejemplos apenas noto diferencia de valor que pueda hacerse en mi habla. Y si no estoy muy equivocado, tiene poco de antigua*.

Talde honetan, Lardizabal (1865) eta Añibarro (1970) ere, sartzekoak dira.

Gorago esana dugunez, bereizketarik ageri ez deneko bibliografiaren barruan, aipatu berri ditugun autore horietaz gain, badaude *ahal/ezin* + *izan/ukan* perifrasiaren erabilera murriztu egin duten beste batzu: kasu honetan, autore horietariko zenbait, idazle klasikoek idazkietan beha daitekeen erabilera-joerari dagokio.

Horrela, Campionek (1884), *ahal* partikularek erabilerari dagokiolarik, hau xe esan du: *Al-Ahal se une a las flexiones transitivas é intransitivas, comunicando á los modos y tiempos significación potencial (...). Como todos los dialectos poseen un modo potencial, no se usan correctamente ni deben usarse con el presente e imperfecto de indicativo. Sin embargo, bastantes localidades, por desgracia, han olvidado o dejado en desuso las flexiones genuinamente potenciales, y por ser el procedimiento al que me refiero sumamente sencillo y expeditivo, se oirá con alguna frecuencia **jan** ó **jaten al det** “yo lo puedo comer”, en vez de **jan dezaket** y **jan o jaten al nuen** “yo lo podía comer” en vez de **jan nezake**.*

Beronen antzeko xehetasuna, Lafonek (1980) egin du Schuchartek esandakoa adieraziz: *Schuchardt signale ensuite (p. 31) que, “auprès de **ahal**, **ezin** servent comme verbes auxiliaires non les imperfectifs **za** (izan) et **du** (ukan), mais **di** (edin) et le secon **za** (ezan), et cela avec les signes de futur **te** et **ke**. On ne dit pas **ioan ahal naiz**, mais **ioan ahal naiteke** “je peux aller” on ne dit pas **eman ahal dute** mais **eman ahal dezake** “je peux le dire”. Nous avons indiqué que cette règle ne s'applique pas au parfait*.

Geroztik, Lafonek berak, hau xe gaineratu du: *Il n'est pas étonnant que, dans nos textes **ahal** et **ezin** n'admettent avec eux, en dehors du parfait, que des auxiliaires exprimant un procès à terme. Au XVI siècle, les seules formes à auxiliaire qui expriment la possibilité, à l'exception de celles qui contiennent le suffixe de passé, sont des formes où figure un auxiliaire exprimant un procès à terme: types **sar daite**, **ikus deçaque**, **valia daquidic**, **erra diro**. Le type correspondant à **sar daite**, mais où l'auxiliaire exprime un procès sans terme, **sartzen date**, ne sert jamais dans nos textes à exprimer une possibilité, tandis que **sar daite** sans **ahal**, peut suffire à exprimer cette idée*.

Sarasolak, *Hauta-lanerako euskal Hiztegia* delakoan, idazle klasikoek idazkeretan beha daitekeen **ahal** partikularek erabilera murrizta aipatu du, eta bai gaur egungo erabilera ere: *Zan edo klas. Ezezekoak ez diren esaldietan, aditzaren*

erroa erabiltzea eskatzen duten laguntzaileez (hau da, ez indikatiboez)⁴, orainaldian nahiz lehenaldian: **entseia ahal daiteke, desira ahal dezake** (...). Badirudi idazle zahar eta klasikoeek ez dutela egoera burutuak adierazteko erabiltzen, mendeko zenbait esalditan ez bada. (...) Gaur egun, batez ere iparraldean, ahal-etzko forma guztiak eratzeko erabiltzen dira, indikatibozko adizkiez.

a) Era burugabeak, dagokion aditzak -T(Z)EN era hartzen duela eta laguntzailea indikatibozko eratan, orainaldian nahiz lehenaldian: **etortzen ahal da/etor (ahal) daiteke, ekartzen ahal du/ekar(ahal) dezake, aurkitzen (ahal) bada/ aurki badezake**. (...). Ezezko esaldietan, aurreko kasu guztietan, ez naiz **etortzen ahal: ezin etor naiteke, ez dut ekartzen ahal: ezin ekar dezaket** (...).

Larramendik (1729) **ahal** partikularen erabilera ari delarik, potentzialitatea batera zein bestera adierazi ahal izan arren, **Ahal** partikularen erabilera oso murrizta dela eman du aditzera: *Sirve principalmente, cuando las inflexiones del poder son condicionales, v.g. si yo puedo, si tú puedes leer: si yo pudiere, si tú pu-dieras venir. Digo principalmente, porque también tiene lugar en lo absoluto sus inflexiones, aunque cuando se afirma absolutamente el poder, hay otras conjugaciones especiales* (...). Geroago, hauxe gaineratu du: (...) *quando el determinable "al" significa poder, v. g. jaten al det, "yo puedo comer". En este sentido apenas esté en uso sino en subjuntivo, v.g. jan-aldezadan, jan-aldezazun* (...) ⁵. Fuera del determinable "al" "ahal", con que se hacen en vascuence las oraciones del verbo poder (), hay otros modos más frecuentes y varios cuyas conjugaciones unas son absolutas y otras relativas (ahalezko konjugazioaz ari da).

Harrietek (1791), eman duen "**ahal izate**" aditzaren paradigmán, bi bideak erabili ditu, **ahal** + **izan** perifrasiáz ahalezko konjugazioak dituen "aspektu-hutsuneak" betetzeko baliaturik; ondoan ikus daitekeenez:

LE VERBE *POUVOIR*, AHALIÇATEA

Indicatif Present

Nic dirot,	<i>je puis.</i>
hic diroc,	<i>tu puis.</i>
harc diro,	<i>il put.</i>
Guc dirogu,	<i>nous pouvons.</i>
çuc diroçu,	<i>vous pouvez.</i>

Gramatica

Çuc diroçue,	<i>vous pouvez.</i>
heïec dirote,	<i>ils peuvent.</i>

(4) Honetan, Lafonekin bat datorrelarik.

(5) Lardizabalek (1865), *ahal izan* perifrasiaren ohizko erabilera azko baieztapen berori egin du.

Preterit Imparfait

Nic niroïen,
 hic iroïen,
 harc ciroïen,
 Guc guïndiroïen,
 çuc ciädiroïen,
 çuec ciñiroten,
 heïec cïroten,

*je pouvois.
 tu pouvois.
 il pouvoit.
 nous pouvions.
 vous pouviez.
 vous pouviez.
 ils pouvoient*

Preterit Parfait

Nic ahal içandur,
 hic ahal iç induc,
 harc ahal içandu,
 Guc ahal içan dugu,
 çuc ahal içan duçu,
 çuec ahal içan duçue,
 heïec ahal içan dute,

*j'ay pû.
 tu as pû.
 il a pû.
 nous avons pû.
 vous avez pû.
 vous avez pû.
 ils ont pû.*

Autre Parfait

Nic ahal içana dut,
 hic ahal içana duc,
 harc ahal içana du,
 Guc ahal içana dugu,
 çuc ahal içana duçu,
 çuec ahal içana duçue,
 heïec ahal içana dute,

*je pûs.
 su pûs.
 il pût.
 vous pûmes.
 vous pûtes.
 vous pûtes.
 ils pûrent.*

Efcuaraz eta Francefez

Plus que Parfait

Nic ahal içan nuen,
 hic ahal içan uën,
 harc ahal içan çuen,
 Guc ahal içan guinduen,
 çuc ahal içan cinduen,
 çuec ahal içan cinduten,
 heïec ahal içan çuten,

*j'avais pû.
 tu avois pû.
 il avois pû.
 nous avions pû.
 vous aviez pû.
 vous aviez pû.
 ils avoient pû.*

Futur

Nic ahal içanen dut,
 hic ahal içanen duc,
 harc ahal içanen du,
 Guc ahal içanen dugu,
 çuc ahal içanen duçu,
 çuec ahal içanen duçuc,
 heïec ahal içanen dute,

*je pourray.
 tu pourras.
 il pourra.
 nous pourrons.
 vous pourrez.
 vous pourrez.
 ils pourront.*

Optatif

Nic ahal deçan,
 hic ahal deçaian,
 harc ahal deçan,
 Guc ahal deçagun,
 çuc ahal deçaçun,
 çuec ahal deçaçuen,
 heïec ahal deçaten,

*que je puiffe.
 que tu puiffes.
 qu'il puiffes.
 que nous puiffions.
 que vous puiffiez.
 que vous pussiez.
 qu'ils puiffent.*

Imperatif Conj. & Parfait Conj.

Nic ahal nuquziën,
 hic ahal uqueïën,

*j'aurois pû.
 tu aurois pû.*

Gramatica

Harc ahal çuqueïën,
 Guc ahal guindukeïën,
 çuc ahal cindukeïën,
 çuec ahal cinduketën,
 heïec ahal çuquetën,

*il aurois pû.
 nous aurios pû.
 vous auriez pû.
 vous auriez pû.
 ils auroient pû.*

Parfait Conj. & plus que Parfait

Nic ahal içanen nuen,
 hic ahal içanen uën,
 harc ahal içanen çuen,
 Guc ahal içanen guinduen,
 çuc ahal içanen cinduen,
 çuec ahal içanen cinduten,
 heïec ahal içanen çuten,

*j'euffe pû.
 tu euffes pû.
 il eût pû.
 nous euffions pû.
 vous euffiez pû.
 vous,
 ils euffent pû.*

Futur Incertain

Nic ahal niro,
 hic ahal iro,
 harc ahal liro,
 Guc ahal guindiro,
 çuc ahal cindiro,
 çuec ahal cindirote,
 heïec ahal dirote,

*je pourrais.
 tu pourrais.
 il pourrais.
 nous pourrions.
 vous pourriez.
 vous pourriez.
 ils pourroient.*

Bi autore-talde hauetaz gain (bereizketa aipatu dutenak eta egin ez dutenak, alegia), aipatzekoa da hirugarrena, euskaraz potentzialitatea adierazteko bidez mintzatzean **ahal/ezin** + **içan/ukan** perifrasi egiteko aukera aipatu ez dutenek osotua: Urte (1712), Lecluse (1826), Geze (1873), Eys (1879), Chacho (1936)...

Bibliografi berrikustapen honetatik ondoriozta daitekeenez, ahalezko bi bide hauen erabilera-esparruari dagokiolarik, ez dago adostasunik autore desberdinen artean.

Bereizketa semantikoari gagozkiolarik, oso nabaria da ez Altuberen aurretiko autoreek ez idazle klasikoek potentzialitatea adierazten zuteneko moduz ari izan direnek (behintzat gu baliatu gareneko bibliografian) aipatu ez dutela, eta bai berori bibliografian agertu deneko urrietan beti Altube aipatu dela ere.

Lan hau egiterakoan sortu zaizkigun zalantzetariko bat, ea Altube eta beste autore batzuren esanetan potentzialitatea adierazteko bi bide horien artean egiten zen bereizketa semantiko hori gaur egun gauzatzen ote den izan da. Zalantza horren arrazoia, oso erraza da: bereizketa semantikoa egingo balitz, bide hauek erabilera-esparru bedera izango lukete, eta beraz, ezin erka litezke elkarrekin.

Zalantza hori argitzeko helburuz, bi modutara ihardun dugu. Alde batetik, hustutako testuetan perifrasiak agertu deneko kasuek berari bereizketan esleitu zaizkion ezaugarriak bete ote dituzten aztertu dugu; eta beste aldetik, Altuberen eta Pujanaren testuetan ageri diren adibideetan oinarritutako gazteleharzko zenbait esaldiz osoturiko enkesta gauzatu da.

Lehenengo azterketari dagokiolarik, aditz-perifrasiak ageri deneko esaldi gehienak jaso eta aztertu dira. Beronetatik heldu gareneko ondorioa, hauxe da: zalantza kasuak egon arren, perifrasiako ezaugarriak, kasu batetan ere ez dira bete, potentzialitate orokorra edo intenporala, “posibilitate ez-fisikoa” eta, gutxiagotan, “etorkizuneko potentzialitatea” adierazteko erabili delarik. Berorretatik, oro har bereizketa egiten ez dela ondorioztatu da alde aurretik espero zitekeenaren arauera.

Neurri handian, oso logikoa da lortu den emaitza hau, erabili diren testuetan ez baitira agertzen —edota nekez ager daitezke— perifrasiari esleitutako ezaugarriak betetzeko baldintzak.

Hona hemen adibide batzu⁶:

1. Hala ere, bi aldeak ados jartzen badira euskaraz egin daiteke epaiketa, hau da, langileek eta beren abokatuek adierazpenak euskaraz egin ahal dituzte. (*Eguna* 89-2-9; 9or).
2. (...) eta barrualdetik bakarrik espermentatu ahal direnak bezala agertzea da. (*Eguna* 89-3-23; 21or).
3. Aipatzen dugun alorra fonetikoa izan daiteke, edo fonologikoa, lexikala etabar. Alor bakoitza azpi-alorretan banatzen ahal da arbolaren eskema hartuz. (*Euskera* 1986-2; XXXI; 426or).
4. Ohargarri da lau hitzek beste azpi-alor bat osatzen ahal dutela, baldin eta aintzinetik toki bat eman badiogu galdekizun lexikalaren antolaketan (*Euskera* 1986-2; XXXI; 427or).
5. Bestalde, alor erlazioari esker, homonimia-kasu gehienak ebakitzen ahal dira. (*Euskera* 1986-2; XXXI; 427or).

(6) Esaldi guztiak ipinteak luzeegi bihurtuko luke artikulua hau.

6. Erlazio hontan ez da ahanzi behar erantzun bat baino gehiago jasotzen ahal dela galdera bakoitzeko. 2, 3, 4erantzun bil daitezke eta hierarkia markatzen ahal da bakoitzari bere maila emanaz. (*Euskera* 1986-2; XXXI; 429or).
7. "Arkaismo" erromanismoa izaten ahal baita (*Euskera* 1986-2; XXXI; 431or).
8. Bestalde mapen sola edo euskariak, eman nahi baita, muga eta inkesta-puntuaren kokapena erakitzeko ez du arazo berezirik planteiatzen, jakinez puntuak behar den neurrian lekutzen ahal direla. (*Euskera* 1986-2; XXXI; 432or).
9. Horrela, borondate nazionala abstrakzio bilakatzen da, Estatuak bakarrik gihartzen ahal duena, eta ondorioz, estatuak bahitzen duena. (*Jakin* 51; 47or).
10. Hitzaren edo hitz-taldearen barruan, ze tokitan kokatzen den unitate azentugarria: toki batean beti bat delako edo arau batzuren bidez finkatu ahal dugulako (...) edo... (*Euskera* 88-1, XXXIII; 200or).
11. (...) baina ahozkatze desberdinegatik ez dira hain fidagarri eta oraingoz nahiago dut argi daudenaz eta agiriz frogatu ahal direnez baliatu (*Euskera* 88-1; XXXIII; 271or).
12. Denbora mugarik gabe joan da, hiru dolar eguneko gastatzen ahal dira. (*Hemen* 89-2-24; 16or).
13. Seigarren korrika honetan, (...) Aukeratutako kilometroa edo kilometroak subentzionatuz parte hartu ahal da (...). (*Hemen* 89-3-10; 22or).
14. Bibolinarekin urte asko daramazun arte ez dakizu zein ondo sonatzen ahal duen. (*Hemen* 88-3-31; 24or).
15. Bertara hurbiltzeko ordutegia izanik, 6tatik gaueko 9etara, larunbat eta igandeak salbu, 12tatik 2tara joan ahal delarik. (*Hemen* 89-3-31; 26or).
16. Nekazari-batzilergoari edo goi-mailako teknikoari dagokion diploma lortu ondoren, edo segiten ahal du tekniko bezala edo lan egiten ahal du nekazari bezala. (*Jakin* 35; 61or).
18. Ni ez naiz teknologiaren kontra, printzipioz: teknologiaren aurrerapena gauza ona izaten ahal da. (*Jakin* 35; 68or).
19. Bestalde, ikasgai bana dutenez ezin pentsa liteke euskal literaturen ezagutza-sakonik erdiesten ahal denik. (*Jakin* 49; 9or).
20. Ile luzeen eta begi urdinen atzean badirela duintasunez aritu ahal diren musikariak. (*Eguna* 89-2-16; 20or).
21. Alemaniar heavy talde honek oraindik ere onenen artean dirauela aldarrikatu ahal du. (*Eguna* 89-1-26; 20or).
22. Besteek ezin adierazi dituztenak espresatu ahal ditu Bitxorik. (*Eguna* 89-4-6; 3or).

23. Hor ikusten ahal da nola mugimendu abertzalea handitzen den. (*Eguna* 89-3-23; 2or).
24. Ondorioztatu ahal denez, zerrenda gehiengodunetako kideak beteko dituzte postuok. (*Eguna* 89-3-23; 7or).
25. Han zirenen artean, hamaika aurpegi ezagun ikusi ahal zen (...), arras pozikikus zitekeen. (*Eguna* 89-3-16; 6or).
26. Ongi aski ikusten ahal denez, azken urte hauetan euskal gizartean nagusitzen ari den dinamikan oldarturik dago Euskaltzaindia. (*Euskera*, 1986-2; XXXI; 443or).
27. (...), edo bestela Euskal Herrian bakarrik iritsi ahal zela boterera, zuzenbidearen zentzu handiko lurraldea baita. (*Hemen* 89-4-14; 18or).
28. (...) mugimendu anticolonialista, berriz, gazteagoa zen, baina, Leninek adierazitako inperialismoaren teoriari esker, metropolietasko lagileriarekin bat egin ahal zen. (*Jakin*-47; 9or).
29. Liburu honek laguntza eskaini ahal du egungo irakasle, kazetari, ikasle eta abarreko euskal buru-laginleek, (...). (*Euskera*- 1988-1; XXXIII; 55or).
30. Hiru hilabete eta egun batetik, bost urtetaraino izan ahal delarik zigor hau. (*Hemen* 89-3-17; 7or).
31. Orain dinamika berri bat sortzen ahal da, dinamika bat (...). (*Jakin* 35; 83or).
32. (...), eta barkatuko naute, noski, lehiatzaile amorratuek, nire lan honetaz baliatzen ahal dira eta politika erreformista batetan. (*Jakin* 49; 53or).

Berauetaz gain, badaude perifrasi geroaldia (beronetaz geroago ari izango gara) eta hipotetikotasuna adierazteko erabili direneko perpausak, beroriek Altubek eta Pujanak esandakoaren arauerako perifrasiaren erabilera zuzenetik at daudelarik.

1. Ordezkoaren izendatzea iraunkorra litzateke, ezabatu ahalko balitzateke. (*Euskera*-1986-2.XXXI; 449or).
2. Prokariota hauek lortu ahal izango zuten eraginkortasuna biologiko handiagorik konpetidore bezala. (*Elhuyar*- 10.tomoa- 2.alea; 1984; 185or).
3. (...) 2 bider 3 metrotako laukitan ezarri ahal izango lukete espaziuntzairen kanpoaldean. (*Hemen* 89-3-31; 32or).
4. Horrenbeste urtetako joan etorritan anekdotaren bat ere bizi ahal izango zutela eta ezetz jende serioa direla. (*Hemen* 89-4-7; 25or).

Egin den bigarren froga, enkesta izan da Zientzi Fakultateko ikasle eta zenbait irakasleri zuzendua. Berorretan, lehen esan denez, Altubek eta Pujanak jarritako adibideetan oinarritutako euskaratzeko zenbait esaldi ipini da. Esaldiak, hauek dira:

1. Me han quitado la -venda y puedo ver.
2. Lo ha atado muy fuerte y ahora no puede soltarlo.

3. No le podía escuchar bien a causa de los altavoces.
4. No se lo podemos despegar porque está muy duro.
5. Tengo una piedra en el zapato y no puedo andar.
6. A pesar de la muela, puedo comer.

-
7. Hasta mañana no podré ir contigo.
 8. Podemos comer cuando quieras.
 9. Eso le puede suceder a cualquiera.
 10. Se lo podría dar.
 11. Esas cosas no se pueden hacer.
 12. Podría ir.
 13. No se lo puedo dar hasta luego.
 14. Esos premios no le pueden tocar a cualquiera.
 15. Ya verás cómo no puede levantar esa piedra.

Hamasei esaldi hauetatik, Altubek egindako bereizketaren arauera, lehenengo seiak, perifrasiaren bidez gauzatuko lirateke, eta gainerakoak, ahalezko konjugazioaz.

Jasotako 113 enketetan, emaitzak, honako hauek izan dira:

Baiezkoetan

104. Ez dute bereizketa egin, guztietan ahalezko konjugazioa erabilirik.
 1. Esaldi guztietan erabili du perifrasia.
 1. Ez du erabili ahalezko biderik.
 5. Guztietan erabili dute ahalezko konjugazioa, lehenengoan ezik.
 2. 1.esaldian eta 6.ean, perifrasia, eta gainerakoetan ahalezko konjugazioa.

Ezezkoetan: Kasuistika osoa ipintzea luzeegi izango litzatekeenez, esan dezagun laburpen gisara, Altuberen bereizketa enкета batetan ere bete ez dela, dela guztietan perifrasia erabili baita, dela perifrasia zein ahalezko konjugazioa modu okerrera erabili baitira.

Lehenengo frogaren nahiz bigarrena haintzakotzat hartuz gero, gaur egun (salbuespenak salbuespen), potentzialitate adierazteko bi bide hauen arteko bereizketa egiten ez dela eta elkarren baliokide modura erabiltzen direlako ondorioa hel daiteke, beraz, gonpara daitezke elkarrekin.

Estatistika-tratamantua

Elkarrekiko konparagarriak direla finkatutakoan, emateko hurrengo pausua, kontaketa da. Kontaketa hori egiteko, ehun eta hirurogetamaika testu hustu dira

guztira –liburuak, aldizkariak, egunkariak, tesinak eta tesiak– arlo desberdinei dagozkielarik (zientzia, kazetaritza, gizarte-zientziak, letra-arloa)⁷. Testu horietatik, laurehun aletako tamainuko lagina atera da azarean, bai baiezeko esaldietan bai ezezkoetan.

Kontaketa-sistema. (+*ahal*)/(-*ahal*) oposaketan oinarritu da, ahalezko bideak bata bestearen ordeztu erabil daitezkeeneko kasuak soilik jasorik: *etor daiteke/ etorri ahal da, etor daiteke/etorri ahal izango da, etor zitekeen/etorri ahal zen, etor zitekeen/etorri ahal izan zatekeen* eta *etor liteke/etorri ahal izango litzateke* bikoteak.

Badaude jaso diren arren gero estatistika-tratamentuan kontutan hartu ez diren kasuak⁸. Kasuok, hauexek dira:

1. Errepikapenez aditz nagusiaren⁹ elipsioa gertatzen deneko esaldiak:

Kasu honetan, *ahal izan* perifrasi erabiltzen da.

*Pinochioren ipuina haurrentzako kazeta batean argitaratu zuen, zatika, episodio bat orain eta hurrengoa **ahal zuzenean**. (Jain 41- 1986/ Urria eta Abendua, 32or).*

2. Aditz nagusirik gabe aditz-laguntzaileari itsatsita *ba* baieztapen partikula duten esaldiak: *ba*+ahalezko konjugazioko edin aditzeko singularreko hirugarren pertsona¹⁰.

*Tolosan, jai izaten da egun honetan eta **baliteke** egun apropos bihurtzea dena bildu dadin zenzen plazan. (Hemen, 89-3-24; 28or).*

3. Subjuntiboa.- *Ahal + edin/ezan*.

*Berezko traba horiek **gainditu ahal ditzan**, abantaila guztiak bere alde dituela kaleratu behar du. (Jakin 41- 1986/Urria eta Abendua; 115or).*

Kalkulu estatistikokan segitu aurretik. Ondoko ohar hau egin beharrean gaudela: lan honetan (+ gero) aspektu-marka zuten perifrasi-adizkiak (egin ahal izango du) +*ahal* sailean bereizketarik gabe sartu diren arren, geroago jarriko diren esaldietatik ondoriozta daitezkeenez, hiztunek etokizun hurbilaren eta urrunaren arteko bereizketa¹¹ egiten duela dirudi, bereizketa hori denbora-erreferentziaren arauetara litzatekeelarik. Horrela, erreferentzi gunea mintzo deneko momentua-

(7) Datuak soilik arlo batetan hartzeak, berorretan dagokeen joera nagusiak emaitza final zergatiak sortaraztea ekar lezake.

(8) Esan beharra dago testuetan oso gutxitan agertzen direla eta behintzat jasotako datuaren arauera kasu horietan bi bideen arteko alternantzia behatu ez dela ere bai.

(9) Euskaltzaindiaren Gramatika-batzordeak *Euskal Gramatika lehen amatzak II*-an erabilitako terminologia da; *Aditz nagusi* terminoa, aspektudun adizki perifrastikoen kasuan (ikusten du), aspektu-marka atxekitzen zaion adizkiaren atalari dagokion, eta aspekturik gabeko kasuan (ekar dezake), aditz-erroari.

(10) Zenbaitetan, ahalezko konjugazioko adizkiak ere, aditz nagusirik gabe (aditz-errorik gabe) ikusi dira, batez ere *edin* aditzari dagozkionak; horrelako kasuetan, *edin, izan* aditzaren ordeztu erabili da, adibidez, *Interesgarri izan liteke/interesgarri liteke*.

(11) Bereizketa hau, ez dagokio potentzialitate-graduari.

ri badagokio, ahalezko konjugazioko orainaldiko adizkiak erabiltzen dira (edo bere lekuan orainaldiko *ahal izan* perifrasia):

1. Hori da, azken finean, eurokomunismoaren ahulezia nabariena proposatzen dituen jarrerak eta borroka-moduak nola ekar dezaketen oraindik inbokatzen den gizarte komunista berria. (*Jakin* 47, 1988 Apirila/ekaina; 25or).
2. Intelektual moderno askok, hemen sor daitekeen bizitza sano -demokratikoaren barnean, ekologiaren azaleko balioak barneratuko ditu. (*Jakin* 47, 1988 Apirila/Ekaina; 38or).
3. (...) txosten egin berrian azaltzen denez, Europako Elkartek 1985.ean lortutako Estatu produktu Gordinaren % 2,5 etik % 6,5 eta bitartekoak izango dira (...); Estatu batzuetatik, bestetarako eragina zeharo alda daiteke baina. (*Jakin* 50, 1989 Urtarrila/Otsaila; 50or).
4. (...) hiru hilabete eta egun batetik, bost urteterainokoa izan ahal delarik zigor hau. (*Hemen* 89-3-17; 7or).
5. Hainbeste urtez eskuz aldatu den etxaldea, denbora baten buruan, bilakatzen anal da elkarte baten lur. (*Jakin* 35, 1985 Apirila/Ekaina; 71or).
6. Orain dinamika berri bat sortzen ahal da, dinamika bat bera Ipar eta Hegoaldean, azterketa batzu elkarrekin egiteko eta (*Jakin* 35; 1985 Apirila/Ekaina; 83or).

Aitzitik, denbora-erreferentziaren gunea, etorkizuneko puntu batetan badago, *ahal + izango* perifrasiak erabiltzen dute hiztunek, *Corpus* desberdinetatik ateratako esaldi hauetan ikus daitekeenez:

1. Froga handia datorren ekainean pasatu beharko du. Orduantxe ikusi ahal izango da. Suarez-en zentrismoaren benetako indarra. (*Eguna* 89-2-9; 10or).
2. Eta orain pulpito horretatik, erakundeetan egoteak eskaintzen duen pulpotik ikusi ahal izango dute eta ikusiak ahal izango dira. (*Eguna* 89-3-23; 7or).
3. Hiru hilabete barru datorren ekainean, eduki ahal izango dugu (*Eguna* 89-3-23; 31).
4. Medio horren bidez bilerak egin ahal izango dira hiri desberdinen artean, soinu eta irudiaren aldibereko transmisioarekin (*Eguna* 89-3-16; 26or).
5. Zerbitzu mensafonikoa automatizatu egingo da, eta beraz, ekipamendu horien bidez, eskaintza mensafoniko hedatu ahal izango da (*Eguna* 89-3-16; 26or).
6. Ekainean izango diren hurrengo (...) euskararen bitartez ere egin ahal izango dira Bilboko Hizkuntza Eskolan. (*Eguna* 89-2-16; 3or).
7. Biologia molekularrentzat mundu berri bat irekitzea bezalakoa izango bait da: Zelula bizi batean, pultsuka lan eginez, DNA molekula, entzi-

mak birusak, holografiatu egin ahal izango dira. (*Elhuyar*- 11 tomoa 3-4 alea 1985; 344or).

8. Zenbait hamarkada hartuko dituen lana izango da nahiz eta baliabide informatikoaz etab, baliatzen diren. Lehenego aldiz obra batean 1948 baino lehenagoko hiztegi osoa eduki ahal izango da lana bukatutakoan. (*Euskera* 1987-1 (2 aldia); XXXII; 175or).
9. Eginbehar honi erantzungo dioten norbanako edo lantalde bereginak hartara bideratzen ahaleginduko da Euskaltzaindia. Unibertsitate-giroan aurkitu ahal izango dira seguruenik hartarako solaskide egokiak. (*Euskera* 1987-2 (2 -aldia); XXXII; 346or).
10. Larunbatean gaueko hamarretan hartuko dira (...). Sari hauetatik kanpora gelditzen diren beste tartedun guztiak, hamar aldiz jasotzen badute (...) hoge mila pezetatako dirutza jaso ahal izango dute. (*Hemen* 89-2-3; 28or).
11. Aurki eman ahal izango dugu berriren bat (*Hemen* 89-2-3; 28or).
12. Iraulketa edo subertsioaren kontrako lege berri baten projektua prestatzen ari da. Lege berriaren bertutez, Armadak legalki parte ahal izango du aurrekoan iraulketa edo subertsioaren kontrako egingo diren lanetan. (*Hemen* 89-2-24; 3or).
13. Baina hamabost egun barru jakin ahal izango dugu nor den nor eta gero gerokoak. (*Hemen* 89-3-3; 28or).
14. Behin XVIII.mendez gero, horrelako tirabira eta ezinikusien lekuko franko aurkitu ahal izango dugu han-hemenka. (*Jakin* 49, 1988; 109or).
15. Uste izatekoa da, etorkizunean errentagarritasun ekonomikoa suposatu ahal izango dutela (*Jakin* 49, 1988, 53or).
25. Orain arte deskribatutako erakundeak taula estatistiko batzuren bidez analizatuko ditugu. Horrela orain arte idatzitako osatu eta hobeto ulertu ahal izango dugu (*Jakin* 50, 1989; 16or).

Azterketa semantiko/pragmatiko sakonagorik egitekotan, seguraski, geroaldia-ri dagokiolarik ahalezko bi bideei denbora-esparru bedera esleitu zaiela eta beraz, bata edo bestea erabiltzea, aukerakoa izan gabe, ahalezko gertaera dagokion erreferentzi gunea denboran kokatzen deneko puntuaren arauetarako izango litzatekeelako ondoriora helduko litzateke.

Horretaz gain, esan beharrekoa da hiru aditz-aldi gonbaragarrietatik (Orainaldia, Iraganaldia eta Geroaldia), *Ahal izan* perifrasiaren bidez maizen adierazten dena geroaldia dela, eta ondorioz, goiko xehetasun hori kontutan hartuz gero testuetan geroaldiko adizki asko agertzeak, ahalezko bi bide hauen erabilkeraz ideia okerra edo behintzat benetako erabileratik urrun samarra sortera dezakeela.

Lan honetan erabili den estatistika-tratamendua, estatistikazko edozein liburutan *proportzioen estimazioen* eta *hipotesi-kontrastearen* kalkulurako aurki daitekeena da.

Estimaziorako, ondoko estimatzaile hauek erabili dira

1. *Puntu-estimaziorako*: $p = \frac{\text{laginaren arrakasta-kopurua}}{\text{laginaren tamaina}}$
2. *Konfidantza-tartea*: $p \pm 1.96 \sqrt{[p(1-p)/n]}$ ¹².
3. *Proporzioen arteko kendurarako konfidantza-tartea*:

$$p_1 - p_2 \pm 1.96 \sqrt{[p_1(1-p_1)/n_1] + [p_2(1-p_2)/n_2]}$$

Hipotesi-kontrasterako proba estatistikoa:

$$4- p_1 - p_2 / \sqrt{[p_1(1-p_1)/n_1] + [p_2(1-p_2)/n_2]}$$

Proba-estatistikoaren balioa (F):

- 4-1. Baldin eta $F \in (-1.64, 1.64) \Rightarrow p_1 = p_2$
- 4.2. Baldin eta $F \in (-1.64, +\infty) \Rightarrow p_1 \geq p_2$
- 4.3. Baldin eta $F \in (-\infty, +1.64) \Rightarrow p_2 \leq p_2$

EMAITZAK

Jasotako datuetatik lortutako emaitzak hauexek dira:

*Baiezko esaldietan ahalezko konjugazioa erabiltzen deneko proportzioa*¹³:

Estimazio-puntua = 0.98.

Konfidantza-tartea = [0.97, 0.99]. Hau da, baiezko esaldietan ahalezko konjugazioa erabiltzen deneko proportzio erreala, 0.97tatik 0.99tarakoa da. (*ahal + izan/ukan* perifrasiari dagokion tartea = [0.01, 0.03].

Ezezko esaldietan erabiltzen deneko proportzioa:

Estimazio-puntua = 0.442

Konfidantza-tartea = [0.399, 0.48]

(*ezin + izan/ukan* perifrasiari dagokiona = [0.52, 0.601])

(12) 1.96 balorea, %95eko konfidantza-mailari dagokion konfidabilitate-koefizientea da. *Puntu-estimazioa*: Erabilitako populazioari dagokion parametroa estimatzeko erabiltzen den balore numerikoa da.

Tarte-estimazioa: Konfidantza-gradu desberdinetan estimatzeko parametroa barruan due-la kontsideratzen den tartea definitzen duten bi baloek osotzen da. Gure kasuan honelaxe defini liteke: Agerpen-proporzio erreala %95eko konfidantzan agertzen deneko tartea da.

(13) Kalkulua hauek, 1-en gainean egin dira, eta n_1 zein $n_2 = 400$.

Etorkizun hurbilaren eta urrunaren arteko bereizketarik eginez gero, lortutako emaitzak, hauek dira:

ahal izan perifrasi:

Puntu-estimazioa = 0.028


Konfidantza-tartea = [0.016, 0.04]

Ezin izan perifrasi:

Puntu-estimazioa = 0.563

Konfidantza-tartea = [0.52, 0.603]

ezan -edin/ahal izan, ez ezan-edin/ezin izan oposaketan barra-grafika



Egingo ditugun hurrengo pausuak, lehenik, ahalezko konjugazioari dagozkion bi zutabe horien artean nabari den alde hori estatistikoki benetakoa ba ote den aztertzea, eta bigarrenik, berori betez gero alde hori zenbatetakoa den kalkulatzeko izango dira. Helburu honetan, 4. eta 3. formulak erabili ditugu.

P_1 : Ahalezko konjugazioak baiezko esaldietan duen erabilera-proporzioa = 0.98.

P_2 : Ezezko esaldietan duena = 0.442.

Egiaztatu nahi den hipotesia, hauex da: $p_1 > p_2$.

Emaitza = 20.9; balore hau ez dago 4-1 tartearen barruan ez 4-3 an; beraz hipotesia, benetakoa da.

Zenbatetan da handiago ahalezko konjugazioa baiezko esaldietan erabiltzen deneko proportzioa ezezkoetan erabiltzen denekoa baino? Horretarako 3. formu-

laz baliatu gara, eta emaitza, hauxe da: 0.49tatik 0.59tara erabiltzen da gehiagotan ahalezko konjugazioa baiezko esaldietan ezezekoetan baino.

Oro har baiezko esaldietan ahalezko konjugazioaren aldean perifrasiaren erabilera baztergarria dela eta ezezeko esaldietan perifrasi gehiagotan erabiltzeko nolabaiteko joera dagoela ikusita, azterketa zatituagoa egiteari ekin diogu, lehenengo atalean *nor/nork*, *intrantsitibitate sekundarioko esaldiak/aditz intrantsitiboa*, *orainaldia/iragana*, *orainaldia/hipotetikoa* eta *iragana/hipotetikoa* oposaketak bereizturik eta bigarrenean lan honen hasieran aipatutako lau arloen arteko erkaketa eginik. Esan beharrekoa da gorago ikusi denez *ahal* + *izan* perifrasiaren erabilera urria denez lehenengo atalean soilik ezezeko esaldiei dagozkien datuez arituko garela.

Lehenengo oposaketa, *nor* (p_1)/*nork* (p_2) da, *nor* delako horren barruan intrantsitibitate sekundarioko esaldiak (*ekar daiteke*) zein aditz intrantsitibokoak (*etor daiteke*) eta *nork* deritzon sailean bi flexiotako adizkiak (*ekar dezake*) nahiz hiru flexiotakoak (*ekar diezaioke*) sarturik.

Emaitzak: $n_1 = 284$, $n_2 = 259$.

*Ahalezko konjugazioa*¹⁴:

Puntu-estimazioa $p_1 = 0.515$.
 " " $p_2 = 0.375$.

Konfidantza-tartea $p_1 = [0.461, 0.567]$
 " " $p_2 = [0.32, 0.43]$

Hipotesia: $p_1 > p_2 = 3.314$. Balore hau. $[-1.64, +\infty]$ tartearen barruan dago, eta beraz, goiko hipotesi hori benetakoa da.

***Pasiboa* (p_1)/*aditz intrantsiboa* (p_2)**

$n_1 = 233$, $n_2 = 131$

Puntu-estimazioa $p_1 = 0.512$.
 " " $p_2 = 0.567$.

Konfidantza-tartea $p_1 = [0.453, 0.571]$
 " " $p_2 = [0.476, 0.648]$

Hipotesia: $p_1 = p_2$; emaitza = 0.92, balore hau $[-1.64, 1.64]$ tartean dago, beraz, benetakoa da hipotesia.

(14) Aurrerantzean, ahalezko konjugazioari, p eritziko zaio, eta perifrasiari, q.

Orainaldia (p_1)/iragana (p_2)

$$n_1 = 367, n_2 = 66$$

$$\text{Puntu-estimazioa } p_1 = 0.42.$$

$$\text{'' '' } p_2 = 0.61.$$

$$\text{Konfidantza-tartea } p_1 = [0.374, 0.466]$$

$$\text{'' '' } p_2 = [0.488, 0.732]$$

Hipotesia: $p_1 > p_2$; emaitza = -2.92 ; -2.92 $[-\infty, 1.64]$; beraz, hipotesia, benetakoa da.

Orainaldia (p_1)/hipotetikoa (p_2)

$$n_1 = 367, n_2 = 57.$$

$$\text{Puntu-estimazioa } p_1 = 0.42$$

$$\text{Puntu-estimazioa } p_2 = 0.736$$

$$\text{Konfidantza-tartea } p_1 = [0.374, 0.466]$$

$$\text{'' '' } p_2 = [0.626, 0.851]$$

Hipotesia: $p_1 < p_2$; Emaizta = -5.16 ; balore hau, $[-\infty, 1.64]$ tartearen barruan dago, beraz, hipotesia, benetakoa da.

Iragana (p_1)/hipotetikoa (p_2)

$$n_1 = 66, n_2 = 57$$

$$\text{Puntu-estimazioa } p_1 = 0.61$$

$$\text{Puntu-estimazioa } p_2 = 0.736$$

$$\text{Konfidantza-tartea } p_1 = [0.488, 0.732]$$

$$\text{Konfidantza-tartea } p_2 = [0.626, 0.851]$$

Hipotesia: $p_1 < p_2$; emaitza = -20.8 ; balorea hau $[-\infty, 1.64]$ tartean dago; beraz, hipotesia, benetakoa da.

Egin dugun bigarren azterketa, lan honetarako erabili ditugun testuak sailka daitezkeeneko lau arloen arteko erkaketa da; berorretan segitu aurretik, esan behar da idazle batzuk arlo desberdinetan idatzi dutela, kasu horietan egin dena idazle gehienetan idatzi dueneko arloan sartzea delarik.

Bereiztu ditugun lau arlook, hauexek dira:

a) Kazetaritza.

$$x_1 = \text{Ahalezko konjugazioa.}$$

$$x_2 = \text{Perifrasia.}$$

b) Letra-arloa.

$$x_3 = \text{Ahal. konj.}$$

$$x_4 = \text{Perifras.}$$

c) Zientzi arloa.

x_5 = Ahal. Konj.

x_6 = Perifras.


d) Gizarte-arloa (ekonomia, politika, soziologia,...).

x_7 = Ahal. konj.

x_8 = Perifras.

Baiezko esaldietan lortutako emaitzak, ondoko hauek dira:

$$n_a = 100, n_b = 100, n_c = 100, n_d = 100$$




Arloa	Puntu-estimazioa	Konfidantza-tartea
X_1	0.97	[0.94 , 1]
X_3	0.978	[0.948, 1]
X_5	0.998	[0.989, 1]
X_7	0.986	[0.963, 1]

Datu hauen arauera, ahlazko konjugazioa baiezko esaldietan erabiltzeari dagokionez, ez dago alde aipagarriarik arloon artean, guztietan ahlazko konjugazioak perifrasaren aldean oso erabilera-proporzio altua duelarik.

Ezezko esaldiei dagozkien emaitzak

$$n_a = 102, n_b = 90, n_c = 120, n_d = 89$$

Arloa	Puntu-estimazioa	Konfidantza-tartea
X_1	0.403	[0.311, 0.495]
X_3	0.612	[0.512, 0.712]
X_5	0.338	[0.253, 0.423]
X_7	0.466	[0.569, 0.303]



Aisez beha daitekeenez, perifrasiarekin konparatutako ahalezko konjugazioaren erabilera, arloaren arauera aldatzen da. Horrela, *letra-arloan* ahalezko konjugazioa erabiltzeko nolabaiteko joera dagoen bitartean, *zientzi arloan* eta *gizartearian*, perifrasiak da erabilera-joera altua duena. Gizarte-arloari dagokionez, dauzkagun datuez ezin hel daiteke ondorio zehatzera, ahalezko konjugazioari dagokion konfidantza-tarteak eta perifrasiari dagokionak ([0.303, 0.569] eta [0.431, 0.693] hurrenez-hurren), zati amankomuna baitute¹⁵.

Guzti hau ikusita, hurrengo galdera hau egin dezakegu: Ba al dago alderik, *letra-arloko* ahalezko konjugazioaren erabilerrari dagokionez, baieztoko esaldien eta ezeztoko artean?

Hipotesia: P_1 (baieztoko esaldiak) = p_2 (ezeztoko esaldiak).

Emitza = 6.8 $\in$ [-1.64, 1.64]; beraz, hipotesia, faltsua denez, badago alderik, erabilera-aldea 0.27 eta 0.47 artean handiago delarik.

(15) Lan hau egitean aurkitu ditugun oztipoetariko bat, arlo horietariko bakoitzak "idazle-kopuru fijo" izatea da. Berorrek, potentzialitateak ezeztoko esaldietan erabilpen-maiztasun txikia izatearekin batera, ezeztokoetararako nahi beste datu ez lortzea ekarri du.

Ondorioak

1. Datu orokorreki dagokienez, begibistakoa da baiezeko esaldietan ahalezko konjugazioa erabiltzeko joera handiagoa dagoela; perifrasiaren erabilera, aldiz, forma konparagarriari dagokienez, oso txikia da, bai eta gorago aipatutako etorkizun hurbilaren eta urrunaren arteko bereizketa hori eginda ere. Egoera honen zioa, VILLASANTEk (1980) *ahal* partikulari Gipuzkuako hizkeran ematen zaion erabileraz hitz egin dueneko atalean aurki daiteke: *En particular —como ya se ha dicho también— en Guipuzcoa hay tendencia a introducir ahal —sin necesidad— en las interrogativas generales. De aquí parece seguirse que para la expresión de la potencialidad apenas se recurriría en este dialecto a ahal por la anfibología que resultaría de los dos usos.* Baliteke Villasantek Gipuzkuako hizkeran somatu duen joera hori gainerako euskalkietan hedatu (Euskara batuaren eraginez ote?) eta halaber berori euskara idatzian *ahal* + *izan* perifrasi horren gutxitan agertzeko edo erabiltzeko arrazoa izatea. Argudio horretaz, ezezeko esaldietan behatu diren joerezko ustezko azalpena ere emateko balia gaitetzke, *ahal* partikuaren kasuan ez bezala *ezin* partikulaz anfibologia ez sortzea, ezezeko esaldietan *ezin* + *izan* perifrasi gehiagotan erabiltzeko arrazoa edo arrazoiatariko bat bide delarik.

Ezezeko esaldiei dagokienez, *ezin* + *izan* perifrasi maizago erabiltzeko nola-baiteko joera dagoela esan daiteke, ahalezko konjugazioaren eta perifrasiaren arteko aldea baiezeko esaldietan bezain handia ez den arren.

Bai baiezeko esaldietan, bai ezezekoetan behatutako hau, ez dator bat, gorago aipatutako liburuan Villasantek *Algunas tendencias actuales* izeneko atalean esandakoarekin: *Actualmente en algunos autores parece perfilarse una tendencia a construir todas las oraciones de potencialidad con ahal y ezin más auxiliar, prescindiendo también, por supuesto, de si tiene matiz de potencialidad puesto en acto o no.* *Ahal* partikularen kasuan, hain zuzen kontrakoa gertatzen da, potentzialitatea soilik bide horretaz adierazi deneko kasuak bakanak direlarik; gehienetan, agertu deneko urrietan, adizki hipotetiko edo baliokide gisara izan da. Eta *ezin* partikulari dagokionez, ahalezko konjugazioa baino gehiagotan erabiltzen den arren, beraren erabilera-proporzioa, ez da ezezeko esaldietan nagusi dela esateko modukoa.

2. Ezezeko esaldiei datxekien datuetatik, ondoko hau ondoriozta daiteke: baiezeko esaldietan ez bezala, berorietan ahalezko konjugazioak esparru guztietan gailentasuna duelarik, ezezeko esaldietan, bataren edo bestearen erabilera-proporzioa, aztertze konparagaien arauera da.

Horrela, lehenengo bi oposaketak (*nor/nork* eta *intransitibitate sekundario-koa/aditz intransitiboa*) behatuz gero, *nor* sailari dagokionez, ez dago alderik ahalezko konjugazioaren eta perifrasiaren artean, berau *pasiba/aditz intransitiboa* oposaketan ere behaturik; *nork* sailean, aldiz, perifrasiak ahalezko konjugazioak baino erabilera-proporzio altuagoa du, azken hori sail honetan *nor* sailean baino gutxiagotan erabiltzen delarik.

Orainaldia (-*ahal*)/iragana (-*ahal*)/hipotetiko (orainaldia) hirukoteari dagokionez, aurrekoan bezala, behatutako joerak, aztertuen arauera aldatu dira; hustuketatik lortutako datuen arauera, orainaldiko perpausetan, perifrasi erabiltzen da gehiagotan; hipotetikoetan, ahalezko konjugazioa, eta azkenik, iraganeetan, aha-

lezko konjugazioa erabiltzeko joera dagoela dirudi; ahalezko konjugazioa erabiltzeko joera *hipotetikoan* handiagoa da baina.

Azken atal honetan behatutakoaz, idaztean gutxienetan agertu ohi diren potentzialitateak (iragana eta hipotetikoa) ahalezko konjugazioaz adierazteko joera dagoela antzeman liteke.

3. Arloen arteko erkaketetan, baiezko esaldietan ez dago ezberditasun handirik, aztertutako lau arloetan ahalezko konjugazioa proportzio beretsuan erabiltzen delarik; ezezko esaldietan, ordea, erabilera-proportzioa ez da bera arlo guztietan; horrela, zientzi arloan, kazetaritzan eta gizarte-zientzietan, berorien artean alderik ba ote dagoen esaterik ez dagoen arren, perifrasiak ahalezko konjugazioak baino erabilera-proportzio altuagoa du; letra-arloan, aldiz, perifrasiak, arlo horiekin konparatuta gutxiagoetan erabilia izateaz gain, ahalezko konjugazioak baino erabilera-proportzio baxuagoa aurkeztu du.

BIBLIOGRAFIA

- Altube, S. (1929). *Erdetismo*. *Euskera*, X urtea, I-IV zenb.
- Altube, S. (1934). *Observaciones al tratado de "Morfología vasca"*, de D.R.M. de Azkue. *Euskera*. XV. 5-231 or.
- Aranburu, J. M.^a eta beste (1982). *Euskal aditza alfabetatzeko*. Goiherriko Euskal eskola. Gipuzkoa.
- Arotçarena, S. (1951). *Grammaire basque (Dialectes navarro-labourdins)*. Tours.
- Añibarro, P. A. (1970). *Gramática bascongada —escrita hacia 1820 y publicada por primera vez—*. Edición preparada por Fr. Luis Villasante. San Sebastián.
- Azkue, R. M.^a (1969). *Morfología vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca (ed.). Bilbao.
- Badiola, R. eta beste (1986). *Euskararako hiztegia*. Adorez-2, Bilbao.
- Campion, A. (1977). *Gramática de los cuatros dialectos literarios de la lengua euskara: II Volum*. La Gran Enciclopedia Vasca (ed.), Bilbao.
- Chacho, J. A. (1936). *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*. París. 1-184 or.
- Eys, W. V. (1879). *Grammaire comparé des dialectes basques*. París.
- Gavel, H. (1929). *Grammaire Basque*. Bayonne.
- Geze, L. (1873). *Elements de grammaire basque, dialecte souletin*. Bayonne.
- Goikoetxea, J. L. (1988). *Leizarragaren styloa: stylo goititu batentzako basia*. Estilistikari buruzko jardunaldiak. Gernika.
- Harriet, H. (1741). *Gramatica euscaraz eta françesez*. Bayona.
- Ithurry (1979). *Grammaire basque (Dialecte Labourdin)*. Biblioteca de autores vascos saila. Ediciones Vascas argitaletxea. San Sebastián.

- Lafitte, P. (1987). *Grammaire Basque (navarro-labourdin littéraire)*. Elkar. Donostia.
- Lafon, R. (1980). *Le système du verbe basque au XVI^{ème} siècle*. Elkar. Donostia.
- Lardizabal, F. (1865). *Gramática vascongada*. San Sebastián.
- Larramendi, N. (1979). *El imposible vencido*. Hordago.
- Lecluse, F. (1826). *Grammaire basque, Manuel de la langue basque*. Toulouse.
- Muller Ch. (1973). *Estadística Lingüística*. Biblioteca Románica Hispánica. Editorial Gredos. Madrid.
- Omaechevarria, I. (1959). *Euskera, un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*. Zarauz.
- Pujana, P. (1979). *Ahalezko aditz-jokoak*. **Euskera** XXIV. 743-49.
- Salaburu, P. (1981). *Ikaslearen esku-gramatika*. Ediciones Mensajero. Bilbao.
- Salaburu, P. eta Kintana, X. (1984). *Euskera hobean, hobe*. Servicio Editorial Universidad del País Vasco. Bilbao.
- Sarasola, I. *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia: A-Aurten*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- Txillardegi. (1978). *Euskal Gramatika*. Ediciones Vascas argitaletxea.
- Umandi (1955). *Gramática Vasca*. San Sebastián.
- Urkaregi, A. (1985). *Bioestadística*. Iruñea.
- Urte, P. (1712). *Grammaire Cantabrique basque*.
- Villasante, L. (1980). *Sintaxis de la oración simple*. Colección Eleizalde-6. Editorial Franciscana Aranzazu.
- Wayne, W. D. (1977). *Bioestadística*. Editorial Limusa. México.
- Zamarripa, P. (1909). *El bascuence facilitado. Gramática bizcaina*. Bilbao.

HUSTUTAKO TESTUAK

1. *Kazetaritza*

EGUNA

89-1-26	89-3-9	89-6-8
89-2-2	89-4-6	89-6-15
89-2-9	89-4-13	89-6-22
89-2-16	89-4-20	89-7-6
89-2-23	89-4-27	89-7-20
89-3-9	89-5-18	89-7-27
89-3-16	89-5-25	

HEMEN

89-1-27.	89-3-31.	89-6-23
89-2-3.	89-4-7.	89-6-30.
89-2-24.	89-4-14.	89-7-7.
89-3-3.	89-4-28.	89-7-14.
89-3-10.	89-5-19.	89-7-21.
89-3-17.	89-6-2.	89-7-28.
89-3-24.	89-6-9.	

DEIA: 89-7-20, 89-7-22, 89.

EGIN: 89-5-16, 89-7-11, 89-7-12, 89-7-17, 89-7-19, 89-7-20, 89-7-24, 89-7-24, 89-7-25, 89-7-26.

2. Zientzi arloa

ELHUYAR

10. tomoa, 2.alea	1984.	12. tomoa, 2.alea	1986.
10. tomoa, 4.alea	1984.	13. tomoa, 1.alea	1987.
11. tomoa, 1.alea	1985.	13. tomoa, 2.alea	1987.
11. tomoa, 3/4.alea	1985.	14. tomoa, 1.alea	1988.
12. tomoa, 1.alea	1986.	14. tomoa, 2.alea	1986.

ELHUYAR zientzia eta teknika

Zenbakiak: 0-1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-19-20-21-22-23-24.

Tesiak eta tesinak

- *Cerastoderma edule* (L.) (Bivalvis: Cardiidae): Hazkuntza eta ugalkuntzaren energi oinarriak. Perez Iglesia, J. I. 1986.
- Eremu elektriko lokalaren azterketa ikuspegi mikroskopikoan oinarrituta. Pitarke, J.M.: 1985.
- Kalorimetria diferentzialaren bidez jarraituriko monomero binilikoaren polimerizazioaren zinetikak. Nuño Angos, T.: 1986.
- Etilen oxidoaren polimerizazio kationikoko propagazio-abiaduraren ikerketa, trifetil katioiaren gatzaren bidez. Martinez Ortega, A. 1985.
- Bimetil alkoholaren polimerizazioaren katalisatzaile azido gainearen. Olazar. M.: 1985.
- Bizkaiko jatorrizko populazioaren dermatoglifoak. Gonzalez Madariaga, E.: 1985.
- Toluenoaren klorometilazioaren analisia eta modelatzea. Ortiz Uribe, I.: 1984.
- Espazio ez-normagarrietarako kalkulu diferentzialaren aplikazioak. Otxoa de Alda, J.J.: 1984.

- *Metodo bariazionalen bidezko problema eliptiko ez-linealen ebazpena*. Zuazua, E.: 1984.
- *Ipar Nafarroako Cepaea Nemoralis-en polimorfismoak*. Estomba, A.: 1984.

Liburuak

- *Bioestatistika*. Urkaregi, A.: 1984. Iruñea. U.E.U.
- *BIOLOGIA/3 ekologia hiztegia*. U.Z.E.I.: 1987.
- *Emulsio-polimerizaziorako erreaktoreen injineritza*. Azua, J. M. Barandiaran M.: 1985. Altza Bilduma.
- *Eboluzioaren inguruan: Unibertsitate-Hedakuntzazko koadernoak*. 1986. Argitarapen-Zerbitzua. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- *Kantitate eta unitate kimiko-fisikoetarako sinboloaren eta terminologiaren eskuliburua*. Iturbe, J.: 1985. U.E.U.
- *Konputagailuaren oinarritzko egitura*. Alegria, I.: 1985. Iruñea. U.E.U.
- *MEDIKUNTZA/I liseriketa*. U.Z.E.I.: 1986.
- *Nora zoaz zientzia eta teknika? Elhuyar taldea*: 1985 Islada bilduma 3. Elkar argitaletxea.

3. Gizarte-zientziak

JAKIN

84.urtea: 30, 31, 32, 33 zenb.; 85.urtea: 34, 35, 36 zenb.; 86.urtea: 38, 39, 40, 41 zenb.; 87.urtea: 42/43, 44, 45 zenb.; 88.urtea: 46, 47, 49 zenb.; 89. urtea: 50, 51, 52 zenb.

Liburuak

- *Birmoldatzeko eta berindustrializatzeko politika (Espainia eta Euskal Komunitate Autonomoaren kasuak)*. Navarro, M. 1985. Iruñea. U.E.U.

4. Letra-arloa

EUSKERA

83.urtea: 1, 2; 84.urtea: 1, 2; 85.urtea: 1, 2; 86.urtea: 1, 2; 87.urtea: 1, 2; 88.urtea: 1.

FONTES LINGVAE VASCONUM

84.urtea: 43, 44 zenb.; 85.urtea: 45, 46 zenb.; 86.urtea: 47, 48 zenb.; 87.urtea: 49, 50 zenb.; 88 urtea: 51, 52 zenb.

SENEZ Itzulpen eta Terminologiazko aldizkaria

84.urtea: 1 zenb.; 85.urtea: 1, 2, 3 zenb.; 86.urtea: 1, 2/3 zenb. 88.urtea: 1/2 zenb.

RIEV

84.urtea: Tomo XXIX-N.º 2; 86.urtea: Tomo XXXI-N.º 2, N.º 3.

Liburuak

- *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*. Askoren artean. 1985. Donostiako Udako IV Ikastaroak. Argitarapen-zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- *Euskararen Batasuna*. Zuazo, K. 1988. Iker-5.
- *Euskara gaurkotzeko bideak*. Askoren artean. 1987. Unibertsitate-Hedakuntzazko Koadernoak. Argitarapen zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- *Hizkuntzen irakaskuntza: zenbait artikulua*. 1985. Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa saila. Euskara-zerbitzua. Glotodidaktika lanak.

Tesiak

- *Euskararen hitzordena zeregin komunikatiboaren arabera*. Osa Unamuno, E. 1988. Gasteiz.
- *Hitz Konposatuak euskaraz*. Azkarate, M. 1988. Donostia.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

Bizkaiko Gernika-Lumo udaletxean, 1989ko uztailaren hogeita zortzian, goizeko hamaiketan egin dute euskaltzain osoek hileroko batzarrea. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, H. Hiriart Urruthy, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krütwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta L. Villasante, euskaltzainak; J. L. Lizundia idazkariordea eta J. J. Zearreta, Ekonomia eragilea.

Ezin etorria adierazi dute, X. Diharce eta Tx. Peillen jaunek.

Azken batzarreetako agiriak, dagozkien oharren ondoren onartu dira.

Diruzaintza

J. A. Arana Martija, diruzainak, urtariletik ekainera arteko kontuen berri eman du. Ekainaren 23an batzorde arduradunekin egindako bilkuraren ondoren burutu dela datorren urteko aurrekontua, esan du. Bataz beste % 6-eko gorakada izan du, aurtengo beharren kopuruaren arabera, eta epe barruan bidali da Eusko Jaurlaritzara.

Hiru ataletan banatu du 1989ko lehen sei hilabeteetako sarrera irteeren txostena: 1) Gastu arruntak; 2) Orotariko Euskal Hiztegia, eta 3) Euskal Herriko Hizkuntz Atlas, bakoitzaren kostua azalduz.

Finantziabideei dagokienez, Nafarroako Gobernuak urte osoko diru laguntza ordaindua duela, esan du, eta Eusko Jaurlaritzak bigarren herena hitzeman. Orain, horrenbestez, atzeratuak berehala ordainduko dira.

Batzordeen berri

Dialektologia.—J. Haritschelhar jaunak, ekainaren 29 eta 30ean CNRS-koekin Lakuan egindako bilera aipatu du. Atlasgintzako hitzarmenaz aritu dira. Informazioaren arazoa eztabaidatu dute eta beste eskualde batzurekin batera egin nahi da lana. Datorren abenduan Tolosan biltzeko gelditu dira: Hizkuntz Politikarako idazkari nagusia eta EJE-ko arduradunak bertan egon ziren. Interesgarritzat jo du bilera euskaltzainburuak.

Onomastika.—Atzo bildu zen Gasteizen Onomastika batzordea. Euskal Herriko mendien izendegiari begiratu eman zitzaion. González Salazar batzordeki-deak “*Cantabria*” mendien izen zaharra *Toloño* zela segurtatzen duten zehaztasunak aurkeztu zituen.

Lizarrako Onomastika III. Jardunaldien aurre-kontuak zehaztu ziren eta hitze-mandako lanen kopurua aipatu zen. Batzorde zientifikoa osa dezaketen izenak eman ziren.

Biblioteka.—Uztailaren 14ean bildu zen Bilbon Biblioteka batzordea. Plaza Barriko egoitzan kokatzekoa den fonotekaz aritu ziren, besteak beste, batzartuak. Parisko Biblioteka Nazionaleko antolamendua ikustera joatea erabaki zen. Datoren irailan batzorde tekniko batek hura ikusi ondoren bilera batzu egingo dira Euskaltzaindiari urte amaiera aurretik proposamen zehatza aurkezteko asmoz.

Batzorde Juridikoa.—Euskaltzaindiko batzarreetan azken aldi honetan behin eta berriz aipatu den batzorde hau ere bildu dela aditzera eman du J. L. Lizundiak. Bere eginkizun edo helburu hauek aipatu ditu: a) Euskaltzainburuaren aholkularitza; 2) Lege eta arau arazoetan erizpideak ematea; 3) Hitzarmen, akordio eta antzerakoen gidaritza; 4) Komeni denean erizpen juridikoak norbaiti agintzea, eta 5) Lege eta administrazio terminologiaz arta izatea.

Kanpo izendapenak

Euskarazko literatur lanak sortarazteko bekak nortzuri eman erabakiko duen epaimahai balioemailerako ordezkaria izendatzea eskatzen dute Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailatik. J. M. Lekuona izendatu da eta ezinean A. Lertxundi.

Literatura unibertsaleko obren euskaratzea sustatu asmoz Gipuzkoako Kutxak sortu den “*Orixe Sarirako*”, epaimahaikidea izendatzea eskatzen du. P. Altuna joango da.

Eskuarteak

Eusko Jaurlaritzatik Hizkuntz Politikarako idazkari nagusiak gutun baten bidez, RENFE-k eskatuta egin duten geltokien errotulazio zerrenda aztertuz Euskaltzaindiak bere eritzia eman dezan, eskatzen du. Euskaltzainen artean banatu da, irailaren azkenerako hitzez-hitz bakoitzak bere oharrak egin ditzan. Azken begiratu emango dion batzorde hau izendatu da gero: I. Sarasola, M. Azkarate, R. Badiola, P. Charritton eta A. Sagarna, edo bakoitzak ordezkotzat eman lezakeena.

Gipuzkoako Diputazioko Herrilan eta Garraio Departamentutik errepidetza-rekin zerikusia duten hitz batzuren zerrenda jaso da, orain arte erabiliak biltzen omen dituen, argitarapen bat egiteko asmoz. Euskaltzaindiari eskatzen zaiona bere eritzia da eta, ahal balitz, oneritzia. Beste batzutan egindakoa eredutzat hartuz, euskal lurraldeetako lankideekin bildu lehenik eta elkarrekin hiztegi hori bateratzen ahalegindu daitezela, eskatuko zaio Gipuzkoako Diputazioari.

Emakumeen Euskal Erakundeak, aukeratu berria duen “Andraitza” izena ongi idatzirik dagoen galdetzen du. Tratatu da gaia eta esandakoen berri emango zaie arduradunei.

Euskal Herriko Unibertsitatearekiko hitzarmena ekainaren 27an sinatu zela Leioan, aditzera eman du euskaltzainburuak. Ospe haundiarekin egin zen ekintza akademikoa eta Jarraipen batzordea sortu behar da orain.

Nafarroa eta euskal erakundeen arteko hitzarmena urriaren 7an izenpetu daitekeela Oñatin, esan du gero J. Haritschelhar jaunak, bertan egin baitzuen Euskaltzaindiak 1919an bere lehen batzarrea, 70 urte beteko direlarik aurren. Lehen agiri hori nonbait argitaratzea ere aipatu da.

Plaza Barriko egoitzak duen aurrekontuaren berri eman da, eta lanak amaitu bitartean Euskaltzaindiaren Bilboko bulegoak Elkano kalean, bosgarren zenbakira aldatuak direla, jakinerazi da. Telefonoen zenbaki berriak banatu dira batzartuen artean.

Madrilgo Kultura Ministeritza prest dagoela Leizarragaren T.B. faksimilez argitaratzen laguntzeko, aditzera eman da, horretarako diru kopuru bat hitzeman duelarik. Alemanez daraman hitzaurrearekin batera, erdarazko itzulpena ere sar daiteke.

E. Knörr-ek jakinerazi duenez, “Centro de Estudios Universitarios de Cultura Ibérica” delakoak, euskal katedra sortu nahi du Alcalá de Henares-en.

Haraneder-en Testamentu Berria argitaratzeko prestaturik utzi duela Bilboko bulegoan, esan du P. Altunak.

J. M. Lekuona, Gipuzkoako ordezkariak esan du, Donostiako bulegoa Churruka kaletik, Hernani 15.era aldatzen ari direla une honetan, telefono zenbaki bera behintzat utziko dutelarik.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

BATZAR IREKIA

Gernika-Lumoko Alegria Jauregian, 1989.eko uztailaren 28an, egin du Euskaltzaindiak Jose Antonio Arana Martija euskaltzainaren sarrera dela eta, batzar irekia. Arratsaldeko Setan bildu dira mahaipuruan: Juan Luis Zuzaeta, Gernika-Lumoko alkatea; M.^a Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkari nagusia; Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kultur Saileko foru diputatua; J. Haritschelhar, euskaltzainburua; J. M. Satrustegi, idazkaria; J. A. Arana Martija eta L. Villasante, euskaltzainak. Eseri dira baita ere: J. M. Lekuona, P. Altuna, P. Charritton, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta I. Sarasola, euskaltzainak; J. Bilbao eta S. Onaindia, euskaltzain ohorezkoak; L. Akasolo, J. M. Aranalde, A. Arejita, M. Atxaga, M. Azkarate, R. Badiola, J. G. Etxebarria, K. Etxenagusia, B. Gandiaga, P. Goenaga, J. L. Goikoetxea, X. Kintana, J. Kortazar, J. L. Lizundia, P. Pujana, K. Rotaetxe, P. Uribarren, M. R. Urrestarazu eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

Lehendabizi, J. M. Satrustegi idazkariak goizeko euskaltzainen hileroko bilkuraren berri laburra ematen du.

Ongi etorria emanez, hasten du bere agurra Juan Luis Zusaeta uriko Alkate jaunak, beste herriko seme bat Euskaltzaindian sarteak Gernika-Lumori ematen dion ahorea azpimarratuz, lehen ere beste bat bait dago, hain zuzen, A. Luis Villasante.

Ondoren, J. Haritschelhar euskaltzainburuak bere hitzaldiñoa egiten du. Gaurkoan, aurtengo hirugarren euskaltzain sarrera ospatzen dela gogoratzen du: “Donostiako Udaletxean, I. Sarasola, urtarreilean; Baionako Udaletxean, Tx. Peillen, apirilean eta hirugarrena, egun, Gernikan, euskaldun guztien hiri saildian J. A. Arana Martija euskaltzain berriari ongi etorria ematera elkartu gara” dio euskaltzainburuak.

Jarraian, Arautegiaren 36. artikulua eta Barne Erregelaren 45. artikulua agintzen duena betetz, bi euskaltzain joaten dira J. A. Arana Martijaren bila, hain zuzen, J. San Martin eta I. Sarasola jaunak.

J. A. Arana Martija euskaltzain oso berria sartzen da aretoan eta sarrera hitzaldiaren gaiari lotzen zaio, alegia “Euskaltzaindiko aulkien historiak hurbiltze bat” izeneko gaiari. Ordu beteko hitzaldi batetan gogoratu du Angel Allendesalazar bibliografoa, jauregiko familiakoa, eta beste euskal idazle gernikar batzu ere aipatu ditu sarrera gisa. Gero, ohi denez, hil arte orain berari dagokion aulkia bete zuen Juan Gorostiaga Bilbao euskaltzainaren biografia eta idaz-lanak eman ditu, jarraian sarrera hitzaldiaren gaia hartuz. Euskaltzaindiak 1918an Oñatin sortu zenetik gaur egunerarte izan duen historia aztertu du, lehen lau aulkia bete zituzten euskaltzainetatik hasi eta gaur hogeitalau aulkia betetzen dituztenetara iritsiz. Kronograma baten gidez jarraitu ahal izan du entzulegoak hitzaldiaren edukina, aulkiz - aulki, eta bere ustetan, nortzuk izan diren hirurogeitamar urteen zehar bata bestearen ondoren edo ordeko euskaltzainak adieraziz. Gerra ostean sortu ziren arazo larriak direla eta, hamazortzira eta hogeitalaura euskaltzainen kopurua gehitu zenean nola bete ziren aulki berriak eta laburbilduz aulki Proprietan jezarri diren 67 euskaltzainen historia azaldu du. Seber Altubek bete zuen bostgarren aulkiaz jabetzea, espero ez zuen oparia dela aitortu du, eta euskararen alde lanean jarraitzeko ziria. Txalo bero eta luzeekin eskertu diote entzuleek euskaltzain oso berriari egindako ikerketa.

L. Villasante euskaltzainak ematen dio erantzuna. J. A. Arana Martijaren bizitza eta batez ere, bere ikerlanez xehetasun ugari emanik, Euskaltzaindian orain arte egindako lana azpimarratu eta gero ere zenbait eginbeharreko betetzera animatuz. Sebero Altube Gernikan bizi eta hil zen arrasatear euskaltzainaren pareko ipintzen du, hain zuzen bere aulkia betetzen duelarik. Aranaren hitzaldia-ri zehaztapentxo bat edo beste egiten dizkio “ur handitan sartzeko asmorik gabe” esanez.

Erantzun hitzaldiaren ondotik, denak zutik, J. Haritschelhar euskaltzainburuak euskaltzain agiria eskuratzen dio eta Erakundearen domina ezarri. Ondoren, euskaltzain berria zoriontzen eta, jarraian, gauza bera egiten dute, beste mahaipuru eta gainontzeko euskaltzain oso guztiek.

Azken hitzak, Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Foru Diputazioko Kultur Saileko diputatuak esaten ditu, Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusi den gernikarraren, azken orduko ezin etorria adieraziz.

Gernika-Lumoko Udalak jauregiaren ganbara ederrean emandako lunch batekin bukatu da egungo eginkizuna.

Jean Haritshcelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

1989-IX-29

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1989ko irailaren hogeita bederatzian egin dute euskaltzain osoek hileroko batzarrea. Goizeko hamar t'erdietan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, P. Altuna, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; J. L. Lizundia idazkariordea, hala nola M. Azkarate, R. Badiola eta A. Sagarna, urgazleak, gaiari dagokionez espreski deituak.

J. A. Arana Martija eta J. San Martin jaunek ezin etorria adierazi dute.

Azken batzarreko agiria onartu da.

Euskaltzainburuak P. Salaburu jaunari bere amaren heriotzagatik doluminak emanaz hasi da batzarrea.

RENFE-ren hitz zerrenda

Uztaileko batzarrean izendaturiko batzordeñoak RENFE-k igorritako hitz eta esaerei egin zaien itzulpena aztertu ondoren, L. Villasante, A. Irigoyen eta P. Salaburu jaunek egindako oharrekin batera, bere proposamena aurkeztu du batzarrean. Zenbait argibide behar dira jatorrizko esan nahia ulertzeko eta horrela adieraziko zaie arduradunei. Zerrenda luzea denez, bere osotasunean eztabaidatzeko astirik ez da izan. Urriko batzarrerako utzi da beste zatia.

Orotariko euskal hiztegia

I. Sarasolak esan duenez, OEH-ren hurrengo liburukiaren zinta osoa dato- rren azaroaren 6an entregatuko diote EJIIE-ri, hilabete bat aurretik horren berri emanik. Atzerapenik balego gero, ez dela, beraz, egileen erruz izango zehaztu nahi izan du. Agintari nagusien aurrean jestioren bat egitea aholkatu dio batzarra- ri. Horrela egingo da.

Kanpo izendapenak

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak antolatutako *“Euskadi” Itzulpen* sariaren epaimahairako, E. Knörr izendatu da.

Zarauzko Udalaren eskariz *VIII. Xabier Lizardi* lehiaketaren mahaian J. A. Mujika egongo da Euskaltzaindiaren izenean.

Zamudioko Udalak euskal itzultzaile baten lanpostua hornitzeko egindako deialdian erabakia hartuko duen mahaian P. Uribarren egongo da.

Nafarroan Barañaingo Udalak iragarritako literatura lehiaketan epaimahaikide A. Iñigo izendatu da.

Debako Udalak euskara-arduraduna izendatu nahi du eta hautalanetan parte hartzeko X. Mendiguren izendatu du Euskaltzaindiak, edo ezinean R. Badiola.

Eskuartekoak

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskal Komunitate Autonomoko hiru aldundiek datorren urriaren 7an sinatuko dutela Oñatin Euskaltzaindiarekiko hitzarmena, aditzera eman du J. Haritschelharek.

Gorteetako hauteskundeetarako txartelak, aktak eta abar euskaraz ere argitaratuko direlarik, testuen zirriborroa jaso da Araba eta Bizkaiko Gobernu Zibiletatik. Euskal Autonomi Komunitatean berdina izango da, Gobernu Zentralaren aginduz. E. Knörr Arabako ordezkariari igortzen ahal zaizkio oharak.

Eguerdiko ordubata t’erdietan Donostiako ordezkaritza ofizialki irekiko delarik Hernani kaleko 15.ean, ohi baino lehenago bukatu da batzarrea, zenbait gai beste baterako utziz.

2. BATZARREA

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, arratsaldeko 4etan bildu dira: goizeko bilkuran egondako euskaltzainez gain eta I. Sarasola, salbu: M. Atxaga, M. Azkarate, R. Badiola, J. Etxaide, J. M. Etxebarria, J. G. Etxebarria, J. Garmendia Larrañaga, X. Kintana, J. M. Larrarte, M.^a P. Lasarte, (goizean egona), X. Mendiguren, A. Sagarna, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, urgazleak.

J. San Martín euskaltzainak idatzitako Juan Garmendia “Zeleta”ren hilberri-txostena irakurtzen du J. M.^a Satrustegi Idazkariak. Batzar gelan urgazle zenduaren semea eta erraina ere aurkitzen dira.

“Zeleta” izenordeaz gain “Jeltzale” eta “Berrixki” ere erabili zituela oroitu arazten du txostengileak. Aldizkari askotan egindako artikulugariak, hiru antzerki eta liburuxka bi idatzi zituela zehazten du J. San Martín jaunak.

Ondoren, Euskaltzainburuak, Natela Sturua Georgiako euskal irakasleari ongi etorria ematen dio.

Goizeko bilkuraren berri.—Euskaltzaindiko Idazkariak goizean aztertu edo erabakitako gaien laburpena ematen du: Euskaltzaindiak, Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernuarekin eta hiru Diputazioek, urriaren 7an, Oñatiko Unibertsitatean sinatuko duen Hitzarmena; RENFErentzako hitz zerrendaren lehen partea onartzea; Euskadi Itzulpen Sariko epaimahaikide, E. Knörr; VIII. Xabier Lizardirako, J. A. Mujika; Barañaingo Udalak iragarritako Literatura Sariketarako, A. Iñigo; Zamudio eta Debako Udaletako euskara itzultzaile-arduradunek hautatzeko, P. Uribarren eta X. Mendiguren jaunak izendatzen dira; Gorteetako Hauteskundeetarako txartel, akta eta abarren euskarazko testuak ikusi dira.

Dagozkien batzordeen azalpena.—Jagon Sailak bezperan, Donostian bertan, egin duen bileraren berri eman du E. Knörr Jagon Sailburuak.

Onomastika Batzordeak, joan den astelehenean, Iruñeko Ordezkaritzan egin-dako bileraren berri eman dute E. Knörr eta J. L. Lizundia batzordeburu eta idazkariak.

Ohar bat edo beste euskal literaturaren historiaren inguruan izeneko txostena irakurtzen du P. Charritton euskaltzain jaunak. Mendez mende gutxi aipatu diren euskal lan eta egileak nabarmendu ditu bereziki.

Jarraian, bilduen artean, elkarrizketa bat sortu da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

1989-X-27

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1989ko urriaren 27an goizeko hamar t'erdietan, egin dute euskaltzain osoek hileroko bilkura. Bertan egon dira: J. Haritschelhar burua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martín, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak, J. L. Lizundia idazkariordea eta R. Badiola, urgazleak.

J. Hiriart-Urrity, E. Larre eta P. Salaburu jaunek ezin etorria adierazi dute.

Iraileko batzar-agiria onartu da.

RENFE-ren hitz zerrenda

Iraileko batzarrean hasitako lanari jarraituz, RENFE-k bidalitako hitz eta esaeren zerrendari begiratua eman zaio. Dena ikusi ondoren, hitz bakar batzuren esanahaia iluna gertatzen da proposamenean bertan, eta RENFE-ren arduradunen bat etortzea eskatu du J. Haritschelharek. Bigarren kezka bat ere azaldu da, hitz horien erabilpenari buruz hain zuzen. Dauden-daudenean nonbait ezartze-koak direlarik ez dute arazorik sortuko; baina perpausaren barnean izkribuz edo erabiltze-koak direlarik, deklinabideak, aditz formek eta joskerak, gramatika aldetik sortu dezaketen beharraz, era askotara alda dezakete hitz hauen funtzioa eta, noski, idazteko modua. Hori dela eta, testu guzien itzulpena egina izango delarik azken frogak begiratu beharko dira argitaratu aurretik.

Batzorde oroit-idazkia

Euskaltzainburuak iragarri duenez, batzordeetako arduradunek bilera bat egin-goto dute datorren abenduaren lehen ostiralean urteko oroit-idazkia eta programa-gintzaren egutegia prestatzen hasteko. Horrela urtarrilaren hasieran eduki daitez-ke urteko memoria mugaz egiteko behar diren osagarriak. Urteko aurrekontuak Eusko Jaurlaritzan eztabaidatzen hasi aurretik bidali behar izaten dira egindako lanen memoria eta eginkizunen plangintza zehatza.

Batzorde juridikoa

Euskaltzaindiak sortu berria duen Batzorde Juridikoaren beharrik bat ote dagoen, galdetzen du J. M. Satrustegik gutun baten bidez; eta hala beharrez, bere egitura, mugak eta eginkizuna finkatzea eskatzen du. Eztabaida baten ondoren, batzordea berretsi da Zuzendaritza bertan sartuz, Aholku Batzorde Juridikoa deituko delarik, eta bere eginkizuna Euskaltzaindiari legezko arazoetan aholkua ematea izango da.

Emakumeen Euskal Erakundea

Azken jasotako gutunean Emakumeen Euskal Erakunde honendako izenburu euskaldun bat aurkitzea, eskatzen zaio Euskaltzaindiari. Aurrez aipatua zena-ren ildotik, *Emakunde* izena proposatua izan da. Nafarroan emakumeen ihaute-ri egunaren izen zaharra dela Emakunde, aditzera eman du J. M. Satrustegik, nolabait desegoki gertatzeko arriskua azalduz. Hedadura gutxiko esamesa omen dela, erantzun dute aurkezleek. Beraz, *Emakunde* eta *emakidetza*, izen biak proposatzea erabaki da, eurek bat aukera dezaten.

Batzordeen berri

P. Goenaga, Gramatika batzordeko idazkariak, Mistraleko lanak aurrera eram-ah al izateko beka bat sortzea proposatzen du idazki baten bidez. Zortzi puntutan zehaztutako baldintzen artean, Gasteizen izango duela lantokia eta 1989-1990 ikasturtera mugatuko dela, esaten da. Gramatika batzordeak bere bile-retain erabili behar dituen txostenentzat informatika bidez lortutako euskarriak batzordearen gidaritzapean prestatzea, izango da bere eginkizuna.

Ikasturtea hasia da eta eskaria berandu egina dela, beraz, esan da.

J. A. Arana Martija diruzainak bere kezka agertu du, egitekotan ere diru aldetik modurik badagoen ikusi beharko dela, esanez. Bizpahiru egunen epea eskatu du arazoa aztertzeko, eta hala onartu da.

Hautaketari legokiokenez, Gramatika batzordeak egingo luke epai mahaia- ren proposamena eta Zuzendaritzak erabakia hartu. Horrela onartu da.

Izendapenak

Euskaltzaindiak eta Euskal Unibertsitateak bere egunean izenpeturiko Hitzar- mena aurrera eramateko batzordea izendatzea, proposatu du J. Haritschelhar jaunak. P. Salaburu, E. Knörr eta J. Haritschelhar bera izendatu dira.

Kanpo izendapenetan, Erretereriako Udaletik Kultura batzordeburuak "Koldo Mitxelena" I. Sariko epai-mahairako ordezkari bat izendatzea, eskatzen du. P. Altuna joango da.

Beste maila batean, Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak datorren abenduan egitekoa den Txapelketa Nagusiaren finalerako, lehen saritzat Oteizaren bustua eskatzen du. Kopia ateratzeko baimena Oteizari eskatzea proposatu du J. San Martinek, nahiz moldea berak duen. Euskaltzaindiaren aldetik ez dago orain arte bezala sari-ikurra emateko eragozpenik, eta J. San Martín mintza bedi J. Oteizarekin.

Eskuartekoak

Nafarroako egunkari batek dioenez, soldadutza arbuiaitzen dutenen artean agertzen da Euskaltzaindia, bertan gertatutako arazo batzu aipatzean. Zerbait azaldu behar ote duen galdetzen du J. M. Satrustegi Nafarroako ordezkariak. Itxura gabeko kontua dela ikusten da, Euskaltzaindia ez baita soldadutza jasan dezakeen pertsona fisiko bat. Deus ez egitearen alde bazegoen ere norbait, aipamenak nolabaiteko ondorenerik balu Nafarroako ordezkariak ikusiko duela berria nola gezurtatu, esan da.

Aginte publikoen eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmena Oñatin egin zela baliatuz, Bedita Larrakoetxea euskaltzain ohorezkoa ikusten egon zen Zuzendaritza.

Azaroko batzarrea Bilbon egingo dela, aditzera eman da, Azkue-ren *Euskal-erriaren Yakintza* berargitaratuaren aurkezpena bertan egingo delarik.

Urteko azken batzarrea Iruñean egingo da abenduaren 29an, J. Agerre euskaltzainaren ahunurteburukari eta denbora berean M. J. Urmeneta euskaltzain urgazle zenari ere omenaldia egingo zaio.

Azaroaren 30ean itxiko da bertso-paperentzat iragarritako 1989 “Xenpelar” sarirako lanak aurkezteko epea.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

2. BATZARREA

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan, 1989.eko urriaren 27an, arratsaldeko 4etan bildu dira: goizeko bilkuran egondako euskaltzainez gain, J. A. Arkotxa, P. Arregi, M. Atxaga, J. Etxaide, J. Garmendia Larrañaga, X. Kintana, M.^a P. Lasarte, J. A. Loidi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, urgazleak.

Goizeko bilkuraren berri.—J. M. Satrustegi idazkariak haren laburpena ematen du: 1. Hizkuntz Politikarako Idazkaritzatik igorritako RENFERen hiztegi zerrenda aztertzea eta onartzea burutu da; 2. Programagintza eta oroit-idazkiaren egutegi arauak onartu dira; 3. Aholku Batzorde Juridikoa berregokitu da; 4. Emakumearen Euskal Erakundearen izen propiotzat hauek proposatuko zaizkie: *Emakunde/Emakidetza*; 5. Euskal Herriko Unibertsitate eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmenaren arauzko Jarraipen batzordekide: J. Haritschelhar, E. Knörr eta P. Salaburu izendatu dira; 6. Errenteriako Udalak iragarritako “Koldo Mitxelena” saio lehia-ketarako, P. Altuna izendatu da epaimahaikidetzat; 7. Euskal Herriko Bertsolarien

Elkarteari Euskaltzaindiaren txapeldun ikur-saria ematea erabaki da, alegia, Oteizak egindako bustua; 8. Iruñeko egunkari batean agertu dena, alegia, "Movimiento de Objetores de Conciencia" delakoan Euskaltzaindiak parte hartu duela egia ez dela argitu da, besteak beste, Euskaltzaindia pertsona fisikoa ez delako; 9. Herri Literatura azpibatzerdeak prestatutako sariaren oinarriak banatu dira, azaroaren 30ean lanok aurkezteko epea dute.

Dagozkien batzordeen azalpena.—Gramatika batzordearen "Mistral" lanak aurrea eramateko beka sortzearen eskabidea, ongi ikusi da, nahiz eta aurrekontuen aldetik Diruzaintzak kopurua ziurtatu behar. Epaimahaia Gramatika batzordeak proposatu eta Zuzendaritzak izendatuko du.

Dialektologi batzordearen Euskalkien Ikerketarako azpibatzerdea, orain, arratsaldean bertan, bilduko dela adierazi da.

"Sonetoaz bi argibide" izeneko txostena irakurri du J. L. Davant euskaltzainak. Sonetoari buruz zenbait berezitasun, adibide eta argibide eskaini ditu. Adibide gisa zenbait autore aipatu ditu. Sonetoaren berezitasunen artean lauho eta hirukoak nola lotu eta ematen direnaren zenbait azalpenaz amaitu du txostena.

Ondoren, batzarkideen artean elkarrizketa bizia sortu da soneto gaiaren inguruan.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

1989-XI-24

Bilbon, 1989ko azaroaren 24ean, Bilboko Banketxea sortu zeneko Areatzako egoitzan egin du Euskaltzaindiak, goizeko hamar t'erdietan, euskaltzain osoen hileroko batzarrea. Bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, L. Villasante, euskaltzainak; J. L. Lizundia idazkariordea eta J. J. Zearreta ekonomi-eragile, urgazleak.

J. L. Davant, X. Diharce, E. Larre, F. Ondarra, I. Sarasola eta P. Zabaleta jaunek ezin etorria adierazi dute.

Urriko batzar-agiria onartu da.

Casenave-ren hiztegia

Tx. Peillen euskaltzainak, Junes Casenave urgazlearen Hiztegia aurkeztu du. Egileak baditu zenbait herri bere apaiz laneko arduran eta ez du etortzerik izan. Xuberotar literaturaren hiztegia dela esan du aurkezleak, eta Zuberoako idazleen-tzat egina. Orain arte jaso gabeko hitz asko eta asko bildu omen du. Garbizale omen da baina ez osoki. Fratses-hitz asko baztertu du, noski, beste batzu sartu dituelarik. Xuberotarra ez dela joera bakarrek mintzaira, aditzera eraman du gero. Batzuk ba omen dute manex itxura, eta xuberotar itxura besteren batzuk. Nola nahi ere, lan haundia eta ederra dela, azpimarratu du aurkezleak. Bada bertan ondasunik, esan du.

Liburuaren ale bat eskuz-esku ibili da. Egileari zorionak eta eskerrak ematea erabaki da.

Batzordeen berri

Euskaltzaindiak Herri Aginteeekin izenpeturiko Hitzarmenaren eskakizunak betetzeko, aurtengo *Oroit-idazkiaren* eredu eta prozedura zehaztera Zuzendaritza, batzordeburu eta batzorde idazkariak bilduko dira azaroaren 30ean, Bilboko bule-

goetan. Urteko xedeak, kronograma, giza-baliabideak eta tresna materialen zehaztapena, Hitzarmena oraintsu sinatua denez, aurrez egindako lanen arabera azaldu behar da. Hiru hilabetero emango ditu kontuak Diruzaintzak, egin ohi den moduan.

P. Salaburuk aditzera eman du, Gramatika batzordeari dagokionez, ez dela erraz izango lan kopurua bere osotasunean agertzera ematea. Izan ere, beste era batera lana egitea erabaki dute, liburu lodia eta eskuarteko gramatika argitaratuko direlarik. Aldaketa hori bera zehaztapen hauetan azaltzeko gaia dela, erantzun zaio. Bilkura honetan emango diren argibideekin, urtarilaren hasieran batzorde idazkariak berriz bilduko dira euren oharrak ekartzeko. Hiru bat orrialdeko agerpena egingo du bakoitzak ereduari jarraituz berezkoa den erdal iztulpenarekin, hala, lan hori beste inori leporatu beharrik gabe.

Onomastika batzordeko idazkaria den J. L. Lizundiak *III. Onomastika Jardunaldiak* direla-eta, arduradunek Lizarrako Udaletxean egindako bilkuraren berri eman du. Jardunaldion egutegia finkatu da, besteak beste, 1990eko irailean azken ostiralaren inguruan egingo direlarik. Kongresu gisako ekintzetan ohi denez, bi batzorde suntsikor proposatu dira: Akademi batzordea bederatzi izenek osoturikoa, eta Antolakizun batzordea zazpi izeneko talde baten ardurapean. Horrela onartu da. Lizarrako hizkuntzen agerpena eta erakusketa antolatzeko asmo edo gogoia agertu du E. Knörr batzordeburuak, nolabait, irekitasunaren eredu. Eta hizkuntz-erakusketa arkeologiko hutsa gerta ez dadin, hain jokabide jator eta ondore onak jaso dituen Lizarrako Ikastolaren azalpena ere egin daitekeela, esan du.

Izendapenak

Berto-paperak deitutako lanentzat Euskaltzaindiak iragarritako “Xenpelar” 1989 sarirako epai mahaia, J. M. Lekuona, J. M. Aranalde eta A. Aranburu jaunek osotuko dute.

“Txomin Agirre” eleberri saria ere Euskaltzaindiak antolatzen du eta 1989ko epaia P. Charritton, J. Cortazar eta J. A. Mujikak erabakiko dute.

Sariketak direla-eta eztabaida sortu da batzarrean. Bazter guzitan sortzen ari dira era guzitako idazlanen lehiaketak eta lan gutxi aurkeztu ohi da, maila ez delarik beti behar bezain ona. Koordinakuntza behar-beharrezkoa ikusten da. J. M. Lekuonak, Literatura batzordeburua denez, egin lezake egoera aztertuz proposamen-txosten bat. Udalek, adibidez, herriko seme ospetsuen izenean sortu ohi dituzten sariak hor daude eta oso zaila gerta daiteke, beste sari batzuren errepikapena izan arren, elkarrekin batzea. Erakunde ofizialek, bestalde, euren sari nagusiak badituzte eta, bitartean, aspaldiko sariek ez dute gaur erakarpenik. Azterketa sakon bat eskatzen du arazoak.

Eskuartekoak

Datorren abenduan Iruñean egitekoa den batzarreari buruz azken berriak eman ditu J. M. Satrustegik. Abenduaren erdi aldera irekitzekoa denez erakustoki

edo museo berriztatua, bertako aretoan egin ahal izango da J. Agerre eta M. J. Urmenetari eskainitako ospakizuna. Agintariekin nahiz omenduen familia biekin mintzatu da Nafarroako ordezkaria. Urmenetak badu Agerre zenari buruz idatzitako lan argitaragabe bat eta egilearen alarguntsak irakurri dezake batzarrean. P. Zabaleta eta J. M. Satrustegi arduratuko dira bi omenduekiko txostenez.

Andoingo alkate jaunaren gutuna irakurri da, datorren urteko egutegian Euskaltzaindiak Larramendiren III. mendeurrenerako ospakizunen bat sartzeko eskatzen. Hiztegiintzari buruzko Jardunaldiak aipu ditu, eta egunari dagokionez, abenduaren bigarren erdialdeko asteak daitezkeela egokienak, aditzera ematen du.

“Arbasoen-Izkuntza-Zaleak” delakoak bidalitako gutunaren berri eman du euskaltzainburuak.

Campion-Broussain Elkartearen Administrazioako batzordea atzo bildu zela, esan du J. A. Arana Martija Elkartearen eragileak, eta hartutako erabakien berri eman du.

Eta azkenik, Euskaltzaindiaren *Argitalpenen 1988-1989 Katalogoa* banatu da.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

* * *

Jarraian, Banketxe berean, R. M. Azkue-ren *Euskaleñaren Yakintza* aurkeztu da, BBV-ren laguntzaz egin baita hirugarren argitarapena. Euskaltzainburuaren ongietorriaren ondotik, J. L. Lechosa jauna mintzatu da Espasa-Calpe argitaletxe-ko zuzendari nagusiaren izenean, BBV-ren Erakunde-Harremanetarako zuzendari den Francisco Perez Garzonek esan ditu gero hitz batzu, eta J. M. Satrustegik egin du liburukien aurkezpena.

2. BATZARREA

Bilbon, Banco Bilbao-Vizcayaren sortze egoitzan, 1989.eko azaroaren 24ean, arratsaldeko 4etan bildu dira: goizeko bilkuran egondako euskaltzainez gain, X. Aranburu, R. Badiola, F. Barrenengoa, J. G. Etxebarria, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, X. Kintana, J. Kortazar, A. Muniategi, J. Oleaga, J. A. Retolaza, K. Rotaetxe eta P. Uribarren urgazleak.

Goizeko bilkuraren eta Batzordeen berri.—J. M. Satrustegi idazkariak, tratatuta-ko gaien berri ematen du: 1. Tx. Peillen euskaltzainak Junes Casenave urgazlearen *Hiztegia-français/euskara* liburuaren aurkezte azalpena egin du; 2. Aurtengo XENPELAR eta TXOMIN AGIRRE sariak ebazteko epaimahaien izendapena; 3. Herri Aginteekin egindako Hitzarmena dela eta, Euskaltzaindiari eta bereziki, bere Batzordeei dagozkien betekizunez; 4. Lizarran, datorren urtean, egingo diren III. Onomastika Jardunaldiek prestatzeko akademi eta antolakizun batzorde suntsikorrak izendatu dira; 5. Abenduan, Iruñean, egingo diren batzarreen egitaraua, bereziki, Jose Agerre eta Migel Jabier Urmenetaren omenezkoa; 6. Andoingo alkatearen gutuna, zeinetan Manuel Larramendiren 3. mendeurrena dela eta,

Gramatika eta Lexikologi Jardunaldiek egiteko lankidetzara eskeintzen bai du eta heldu den urteko egutegian sartzeko asmoa; 7. Campion Broussain, E.A. dela-koaren kontu errendatzea; 8. Euskaltzaindiaren Argitalpenen Katalogo berriaren aurkezpena Durangoko XXIV. Euskal Liburu eta Disko Azoka bezperetan.

Jarraian, J. Haritschelhar Euskaltzainburuak hitza hartzen du eta Euskaltzaindiak bi bizkaitar ohoratu nahi dituela adierazten du. Bata, Antonio de Trueba, galdamestarra, bere heriotzaren 100 urteurrenean eta bestea, Aita J. M. Estefania, bilbotarra, bere sortze 100. urtean. J. A. Arana Martija eta P. Altunaren esku uzten du lan hori.

Segidan, J. A. Arana Martija euskaltzainak "Antonio de Trueba eta euskara" izeneko txostena irakurtzen du. Truebaren ehun urteurrenean, Erromantiko garaiko idazle honek, euskarari buruz egindako lanak, euskalduntze ahaleginak, itzulpenak eta abar, xehetasun ugari horniturik azaltzen ditu.

Ondoren, P. Altuna euskaltzainak "Jose M. Estefania Zabala (1889-1942). Orixeren eta Lauaxetaren garaiko zenbait euskal poetaren gidaria" izeneko txostena irakurri du. Mende honen lehen herenean, euskal literaturan gailendu ziren askoren eragile izandako, Bilbon jaio eta El Salvador-en hildako jesulagun eta irakasle honen berri ematen du: Orixe, J. Zaitegi, A. Ibiñagabeitia, Lauaxeta eta abar. Askorentzat ez ezaguna izan den euskaltzale maisu honen xehetasun ugari azaltzen ditu P. Altunak bere txosten mamitsuan.

Bukaeran, Estefania eta bere garaia buruzko elkarriketa interesgarri bat sortzen da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

1989-XII-29

Iruñeko Ordezkaritzan 1989ko abenduaren 29an, goizeko bederatzirterdian, egin du Euskaltzaindiak euskaltzain osoen urte amaierako batzarrea. Bildu dira: J. Haritschelhar burua, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, L. Villasante eta P. Zabaleta, euskaltzainak; J. L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

Azaroko batzar-agiria onartu da.

1990eko egutegia

Datorren urteko batzarreen egutegia aurkeztu du J. L. Lizundia idazkariordeak. Bi izango dira ospakizun nagusiak, hots, M. Larramendiren III. jaiotmendeurrena, eta Lizarrako Foruaren IX. mendeurrena, Gramatika eta Lexikografia Jardunaldiak egingo direlarik Andoainen, eta III. Onomastika Jardunaldiak Lizarran.

Bestalde, P. Novia de Salcedo, G. Manterola eta K. Otaegi euskaltzaleen mendeurrena ere hor delarik, dagozkien batzarretan egingo da bakoitzaren omezez ospakizun berezia.

Euskaltzainburuak aipatu duenez, Euskaltzaleen Biltzarrak Hendaian eginda-ko ospakizunera gomitatua izan zen Euskaltzaindia eta bertan egon ziren J. Haritschelhar, J. M. Lekuona eta E. Knörr euskaltzainak. Dirudienez, Hondarribian egingo da datorren urteko Biltzarra eta Claudio Otaegi zenaren aipamena egingo da, Euskaltzaindia han egongo delarik.

Helburu eta datak kontutan harturik, punduz-pundu aztertua izan da 1990eko egutegia eta, ondoren, onartua.

Batzordeen berri

Gramatika. Mistral proiektua burutzeko iragarria zen Beka Deialdirako epaimahaia abenduaren 22an bildu zela Bilbon, aditzera eman du P. Altuna batzorde-

buruak. Sei eskari jaso ziren epe barruan, horietako hiruk bakarrik bete zituztelarik oinarrietan ipinitako baldintza guziak. Espediente akademiko eta eskarien eraskin guziak aztertuta, Jesus Maria Makazaga Eizagirre izendatzea proposatzen du. Onartu da, eta horrela jakineraziko zaio gutun baten bidez hautatuari.

Onomastika. Durangoko Udaletxean abenduaren 9an egindako bilkuraren berri eman du J. L. Lizundia batzorde idazkariak. Argitarapengaiak ikusi ondoren, Lizarrako Jardunaldien antolakizun eta aurkeztutako lanez mintzatu ziren batzartuak. Nafarroako Herri Izendegia argitaratzeko hitzaurrea aztertu zen hitzez-hitz, eta onartu. Batzordeak urtean zehar egin dituen bileren zerrenda banatu da.

Jagon Saila. Bezperan bildu zela batzorde hau, aditzera eman du J. L. Lizundiak. Irakaskuntza, Administrazio eta giza-komunikabideetan jagoteaz Jardunaldiren batzu prestatzen hastea, izan zen gai nagusia.

Diruzaintza. Euskaltzaindiko langileentzat diru maileguak lortzeko proposamena egin du J. A. Arana Martija diruzainak. Zortzi pundutan bildu ditu eskariaren baldintza nagusiak. Hitzarmena zehatzago finkatzea eskatu zaio. Eusko Jaur-laritzako langileen diru maileguek duten arauetz baldintzatuko dela, erabaki da. Horrela esango da hitzarmenean.

Orotariko Euskal Hiztegia

OEHren ordenagailuak zaharkiturik gelditu direla une honetan batzordeak dituen beharrentzat, aditzera eman du diruzainak. Wang etxeari eskatutako eraberritze proiektua begiratu du Eusko Jaur-laritzako EJIek eta ontzat emana. Kostua 5.678.174 pezetakoa izango da, orohar.

Orotariko Euskal Hiztegiaren arduradunek eta Diruzaintzak egin dituzte ohizko konprobaketak aparailu aldetik nahiz diru aldetik, arazorik ez dagoela baieztuz. Zuzendaritzak ere oneritzia emana dio berrikuntzari. Batzarreak onartu du proposamena.

Azkue Biblioteka. J. A. Arana Martijak Azkue Bibliotekaren arazoak azaldu ditu. Liburuak metaturik daude Erriberan eta beste asko Etxebarriko biltegian, eta lanerako eragozpenak dituzte, batez ere, egoitza berrira aldatu aurretik informatizazio lanak hasteko unean. Ekintza honek denbora asko eta langiro lasaia eskatzen duenez, denboraldi batetarako Biblioteka ixtea eskatzen du. Zuzendaritzak baduela eskariaren berri, esan du.

Proposamena arrazoizkoa denez, datorren otsailaren lehen egunetik itxiko da publikoari Azkue Biblioteka, Barne Administrazioarako (egoitza eta ordezkaritzak), nahiz euskaltzaintzat eta batzordeen beharretarako zabalik jarraituko duen arren.

Azkenorduko gaiak

J. M. Barandiaranek ehun urte beteko dituenetz datorren urtezahar egunean, zorionik beroenak opa dizkio batzarreak. Idazkariak emango dio gaur erabakiaren berri.

F. Krutwig-ek “Homero 1989” saria jaso du Grezian. Euskaltzaindiaren zorionak jaso ditu halaber.

Tx. Peillenek “Domingo Agirre” Saria irabazi du. Berak etortzerik izan ez zuelarik, A. Irigoyenek ordezkatu zuen sari banaketan.

Ch. Videgain urgazleak doktoradutza lortu duenez, goresmenak eskaini dizkio euskaltzainburuak batzartuen izenean.

1989ko Xenpelar sarien berri eman du epaimahaiak. Lehen saria Zaldubiren “Aitona zaharra” izeneko bertso-paperentzat izan da. Bigarrena, Santi Zabala “Lexo”-ren “Gogoetak” lanarentzat. Hirugarrena Antton Kazabon-en “Esnatzera-koan” izenburua daramanarentzat.

AEK-ri izenburuaren eskubidea aspaldi emana diolarik Euskaltzaindiak, *Euro-patent* etxearen bidez notari aurrean legeztatzeko baimena eman dio orain J. A. Arana Martijari batzarreak.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko 1989ko trofeoa J. M. Lekuonak eman dio Euskaltzaindiaren izenean Jon Lopategi irabazleari.

Nafarroako Toponimia Ttipiaren bilketa lana egiten ari den taldean sortutako arazoen berri eman du idazkariak. Datorren batzarrean zehazteko utzi da gaia.

Andoaingo Udalak eratutako “saiakera laburrak idazteko dirulaguntzen” epaimahairako, P. Altuna izendatu da.

Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko egoitzaren berrikuntza lanetarako kandela egin duela, jakinerazten du. 225 milion pezetetan eman zaio “Dragados y Construcciones” entpresari. Jarraipeneko batzordekoa mintzatu da arkitektoekin eta hamalau bat hilabeteko lana izango dutela, esan zaio.

Aita J. Erriezuko ohorezko euskaltzaina ikusten izan dira J. Haritschelhar, L. Villasante, J. M. Lekuona eta J. A. Arana jaunak. Asko eskertu du bisita.

* * *

Jarraian, eguerdiko 12etan, Nafarroako Gobernuaren jauregian ospatu du Euskaltzaindiak J. Agerre eta M. J. Urmeneta jaunen omenezko batzarre irekia. Aladino Colin Lehendakartzako kontseilariaren ongietorri laburrarekin hasi da bilkura. J. Haritschelhar euskaltzainburuak eman dio hasiera hitzaldiei. P. Zabale-tak “Jose Agerreren eragina Nafarroako euskararen munduan”, azpimarratu du bere txostenean. M. J. Urmeneta zenaren idazlan argitaragabe bat irakurri du, gero, “Agerre y el vascuence”, bere alarguntsak. J. M. Satrustegik “Miguel Jabier Urmenetaren omenez” izeneko txostena irakurri du. Azkenekoz, A. Colin kon-seilariaren hitzekin amaitu da batzarre berezi hau.

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

BERRIAK

TEMAS PRERROMANOS EN LA PENINSULA IBERICA

Colonia, 25/29 setiembre, 1989

Patxi Oroz Arizkuren

Se ha celebrado en Colonia, del 25 al 29 de setiembre, el V Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica. Con ello se ha continuado la serie de encuentros de especialistas iniciada en Salamanca en 1974 y que ha tenido sus exponentes en Tubinga, en 1976, en Lisboa, en 1980, y en Vitoria, en 1985. Son tres lustros, cuatro hitos, en la investigación, condensados en las correspondientes Actas (I, Salamanca, 1976; II, Salamanca, 1979; III, Salamanca, 1985; IV, Vitoria-Gasteiz, 1987). Estos tomos son también años de historia de esos estudios, con la fiel presencia de algunos nombres, y la ausencia definitiva de otros, como lamentaron Jürgen Untermann al inicio de las sesiones, y Juan Gil al final:

“No puedo empezar sin recordar que, en este cuadrienio, el estudio de las lenguas y las culturas paleohispánicas ha sufrido pérdidas dolorosísimas. Parece que las Parcas se han ensañado con la ciencia hispana segando implacables la vida de nuestros patriarcas: en el campo de la Arqueología nos falta Juan Maluquer; en el campo de la Lingüística nos han abandonado Antonio Tovar, Luis Michelena, M.^a Lourdes Albertos, Sebastián Mariner, dejándonos el consuelo de su memoria y de su magisterio.”

La lección inaugural había corrido hasta este año a cargo de los inolvidables Antonio Tovar, en 1974 y en 1985, y Luis Michelena, en 1976. En Colonia ha inaugurado el coloquio —tras unas palabras de bienvenida por parte de Jürgen Untermann, organizador del mismo— Javier de Hoz, quien ha disertado sobre *La lengua y la escritura ibérica y las lenguas de los iberos*, poniendo en juego el concepto de *lingua franca* para el ibero, concepto que ha vuelto a ser discutido en la sesión de clausura dirigida por Juan Gil, y que acaso podría ser conjugado —no sin cierta exageración— con el de el ibero, lengua *pidgin*.

No es este el lugar adecuado para reseñar cada una de las más de 40 comunicaciones que tuvieron por objeto temas de historia, de arqueología y de lingüística. De la primera sección mencionaremos, por la importancia que pudieran tener para el vasco, la ponencia de Guillermo Fatás sobre *La vertiente meridional de los Pirineos durante la conquista romana y Aculturación del valle medio del Ebro*, de Francisco Beltrán Lloris. De arqueología recordamos la conferencia de Enrique A. Llobregat Conesa, *Los diversos factores concurrentes en la configuración del arte y la cultura ibéricos*, que suscitó una viva discusión; *La*

monetización del sur y levante peninsular en la segunda guerra púnica, de María Paz García Bellido, conocida por sus competentes aportes en el campo de la numismática hispánica, y *El sistema palacial en la Península Ibérica*, de Martín Almagro Gorbea.

Dentro o cerca del campo de la lingüística se trataron, además de temas de filología clásica, aspectos del tartésico, del ibérico y del aquitano. José Antonio Correa presentó un descubrimiento epigráfico tartésico que merece el epíteto de sensacional, el semisilabario encontrado en Espanca (Castro Verde, Baixo Alentejo), que sigue en la primera parte el orden del alfabeto fenicio, y que en la segunda contiene signos fenicios y signos "inventados". Dada la poca variedad del material epigráfico en esa región, reducido casi exclusivamente a lápidas, se hubiese esperado más bien encontrar muestras de los signos escriturarios en territorio de lengua ibérica, y no tanto de tartésica, pero los hechos no han correspondido a las suposiciones, y mientras que todavía no disponemos de un semisilabario ibérico, tenemos ahora el tartésico, en una versión doble incluso, sobre la misma piedra.

El celtibero fue tratado por D. Ellis Evans: *The Identification of Old Celtic with special Reference to the Hispano-celtic*, y por Eric P. Hamp: *Keltiberisch, iberisches Keltisch und Festlandiberisch* bajo un enfoque amplio, mientras que Francisco Villar Liébana ofreció un análisis detallado, exhaustivo e inmovible de *Las dos sibilantes del celtibérico y su significado en la interpretación de algunos pasajes del bronce de Botorrita*. Filippo Motta presentó un análisis de los diversos tipos en las *Alt-keltische Namenformeln*, José María Sádaba disertó sobre *Antropomía indígena hispánica: metodología*.

Al ibérico se dedicaron varias conferencias: Alberto Quintanilla Niño habló sobre *El vocalismo de la lengua ibérica*, Vincenzo Valeri sobre *Las nasales ibéricas*. En dos ponencias se prestó especial interés al vasco, en *Iberian and Basque linguistic similarities*, por James A. Anderson, y en *La onomástica aquitana y su relación con la ibérica*, por Joaquín Gorrochategui. Entre ambas conferencias —las que más interesarán a los vascólogos— había, como es natural, puntos de contacto, coincidencia parcial en el material interpretado, pero predominaron las diferencias en cuanto al enfoque y a las conclusiones.

Anderson adujo el material barajado por diversos críticos para analizar la posible relación entre el vasco y el ibérico y que puede verse en gran parte recogido en su reciente libro *Ancient Languages of the Hispanic Peninsula*, University Press of America, 1988, especialmente en las páginas 103-130. Gorrochategui, partiendo de sus profundos conocimientos en el campo de la onomástica indígena aquitana, plasmados en su libro *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania* presentó un análisis de los nombres personales y de divinidades y los comparó con los ibéricos, cribando el material, sin negar las semejanzas pero insistiendo también sobre las diferencias bajo diversos aspectos, y aconsejando suma reserva a la hora de establecer paralelos entre el vasco y el ibérico.

Mi postura anterior y actual ante esta cuestión, que tuve ocasión de exponer, es la de rechazo al método de recurrir a los diccionarios vascos, sin tener en la mínima consideración el contexto semántico, para establecer paralelos. Sin embargo, no conviene abandonar el euskera como posible instrumento para

acercarse al ibérico, con el que tiene elementos en común que acaso puedan explicarse recurriendo a la vecindad, a la convivencia, y más exactamente a la teoría del sustrato, que explicaría las semejanzas sin afectar a las diferencias.

El tema del vasco-iberismo fue tocado en dos ocasiones más, al mencionarse el epígrafe **arsagiscuegiar** de una moneda de Sagunto para la que la Dra. García Bellido insinuó que tal vez podría ponerse en relación con monedas fenicias en las que se conocían epígrafes con verbos de significado afin al de “hacer”. La cuestión volvió a presentarse cuando Jaime D. Vicente Redón habló de *Las inscripciones localizadas en la denominada “Casa de Likini-te” en Caminreal, Teruel*, y especialmente sobre un epígrafe en caracteres ibéricos que, debajo de un mosaico, ostenta la palabra **egiar**, entre dos palabras que, según expuso el conferenciante, son nombres propios. Se trajo a colación, siguiendo una vieja tradición, el vasco **egin** “hacer”, que bien pudiera figurar bajo una obra de arte. No puedo entrar en detalles sobre la interpretación de ese letrero antes de que lo publiquen los descubridores, pero quisiera dejar constancia de mis graves dudas sobre la conveniencia de explicar esa palabra poniéndola en relación con el vasco **egin**. Las razones las expondré cuando haya sido publicado ese epígrafe. Lo que quisiera ahora es exponer mi reticencia sobre la comparación de **egiar** de los letreros de Liria con el vasco **egin**. Sabido es que han defendido esa relación, de manera más o menos matizada, P. Beltrán, Caro Baroja, A. Tovar, etc. No hace falta, para negar el significado de “hacer”, traer a colación otros ejemplos de esa palabra que ha recogido Fletcher. Para infirmar un significado, basta encontrar un ejemplo para el que no cuadra. Y tal es el caso en los letreros de Liria, contra lo que pudiera parecer a primera vista. La cerámica pintada de Liria es sin duda alguna obra de arte, y podría esperarse por ello que figurase el nombre del “autor”, del pintor. No sería difícil aducir ejemplos que confirmasen esa costumbre, griegos y latinos, por ejemplo. Esa es la primera idea. Pero si reflexionamos más, tenemos que rechazar esa interpretación: En esa olla pintada, muy incompleta, aparece **egiar** nada menos que tres veces: *..cafesirte egiair banite...*; *cafesbo-bigiregiar ebirtegiar*; hay que excluir por ello que se trate del “artista”, pues serían muchos los autores del fragmento. Algo parecido vale para otro fragmento de olla con jinetes, mujeres, bailarines y trompetero (cf. Gómez-Moreno: *Epigra-fía Ibérica, Inédita*, pp. 303-304) y para los fragmentos de la tinaja con escenas de caza, en que se repite respectivamente tres y dos veces esa palabra. Basta esta constatación para descartar tal interpretación.

Mucho más difícil que rechazar una interpretación resulta proponer una nueva, que para que sea aceptable deberá cuadrar en todos los ejemplos. Será por tanto necesario consultar todo el material en que aparezca esa palabra, estudiando minuciosamente el contexto. Si se me permite adelantar, aventurar una idea, una vez rechazada la vinculación semántica con “hacer”, “autor”, yo me inclinaría a ver en **egiar** un elemento que puede servir para determinar un nombre propio, un *praenomen* o varios, y que es combinable con nombres toponímicos. Es un elemento que mantiene cierta independencia, cierta libertad entre los componentes de la frase. En otras palabras, no ha de tratarse ni de un prefijo ni de un sufijo. Me inclino a pensar en el campo semántico de agrupación, “familia”, “pueblo”, “ciuitas”, “gens”. Para el estudio de esta posibilidad convendría traer a colación e.g. los diversos tipos latinos de fórmulas onomásticas, cuales *Vianeglo Segei ex gente Abilicorum*, o *Oculatio Cangili f. Sigisamo gente*

Viromenigorum, o *Valerius Auit(us) Turran(i)us Sulpici de uico Baedoro gentis Pinton(um)* (cf. M. Faust: *Tradición lingüística y estructura social: el caso de las gentilitates*, Actas II, p. 439 ss.). El sustantivo *gens*, o *ex gente*, puede omitirse o sobreentenderse, como en *Arauo Olidaridu(m)* o en *Alles Alionicum* o como en el tipo de fórmula en que al nombre individual y al nombre de la *gentilitas* sigue el dato de filiación: *(T)outoni Argantioq(um) Ambati f.* (Faust, p. 447; cf. M. C. González Rodríguez y J. Santos Yanguas: *El caso de las llamadas gentilitates*, Actas IV, p. 373 ss.).

Es un intrincado bosque en el que será necesario moverse con mucha circunspección y prudencia; convendrá analizar detalladamente la distribución y modificación de los elementos contiguos a **egiar**, la posible relación semántica con **iltirte**, la compatibilidad o incompatibilidad con **-etar** o **-scen**, etc. Pero probablemente no sea un cuadro más complicado, más complejo que el que presenta el empleo de *gens* o los sufijos *-(i)tani*, etc.

Pero mi propósito era demostrar que es insostenible en ibérico **egiar** “hacer, autor”, ya por razones de contexto.

En otra inscripción ibérica de Caminreal, en un sello de alfarero, hay que descubrir a mi juicio una réplica del epígrafe latino que figura en el mismo objeto, con lo que tenemos una inscripción bilingüe. Del análisis cabe aislar claramente el elemento ibérico **-en**, tratado extensamente por Michelena en el I Coloquio (cf. Actas I, pp. 353-361). Es indicador de genitivo, lo que nos acerca de nuevo al euskera, como ha venido defendiendo también Antonio Tovar.

Pero basten estos jirones para dar una prueba de lo variopinto, de lo abigarrado que ha sido el coloquio de Colonia, donde se han combinado ideas viejas con nuevas, donde al material conocido se ha añadido material inédito, como el de Espanca o el de Caminreal, o el de los epígrafes ibéricos de la Cerdaña, enmarcados por Pierre Campmajo en el contexto arqueológico y brevemente ilustrados por Jürgen Untermann, a quien damos nuestros parabienes por la excelente organización de este V Coloquio en el que han participado especialistas de ocho nacionalidades y que representan la madurez y el futuro en este polifacético mundo cultural de nuestra península que tan paulatina y avariciosamente nos va revelando sus secretos de tiempos remotos.

AITA JUNES CASENAVE HARIGILEREN HIZTEGIA

Bilbo, 1989-XI-24

Txomin Peillen

Zuberotar eleiza gizon, Santa Grazin sortua ta Betharam-eko anaidikoak, mundua kurrutzen zuelarik erakasle ta eskola zuzendari bezala, saiatu zuen, etxean ikasi ta liburuetan aurkitu zuberotar hitzen biltzea eta hogeitabost urteren nekezko frutu hori, beste hamaika lanen artean, argitaratu digu Hiztegia izenburuarekin eta azpizenez (Français-Euskara züberotar euskalkitik abiatzez). Argitaldaria Zuberoko Hitzak etxea da, Ozazen kokatua dena. Lan horrek, eskatu arren, ez du ez Frantziaren, ez Eskualdeko agintarien gandik diru laguntzari jaso eta Eusko-Jaurilaritzak, Gipuzkoa, Bizkaia, Arabako aldundiek eman diote.

1. Ikus dezagun zer den eta ez den hiztegi hori?

Hiztegi arauemailea da ta herri sibilisatueta ohi diren kriterioekin egin, Akademia baten aholkuak segituz, etimologiarik eman gabe, eta diakronia kontutan hartu gabe; beraz Züberoeraren idazteko, euskalki horren arauzkatzeke egin da, ez linguistentzat. Kriteriok al ikus dezagun zertan den arauemailea eta kausitu duenetz hala izatea.

2. Ortografia

Euskaltzaindiaren ortografia osoki onartua da nahiz ez dituen —urrundik ere— züberoera mintzatuaren ñabardurak kontutan hartzen. Gero gau-eskoletarako ta euskara ikasten dabilzanentzat Sü Haziak badauka, lantxo zuberotar fonetikaren azaltzeko.

3. Zuberora ta euskera batua

Gure zuberotar euskaltzaleak, lanpetuta dagoelako, ez du astirik izan bere liburuari batasun osoa emateko, eta ageri da lehenbiziko laurdena egin duela, euskara batuaren planteamendurik ez zegoenean handik goiti euskara batuaren

sinonimoak sartzen ditu, zuberotar hitzeen ondotik, ez bakarrik bere zintzotasuna ta helburuari batasun bat emateko, baina gaur holako hitzak (eragin, erakunde, iragarki, irрати, eta abar) Zuberoako gau eskoletan, ikastoletan, Irratian erabiltzen baitira.

4. Garbizale ote?

Arauzkatze lan hortan, code-switching fenomenoak ez ditu batere kontutan hartu, ezen onartu balitu, eta Zuberotar bakoitzak “frantses erdarakada” kuttun bat daukan ezker, 25.000 sarrera duen hiztegi horrek, 10.000 frantsez hitz, gutxienik, onartu behar zitukean. Ez du aspaldi donostiar kazetolari gazte batek garbizalea nintzela esan zidan, eta euskaldunek erabiltzen dituzten erdal hitz guztiak gure hiztegietan sartu behar bai genituzke. Erantzun nion Europako beste hizkuntzetan modari jarraituz erabiltzen diren ingeles hitzak ez dituztela beren bildumetan hartzen.

Egia da, hiztegi hori ez dela, hain gaizki berba egiten duen nere auzoaren Zuberoera, ez eta maisuak zigortuz erdi mututu digun euskararako, Kurutxagaren alabarena. Hiztegi hau erakasle ta idazleentzat da egina eta eskoletan haurrek ikas dezaten, “beau-père-a ez dela euskal hitza ta zubereroaz, zehaztasun hobez, bereizten dela aitaxüna ta aitaigharreba. Bai, ni ere garbizalea naiz, gazte garaian ikasi hitzak darabiltzadalako, eta populismoaren izenean diglosiari amor eman behar baitzaio”.

Gure hiztegi egileak ez ditu ordea, gure hizkuntzan sustraitu gaztelania ta gaskoin maileguak baztertu, baina frantsesezko gehienak bai, ez baitira —fonetika desberdintasunez beti errez sustraitzen— adibidez motor-zerra, edo trenka segarentzat erabiltzen da frantses fonetika errespetatuz, aipamen baten moduan “tronçonneuse”-a. Frantsesaren eragina bakarrik atzizkietan agertzen da mintzatuan, euskal fonetikaren aurka ez doatzanean.

5. Grekera ta latineratik mailegatutako hitzak

Egileak bi jarrera izan ditu, lan hori aspaldian abiatua izan ezker ez du hor ere astirik izan batasun oso baten kausizteko, hasieran hitz horien baliokideak ematen ditu, hitz bat edo bitan, eta nahiko ulerterrezak diren hitzetan, gero “euskara batua”ren azizez liburu gehiengan, grekolin hitzak ematen ditu Euskaltzaindiak aholkatu f gafiarekin.

Zuberorazko *hirigoihen*, “acropole”ntzat ematen zuelarik eman zezakean, akropolo, ere. Hori “akropolo” euskaltzainak erabakiko al digu? Lorpen onik badago, aeronauta haina argi da *airelari*, eta *aerospatial* bezala airezabalgüneko, hain argi edo hain ilun. Arkeologia hitza ez ematea hasierako jarrera honen kondarra da, baina nahiz leheneko jakintza, nahiz arkeologia hitzak ez ditut, orainarte, zuberoraz irakurri.

Garbizale joera laster ez da hain nabari, klorofila, katapulta, kosinus hitzak onartzen ditu beste baliokiderik eman gabe, zorionez, baina noizpeinka lür jakin-

tza bat agertzen da “geologia” bezala eta guretzat “agronomia” lizateke berdin. Hau da, batzutan, gaurko euskararen joerak ikusita korrontea goiti doana, agian, batzuren mordoilozaletasunak hartaratua. Garbizale joera hori maiz aurkitzen da Zuberoan, Oihenarterena zen, Intxauspe, Egiategi ta Miranderena ere. Jakintza hitz horiez kanpo gure aita ematen dituen hitzak ez dira sekulan asmatuak, nahiz batzu ez diren Zuberoa guztian erabiliak, nahiz eta erabili guztiak ez dauden hor, frantses standard zerrenda batetik eginik baita, eta Zuberoako bizitzatik ez beti hurbilegi.

6. Esaerak, erran moldeak

Hiztegi hortan ez da adibiderik agertzen, ez idazle aipamenik, ez mendeen oharrik, baina duela hamar bat urte lan hori elkarrekin aipatu genuenean eta aurretik egin ziren zehaztasun gabeko bildumak gogoan, alegia Epherre abadeak eginak, hitzeman zidan gutxienez esaerak eta erranmoldeak ipiñiko zituela. Liburuaren hasieran batzutan huts egin du hortan adierazkide zerrenda emanaz, bakoitzak ñabardura desberdina, konotazio desberdinak dituelarik. Liburuaren aurreratzearekin holakorik ez zaio gertatu eta adibide on bat har nezake, liberal hitzarekin.

1. Emaile adieraziarekin: esküzabal.
2. Besteen ideiak onartzen dituen: egarle.
3. Politika alderdia: liberal.

Parcours zerrendan bereizten du (*action*: egintza / *chemin*: bide / *trajet*: güne) Parc: à moutons, à huîtres, zoologique, à autos automobile eta abar.

Galde bageneza eta saiatu naiz zuberotarrei irakurtzen, gehiena ezagutzen dute, baina hitz ez ezagunak, badituzte, zeren beharbada herri bakoitzean % 10 hitz izango da auzo herrian gutxi edo batere erabiltzen ez direnak. Konturatu naiz etnografia lanetan, Basaburuko hitz ainitz ez direla Pettiarrean ulergarri: aihotz, lozer, txingola, ihurtziri, iñhazi, probeniste, kihilla ta abar eta berdin Basaburuan ez dakigula zer den: bedoia, lozebia, zindrea, txilimista, seheilla eta abar.

Azkenean, Zuberoeraren erauzkatze lan hortan, gerla aurreko idazle batzu Casenave bezain urrun joan direla Fabien Hastoy atarraztar idazlearen eskuidazkia ikusi berri dut eta Lafontaine-n alegiak itzultzeko bere hiztegia Intxauspe ta Maisterren hitzez aberastu zuela.

Giza sexuari ta seksu biziari buruzko hiztegi zehatz eta aberatseena dugu Iparraldean ezen orain arte gaia gure hiztegietatik baztertua baitzen (ik. Lhande, Epherre, Haize Garbia).

Beraz hiztegi hortan ez da hainbeste hitz berri eta aurkitzen direnak noizbait XIX-XX. mendeko zuberotar idazleek erabili dituzte edota, gaur euskalki hortan zuberoraz idazten duten, J. L. Davant, Arlande Agergarai, Mitxel Bedaxagar, Joanes Casenave eta Txomin Peillen-ek Halere han hor hitz berriak —erabiliak

izan badira ere— ez dira itzulpen egokia adibidez “leheneko jakintza” guretzat “la science de l’Antiquité” da ez l’archéologie; hor itxaron genezake euskara hobetuan “lehenaren” ez “leheneko” jakintza eta ondotik arkeologia hitza ipini behar liteke. Hala dagite Alemanek, beren jatorrizko hitza, erabilera arruntarentzat hartuz eta greko-latinerazkoa jakintsunentzat.

Urrats haundia da, ordea, hiztegi hori eta badakit liburu hortan hartu-idatz-bideak Joanes Casenave-k erakutsirik, Zuberoan idazle gehienok haren ikasleak garela, zuberoeraz idatzi behar dugunean.

**EUSKALERRIAREN YAKINTZA LAU
LIBURUKIEN BERRARGITARAPENAREN
AURKEZPENA**

Bilbo, 1989-XI-24

EUSKALERIAREN YAKINTZA

3. ARGITARAPENAREN AURKEZPENEA

Bilbo, 1989-XI-24

*Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua*

Hirugarren aldiz argitaratzen da Resurrección Maria de Azkue-ren *Euskalerriaren jakintza* lau liburukitan.

I. *Oitura eta sineskeriak* (Costumbres y supersticiones).

II. *Ipuin eta irakurgaiak* (Cuentos y leyendas).

III. *Atsotizak, esakerak, Haurrenhizkuntza, ago korapiloak, goitizenak, Igarkizunak* (Proverbios, modismos, lenguaje infantil, trabalenguas, sobrenombres, acertijos).

IV. *Herri otoitzak, Herri olerkiak, Ostagikindea, Herriaren sendakuntza, Haurren jolasak* (Oraciones populares, Poesías populares, meteorología, Medicina popular, Juegos de niños).

Bigarren edizioa agortua izanez beharrezkoa zen hirugarren baten agertaraztea. Alabainan bizi oso baten lana eta azterketa dauzkagu lau liburuki hauetan. Hiztegilari bikaina, gramatikolari haundia, musikolari ezagutua, idazle ona, obra honekin etnologo bipila agertzen zaigu Resurrección Maria de Azkue. On da gure ikasleek eta berdin ikertzaileek ukan dezaten eskuetan holako obra bat, garrantzi haundikoa baita oraiko belaunaldiek ikas dezaten eta gogoan atxik dezaten zer zen iragana, zer zen egiazki Azkuek berak deitu duen Euskal Herriaren jakintza.

Euskaltzaindia eta Espasa Calpe argitaletxeak kaleratzen dute hirugarren edizio hau. Eskerrak zor dizkiogu Espasa Calpe argitaletxeari. Denbora berean Euskaltzaindiak betetzen du bere eginbidea bere lehen euskaltzainburuaren oroitzapenetan argitaratuz liburu mardul hauek, orotaratzat 1900 bat orrialde dauzkate. Bilduma zoragarria emeki emeki irakur daitekena, beti eskupean egoitekoa.

Urte honen hastapenean Labayru ikastegiarekin agertzen zuen Euskaltzaindiak Azkueren *Latsibi* elaberria ez ezaguna. Urte honen bukaeran Espasa Calpe-rekin "Euskalerriaren jakintza". Idazlea eta aztertzailea ohoratu ditugu aurtan. Azkueren oroitzapenetan arizan gara, merezi zuen bezala.

Ez dezaket ahanztz argitaratze hau egina izan dela Bilbao Bizkaia Bankuaren laguntzari esker. Hortakotz eskaintzen dizkiet Banku horren zuzendarieri eta bereziki Francisco Pérez Garzón-i Euskaltzaindiaren eskerrik beroenak.

“EUSKALERIAREN YAKINTZA” BERRARGITARATUAREN AURKEZPENA

Bilbo, 1989-XII-24

Jose M. Satrustegi

Atsegin zait euskal kulturaren esparruan lehen mailako garrantzia duen bilduma baten aurkezpena egitea. Euskaltzaindiak eta Espasa-Calpe argitaletxe oso ezagunak Azkue zenaren *Euskaleriaren Yakintza* berargitaratu dute, Banco Bilbao-Vizcayaren laguntzarekin.

Nabarmena zen aspaldi oinarritzko altxorra ditugun lau liburuki hauen hutsu-nea liburu dendetan. Izan ere badira, urte oneko ardoaren antzera, igarotako denboraren begirada luzez beren balioa, emankortasuna eta garrantzia gehitzen, sendotzen eta nahitezpadoako klasikoak bihurtzen joaten diren lanak, eta horietakoa dugu Etnografian, gaur aurkezten dugun Euskalerriko jakintzaren bilduma aberatsa.

Etnografiari dagokio, noski, bere edukina bereziki, baina ez Etnografiari bakarrik. Hizkuntzalariak ere badu bertan ikasgai baliotsurik, iragan denbora bateko lekukoa denezkero. Berdin esan nezake gizarte ikerketak egiten dituztenentzat, eta euskaldun zaharren pentsabidea noizbait argitu nahiko duten beste profesional batzuentzat. Ezin baztertua bilakatu da herri-jakintza mailan Azkue-ren lekulotasuna.

Eta Bilbon ezik, non besterik egin zitekeen dagokion ospearekin honelako aurkezpen bat? Bizkaitar ospetsua dugu egilea, nahiz Euskalerrri osoko izen nagusien zerrendan denon ohoragarri etxe barneko muga guziak hautsiak dituen. Erribera kaleko egoitza txokotik zaindu zituen Euskaltzaindia sortu berriaren lehen urratsak zuhur eta xuhur, bera izan zelarik gero denbora zailetan erakunde kukutu harren buru eta buztan. Azkue zenari esker iraun du etendurarik gabe bere sorreratik Bilbon Euskaltzaindiak.

Hara non orain, izen propioz Banco Bilbao-Vizcayak hartzen duen berargitarapen honen babes, aldamenean sortutako kultura lanabes baliotsuaren ikurra inoren eskutan utzi gabe.

Zorionak eta esker on euskaldun guztion izenean.

Liburua

Egilearen aipamena beharrezkoa bazen ere, liburua bera da une honetan gogoan duguna. Horretarako bildu gara hemen. Ez dago ostiral gabeko asterik, ez

eta akats gabeko gizasemerik, esan genezake guk ere. Begien aurrean dagoen *Euskaleñaren Yakintza* bildumari egozten zaizkion akatsak aipatuz hasi nahi dut berargitarapenaren aurkezpena. Denok dakigunez, azken aldi honetan asko zabal-tzen ari da gure artean, Azkueren garbizaletasunaren irudia dela-eta, liburuak duen lekukotasunaren gutxiespen arriskugarria. Batzuren ustez, egilearen joerak fidagarritasuna mugatzen edo murrizten dio bildumari.

Jatortasunez jokatu nahi bada, gauzak euren giroan ikusi behar dira eta mugak egilearenak diren ala ezin bestekoak, ongi aztertu. Azkue bere garaiko gizona zen noski, eta hizkuntzaren inguruan hegosten ari zen lixiba garbizaleak izan zuen beregan eraginik. Ezin da ukatu, adibidez, hitzen orrazkera nabarmen-tzen dela herriaren ahotik jasotako esamesen idazkeran. Baina ze neurritan eta nolako burubidez egin ohi zituen aldaketak? hor dago arazoaren kakoa.

Erazegi epaitzeko joera dutenek ez badakite ere, susmoa argitzeko biderik badago kasu honetan. Gutxitan aipatzen diren frogak utzi zituen Azkuek bere kezkek azaltzeko orduan. Zetorkeen ekaitzari aurrea hartu nahian bezala egin zituen bere aitorten zentzuzkoak norabide ilunean argi printzak azalduz.

Jakingarria da berak xaloki dioen hau (I, 18. or.):

VI. Norbaitek noski bere bafuan esan lezake “yaun onek onenbeste yakin-gai oso-osorik artu otezition eñari? Eñiak esanikoa ezotedu bein edo bein alda-tu?” Irakurle yakinguratsu zeran ofi baietz badiotsut, ikaratuko zinake; ezetz esanezkero ¿sinetsiko otezenuke? Eta nik zuri zer erantzun? Bai ta ez. Nire yardespen au obeki uler dezazun, zoaz lan onen bigafen liburua, ipuin ta irakar-gai-pilo andira.

VI. *Alguien tal vez pudiera decir en sus adentros: “¿Tantos documentos habrá este señor adquirido del pueblo por entero? ¿No habrá alterado alguna vez que otra lo dicho por el pueblo?” Si a ti, curioso lector, te digo que sí, te asustarías; si te digo que no ¿lo creerías? ¿Y qué voy yo a responderte? Si y no. Vete al segundo tomo de esta obra, a la colección de cuentos y leyendas, para que entiendas mejor ésta mi respuesta.*

Eta zuzendu edo bideratu beharra den istilu korapilatsuan sartuak garenez, ikus dezagun astiro egileak berak dioena (I, 19. or):

“Lankide batzukin noizbait gertatu zait, beren burua goratzeañen edo, lagun-artean euskera garbiz esan oi zituen itzen orde, niri bat edo bat erderatuz ematea. Nik onelako aldietan lankide bakoitzaren lekuko itzak erderazkoen orde zarten izan ditut nire ziñibofoetan.

Onetxen antzeko gertaldi batzuetan izan ezik, bakoitzak esaten izan didana, nik nola entzun ala idatzi egiten izan dut. Au zerofen begiz ikusi al izateko, uréngo ofi artetik eun eredu bereala aterako nituke, luzégitzeko bildur ezpanintz.

Bakar bat erakutsi nai dizut. Amazazpigafen txatalekoa da, mamofa ta nafaz-tien artekoa, lehengo txatalkian diran yakingaiaetatik laugafena. Yakingai au Bena-pafoan ta Lapurdin euskera garbiz eman zidaten, Zuberon beriz iuf! iru erderaka-daz apaindua. *Aratsaldeko lipuak berri ona ekartzen du, goizekoak berri txaña* (BN, L.). Zuberon *arasti(r)iko aiñarbak esperantxa* (ona emen bat) *esperantxa* ekartzen du, *goizekoak xagriña* (bigafena), *egurdikoak pladzera* (irugafena). Zuberoko eus-

kalkian nonbait *esperantxa* ofen ordez Duvoisin *igurikimen* naiz Haranederen *igurikipen* erabilia dala baneki eta *xagrinaren* ordez beste euskalkietako *atsekabea*, ta *pladzera* esan-berafean *atsegina* oitua balitz, iru erdalitz zakar oriek erauzi egingo nituke. Efiak besterik ezpadarabil, ez.”

Alguna vez me ha sucedido con otros colaboradores que en vez de las palabras puras de que se valian entre sus compañeros, tal vez por darse importancia, me daban a mi alteradas en castellano o francés. En casos semejantes he solido yo sustituir en mis papeles por palabras populares las híbridas que me habían dado.

No siendo en casos por el estilo, lo que cada cual me decía escribía yo según oía. Para que puedas ver, lector, con tus propios ojos, podría yo sacar desde luego de las siguientes hojas cien ejemplos si no temiera alargarme demasiado.

Quiero mostrarte sólo uno. Es el del capítulo diecisiete, cuarto documento de la primera sección, de insectos y reptiles. Me lo dieron en vascuence puro en la Baja Navarra y Lapurdi, mas en Zuberoa ¡uf! provisto de tres barbarismos. “La araña de la tarde suele traer buena noticia, mala, la de la mañana (BN, L). En Zuberoa, “la araña de la tarde trae esperanza = esperantxa (ahí va uno): la de la mañana trae aflicción = xagrina (van dos); la del mediodía, placer = pladzera (tres)”. Si yo supiera que por esperantxa se dice en alguna parte de Zuberoa igurikimen de Duvoisin o igurikipen de Haraneder, y que en vez de xagrina y pladzera se usan atsekabea y atsegina de otros dialectos, arrancaría esos tres extraños torpes vocablos. No, si el pueblo no se vale de otros.

Hitz hauek irakurrita ez da erraz ulertzen nondik atera duen jendeak Azkue garbizale amorratuaren kontu hori. Ez zuen itsu-mutuan herriaren esanik aldatzen, eta alderantziz, herrikoia agertzen da benetan edo herrizalea behintzat, herri hizkuntza baitzuen entzundakoen baliagarritasuna neurtzeko izari eta eredu, herriak erabiltzen ez zuena baztertuz. Gaiak aukeratzeko orduan ez zituen idalze eta izen ospetsuen emaitzak bere bildumarako ontzat ematen. Adibide batzu emango ditugu (III, 15. or):

“*Euskalerraren Alde* deritzaion aldirokoan, I, 459..., Jose Manterolak idatzita-ko atsoitiz asko ageri dira. Geien geienak beintzat erderatikoak diralako, eztugu bakar bat ere aintzat artu. Gure efiarenak zeintzuk diran yakinezkerok, bai. Bayona-aldeko euskalkietan Beltran de Salguis, Inchauspe, Duvoisin, Darthayet, Bela, Elizanburu eta Landefetxe.”

En la revista Euskalerraren Alde, tomo I, página 459, aparecen muchos proverbios escritos por José Manterola. Como la inmensa mayoría de ellos están tomados del castellano, ni uno sólo hemos aceptado. Otra cosa sería si supiéramos cuáles son de nuestro pueblo. En los dialectos vascos de hacia Bayona, Beltrán de Salguis, Inchauspe, Duvoisin, Darthayet, Bela, Elizanburu y Landerretche.

Hizkuntza arrotzetatik hartutako hitzek kezka bera sortzen zioten (I, 11. or):

II. “*Euskaleriaren Yakintza* izentzat ezarteak bi zio ditu: 1.º Ofetarako beste izena, *Folklore*, artua egotea. 2.º Erdalizen au baino ageri duen ori nire gogokoa-go izatea. Nire adiskide maite ta elizigizon entzutetsu Barandiaranek 1920-gafen urtean gure elizbafutiko apaizgai-artean lagundi bat sortu zuen onelakoxe gaiak batu ta biltzeko. Beste efialde batzuetan onetxen antzeko lagundi asko sortu ziran, baiian yaio ta berealatsu il ziran guziak:

Barandiaranek sortu zuen lagundia bizi da ta azpalditxo onetan *Eusko Folklore* izena duela or dabilkigu liburu ta ofi-mordo edefa argitaratzen.

Nik ene lan oni izentzat *Eusko Folklore* emateak kezka-antzeko zerbait sofazatzen zidan ene bañuan. ¿Beste izenik zein eman dezakeo?"

II. *El haber denominado la obra Euskalefiaren Yakintza obedece a dos causas: 1.ª A que la otra denominación, Folklore, estaba ya ocupada. 2.ª A que me satisface la antes citada denominación más que esta alienígena. Mi caro amigo, el benemérito sacerdote Barandiarán, fundó el año 1920, entre seminaristas de nuestra diócesis, una Sociedad cuyo objeto era reunir datos como éstos. Análogas Sociedades se fundaron en varias otras regiones y apenas nacidas murieron. Esta Sociedad, fundada por Barandiarán, vive y se ocupa hace ya varios años en dar a luz, con el nombre de Eusko-Folklore, buen número de hojas y libros.*

Sentía yo, por lo expuesto, una especie de escrúpulo para dar idéntico nombre, el de Eusko Folklore, a ésta mi labor. ¿Qué otra denominación puede dársele?

Atzerriko hizkuntzetan "Les litteratures populaires" erabili ohi zutela, ikasi zuen gero eta ez zitzaion gaizki iduritu irtenbidea. Baina ez zizkion zalantzak kendu asmatetak. "Bereala beste buruauste batek luzaro estutu ninduen, dio apalki. *Litterature* euskaraz nola adieraz dezakegu? Europako beste izkera geien geienek alkañen artean aide diranez, gure au ere beren aidea balitz, itz ori, berak egin dutena eginez, guretzat ar genezake" (I, 13. or).

Hitz arrotza besterik gabe hartzea ere ez zitzaion beraz gogoko eta hitzez-hitz ordainak bilatzen ibilili beharrean "ingurada baten bidez" gauza bere aditze-ara emateari ekin zion. "Ofetarako itz efaz auxe, Yakintza, begiz yo eta ar dezakegu. Gure Efiak dakizan gauzak (Efiarenak berarenak) adierazteko, esakera-rik egokiena *Euskalefiaren Yakintza* dala dirudi".





Okela mahairako prest zegoela iduri arren, sastrakan txakurrak jasotako ehiza besterik ez zen. Guretzat hain ezaguna eta jatorra den hitz hau berrizale kutsua-reen ikusten zuen Azkuek eta zalantzak aurrera jarraitzen zion. Hauek dira bere hitzak: "Lafamendik bere iztegian bi itz auek atera zituen erderazko *ciencia* adierazteko: *jaquinde* ta *jaquintza*. Ez bata ez bestea, efiarenak ezpaitira, enituen nirean sartu".

Azken erabakia hartzera bultzatu zuen arrazoa ez da euskararen arlokoa. Nik esango nuke, gure hizkuntzaren morrontza hitzena baino sakonagoa dela, ereduena alegia. Azkueren aitorpena oso argigarria da: "Baina ingelendafan *Folklore* Madridko izkelzaindiak egun auetako bere iztegi beñian aintzat artu duenez-kero, bego Lafamendiren itz beñi ori lan onen buru buruan" (I, 14. or.).

Herri hizkuntzari zion atxikimendua berrizale joera guzien gainetik zegoela esan behar da egiari begira. Muga horrek, hain zuzen, hesi estua ezartzen zion erdarakaden aldetik nahiz hitz asmatu berrien aurrean.

Eta Azkuek egindako lanen fidagarritasunez ari garenez, hauxe bait da aurkezpen honetan aztergai hartua nuen norabidea, hiztegi-gintzan ez ezik, fidagarria dugu bere denborako atzerritar ikerle hoberenen neurrian, berak jasotako langai gehienetan. Badaki, esate baterako, literatur sorketa egiterakoan askatasun osoa duela egileak oinarrizko kondakizun herrikoi bati nahi hainbat gehigarri bere

aldetik eransteke. Baina, gai hori bera jatorrizko itxuran eman nahi duelarik pertsonal janzkera guziaz buluzten du, hasierako egoerara itzuliz. Aitortzen du, nola bere sorterrian ikasitako kondakizun batez baliatuz, ikasleentzat bizkaierazko itzulgai bat adatzu zuen, 1890. urtean. “Araquistainen *Tradiciones vasco-cántabras*-en antzera, efiak emandako lagunengain nire irudimeneko beste lau edo bost lagun sartu nituen eta izentzat *Bein da betiko* ezarri nion liburuxko oni”. Bere lana bezala ematen du beraz, eta helburu berezi baterako prestatua. Berehala esango du, gero, non datorren izen bereko emaitza herrikoia, “baina nik lenago sortu ta sartutako lagunik bage” (I, 9. or.).



Argibide hauek ematen dituen gizona ez da fede txarrez lanean ari eta ez du beste inori ziria sartzeko asmorik. Bere garaiko jakintzaren eta usadioen arabera egin zuen lan eta hor daude askoren eredutzat aurkitu zituen eragozpenen agerpen gordinak. Jatortasunaren ezaugarriak dira.

Horrek ez du inola esan nahi itzalik ez duenik; baina non dira huts gabeko ekintza dizdirantak? Beraz utz dezagun euskaldunok geure etxeko teilatuari harrika ematez.

Langai hauek ehun urte eta gehiagoko lekukotasun jatorra berekin dute. Lehen liburukia argitaratzean zioenez, berrogeita hamar urte aurretik ari zen bilketa egiten eta, gehiago dena, berri emaileetan ez omen zegoen bere gizaldikorik, adinekoei hartzen bai zizkien berriak.

Esan behar da, duela urte batzu egon zela idazkera gaurkotuz argitaratzeko asmoren bat. Zorionez bazterturik gelditu da, edo asmo hutsean, berriketa hura, dagoen-dagoenean bere akats eta guzti gure herriaren historia bilakatzen hasia baita jadanik.

Eta bidenabar, aurtengo Eguberritako opari gogangarri.

PLATON EUSKARATUA, ZAITEGIREN ESKUTIK

Durango, 1989-XII-9

Juan San Martin

Hamar urte igaro dira Iokin Zitegi hil zenetik. Hilburukotzat altxor ederra utzi zion euskal kulturari: Historian lehen aldiz euskara hutsean argitaratu zen kultur aldizkariaren sortzaile eta hamar urtean eusle, orotariko gizonez eta lanez; bi olerki libururen egile; orotariko saio ugari eta klasikoen itzulpenak. Homero-ren gizuren haietako mailetara eramatekoa da gizon soil honek kontrako giro guziak gaintutuz burutu zuen lana. Besteak beste, hor daude klasikoetarik itzuli zituenak: Euripide, Sophokel eta Platon. Liburutegi eder bat ere bildu zuen eta orain Arrasateko kultura etxea zein Azkue Biblioteka hornitzen dute. Altxor horretan agertu zitzaigun Platon VI. liburuki argitara gabea; haren azken emaitza; guk ordea, argitaratzez bete beharreko zorra.

Seigarren liburuki hau argitaratzerakoan ohartu ginen hirugarrena ahorturik zela eta hori berargitaratzez eskaintzen diogu irakurleari Platonengandik itzuli guzia.

Gure artean ez dago esan beharrik zein maite zituen Zaitëgik Heladear klasikoak, bereziki Platon. Hura izan bait zen Jainko bakar baten ideia lehen aldikotz eman zuena.

Hain premiazko zaizkigun gogoetak haien irakaspenez jaso genituen, zeren gauza guzien azken zergatia jakitea bait zuten heladearrek filosofiaren oinarritzat.

Protagorak Eraklito eta atomistengandik jaso zuen gauzak geldiuenerik gabe dabiltzan ideia. Geure zentzuek mugiarazten duten fenomenuak bakarrik ezagutu ditzakegunez. Gu garen adina egia daude. Horregatik, gizona da zera guzien neurria; Jainkoei buruz ordea, honako uste hau agertu zuen Protagorak: “ez dakit badirenik, ez ere nolako itxura eduki dezaketenik. Hori jakiteko oztopo asko daude egon: batipat, bizitzaren laburra eta gaiaren iluna”.

Hipiak zioenez, ordea, guziok gaituzu berdinak, maila berekoak gizatasunez; baita giza arazoetan ere. Eta, hezkuntza da gizonak eduki dezakeen gauzarik baliotsuena. Dialektika egoki landu ziguten eta, nonbait, Zaitegi zenak hori zuen atsegin.

Sofistak, gainera, irakasle bikainak genituen, jakintzaren eta onohimenaren maisu, erretorikaren bidez gazteak hezi eta nortasunez horniturik gizarte arazoe-tarako prestakuntzan.

Heladear haiek ezer irakatsi baziguten, pentsamenekiko gogoetak zera guzien ikerkuntza bideak analitikoki begiratzean datza, eta mendeak igaro ondorean ere beren ikuspegiak nola jorratzen zituzten jakiteak laguntzen gaitu argitasuna lortze bideetan: “Ezagun ezazu zeure burua eta zaitetz zuhur” (Kritia). Sokratek elkarriketen bidez, bere kideko zituen pentsatzaileekin, gai bakoitzari, gogoeta bidez, helburua aurkitzeko ahaleginak egin zituen, edo, gutienez, irtenbidea idorotzeko. Bere ikasle Platon izan zen elkarriketok idatziz bildu zituen. Horri esker ezagutzen ditugu gizakien artean lehen aldiz noraino iritsi ziren pentsakizunen ahalmenak. Guzi horren muina, berebiziko onduen agertu zigan itzultzaileak 1962an sarrera gisa eskaini zigan saio bikain hartan, *Platon'eneko atarian* deritzanean.

Itzultzaileaz zer esan? Euskaldungotik begiratzuz, agian, arestian esan bezala, Homero beraren gizuren haietako bat dirudi. Bere nortasuna aski ongi erakutsi zigan Josemari Velez de Mendizabalek argitaratu zuen biografia hartan: *Iokin Zaitegi* (1981). Neri ez dagokit liburu hark baino argibide gehiago ematerik. Hala ere, Josemariren eskariz hitzaurre gisa egin nion “Oroitaro” hartan jarri nituen hitz batzu jasoko ditut, zilegi zaidanez, gizonaren nortasun lekuko: Gogotsua ezezik, kasik gogo hutsa zen Iokin Zaitegiren izakera. Lanari gogor heldu zion. Langiletasunez lortu zituen “amerikak”; baina indianoaren txanpon bilketa baino aisago lortu zuen eralgiketa. Bere herriaren kultur alorretan bazen non eralgi. Nekez lortua, gogoz eman. Minik izatekotan, herri baten iraunarazi nahiak eman ten zion larri-mina izan zitekeen.

Itzulpenaren arrazoi bidetzat Zaitegi beraren hitzak ekarriko ditugu: “Oraingoa ote da Platon? Zaarregia ez aal zaigu gertatzen? Gaingiroki, ta axaletik azter badezazu, eztiokazu oraingotasunik aurkituko nonbait. Platon sokanago azter badezazu, berriz, besterik ikus dezakezu bear bada. Aspaldidanikoa izan arren, oraingo ta betiko izango duzu, gizon den gizona gizonagotzen baitu Platon-ek”.

Bere itzulpen lanerako ez zuen nahi izan Patrizio Azkaratek gaztelaratzeko hartu zuen jokabidea, frantsesera egina zen itzulpena soilik ez baina eredu harturik baliatu, ez; Zaitegiren ustez, Platon euskeratzeko lehenik heladera eta euskara ondo jakin behar dira. Ondorean, beste itzulpen batzuren esperientziaz laguntzeko Frantziako Guillaume Budé elkartearen arauak begiratu, baita beste zenbait hizkuntzataraz egin diren itzulpenak begiratu ere. Bere aburuz, ahalik zehatzen emateko, beharrezko izan zitzaizkion liburua aipatzen ditu *Platon'eneko atarian* deritzan saioaren 297-299. orrialdeetan.



Hizkuntza du gizonak ideien adierazle. Hori ondo zekiten heladearrekin eta egundoko tresnatzat garatu zuten beren hizkuntza filosofiaren pentsabide sakontasunetan erabili ahal izateko.

Itzulpenak, ordea, hor du bere zailtasuna, hizkuntza batean garatutako ideiak beste hizkuntza batean ematean. Hor neurtzen da Zaitegi zenaren lana. Zuzen zuzen baliatu zen heladeratik, Europaren mendebaldeko beste hizkuntzetara itzuliak lagungarri baizik eta zituen erabili, ideia eta esaldi korapilotsuak besteek heladeratik nola jaso eta beren hizkuntzan nola adierazi zituzten ikusiz. Esan nahiaren muina eta adierazteko estiloa orekatu behar zuen; eta bien artean, ideien fideltasunari ukorik egin gabe jarritu zuen lerrorik lerro, euskararen ahuleziak gaitiduz.

Egilearen hilburuko, VI. liburuki hau ber-berak utzi zuen bezala laga dugu. Ezpairik gabe eginen zituen inprimaketara orduko aldaketak eta zuzenketak, baina guri ez zaigu zilegi.

Gainera, nere arartekotza betetzeko lematzat hartua dut Atiko aldiko Protagoraren esaldi ospetsua: "Gizona da gauza guzien neurria". Ondo zioen bezala, "direnena, badirenez gero, eta ez direnena, ez direnez gero".

Izan ere, edozein ideia, berria den ala lehendik datorkigun jakitearen kezka sortzen zaidan bakoitzean, nerekiko diot, begira ditzadan antzinako heladearrak. Haien esperientziak jakingarri dira, bai jakintza gaietan, bai literaturan, Arteak, erakundeak eta baita Herodotoren historia koroniketan, Pitagora matematiketan bezala. Humanista diren orok jakin beharrezko zerak dituzu.



Protagoraren esaldiak mezutzat emana da: Gizonari ezina zaionez bere ikus-
pegi eta ulermenetik haruntzago joaterik. Hor oinarriturik, beude legeak ere
gizonarentzat eta ez gizona legeentzat.

Honenbestez, bukatu beharrez, zeren bestela eten gabe ari eta ari ihardungo
ginateke gai hauetaz, horregatik, hobe dut, Jokin Zaitegi zenak *Platon'eneko*
atarian saioari hasiera emateko hartu zuen Faidonen esaldi hura oroitu: "Hontaz
ez dut gauza berririk esaten... berriz eta berriz esandakoetara etorritz noa berriro".

Oharra: Hara hemen Platonen lanetarik Zaitegik itzuliak:

— *Platon'eneko atarian* (Sarrera gisa egindako saioa).

— *Platon I.* Oturuntza, Protagora, Menon.

— *Platon II.* Gorgia.

— *Platon III.* Eutifron eta Sokrate-eren Apologia.

— *Platon IV.* Kriton eta Faidon.

— *Platon V.* Ipia txikia eta Alkibiada.

— *Platon VI.* Karmida, Ipia nagusia; Laka eta Lisi.

Argitaratu gabe gelditu direnak VI. liburukiaren hitzaurrean aipatzen dira,
ikus XII. orrialdean.

1990.URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN EGUTEGIA

Iruñean, 1989-XII-29an onartua

Jose Luis Lizundia, Idazkari-Ordea

Urtero legez Euskaltzaindiaren batzar egutegiaren prestaketan aritu naiz, aurrepausu bezala, aurreriaz bibliografia zenbait aztertu ditudalarik, hala nola: EUSKERA agerkaria, Luis Villasante eta Santi Onaindiaren euskal literatura historiak, Jon Bilbaoren Eusko Bibliografia eta beste. J. San Martinen laguntza ere izan dut kasu baten eta Onomastika batzordekideena ere bai, Lizarrako Jardunaldiak buruz. Zirriborroa prestatu ondoren, Zuzendaritzakoei aurkeztu nien joan den 15ean, Arrasaten egindako bilkuran. Bertan jasotako ohar eta zuzenketekin, hara hor, aurkeztu dizuedan egutegi hau, zuen erizpideak kontutan izanik, erabat finatzeko asmoz:

1990. urtean mendeurren hauek ditugu, hots, kronologikoki aipatuz:

– 1790.eko Urtarrilaren 18an jaio zen Pedro Novia de Salcedo, Bizkaiko Diputatu Nagusia hainbat aldiz izana. Liburu interesgarrien egilea, besteak beste, *Defensa histórica Legislativa y económica del Señorío de Vizcaya y provincias de Alava y Guipúzcoa*. Euskaltzale bezala, *Diccionario etimológico del idioma bascongado* idatzi zuen, oraintsu, berriz argitaratu dena. Eranskin bezala, Aristides de Artiñanoren hitzaurre zati bat eta A. Santi Onaindiaren lanetatik hartutako dagozkion orriak jarri ditut. Azkenengoenean, Jose Paulo Ullibarrik Novia de Salcedori egindako bertsoak ere ikusten dira.

– 1890.eko Martxoaren 18an jaio zen Arratia ibarreko Zeanurin, Gabriel Manterola Urigoitia apaiza. Euskaltzaindiko sorreratik urgazle eta 1968an, hemen, Iruñean, euskaltzain ohorezkoa izendatua. Urte askotan, 1914tik 37ra, Eibarren abade egondakoa. Ikus **euskera** 1979-1, 414-418 orr., J. San Martin euskaltzainak egindako txostena bere bizitza eta lenei buruz.

– 1990an betetzen dira 100 urte Klaudio Otaegi Hondarribian hil zela, Zegaman jaioa, Gasteizen ikasketak egina eta Hondarribian maisu izana eta hiri berean hila. Bonaparte printzearen laguntzaile eta Abbadiak antolaturiko Euskal Jaien irabazlea, bi aldiz. Ekaineko bilkura, Hondarribian egingo balitz, bertan egin daitezke Euskaltzaindiaren hurrengo urteko programagintza finkatzeko Jardunaldiak.

– 1690.eko Abenduaren 25ean jaio zen Andoainen, Manuel Larramendi. Ez dut hemen bere aurkezpenik egin behar. Mendeurren honi buruz, pare bat aldiz, Andoingo Udalarekin harremanak izan ditugu eta aspaldian, hain zuzen Campionen mendeurrenean, ohar bat idatzi zidan Patxi Altunak mendeurren hori oroit araziz. Urte honetan, Gasteizen, Ekainean egindako bilkuran aipatu bezala,

bai gramatika aldetik eta bai lexikologia aldetik, Jardunaldi batzuk prestatu beharra aipatu dugu. Azkenik, joan den hileko batzar egunean, Andoaingo Alkatearen gutuna iritsi zitzaigun, proposatuz heldu den urteko Abenduan Euskaltzaindiak, pare bat Jardunaldiakin, mendeurren horretan parte hartzea.

– Datorren urtean betetzen dira 900 urte Lizarra herrixkak, hiri bezala, Forua lortu zuela. Hori dela eta, zenbait harreman izan ditugu bertako Udalarekin eta heldu den urteko Irailean, Onomastikari buruzko III. Jardunaldiak egiteko asmoa aipatu dugu. Baita ere, Lizarrerriko euskararen lekukotasunari buruz erakusketa eta hitzaldiak egitea.

Beraz, bi mailatako ospakizunak jarriko nituzke datorren urterako. Batetik, lehen mailakoa, Larramendi eta Lizarra hiriaren 900 urtemuga horiek, Gramatika, Lexikologia eta Onomastikako Jardunaldiak egiteko eta bestetik, apalagoak, Novia de Salcedo, Manterola eta Otaegiri buruzkoak. Kontutan izanik batzarrak, birik bat bederen, Donostian egiten ditugula, Barne Erregeletan aipatu bezala eta Bilbon ere bat edo bi egitea arautzen dituztela, egutegia prestatzeko puntu hauek behintzat kontutan izan beharko genituzke. Irailean, Lizarran, Nafarroan egitea Jardunaldi horiekin batera, hileroko batzarrak eta Abenduan, Andoainen. Novia de Salcedo eta Gabriel Manterolaren ospakizunak, bien erdian, ez Urtarrilean ez Martxoan, Bilbon ospa daitezke Otsaileko hileroko batzarrarekin batera. Otaegirena, agian, Hondarribian edo Donostian bertan. Araban ez dugu dakigularik, heldu den urtean, mendeurrenik. Iparraldean ere ez dugu heldu den urtean mendeurrenik, baina bai hurrengokoan, 91n, Bonaparte printzearena Londresan, Bilboko, egoitza berriko bibliotekan eta Hendaian ospa daitekeena.

Guzti honegatik beraz, 1990erako egutegi proposamena dakartzuet. Hara hor:

– Urtarrilaren 26an, azken ostiralean, hileroko euskaltzainen bilkura eta batzarrea, Donostian.

– Otsailaren 23an, hileroko bilkura eta batzarrea, Novia de Salcedo eta Manterolaren mendeurrenak goraipatuz, Bilbon.

– Martxoaren 30ean, hileroko bilkura eta batzarrea, Donostian.

– Apirilaren 27an, hileroko bilkura eta batzarrea, agian Gasteizen.

– Maiatzaren 25ean, hileroko bilkura eta batzarrea, Donostian.

– Ekainaren 29an, hileroko bilkura eta batzarrea, Hondarribian.

– Uztailaren 27an, hileroko bilkura eta batzarrea, Donostian.

– Irailaren 27, 28 eta 29an, III. Onomastika Jardunaldiak, hileroko bilkura eta Lizarrerriko euskarari buruzko lekukotasunen ospakizun batzarrea, Lizarran.

– Urriaren 26an, hileroko bilkura eta batzarrea, Donostian.

– Azaroaren 30ean, hileroko bilkura eta batzarrea, Bilbon.


– Abenduaren 14 eta 15ean, Gramatika Jardunaldiak eta 21, 22 eta 23an, Lexikologi Jardunaldiak, hileroko bilkura eta Manuel Larramendiren omenez, ospakizuneko batzar irekiak, Andoainen.

FEDERIKO KRUTWIG “HOMERO 1989” SARIAREN IRABAZLE GREZIAN

Bilbo, 1989-XI-2

Alfonso Irigoien

Federiko Krutwig Grezian Homero 1989 sariaz hornitu dute, zein Homero elkarteak urteoro emaiten baitio kultura grekoaren alde eginiko aportazio eta merituakatik nabarmendu den pertsona bati.



Grezia-ko Kultura Ministerioak gomitaturik Athenetan izan dira hamabi egunez Federiko Krutwig eta Juan Jose Pujana, bata eta bestea Bilboko Jakintza Baitha (ΚΑΛΙΑ ΤΗΣ ΓΝΩΣΕΩΣ)-ko buruzagi eta kide, lehenengoa, gainera, Η ΕΠΙΣΤΗΜΟΝΙΚΗ ΕΤΑΙΡΕΙΑ ΠΑΡΑΔΟΣΙΑΚΩΝ ΣΠΟΥΔΩΝ - Kultura eta Tradizio Grekoen Ikasketarako Elkartea Epistemonikokoa, eta bigarrena Euskal Parlamentuko Presidente ohia, eta orain Senatore, eta haiekin batera Antonio Artiñano. Kultura Ministro grekoak hartu zituen, zeini Krutwig jaunak Jakintza Baitha-ren xedeak eta helburuak adierazi baitzizkion. Denbora berean zenbait deputatu eta ekonomiako pertsona grekori bisita egin ahal izan zitzaion, eta etorkizuneko zenbait proiektuz berba egin zen, bai kulturari eta bai politikari dagozkienak. Athenetan sortu berri den Heleno-Euskal Elkartea errebista elebidun bat, grekoz eta euskaraz, argitaratzeko asmoa du, zeinetan herri bietako kulturazko gaiak erabiliko baitira.

BILBAO TOPONYMOAZ ERITZI EMAITEA

Bilbao, 1989-garreneko urriaren 5-ean

*Alfonso Irigoien
Euskaltzaina*

Euskaltzaindiari eritzia eskatu zaio eta zuzena den *Bilbao* toponymoaren forma erabiltzea, hala ipintzea nahi bailukete, eta eskariaren egilea Bilbo Aurrezki Kutxa da, Pedro Hormaetxea Oar, Irudi eta Komunikaziorako Zuzendariak sinaturik. Honela dio: “Dakizuenetz, Bilbaoko Udal Aurrezki-Kutxa eta Bizkaikoa, bat egiteko prozesu baten barruan gaude. Horretarako, eman diren lehen pausoetariko bat, sortuko den Kutxaren legezko izenaren finkatzea izan da, Bat Egite Batzordeak azkeanean onartu duena hauxe izanik: Bilbao Bizkaia Kutxa. Hau dela eta, atsegin osoz zuzentzen gatzaizkizue, euskararen erakunde goren moduan, Bilbao izenari buruzko zuen erizpen edo jarrera eskatzeko, zuzena iruditzen zaizuen ala oztoporik ikusten diozuen horrela erabiltzeari”.

Onomastikako Batzordeak Iruñean joan den irailaren 25-ean eginiko batzarrean tratatu zuen eskabide hau, eta eritzi emaite bat egin nezan eskatu zitzaidan bertan. Hona hemen:

1. *Bilbao* da historiaren aldetik euskal formarik zaharrena eta erdaraz erabiltzerakoan oso osorik gorde dena, normalki euskaraz berba egiten denean, bereziki Bizkaian, *Bilbo* formara laburturik arrunt erabiltzen bada ere. Berdintsu gertatzen da Bizkai inguruko hizkeretan *ardao* hitzarekin, hainbatek *ardo* laburturik erabiltzen baitu -ao diphthongoaren monothongazioa dela kausa. Baina Bizkaian erabiltzen den *ardao* forma osoagoa da euskaraz, eta ene ustez hobetsi beharrekoa. Ene ikerketen arauera, gainera, *Bilbao* eta *Askao* toponymoeak bikote bat osatzen dute, itxura guztien arauera elkarren parean eta oposizioan sortu baitziren, biek -ao dutela bigarren elementutzat, errekaaren ahoa alegia, *Lasao* < **lats* + *ao*, *Ibatao* < **ibat*- *ao*, *Iturrao* < **iturrfi*] + *ao*, eta abar, formetan gertatzen den bezala bezalaxe. Eta halakoetan gure artean forma zaharriari eusten zaio, eta beti emaiten da *Askao*, *Lasao*, eta abar, eta ez **Asko*, **Laso*, eta abar, administrazioko dokumentazioan hala iraun baitute gure denborararte, *Bilbao* formarekin gertatu den modu berberean.

2. Nafarroako euskal leku-izenen zerrenda, bai udalena eta bai auzoen, egin berri du Euskaltzaindiak bertako Gobernuaren eskabidez, euskaraz mintzatzerakoan toponymoak nola erabili finkatzen dela. Eta zenbait kasutan lehen emaniko forma laburtuak gaitzetsi gabe osoagoak hobestera jo da, nik neurorrek hala bultzatu bainuen, zeren memoria kulturala hobeto zaindu behar dugula uste baitut, eta maiz administrazioko dokumentazioaren eraginez forma zaharragoak eta euskaldunentzat garden direnak gorde baitira. Horretara *Olatzagutia* hobetsi da *Olazti*-ren lekuan, *Olatza tipia* erran nahi baitu, berdin *Otsagabia*, osorik, *Otsagi* laburtua forma arrunt moduan gaitzetsi gabe, eta abar.

3. Arrazoi berberagatik uste dut *Bilbao* forma hobetsi behar dela, eta *Bilbo* laburtua berbeta arrunterako utzi, batez ere deklinatu behar denean.

Eta hala jakinerazten dut behar den tokian jakin dadin.

HILBERRIAK

JUAN GARMENDIA KORTADI

(1898-1989)

Idazle eta Euskaltzaindiko urgazle hau, “Zeleta” izenordeaz ezagunagoa genuena, iragan uztailaren 6an hil zen Logroñon. Sortzez Gipuzkoako Lasartekoa eta urte askoan Plaentzia / Soraluze eta Donostian bizia.

Haren idazkietan, gerraurretik, Zeletaz gainera beste honako izenordeok ere erabili zituen, Jeltzale eta Berrixki.



Gerraondoan, Begoña izeneko liburudenda jarri zuen Donostian eta euskararekin kezkatuak zebiltzan gazte guti haiei, ni neu ere haien arteko nintzela, liburu zahar eta berri aurkitzen egin zuen ahalegin eta lana benetan pizgarria izan zen urte ilun haietan. Hizlari bezala ere maiz agertu zitzaigun euskaltzaleen bileretan, baina bai hitzaldietan zein idazkietan bere burua aski gizaixo eran agertzen bazuen ere, uka ezinezkoa zaigu lan garrantzitsua bete zuela urte haietan, eta 1965ean urgazle izendatua izan.

Aditza dugunez, 1914. urtean hasi zen euskaraz idazten *Argia*, *Euzkadi*, *El Dia* eta beste zenbait aldizkaritan. Gerraondoan, *Euzko-gogoa*, *Zeruko Argia*, *Egan*, *Karmel*, *Olerri*, *Aránzazu* eta abarretan jarraitu zuen.

Gainera, honako antzerkion egilea dugu: *Itxutasun madarikatua* (1921), *Joxanton'en eriotza* (1922) eta *Patxi Kirten* (1925); entretenigarri idatzi zituen lan ximpleak dira. Gerraondoan saiaera liburuxka bat idatzi zuen gaztetxoei gure literaturaren berri emateko asmoz, *Euskararen iraupena eta Euskal-literaturaren aurrerapena* zeritzona, Donostia, 1955, eta bere sorterriko monografia bat, historiarako baliagarria, *Lasarte-Aurtzaroko oroipenak*, 1958an. Semeari lagundu zion itsas-hiztegigintzan.

Azken urteotan Logroño bizi zen alabaren familiarekin, baina beti hemen-go berriei begira. Goian bego euskaltzale zintzoa.

J.S.M.

